




Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPEN TXOSTENA



2018ko ekaina



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA

AURKIBIDEA:

1. PLAN ESTRATEGIKOA. LABURPEN OROKORRA
2. 1.ARDATZA: ARABAKO SUSPERTZE EKONOMIKOA
3. 2.ARDATZA: LOGISTIKA GARATZEA LEHIAKORTASUNAREN ERAGILE GISA
4. 3.ARDATZA: LIDERGOA GIZARTE ZERBITZUEN HORNIDURAN
5. 4.ARDATZA: FORU ADMINISTRAZIO ETA OGASUN AURRERATUAK
6. 5.ARDATZA: LEHEN SEKTORE PROFESIONAL, BERRITZAILE ETA IRAUNKORRA
7. 6.ARDATZA: KULTURA, KIROLA, EUSKARA ETA GAZTERIA
8. 7.ARDATZA: AURRERA EGITEA LURRALDE OREKARANTZ
9. 8.ARDATZA: IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA
10. 9.ARDATZA: BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA
11. 10.ARDATZA: GOBERNANTZA, BERDINTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA

1. PLAN ESTRATEGIKOA – LABURPEN OROKORRA:

DESKRIBAPENA:

Arabako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa gobernu ekintzaren adierazpen egituratua da, egungo legegintzaldiak barne hartzen duen denbora horizontean abian jarri nahi dena.


Agiri estrategikotzat jo da eta Aldundiari aukera ematen dio gain hartzen dituen eskumenen esparruaren barruan jardueren programa koherente eta ordenatua ezartzeko. Jarduera horiek aurretik egindako hausnarketa prozesu baten barruan identifikatu dira eta ezarritako gobernuaren hiru lehentasunen inguruan ardaztu dira: susperraldi ekonomikoa, gizarte zerbitzuen garapena eta zerbitzu publikoak eta lurralde oreka.

Agiri honetan 2015-2019ko legegintzaldiko gobernuaren plan estrategikoan jasotako jarduketek exekuzio egoera azaltzen da, betiere 1/2017 Foru Arauak, Gardentasunari, Herritarren Partaidetzari eta Gobernu Egokiari buruzkoak, ezarritakoa betez.


JARDUKETEN LABURPENA:

	2018KO EKAINA	%	2015EKO UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	407		387	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	1	%0	281	%73
HASIERA AURREIKUSIA	406	%100	106	%27
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	23	%6	11	%10
GAUZATZEN (*)	300	%74	95	%77
AMAITUA	83	%20	0	%0

(*) Gauzatzen ari diren jarduketek kopurua, aurreikusitako jarduketei dagokienez.



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA



GAUZAPEN OROKORRARI BURUZKO TXOSTENA:

Legegintzaldia hasi zenetik jarraipenaren xedea den epealdira arte (2018ko ekaina arte) Gobernuaren 2015-2019ko Plan Estrategikoa birprogramatu da, bi lerro estrategiko berri gehituz eta hasieran aurreikusitako 387 jarduketei beste 20 erantsi zaizkie; gauzak horrela, gaur egun 201 lerro estrategiko eta 407 jarduketa daude indarrean. Horietariko batzuk sortu dira hasieran programatutako jarduketaren bat desglosatu delako.

Ikus daiteke 2018ko ekainean Gobernuaren 2015-2019ko Plan Estrategikoaren gauzapen maila honakoa dela: txostenaren dataren aurretik hastekoak ziren jarduketan %94 betetzen ari dira. Kopuru horretatik, %20 amaitutako jarduketak dira; gainerakoak abian daude.

Azkenik, txosten honen aurretik hastekoak ziren, baina hasi ez diren, jarduketan zenbatekoa %6koa besterik ez da.

GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA, ARDATZAK ETA HELBURUAK AINTZAT HARTUZ:

Honakoa da exekuzio kopurua, betiere une honetan gauzatzen ari diren eta amaitu diren ARDATZAK eta HELBURU ESTRATEGIKOAK kontuan hartuz:

1.ARDATZA. ARABAKO SUSPERTZE EKONOMIKOA: %90

- 1.1. ERAKUNDEEN LANKIDETZA, INDUSTRIA SUSTATZEKO ORDUAN: %100
- 1.2. ARABAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA: %100
- 1.3. INDUSTRIA INBERTSIO BERRIAK: %100
- 1.4. KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEA: %40
- 1.5. PRESTAKUNTZA SUSTATZEA: %75
- 1.6. PROFESIONAL AUTONOMOAK BABESTEA: %100
- 1.7. ARABAKO SEKTORE TURISTIKOA BERRABIARAZTEA: %100
- 1.8. MERKATARITZA BERRAKTIBATZEA: %100
- 1.9. ARTISAUTZA SUSTATZEA: %67



2.ARDATZA: LOGISTIKA GARATZEA LEHIAKORTASUNAREN ERAGILE GISA: %100

- 2.1. GASTEIZKO ETA ARABAKO NODO LOGISTIKOA GARATZEA, IBERIAR PENINTSULAREN ETA KONTINENTEAREN ARTEKO ERROTULA GISA: %100
- 2.2. VITORIA-GASTEIZKO AIREPORTUA GARATZEA: %100
- 2.3. JUNDIZEN SALGAIEN TERMINAL INTERMODALA EZARTZEA: %100
- 2.4. ARASUR-JUNDIZ-FORONDA ARDATZA SUSTATZEA: %100

3.ARDATZA: LIDERGOA GIZARTE ZERBITZUEN HORNIDURAN: %96

- 3.1. HIRUGARREN SEKTOREKO ELKARTEEKIN LANKIDETZAN ARITZEA: %100
- 3.2. MENDEITASUNAREN LEGEA GARATZEA: %100
- 3.3. ADINEKOEN BIZI KALITATE AUTONOMOA ETA INDEPENDENTEA: %100
- 3.4. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ) INDARTZEA: %100
- 3.5. ADINEKOEN EGOITZAK HOBETZEA: %100
- 3.6. EGUNEKO ZENTROAK SUSTATZEA: %100
- 3.7. LURRALDE BARRUKO OREKA GIZARTE ONGIZATEAN: %100
- 3.8. GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO BORROKA: %100
- 3.9. HOBEKUNTZA PLANA ADIN TXIKIKOEN ETA FAMILIEN ARLOAN: %100
- 3.10. GOFE-KO LANGILEEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA: %71
- 3.11. IRAUNKORTASUNA ETA KALITATEA, GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO ORDUAN: %100
- 3.12. ARABAN GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK BULTZATZEA: %100
- 3.13. PERTSONA EZINDUENTZAKO ENPLEGUA: %100

4.ARDATZA. FORU ADMINISTRAZIO ETA OGASUN AURRERATUAK: %98

- 4.1. ZERGA ARAUDI BERRIA GARATZEA: %100
- 4.2. ZERGA BETEBEHARRAK BETETZEKO ERRAZTASUNAK JARTZEA: %100



- 4.3. ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA AREAGOTZEA: %100
- 4.4. EKARPENEN LEGE BERRIA: %100
- 4.5. URTEKO AURREKONTUAK: %100
- 4.6. EKONOMIAREN ETA FINANTZAREN KUDEAKETA: %100
- 4.7. FORU ADMINISTRAZIOA MODERNIZATZEA: %100
- 4.8. ADMINISTRATUEN BEHARRIZAN BERRIETARA EGOKITUTAKO FUNTZIO PUBLIKOA: %85

5.ARDATZA. LEHEN SEKTORE PROFESIONAL, BERRITZAILE ETA IRAUNKORRA: %93

- 5.1 ARABAKO ARDOAK SUSTATZEA: %100
- 5.2 LEHEN SEKTOREAN ENPLEGUA IGOTZEA: %100
- 5.3 NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK HOBETZEA: %100
- 5.4 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA SEKTOREA BABESTEIA: %88
- 5.5 BASO KUDEAKETA IRAUNKORRA: %80
- 5.6 NEKAZARITZA LURRA BABESTEIA: %100
- 5.7 GOBERNANTZA: %100

6.ARDATZA. KULTURA, KIROLA, EUSKARA ETA GAZTERIA: %96

- 6.1. KULTURA, ARABAKO BALIO ESTRATEGIKO GISA: %100
- 6.2. KULTURA PROPIOAREN SORRERA SUSTATZEA: %100
- 6.3. ARABAKO MUSEOEN POLITIKA BERRIZ ZEHATZEA: %100
- 6.4. ARABAKO KULTURA ONDAREA GARATZEA: %93
- 6.5. KIROLA BABESTEIA: %100
- 6.6. EUSKARA SUSTATZEA: %89
- 6.7. ARRETA BEREZIA GAZTEENGAN: %100



7.ARDATZA. AURRERA EGITEA LURRALDE OREKARANTZ: %100

- 7.1. TREBIÑU ARABAN SARTZEA: %100
- 7.2. TOKI ERAKUNDEENTZAKO FINANTZAKETA PROGRAMAK HOBETZEA: %100
- 7.3. TOKI ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA EKONOMIKOA: %100
- 7.4. TOKI ERAKUNDEETAKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA: %100
- 7.5. LANDA AZPIEGITURAK HOBETZEA: %100
- 7.6. TOKIKO ERAKUNDEEN AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA INDARTZEA: %100
- 7.7. LARRIALDIAK ETA SUAREN PREBENTZIOA ETA ITZALTZEA: %100

8.ARDATZA. IRAUNKORTASUNA ETA NATURA INGURUNEA: %96

- 8.1. URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA: %100
- 8.2. HONDAKINEN KUDEAKETA INTEGRALA: %100
- 8.3. NATURA ONDAREA BABESTU, ZAINDU ETA SUSTATZEA: %80
- 8.4. LURRALDEKO ETA TOKIKO IRAUNKORTASUNA: %100
- 8.5. KLIMA ALDAKETA LEUNTZEA: %100
- 8.6. KLIMA ALDAKETARI EGOKITZEA: %100
- 8.7. LURRALDEA ANTOLATZEA: %100

9.ARDATZA. MUGIKORTASUNA ETA AZPIEGITURAK: %93

- 9.1. BIDE AZPIEGITURAK: %100
- 9.2. MUGIKORTASUNA: %89
- 9.3. HERRITARREN ARRETA HOBETZEA ETA SAILAREN WEBGUNE BERRIA: %75
- 9.4. ARABAKO BIDEAK - ARABAT: %100



10.ARDATZA. GOBERNANTZA, BERDINTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK: %91

- 10.1. GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA GOBERNU ONA BULTZATZEA: %100
- 10.2. BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEA: %100
- 10.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEA: %67
- 10.4. GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO POLITIKAK BERRESKURATZEA: %89
- 10.5. KULTURARTEKOTASUNA: %100

2. 1. ARDATZA: ARABAKO SUSPERTZE EKONOMIKOA

DESKRIBAPENA:

Lehen ardatz ekonomikoaren helburua da krisia hasi baino lehen Araban zeuden jarduera ekonomikoen mailara iristea, bereziki industriari dagokionez; horrela, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko eta aurrera ateratzeko elementu gisa jardungo du.

Honako helburu estrategiko hauek ditu Arabako susperraldi ekonomikoaren ardatzak: 1. Institutioak elkarlanean aritzea industria-sustapenaren arloan; 2. Enpresen eta sektoreen lehiakortasuna hobetzea; 3. Beste industria-inbertsio batzuk egitea; 4. Kalitatezko enplegua sortzea; 5. Prestakuntza sustatzea; 6. Profesional autonomoak laguntzea; 7. Arabako turismo-sektorea bultzatzea; 8. Merkataritza aktibatzea eta 9. Eskulangintza sustatzea.


Honako berrikuntza hauek gehitu zaizkio hasierako plan estrategikoari:

- 1.2.2 lerro-estrategikoan, EKINTZAILETZARI BABESA EMATEA izenekoan, beste jarduketa bat gehitu da: 1.2.2.8: LAN-SOZietateak sustatu eta sortzeko Babesa ematea.
- 1.2.6 lerro-estrategikoan bi elementu gehitu dira. Alde batetik, izena aldatu zaio, orain GURE LURRADEAN RIS-3 EUSKADIREN ESTRATEGIAK EGIKARITZEKO TEKNOLOGIA- ETA HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK BABESTE da eta, bestetik, 1.2.6.2 jarduketa gehitu da: ENPRESA-POLIGONO BELAUNALDI BERRIAN BANDA ZABALA HEDATZEA.
- Beste lerro-estrategiko bat sortu da: 1.2.7. BULTZADA SEKTORIALAK. Halaber, bi jarduketa biltzen ditu: 1.2.7.1 KSI-KULTURA ETA SORKUNTZA INDUSTRIEI BABESA EMATEA eta 1.2.7.2: ARDOARI LOTUTAKO EKONOMIARI BABESA EMATEA.
- Beste lerro-estrategiko bat sortu da: 1.2.8. LEHIAKORTASUNERAKO GAITASUNEN INGURUKO EZAGUTZA HOBETZEA. Halaber, bi jarduketa biltzen ditu: 1.2.8.1 AZTERLANAK EGITEA.
- 1.3.2 lerro-estrategikoan, ARABA EKOIZPEN-JARDUERENTZAKO ERAKARGARRIA DEN LURRALDE GISA SUSTATZEA izenekoan, beste jarduketa bat gehitu da: 1.3.2.3: LURRALDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK GARATZEA.


Horrenbestez, 1. ardatz honetan hasieran aurreikusitako jarduketak 55 ziren, eta txosten hau egiterakoan, azken zenbatekoa 61 jarduketakoa da.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018KO EKAINA	%	2015EKO UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	61		55	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	% 0	40	% 73
HASIERA AURREIKUSIA	61	% 100	15	% 27
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	7	% 11	2	% 13
GAUZATZEN (*)	54	% 89	13	% 87
AMAITUA	0	% 0	0	% 0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	54		15	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA

GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

1.1. XEDEA. INSTITUZIOAK ELKARLANEAN ARITZEA INDUSTRIA-SUSTAPENAREN ARLOAN:

1.1.1 ILDO ESTRATEGIKOA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA.

1.1.1.1 JARDUKETA: LURRALDEZ GAINDIKO INDUSTRIA-SUSTAPENAREN ARLOKO PATRONATU ETA ZUZENDARITZA BATZORDEETAN PARTE HARTZEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Arabako Foru Aldundiak-AFAk erakundeen arteko hainbat jarduketatan hartzen du parte, besteak beste honako hauetan: Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana; Euskal Nazioartekotzearen Partzuergoa, Ekintzaitzari laguntzeko Erakunde arteko Plana, Euskadiko Industrialdeetan Banda Zabalaren hedapena finantziazten duen Ekonomia Sustapenerako Euskadiko Kontseilua, eta kudeaketa aurreratua hobetzeko Kudeabide programa. Gainera, parte-hartze horiek honako jarduketa hauetan islatzen da, besteak beste: Intergune, Mundura Begira, Basquefondo, Ekintzaile eta Euskadiko Espezializazio adimenduneko estrategiaren aplikazioan. Gainera, interesgarria da aipatzea AFAk honako erakunde hauetan ere hartzen duela parte: Arasur, CTV, Arabako Parke Teknologikoa, BIC Araba, SPRI, Euskalit, Innobasque, CTA, CIC Energigune eta Tecnalia.

1.1.1.2 JARDUKETA: ERAKUNDE ARTEKO MAHAIK EKINTZAILETZA JARDUERARI BABESA EMATEKO PLANERAKO EGITASMOAK GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Foru Aldundiak-AFAk erakundeen arteko hainbat jarduketatan hartzen du parte, besteak beste Ekintzaitzako Erakunde Arteko Planean, eta hori Eusko Jaurlaritzarekin dituen lankidetzetan ikus daiteke, besteak beste, Basquefondo eta Ekintzaile programetan.

1.1.1.3 JARDUKETA: EUSKAL NAZIOARTEKOTZEAREN PATZUERGOAN EGITASMOAK GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Foru Aldundiak-AFAk erakundeen arteko hainbat jarduketatan hartzen du parte, besteak beste Euskal Nazioartekotzearen Partzuergoan, eta hori honako jarduketa bateratu hauetan ikus daiteke, besteak beste: Intergune eta Mundura Begira, besteak beste.

1.1.1.4 JARDUKETA: EUSKADIKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANEAN EGITASMOAK GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Foru Aldundiak-AFAk erakundeen arteko hainbat jarduketatan hartzen du parte, besteak beste Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean, eta hori Euskadiko espezializazio adimenduneko estrategia pilotatzeko taldeetan ikus daiteke.



1.2. XEDEA. ARABAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

1.2.1 ILDO ESTRATEGIKOA: BERRIKUNTZA SUSTATZEA.

1.2.1.1 JARDUKETA: ALAVA INNOVA PROGRAMA: ENPRESAK, AUTONOMOAK ETA ELKARTEAK, EGEF-EK KOFINANTZIATUA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Álava Innova eta Emprender en Álava programetarako diru-laguntzen aurrekontua % 15,63 handitu da 2018 eta 2017an 2016arekin alderatuz. Azken bi aurrekontu horien artean 2.323.000 €-ko aurrekontua eskaini zen; 2015ean, berriz, 2014ko aurrekontuan luzatuta, 2.008.916 €-koa zen bi programa horien aurrekontua.

2017an 195 erakunderen egitasmoak babestu zituzten deialdi horiek. 2018ko deialdiak ALHAOn argitaratu ziren urtarrilaren 31n, eta eskaerak aurkezteko epealdia martxoaren 23ra artekoa zen. Epe horretan 237 eskaera jaso ziren. Uztailean ebaztea espero da.

2018ko deialdiak berrikuntza bat ekarri du: laguntza-lerro horietako espedienteen izapidetze osoa elektronikoki egin ahal izango da. Horrela, besteak beste, eskaerak aurkezteko, erakunde kudeatzailearekin komunikatzeko, zuzenketa prozesuak hasteko eta beharrezko justifikazioak aurkezteko aukera egongo da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (<https://e-s.araba.eus>). Horretarako, 2017an zehar TGune izeneko aplikazio informatiko bat garatu du Kalkulu Guneak. Zuzendaritzak finantzatu du aplikazioaren kostuaren zati handi bat, eta aplikazio berri horrek norgehiagoka-prozeduraren bitartez ebatzitako diru-laguntza programen izapidetze-elektronikoen beharrei erantzungo die.

1.2.1.2 JARDUKETA: SEAREKIN, ARABAKO MERKATARITZA GANBERA-KOOPERAZIOAREKIN, EUSKALTELEKIN, EGIBIDEREKIN ETA IKASLAN ARABAREKIN HITZARMENAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Enpresen arteko lehia eta berrikuntza ahalbidetu eta sustatzeko helburuarekin, AFAk lankidetzatza-hitzarmenen bidez babesten ditu helburu horrekin hainbat erakundek egiten dituzten jarduketak; esate baterako, SEAk, Merkataritza Ganberak eta Euskaltelek Araba Encounterra antolatzeak egindako duten jarduketa.

2016an, eta 2017an jarraitzeko asmoz, indartu egin ziren Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin tradizionalki sinatutako hitzarmenak enpresa-kooperazioaren, Ganberen Familia Enpresaren erakundearen eta GWC- Great Wine Capitals-en bitartez.



Era berean, 2017an Gasteizko eta Arabako azpiegitura logistikoen gaitasun eta potentzialtasunak sustatzeko hitzarmen bat ere gehitu da.

Aurrekontu-akordioak direla bide, 2017an hitzarmen bat sinatu zen Egibide eta Ikaslan Arabarekin ETE-en eta Arabako landa-eremuan dauden negozioen lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, komunikazioa eta beren produktu eta zerbitzuen sareko salmenta hobetzeko diseinu-proiektuak egin eta marketin digitaleko estrategia bat ezarri da. Duela gutxi, aldatu egin da hitzarmena egikaritze- eta justifikazio-epealdia luzatzeko. 2018ko ekainaren 22an, proiektuaren itxiera-ekitaldia egingo da.

1.2.2 ILDO ESTRATEGIKOA: EKINTZAILETZARI BABESA EMATEA.

1.2.2.1 JARDUKETA: EMPRENDER EN ÁLAVA PROGRAMA, EGEF-EN KOFINANTZIAZIOAREKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Álava Innova eta Emprender en Álava programetarako diru-laguntzen aurrekontua % 15,63 handitu da 2018 eta 2017an 2016arekin alderatuz. Azken bi aurrekontu horien artean 2.323.000 €-ko aurrekontua eskaini zen; 2015ean, berriz, 2014ko aurrekontuan luzatuta, 2.008.916 €-koa zen bi programa horien aurrekontua.

2017an 195 erakunderen egitasmoak babestu zituzten deialdi horiek. 2018ko deialdiak ALHAOn argitaratu ziren urtarrilaren 31n, eta eskaerak aurkezteko epealdia martxoaren 23ra artekoa zen. Epe horretan 237 eskaera jaso ziren. Uztailean ebatzea espero da.

Era berean, Emprender en Álava 2018 programan ekintza positiboa ezarri da, emakume ekintzaileenganakoa eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan ezarri nahi diren proiektuekiko. Horrela, jasotako laguntza ehuneko bost handiagoa izango da kasu horietako bakoitzean. Guztira, diruz lagundu daitezkeen aurkeztutako gastuen % 60a lagundu daiteke.

2018ko beste berrikuntza bat laguntza-lerro horietako espedienteen izapidetze osoa elektronikoki egin ahal izango dela da. Horrela, besteak beste, eskaerak aurkezteko, erakunde kudeatzailearekin komunikatzeko, zuzenketa prozesuak hasteko eta beharrezko justifikazioak aurkezteko aukera egongo da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez (<https://e-s.araba.eus>). Horretarako, 2017an zehar TGune izeneko aplikazio informatiko bat garatu du Kalkulu Guneak. Zuzendaritzak finantzatu du aplikazioaren kostuaren zati handi bat, eta aplikazio berri horrek norgehiagoka-prozeduraren bitartez ebatzitako diru-laguntza programen izapidetze-elektronikoen beharrei erantzungo die.



1.2.2.2 JARDUKETA: ALAVA EMPRENDE PROGRAMA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016an birformulatu egin zen programa honen formatua. Zehazki, jardunaldiko egun nagusian kontzentratu ziren ekintzak eta aitorpenen banaketa, goizez eta arratsalde, eta horrela lortu zen hobetzea xede-publiko bien (ekintzaileen eta ekintzaile potentzialen) asistentzia eta inplikazioa. Era berean, lurralde osoan zehar hedatu zen jarduketa, eta LH, batxilergo eta unibertsitateei zuzendutako ekintzak berreskuratu ziren. Harrera eta balorazioa oso positiboak izan ziren.

2017an ildo berari ekin zitzaion, eta datak hezkuntza-munduaren beharretara egokitu ziren: EHU eta LH. Ekintzak otsailean eta martxoan egin ziren; horrek parte-hartzaileen bertaratzea eta gogobetetzea hobetu zuen. Era berean, BIC Araba antolatzaile gisa gehitu zitzaion AFari eta Gasteizko Udalari. Horri esker izan da posible plataforma digital bat, webgune bat eta sare sozialak garatzea. Araba Ekinean markaren izenpean eta irudi berriarekin, Arabako ekintzaileentzako erreferentzia bihurtzeko asmoarekin sortu da plataforma hori.

Hiru erakunde horien asmoa da 2018an plataforma horren inguruan komunitate ekintzaile bat sortzea, lurralde osoan ekintzailatza sustatzen lagunduko duena. Helburu horrekin, Arabako ekintzailatza-ekosistemaren elementuen arteko antzekotasunak indartuko dira:

- Jardunaldi nagusia, aurrerantzean Ekin Day izena eramango duena, apirilaren 19an, osteguna, egin zen. 175 pertsona bertaratu ziren arratsaldean, eta arrakasta handiz hartu zuen ekintzaile eta erreferentziatzko erakundeak (azeleratzaileak, finantza- eta aholkularitza-erakundeak, etab.) arteko bigarren B2B Topaketa. Guztira, alde biko 49 bilera egin ziren.
- Martxan jarri da Ekin Breakfast izeneko formatu berri bat. Gasteizen, Laudion eta Amurrión UPV/EHUko ekintzailatza-ideiak sustatzeko sormen-tailerrak egitean datza. 30,16 eta 18 pertsonak hartu zuten parte, hurrenez hurren.
- Otsailaren 8an Andre Maria Zuriaren Enparantzan Enpresen Azoka egin zen. Bertan, 36 proiektu edo negozio-idea berri aurkeztu zituzten Arabako LHko 8 ikastetxetan dabilzan ikasleek. Lehen aldiz, aurkeztutako hiru proiekturik onenek «Zure ideiak balio du» lehiaketan hartu dute parte; izan ere, beste kategoria bat gehitu zaio gazteenen parte-hartzea sustatzeko asmoz.
- Ideia lehiaketako parte-hartzaileen kopurua nabarmen handitu da: iaz baino 9 parte-hartzaile gehiago egon ziren, eta 33 izan ziren guztira.
- Sare sozialak izan dira ekintza horiek guztiak hedatzeko modu nagusia. Sareko komunitateak ia 1.700 jarraitzaile lortu ditu twitterren. Webguneak, bere aldetik, urtarila eta apirila bitartean 12.000 bisita baino gehiago izan ditu.



- Martxoaren 5ean Europa Jauregian BIC Arabak Start Up Week Europe jardunaldiaren irekiera-ekitaldia antolatu zuen.

1.2.2.3 JARDUKETA: CEIA: BERE FUNTZIONAMENDUA BABESTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik, AFA CEIA, orain BIC izena duena, parte hartzen ari da, horretarako bere funtzionamendua babestuz.

1.2.2.4 JARDUKETA: HAZIBIDE FUNTSA: EREDUA BERRAZTERTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gogoeta-prozesuari hasiera eman zaio hainbat agenterekin batera.

1.2.2.5 JARDUKETA: BASQUE FUNTSA ARABAREKIN LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik, AFA EJren Basque Funtza Araba proiektuan parte hartzen ari da.

1.2.2.6 JARDUKETA: EGF KOFINANTZIATUTAKO HITZARMENAK MERKATARITZA GANBERA- EKINTZAILETZA, AJEBASK ETA AMPEAREKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Ekintzailetza ahalbidetu eta sustatzeko helburuarekin, AFAk lankidetzak-hitzarmenen bidez babesten ditu helburu horrekin hainbat erakundek egiten dituzten jarduketak; esate baterako, Merkataritza Ganberak, AJEBASKEK eta AMPEAK.

1.2.2.7 JARDUKETA: ERAKUNDE ARTEKO MAHAIA LURRALDE OSOAN ZEHAR HEDATZEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Jarduketa hau garatzerakoan, zehazki 2017an, AFari eta Gasteizko Udalari BIC Araba gehitu zitzaion Araba Ekinean programaren antolatzaile gisa. Horrek Arabako ekintzaileentzako erreferentziazkoa izango den plataforma digital eraginkor bat garatzeaz gain, ekintzaileen eta ekintzailetzaren sustapenean lan egiten duten hiriko eta lurraldeko gainerako agenteen arteko elkarriaketa operatiboaren eraginkortasuna handitzea ere ekarri du.

1.2.2.8 JARDUKETA: GIZARTE-ARLOKO LAN-SOZIEATEAK ETA KOOPERATIBAK SUSTATU ETA SORTZEKO BABESA EMATEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko aurrekontu-akordioan zain gaudelarik, 2018ko ekitaldiari dagokion zuzkidura ekonomikoa eskuragarri dagoen bezain pronto jarriko da martxan gizarte-arloko lan-sozietateak eta kooperatibak sustatu eta sortzeko babesa emateko deialdia. Deialdi horretan sustatzaileen ezaugarriak eta garatzen dituzten ekintzak hartuko dira kontuan. Gainera, tratamendu berezia jasoko dute 20.000 biztanletik beherako udalerriek eta emakume sustatzaileak dituzten lan-sozietate eta kooperatibek.

1.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ETE-EN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEA.

1.2.3.1 JARDUKETA: ALAVA INTERKOOP PROGRAMA: NAZIOARTEKOTZERAKO KOOPERAZIO-PROGRAMA BERRIA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015ean Alava Interkoop izeneko proiektu berri bat jarri zen martxan. Programa horren helburua da Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzea lortzeko proiektu edo/eta ekintzei babesa ematea. Horrez gain, Arabako enpresen arteko kooperazioa ere bilatzen da, atzerrira batera atera daitezen. Hori lortzeko, lehiakortasun-prozedura bidezko diru-laguntzak ematen dira. 2017ko maiatzean hirugarren deialdia jarri zen martxan, eta 8 proiektu eta 36 enpresa babestu ziren.

2018ko maiatza bukaeran laugarren deialdia jarri da martxan. Urrian ebatziko da, eta 500.000 euroko zuzkidura du. 10 proiektu eta 69 parte-hartzaile aurkeztu dira.

1.2.3.2 JARDUKETA: MERKATARITZA GANBERA-NAZIOARTEKOTZEA HITZARMENA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: 2017an indartu egin ziren Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin tradizionalki sinatutako hitzarmenak nazioartekotzea babestearen arloan. Horretarako, esparru-hitzarmenean gehitu dira GWC-Great Wine Capitals-en jarduketak, eta beste hitzarmen bat garatu da Gasteizko eta Arabako azpiegitura logistikoen gaitasun eta potentzialtasunak sustatzeko.

2018an nazioartekotze-prozesuei eta lurraldeko hedatze-prozesuei babesa ematea helburu duen beste hitzarmen bat sinatu da ganberarekin, eta horri esker honako hau lortuko da:

1. Kanpoan sustatzeko agenda espezifiko bat sortzea, beste erakunde batzuek egiten dituzten jarduketan osagarria izango dena.
2. Gure lurraldeak eskaintzen dituen aukerak Euskadira bisitan datozen kanpoko delegazioen artean zabaltzea. Horrek Arabaren nazioarteko proiektzioa biderkatuko du.
3. Gure lurraldean atzerriko kapitala duten enpresen presentzia irmotzea, horretarako beharrianak detektatzeko prozesu espezifiko bat martxan jarritz.
4. Arabako enpresak beren salmenta-prozesuan laguntzea merkatu-azelerazio zerbitzua eskainiz.

Aipatutako lehen jarduketa garatzeko, erakunde arteko hainbat misio egin dituzte EJK, AFAk eta VGUak. AFA izan da misio horietako buru eta ganbarak koordinatu ditu. Zehazki, RYANAIREn bitartez lotura zuzena daukagun aireportuetara izan dira misioak: Koloniara, Akisgranera eta Düsseldorfera martxoan eta Bergamo, Milan eta Verona apirilean.

Misio horien helburuak, besteak beste, honako hauek izan ziren:

- Konektibitatea eta lotura ekonomikoak indartzea, horretarako Arabaren potentzialtasuna bisitatutako tokiko enpresa-ehun eta ehun ekonomikoari ezagutaraziz.
- Loturak indartzea, bai atzerrian dauden Arabako enpresekin, bai Araban egoitzak dituzten enpresekin.
- Euskadiren erakargarritasun turistikoa sustatzea, horretarako Gasteizen, Arabaren eta Euskadiren potentzialtasuna operadore turistikoei ezagutaraziz.

1.2.3.3 JARDUKETA: EUSKAL NAZIOARTEKOTZEAREN PARTZUERGOAK GURE LURRALDEAN EGITEN DITUEN EKINTZAK KOORDINATZEA ETA HORIETAN PARTE HARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik, AFA Euskal Nazioartekotzearen Partzuergoan parte hartzen ari da.



1.2.4. ILDO ESTRATEGIKOA: KUDEAKETAREN HOBEKUNTZA BABESTEA.

1.2.4.1 JARDUKETA: INNOBIDEAK KUDEABIDE PROGRAMA: EJ, SPRI, EUSKALIT, BFA ETA GFA-REKIN LANKIDETZAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Kudeaketa aurreratua hobetzeko Kudeabide programan parte hartzen du Arabako Foru Aldundiak-AFA EJ, SPRI, BFA, GFA eta EUSKALITekin batera. Programa horren 2. fasean (proiektuak babestea), 50 langile baino gutxiago dituzten enpresentzako diru-laguntza deialdiak egiten dira urtero.

1.2.4.2 JARDUKETA: FLSP ETA FOARSE-REKIN HITZARMENAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Enpresen erantzukizun soziala ahalbidetu eta sustatzeko helburuarekin, AFAk lankidetzak-hitzarmenen bidez babesten ditu helburu horrekin hainbat erakundek egiten dituzten jarduketak; esate baterako, FLSP eta FOARSEk.

1.2.4.3 JARDUKETA: LANGILEEK ENPRESAN DUTEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA, BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZAN.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Eusko Jaurlaritzak jarduketa hori burutzeko diru-laguntza programa bat du.

1.2.5. ILDO ESTRATEGIKOA: FINANTZIAZIORAKO LAGUNTZA.

1.2.5.1 JARDUKETA: ABALEN PROGRAMA: ABALAK DITUZTEN EBBen PROIEKTUAK BABESTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Jarduketa honen garapena legegintzaldiaren hasieratik egon da martxan.

1.2.5.2 JARDUKETA: FINANTZA-ERAKUNDEAK: ETEei KREDITUAK EMATEA ERRAZTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Eusko Jaurlaritzak jarduketa hau burutzeko egitasmo berriak eta egituraketa-tresnak garatu ditu.

1.2.6. ILDO ESTRATEGIKOA: GURE LURRADEAN RIS-3 EUSKADIREN ESTRATEGIAK HEDATZEKO TEKNOLOGIA- ETA HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK BABESTEA.

1.2.6.1 JARDUKETA: TECNALIA, CTA, CIC ENERGIGUNE, EHU, EGIBIDE, IKASLAN ARABA, INNOBASQUE ETA MERKATARITZA GANBERAREKIN HITZARMENAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Zentro teknologikoekin sinatutako hitzarmenek berrikuntza garrantzitsuak ekarri dituzte.

2016aren amaieran, gure lurraldean RIS3-Euskadiren estrategiak hedatzeko helburuari babes emateari ekin zitzaion:

- Fabrikazio aurreratua 4.0 industria Merkataritza Ganberarekin sinatutako hitzarmen baten bitartez ETEak sentsibilizatzeko eta Tecnaliak 10 diagnostiko egiteko.
- Biozientziak, puntako farmazia-garapen unitate bat garatzeko hitzarmena EHUKo Farmazia Fakultatearekin eta Tecnaliarekin.

2017an, gure lurraldean RIS3-Euskadiren estrategiak hedatzea babestu da:

- Energia:
 - CIC Energigunerekin sinatutako hitzarmena indartzea.
 - Power Our Future 2017 nazioarteko kongresua, Espainiako Kimikako Errege Elkarteko Elektrokimika Taldearen XXXVIII bilera eta XIX. Elektrokimikako Iberiar Topaketaren garapenak babestea.
- Biozientziak:
 - Tecnaliarekin hitzarmena, farmazia-garapen poloa indartzeko. Horretarako Pharma Lab 4.0 izeneko proiektu estrategiko bat jarriko da martxan Arabako Parke Teknologikoan, UPV-EHUren eta Farmazia Fakultateko NanoBioCel talde baten lankidetzarekin eta Bioaraba Saiakuntza Klinikoen Unitatearekin koordinatuta.
- Fabrikazio aurreratua - 4.0 Industria:
 - Gasteizko EHUKo Ingeniaritza Unibertsitate Eskolarekin hitzarmena, Automozio Gradua martxan jartzeko.
 - Gasteizko EHUKo Ingeniaritza Unibertsitate Eskolarekin hitzarmena, aeronautikan doktore direnei prestakuntza emateko.
 - EGIBIDE, Ikaslan Araba, Mendizabala, Zaraobe eta Gasteizko EHUKo Unibertsitate Eskolarekin hitzarmena, 4.0 industriaren inguruko ikastaro bat emateko.
 - Tecnaliak eta Merkataritza Ganberak lehenagotik martxan zituzten egitasmoei babes ematen jarraitzea.

Estrategia hori hedatzea Araba 4.0 Lantaldearen baitan protagonismo nabaria izaten ari da legeintzaldi honen hasieran ahalduz nagusiak sustatutako ÁGORA prozesu parte-hartzaileari esker. Talde horretan enpresak, ikerketa-zentroak, unibertsitatea, LH zentroak, Arabako Parke Teknologikoa, Merkataritza Ganbera, SEA Arabako Enpresariak, GAIA, Innobasque, BIC Araba eta Vitoria-Gasteizko Udala daude inplikaturik. Gudan eragina izango duen errealitateari erantzun egokia emateko, lehiakortasuna hobetzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko elkarlanean aritzeko beharrik sortu zen, agente horien guztien adostasunarekin.

Talde horrek proposatu zuen 2017ko irailean egin zen Ágora Araba 4.0 jardunaldia. Jardunaldi horren helburua izan zen bertaratu ziren 500 parte-hartzaile baino gehiagori honako hauek ulertaraztea: 4.0 Industria izenaren atzean zer dagoen; zein eragin izango duen gure gizartean, enpresetan, hezkuntza-komunitatean, enpleguan; zeintzuk diren hainbat agente martxan jartzen ari diren egitasmoak eta zein aukera-multzo dagoen gure lurraldean.

Era berean, Ágoratik jaio eta bokazio teknologikoak esnatzeko helburuarekin, Araban aitzindari izan zen Ágora TeknoCamp egitasmoa garatu zen 2017ko ekainean. DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako campus teknologikoa izan zen. Egibide, UPV/EHU eta Innobasquen babesak izan zuen, eta 2018an ere egingo da.

2018rako onartutako aurrekontuan aurreikusita dago lurraldean aipatutako hitzarmen eta jarduketan bitartez RIS3-ko estrategien hedatzeari babesa emateaz gain, beste jarduketak batzuk garatzea ere:

- Biozientziak:
 - EHUko Farmazia Fakultatearekin hitzarmena Farmazia Garapenerako Poloa sendotzeko.
- Fabrikazio aurreratua 4.0 Industria:
 - Egibide-Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmena Industria Digitaleko Gradua martxan jartzeko.
 - Gasteizko EHUko Ingeniaritza Unibertsitate Eskolarekin hitzarmena, Automozioko 4.0 doktore direnei prestakuntza emateko.
 - Ágora Teknocamp handitzea. Duela gutxi aurkeztu da egitasmo hori: 2018an bikoiztu egingo da Ágora Teknokamp, izan ere, bi campusetan egingo da. Gainera, Ikaslan Araba gehitu zaie aurreko edizioan parte hartu zuten UPV/EHU, Egibide eta Innobasqueri.
 - Araba 4.0 plataforma: Araba 4.0 markaren izenpean eta Ágoraren lantaldeak eskatuta sortutako plataforma, webgunea eta sare sozialak mantentzea eta aktibatzea, horrela erreferente bihurtzeko eta lurralde osoan 4.0 industriaren hedapena sustatuko duen komunitate bat sortzeko.

Aipatutako lankidetzak-hitzarmenen guztirakoa 1.307.500 eurokoa izan zen 2017an, eta 2.019.500 euroko izango da 2018an.



1.2.6.2 JARDUKETA: ENPRESA-POLIGONO BELAUNALDI BERRIAN BANDA ZABALA HEDATZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Epealdi honetan AFAk garatutako beste erakunde arteko ekintza bat Enpresa-poligono Belaunaldi Berrietan Banda Zabala Hedatzeko Planean parte hartzea izan da. Plan hori Ekonomiaren Sustapenerako Euskal Kontseiluak finantzatu du. 2017ko urtarrilean ebatzi eta 2018ko apirilean egikaritzen bukatu zen lehen laguntza-deialdian APTri, Apodaka-Gorbeiari eta Oioni zerbitzua emateko operadoreen proiektuak onartu dira. 2017ko urrian ebatzi eta 2019ko otsailean bukatuko den bigarren diru-laguntza deialdian banda zabala Arabako 36 poligonotan ezartzea onartu da. Horrenbestez, 2018an hautatu daitezkeen eremuak eremu zuri gisa ezagutzen direnak dira, hau da, operadoreek esandakoaren arabera, hiru urteko epealdian bertan lanik izango ez duten eremuak. Era berean, hautagai bihurtuko dira hasiera batean operadoreek egikaritzea egiteko aukeratutako eremuak, azkenean bertan ezer egin ez bada.

Jarduketa hori oso ondo egokitzen zaio Araba Konektatua izeneko AFaren planari. Plan horren helburua gaitasun handiko banda zabala lurralde osoan zehar hedatzea da, bai industria-eremuetan, bai hiri-eremuetan (7. ardatza).

1.2.7. ILDO ESTRATEGIKOA: BULTZADA SEKTORIALAK

1.2.7.1 JARDUKETA: KSI-KULTURA ETA SORKUNTZA INDUSTRIEI BABESA EMATEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko ekainaren hasieran kultura- eta sorkuntza-industriei zuzendutako beste programa bat jarri da martxan, zehazki, ikus-entzunezko sektoreari zuzenduta dagoena. 180.000 euroko aurrekontua du, eta lehiakortasun-prozeduraren bitartez esleitutako diru-laguntzekin babesten ditu honako hauek: zinema- eta telebista-proiektuak garatzea, zinemako film luzeak eta sorkuntzazko dokumentalak egitea, film laburrak sortzea eta gidoiak idaztea.

1.2.7.2 JARDUKETA: ARDOARI LOTUTAKO EKONOMIARI BABESA EMATEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018an garatzeko egitasmoen artean honako hauek aurki daitezke:

- Ardoaren ekonomiaren analisia eta garapena:



Lizitazio publikoko prozesu bat garatzen ari da «Ardoari lotutako ekonomiari buruzko analisia» izeneko ikerketa bat egiteko. Helburua Arabar Errioxan aplikatzeko jarduketa-plan integratu, koordinatu eta adostu bat lortzea izango da. Plan horrek Araba Errioxak nazioarteko marka gisa duen posizionamenduan lagundu beharko du, horrek lurraldean inpaktu sozio-ekonomikoa izango baitu.

- Ardoaren Kulturarako Fundazioarekin hitzarmena:
Lurraldean Arabako ardogintza-sektorearen posizionamendua hobetzera zuzendutako jarduketak egitera dago zuzenduta lankidetzak hau.

1.2.8. ILDO ESTRATEGIKOA: LEHIAKORTASUNERAKO GAITASUNEN INGURUKO EZAGUTZA HOBETZEA

1.2.8.1 JARDUKETA: AZTERLANAK EGITEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an honako jarduketa hauek burutu ziren aurrekontu-akordioak zirela bide:

- Gaindegiaekin hitzarmena Arabako errealitate sozioekonomikoaren azterketa egiteko (uztailean bukatu da).
- Berrikuntza teknologikoaren inguruko azterlana: Hegaraba
Irailean Hegaraba azterlanaren esleipena sinatu zen. Azterlan horren helburua da Euskadiko RIS3aren apustueterako Arabako enpresek dituzten erronka eta beharrianak aztertzea eta identifikatzea, eta baita horiei erantzuteko ekintza estrategikoak proposatzea eta Arabako enpresen kondizionamendu lehiakorra hobetzea ere. Azterlana jaso eta gero, hainbat agenterekin partekatu dira bertan jasotako proposamenak, eta horietako batzuk martxan dira jada.

Era berean, 2017an Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin sinatutako lankidetzak bati eman zitzaion hasiera. Honako jarduketa hauek izan dira lankidetzak horren ondorio:

- Araba Sustraitzen: Proiektu horren helburua Arabako errealitate ekonomikora gerturatu eta Arabako pertsonak Araban sustraitzeko dauden oinarriak aztertzea izan da; hau da, Arabako gizartearen parte direla sentitzen duten eta lurraldearen garapen sozioekonomiko iraunkorraren alde egiteko prest dauden pertsonen zuzendutak dago, Araban bertan edo kanpotik egiten dutela ere.
- Arabako enpresa-ehunaren eta enpresei laguntzeko programa publikoen ezaugarriak identifikatzea:
Azterlan horren helburua da lurraldeko finantza-egoera, egoera ekonomikoa eta Arabako enpresa-ehunaren berrikuntza-gaitasunak deskribatzea, bai eta Arabako enpresa-ehunaren dinamikak eta AFAk sustatutako enpresei laguntzeko programen ezaugarriak sakon aztertzea ere.

Lankidetzeta hori 2018an sendotuko da lankidetzeta-hitzaumen baten sinaduraren bitartez. Hitzarmen horren helburua izango da Orkestrak azterlanak egitea Arabako ekoizpen-sistemaren eta enpresa-hunaren lehiakortasunaren inguruko ezagutzak sakontzeko. Uztailean sinatzea espero da.

1.3. XEDEA: BESTE INDUSTRIA-INBERTSIO BATZUK

1.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: INDUSTRIARAKO LURZORUAREN ESKAINTZA GARATZEA-ARABA GARAPEN AGENTZIA.

1.3.1.1 JARDUKETA: INDUSTRIARAKO LURZORU ESKAINTZA LEHIAKORRA ETA ESKARIAREN PREZIORA, KALITATERA, ESKURAGARRITASUNERA ETA MERKATURATZEKO BIDEI EGOKITZEN ZAIENA BERMATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Jarduketa honek barne hartzen ditu Arabako industria-partzela, -pabiloi eta -azpiegituren eskaintza egokia dela bermatzeko Araba Garapen Agentziak eta hari lotutako beste entitate batzuek egindako ekintzak. Zentzu horretan diseinatutako lan-ildo berriek honako hauek jasotzen dituzte:

- Arabako industria-poligonoen azpiegiturretan beharrezkoak diren mantentze-lan eta hobekuntzak identifikatzea (bai AGAk kudeatutakoetan, bai beste erakunde batzuek kudeatutakoetan), finantzaketarako proiektuak garatzea eta erabiltzaileen eta toki-erakundeen arteko lankidetzarako hobekuntzak martxan jartzea. 2018an, Arabako Biltzar Nagusietan gai horren inguruko mozioa onartu eta gero, AGAk lurraldeko industria-poligonoen egoera sakon aztertuko duen ikerlan bat lizitatu du.
- Araban dauden enpresa handiekin lankidetzan aritzea beren beharrian operatiboak konpontzeko eta, hala balegokio, beren etorkizuneko hedakuntza ahalbidetzeko.
- Erakunde pribatuekin lankidetzan aritzea proiektu estrategikoen finantzaketa ahalbidetzeko, besteak beste, Arasur edo CTV.
- Produktu eta merkaturatze-bide berriak sustatzea: eremuak lagatzea eta erabiltzeko prest dauden industria pabiloi handi/ertainak errentatzea.
- Goren unean dauden sektoreen beharrak identifikatzea eta eskaintza horiei egokitzea (adibidez, ezarpen logistikoak)
- Garapen agentziekin, udalerrieekin, finantza-erakundeekin eta jabe handiekin lankidetzan aritzea erabilerarik ez duten industria-partzela eta -pabiloiak merkaturatzea ahalbidetzeko.
- Landa-eremuko ekonomia dibertsifikatzera eta lurraldeko oreka lortzera zuzenduta dauden azpiegitura industrialak garatzeko hitzaumenak.
- Euskadiko Industria Poligono Belaunaldi Berrian Banda Zabala Hedatzeko Planaren hedapenean lankidetzan aritzea.



1.3.1.2 JARDUKETA: ARABAKO INDUSTRIA-AZPIEGITURAREN ESKAINTZA ETA ESKARIA ANALIZATZEA, JARDUKETA-BEHARRIZAN BERRIAK ETA ERABILERARIK EZ DUTE ESPAZIOAK BERRESKURATZEKO AUKERAK IDENTIFIKATUZ.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko uztailan onartutako beste egitasmo berritzaile bat Kuadrilletan Ekonomia eta Industria Sustatzeko Plana izan zen. Plan horrek Kuadrillentzako diru-laguntzak aurreikusten ditu, egoeraren diagnostikoa oinarri hartuta, egoera horri erantzungo dion jarduketa-multzo bat ezarri dadin:

- Goren unean dauden sektoreen beharrak identifikatzea eta eskaintza horiei egokitzea (adibidez, ezarpen logistikoak)
- Garapen agentziekin, udalerriekin, finantza-erakundeekin eta jabe handiekin lankidetzara aritzea erabilerarik ez duten industria-partzela eta -pabiloiak merkaturatzea ahalbidetzeko.
- Landa-eremuko ekonomia dibertsifikatzera eta lurraldeko oreka lortzera zuzenduta dauden azpiegitura industrialak garatzeko hitzarmenak. Kuadrilletan Ekonomia eta Industria Sustatzeko Planaren garapenean laguntza ematea.

Prozesu honek AGA-Araba Garapen Agentziaren laguntza eta gainbegiratzea du, eta, horrenbestez, horrek Kuadrillekin etengabeko lankidetzara ekarri du. 2016ko jarduketek onuradunen gogobetetzea lortu zuten.

Egitasmo horrekin jarraitzeko, 2017ko ekitaldian zehar 400.000 euroko aurrekontua egon da, eta Kuadrillek eta udalerrri batzuek egindako jarduketak lagundu dira: Audio, Amurrio, Argantzun eta Trebiñu Konderriko udalenak, hain zuzen.

Jarduketa horiek 2018ko maiatzaren 31 baino lehen burutu behar dira, eta 2018ko ekainaren 22a baino lehen justifikatu (egun hori barne). Jarduketa espero baino mantsoago egikaritzen ari da, eta, horregatik, epealdi horiek luzatzeko eskaerak egongo dira.

1.3.1.3 JARDUKETA: ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEKIN LANKIDETZAN ARITZEA LURZORUAREN MERKATUAREN ERAGINKORTASUNA ETA GARDENTASUNA AHALBIDETZEKO ETA INDUSTRIA-AZPIEGITURA ESKATZAILEEI ESKAINITAKO ZERBITZUA HOBETZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Honako txosten eta jarduketa egin dira:

- AGAk SPRILUREkin, Arabako Parke Teknologikoarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatu du bere jarduketaren gardentasuna eta azkartasuna handitzea lortzeko esfortzuak koordinatzeko. Era berean, industria-azpiegiturak eskatzen dituzten enpresei eskainitako zerbitzua ere hobetu nahi izan da, bai eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra bermatu ere.



- Lankidetza operatiboa, komertziala eta teknikoa udalerriekin eta industria-lurzorua sustatzen duten toki-erakundeekin. Arraia-Maeztu eta Trebiñuko udalekin lankidetza-hitzarmenak sinatu dira. Ekonomiaren sustapenerako udaleko agentziekin lankidetza egonkorra.
- Kutxabank, Laboral Kutxa eta CaixaBank-ekin hitzarmenak industria-partzelak erosteko finantziazioa lortzeko.
- Inbertsiogile potentzialei eman beharreko arreta koordinatzeko lankidetza iraunkorra Arabako eta Euskadiko erakundeekin, zehazki, Invest in Euskadi-SPRI, SPRILUR eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin.

1.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABA EKOIZPEN-JARDUERA BERRIENTZAKO ERAKARGARRIA DEN LURRALDE GISA SUSTATZEA.

1.3.2.1 JARDUKETA: INBERTSIOGILEEN INTERESA ERAKARTZEKO NEURRI-PAKETEAK GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk eta AGAk, eta hala dagokionean, EJK, batera egiten dituzte proposamenak inbertsio-proiektuak erakartzeko.

1.3.2.2 JARDUKETA: INBERTSIOAK ERAKARTZEN DITUZTEN BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZA, BESTEAK BESTE, INVEST EUSKADIREKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA eta AGA lankidetza estuan ibiltzen dira inbertsio berriak lortu nahi dituzten beste erakunde batzuekin.

1.3.2.3 JARDUKETA: LURRALDEAREN SUSTAPENERAKO JARDUKETAK GARATZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Construyendo Álava/Araba Eraikiz izeneko argitalpen bat egin da, 2016ko uztailan banatu zena. Bertan, Arabako enpresen jarduera ekonomiko bikaina erakutsi nahi izan da Araban egindako eta mundu osoan baloratutako produktu-sorta batekin. Produktu horiek erakusten dute milaka pertsonak egunero egindako esfortzuari esker, bezeroen beharrei erantzuteaz gain, Europako eta munduko lehen mailetan jokatzeko gai direla eta baita beren produktuak merkatu horietan saltzeko ere. Horrela, ekarpena egiten diote dauzkagun ongizate sozial, bizi-kalitate eta ingurumenaren babes maila onak lortzeko beharrezkoa den aberastasunari.



2017an zehar gure lurraldeak inbertitzeko, deskubritzeko eta bertan bizitzeko dituen gaitasun eta potentzialtasunak zabaltzeko material berriak sortu dira: bideoa, liburuxka zabalgarria eta liburua. Material horiek ingelesera eta alemanera itzuli dira lurraldetik kanpoko sustapen-ekintzetan erabiltzeko; zehazki, ahaldun nagusiaren gidaritzapean 2018ko martxoan eta apirilean Alemanian eta Italian egindakoetan. Sustapen-ekintza horietan Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak hartu dute parte. Datozen jarduketetan erabiliko dira lurraldea aurkezteko VIAL-Vitoria Álava Solución Logística proiektuaren baitan garatutako material horiek eta antzeko formatua duten beste batzuk.

Era berean, ohiko operazioetan laguntzeko lantaldearen baitan egindako ekintzen artean (VIAk koordinatzen du eta EJ, AFA eta VGUko agintari turistikoek parte hartzen dute) RYANAIR konpainiaren bezeroei zuzendutako gida praktiko bat eta bideo bat egin dira, Gasteiz eta Gasteizko aireportua operazio-basetzat eta sarbidetzat erabiltzeko orientazioa emateko; izan ere, oso ondo konektatuta dago autoz, autobusez eta trenez Gasteiz, Araba eta Euskadi ezagutzeko.

2018an garatutako beste ekimen berritzaile bat JG GOLF 18,0, SL enpresarekin sinatutako hitzarmena izan da. Hari esker, maiatzaren hasieran Naturgolf SArean IZKI GOLF kirolgunean «ESPAINIAKO CHALLENGE» izeneko txapelketa egin zen instalazioak, Mendialdea Kuadrilla eta lurraldea sustatzeko asmoz.

1.4. XEDEA: KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEA

1.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ERAKUNDE ARTEKO ENPLEGU PLANA.

1.4.1.1. JARDUKETA: ENPLEGUA SUSTATZEA ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENEN BIDEZ, BATEZ ERE LANGABEZIA HANDIENA DUTEN LEKUETAN.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Enpleguaren aldeko deialdi zehatza, Araban langabezia tasarik handiena duten eremuei begira. Langabezia tasarik handienak dituzten eta lurraldearen batez bestekoa gainditzen duten udalerriei zuzentzen zaien deialdia. Lanbidek eman beharreko partida ekonomikoaren transferentziaren zain.



1.4.2. ILDO ESTRATEGIKOA: IRAUPEN LUZEKO LANGABETUEN KONTRATAZIO MUGAGABEA.

1.4.2.1. JARDUKETA: ZUZENEKO LAGUNTZAK IRAUPEN LUZEKO LANGABETUEN KONTRATAZIO MUGAGABERAKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Lurralde Historikoko langabetuen kontratazio mugagaberako laguntza ildo. 2018ko deialdia langabeen kolektiboaren profil guztiei zabaldu zaie.

1.4.2.2. JARDUKETA: ZUZENEKO LAGUNTZAK GAZTE LANGABETUEN KONTRATAZIO MUGAGABERAKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gazte langabeen eta iraupen luzeko langabeen kontratazio mugagaberako laguntza ildoak. 2018an lurraldeko langabetu guztien kolektibo guztiei zuzendutako deialdia zabaldu da.

1.4.3. ILDO ESTRATEGIKOA: GOI KUALIFIKAZIOKO PROFESIONALAK ERAKARRI ETA MANTENTZEKO PROGRAMA.

1.4.3.1. JARDUKETA: IZEN HANDIKO IKERTZAILE, KUDEATZAILE ETA TEKNIKARI ESPAZIALIZATUAK ERAKARTZEKO PLANA.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Ez du aurrekontu partidarik; beraz, ezin da aurrera eraman.

1.4.3.2. JARDUKETA: JARDUERAK SAIHESTEKO ARABAKO "BURU ARGIEK" ERAKUNDE ETA ENPRESETATIK ALDE EGITEA.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Ez du aurrekontu partidarik eta, beraz, ezin da garatu.

1.5. XEDEA: PRESTAKUNTZA SUSTATZEA

1.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: DAUDEN PRESTAKUNTZA PLANAK BERRIKUSI ETA HOBETZEA.

1.5.1.1. JARDUKETA: AURREKONTU BALIABIDEAK HANDITZEA EUROPAKO GAZTE ENPLEGURAKO PLANEAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: EGIFek finantzaturako enplegu proiektuak eta Gazteen Enpleguaren aldeko Plan Operatiborako deialdiak abian jartzea. Onartutako aurrekontua osatzen duten egiturazko baliabideez gain, enplegu proiektuak gauzatzeko laguntza ekonomikoak lortu dira, esate baterako BI-MENTOR (190,680) eta ARABA+, betiere Gazteen Enpleguaren aldeko Plan Operatiboaren barruan (438,200); bi proiektu horiek 2017ko azken hiruhilekoan abiarazi dira. Era berean, une honetan garatzen ari den TRANSFORM@ proiektua ere aurrera eraman da.

Onartutako proiektuak gauzatzen jarraitzen da eta proiektu berriak aurkeztu dira Erasmusen deialdira (DIGconsum eta Heritage4Change).

1.5.1.2. JARDUKETA: JARDUERA LEHENESPENAK BERRIKUSTEA ENPLEGAGARRITASUNEAN ETA LANGABETUENTZAKO PRAKTIKETAN.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Praktikak egitea lurraldeko enpresa turistikoetan. ARABA+ enplegu proiektuaren barnean praktikak egiten dira lurraldeko turismo enpresetan. Proiektu hori lehenengo fasean dago, onuradunak aurkitzeko fasean, hain zuzen. Programaren onuradunen bilaketak ez du hasiera ahalbidetu.

1.5.2. ILDO ESTRATEGIKOA: LANBIDE HEZIKETA BULTZATZEA.

1.5.2.1. JARDUKETA: LANBIDE HEZIKETA DUALEKO PROIEKTU ESPEZIFIKOAK: NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAK, ENPRESEN BEHARREN ETA IKASTETXEEN ESKAINTZAREN ARABERA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Enplegurako prestakuntzaren deialdiak men egiten die lurraldeko prestakuntza zentroen laguntzaz enpresek bideratzen dituzten prestakuntza premiei, betiere deialdiaren aurrekontu gaitasunaren barruan. Deialdiaren aurrekontu partida handitu da.



**1.5.2.2. JARDUKETA: PRESTAKUNTZARAKO ETA PRESTAKUNTZA ZENTROETAKO
EKIPAMENDUETARAKO LAGUNTZEN ILDOA**

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an 100.000 euro erabili dira prestakuntza zentroetako ekipamenduen inbertsiorako eta berrikuntzarako.

Aurtengo 2018ko ekitaldian 100.000 euro erabili dira prestakuntza zentroetako ekipamenduen inbertsiorako eta berrikuntzarako.

1.6. XEDEA: PROFESIONAL AUTONOMOAK BABESTEA

**1.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: AUKERA BERRIEN PROGRAMA PROFESIONAL
AUTONOMOENTZAT.**

1.6.1.1. JARDUKETA: ZORRAK NEGOZIATZEKO PLANA NEGOZIOAK BERE ONERATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Alerta goiztiarraren programa.

1.6.1.2. JARDUKETA: DAUDEN ENPRESAK EKINTZAILE BERRIEI ESKUALDATZEA ERRAZTEKO TRESNAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Hitzarmena Merkataritza Ganberarekin, belaunaldi aldaketarako, espediente berrien kudeaketarako eta hasitakoen jarraipenerako.

1.6.1.3. JARDUKETA: EKIPAMENDUETARAKO LAGUNTZAK AUTONOMOENTZAT

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Autonomoen inbertsioa babesteko laguntza ildo bat abiarazi da, 40.000 euroko zuzkidura duena; laguntza ildo horren onuradunak Arabako Merkataritza Ganberako programetako parte-hartzaileak izan daitezke; horiek deialdiaren funtsen zati bat erreserbatuturik dute; era berean,



programa horietan parte hartzen ez dutenek deialdian jasotako gastu lagungarrietarako funtsen zati bat izango dute.

Langile autonomoen inbertsiorako laguntza ildoaz gain, SECOT elkartearekin lankidetzan jarduteko ildo berria sortu da, zerbitzuen sektoreko autonomoen eta ekintzaile berrien kolektiboari bideratutakoa.

1.7. XEDEA: ARABAKO SEKTORE TURISTIKOA BERRABIAZTEA

1.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: TURISMO INFORMAZIOA ETA BALIABIDEAK KOORDINATZEKO PLANA.

1.7.1.1. JARDUKETA: KUADRILLA ETA UDALEN TURISMO PROGRAMAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Turismoaren deialdiak abian jarri dira, baliabideei zuzendutakoak, hala nola Andre Mariaren Katedrala (50.000), udaletan turismoa sustatzeko (131.250), Arabako Kuadrilletan turismoa sustatzeko (351.500), enpresa ertain eta txikiei laguntzeko (30.000), turismo iraunkorreko ekintzetarako enpresa txikiei eta autonomoei zuzendutako laguntzak, irabazi asmorik gabeko erakundeetan turismoa sustatzeko (85.000), ardoaren ibilbidearekiko hitzarmena (95.000), Santa Katalinako lorategi botanikoarekiko hitzarmena (30.000), udalei zuzendutako inbertsio partida berria (50.000) eta Kuadrillei zuzendutakoa ere (55.000).

1.7.1.2. JARDUKETA: BISITARI MOTEN ARABERAKO TURISMO PAKETEA SORTZEA, DESTINOAREN ARABERAKOAK OSATU BEHARREAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Ibilbide desberdinak diseinatu dira. Ibilbide horiek lurralde osoa hartzen dute, toki eta eskualde desberdinak lotuz eta eskaintza zabala eginez (familiarteko turismoa, gastronomikoa, natura, kirola, kultura, ondarea...). 2017ko uztailetik "ibilbide bat nahieran" prestatzeko aukera ematen da www.alavaturismo.eus webgunean.

2018an Araban autokarabanetarako gida bat eta gastrogida bat jarri dira abian. Halaber, bisitari potentzialei zuzendutako produktu berriak prestatzen ari dira, 2018ko laugarren hiruhilekoan aurkeztuko diren produktuak, alegia.

1.7.1.3. JARDUKETA: TURISMOAREN MAHAIA BULTZATU ETA KOORDINATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015ean abian jarri zenetik, mahaia aldizka-aldizka biltzen da eta bertan jarraitu beharreko ildoak jorratzen dira; era berean, material berriak ebaluatzen eta diseinatzen dira. Urtean batez beste lau bilera egin ohi dira.

1.7.2. ILDO ESTRATEGIKOA: BARNE TURISMOA INDARTZEA.

1.7.2.1. JARDUKETA: URTEKO AGENDA KOORDINATU HANDI BAT SORTZEA, LURRALDE OSOKO EKITALDI ETA JARDUERAK BILTZEN DITUENA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lurraldeko Ekitaldien Agenda hiru hilik behin argitaratzen da. Agenda paperean argitaratzen da, bai eta on-line ere turismoari buruzko webgunean; Arabako Kuadrilla eta turismo bulego guztietan banatzen da.

1.7.3. ILDO ESTRATEGIKOA: TURISMO-MERKATARITZA ALIANTZA, GORANZKO SEKTORE GISA.

1.7.3.1. JARDUKETA: DIRULAGUNTZAK BERTAKO PRODUKTUAK ETA SALTOKIAK KANPOAN MERKATURATZEA SUSTATZEN DUTEN PROIEKTUEI.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Landa guneeetan denda berriak abian jartzeko laguntza. Ganbera Merkataritzarekiko hitzarmen baten bidez, laguntza ematen da gazteek NAZIOARTEKO MERKATARITZA MASTERRA egin dezaten; modu horretan, gure enpresek atzerrian duten erlazio komertziala indartzeko asmoa dago. Espazio publikoak biziberritzeko laguntza ildoa.

1.7.4. ILDO ESTRATEGIKOA: BABESA EKOTURISMOARI, KULTURA TURISMOARI ETA ENOTURISMOARI.

1.7.4.1. JARDUKETA: ZUZENEO DIRULAGUNTZAK OSTALARITZAKO ENPRESEI ETA TURISMO SEKTOREKO SUSTATZAILEEI.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Sektoreko enpresa txiki eta ertainek sustatutako ekintzak eta ekimenak laguntzen dira diruz. Sailak ere finantzatzen ditu sustapen turistikoa helburutzat duten enpresek aurkeztutako proiektuak. Deialdi zehatza.

1.7.5. ILDO ESTRATEGIKOA: LAGUNTZA TURISMO AZPIEGITURETAKO INBERTSIOARI.

1.7.5.1. JARDUKETA: DIRULAGUNTZAK TOKI ERAKUNDEEI TURISMO AZPIEGITURAK HOBETZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Sektore turistikoa inbertsioak finantzatzeko bi deialdi argitaratuko dira: udalei zuzendutakoa (50.000) eta Kuadrillei (55.000). Halaber, ikusmen arazoak dituzten kolektiboei informazioa erraztera zuzendutako ekimenak jarri dira abian eta, aldi berean, mugikortasun arazoak dituzten eta mendian bakarrik ezin ibil daitezkeen pertsonen gure lurraldeko natura baliabideak bisitatzeko aukera emateko ekimenak ere abiarazi dira (elkartasun mendiak).

1.7.6 ILDO ESTRATEGIKOA: TURISMOA ERAKARTZEKO EKITALDIAK FINANTZATZEA.

1.7.6.1. JARDUKETA: DIRULAGUNTZAK TURISMO ERAKARMENAK AKTIBATZEKO PROIEKTUEI

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gure potentzial turistikoa sustatzera eta aktibatzerazuzentzen diren laguntza ildoak daude, toki erakundeentzat, irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, enpresentzat, elkarreentzat, baliabideentzat... Horietan guztietan Kuadrillen arteko aukera berdintasuna bermatzen da eta, horretarako, bisitaririk gutxien dituzten eremuak balioesteko ahaleginak egiten dira. Estrategia horrek emaitzak izan ditu eta bisitarien kopuruak handitu dira orain arte bisitaririk gutxien izan dituzten eremuetan; hazkunde hori Arabako Errioxakoa eta Vitoria-Gasteizkoa baino handiagoa izan da.

1.8. XEDEA: MERKATARITZA BERRAKTIBATZEA

1.8.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ERAKUNDE ARTEKO JARDUERAK MERKATARITZA SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA HANDITZEKO.

1.8.1.1. JARDUKETA: ESPEZIALIZAZIOA, ORIENTABIDEA ETA MERKATARITZA SUSTATZEA, TEKNOLOGIA BERRIEZ ETA PRESTAKUNTZAZ BALIATUTA.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Laguntza ildoak autonomoen inbertsioaren eta merkatarien prestakuntzaren alde, esaterako Google My Business-en gisako posizionamenduan, betiere prestakuntza zehatza eskainiz merkatarien elkarleen laguntzaz. Tokian tokiko merkataritza sustatzeko PENTSATU PLURALEAN – EROSI SINGULARREAN kanpainari dagokionez, Gasteizko eremuan Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritza atxiki zaizkio kanpainari, modu horretan erakundeen arteko lankidetzaz aldeztuz.

1.8.2. ILDO ESTRATEGIKOA: BELAUNALDIEN ERRELEBOA.

1.8.2.1. JARDUKETA: TUTORETZA JARDUERAK, FAMILIAKO SALTOKIAK BELAUNEZ BELAUN ESKUALDATZEA ERRAZTEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Merkataritza Ganberarekin hitzarmen bat garatu da, BELAUNALDIEN ERRELEBOA izeneko, hain zuzen ere. 2018an sinatzeko dago oraindik ere; dena dela, zerbitzua ematen jarraitzen da, aurreko urteetatik baitator.

1.8.3. ILDO ESTRATEGIKOA: JARDUERA PLAN BIZKORRA ESTABLEZIMENDUEN BIDERAGARRITASUN ARRISKUKO EGOERETAN.

1.8.3.1. JARDUKETA: ALERTA SISTEMA BAT SORTZEA GALERAK DITUZTEN SALTOKIEN DIAGNOSTIKOAK EGIN ETA BERE ONERATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Bigarren urtez "MERKATARITZAKO ARRISKU EGOEREN ALERTA GOIZTIARRA" izeneko programa ari da garatzen; aurtengo ekitaldian 40.000 euroko zuzkidura du. Zerbitzua ematen jarraitzen da; aurreko bi urteetatik dator.

1.8.4. ILDO ESTRATEGIKOA: HURBILEKO MERKATARITZARI LAGUNTZEKO PLANA.

1.8.4.1. JARDUKETA: LAGUNTZAK OINARRIZKO BEHARRETARAKO LANDA SALTOKIAK MODERNIZATU ETA ESPEZIALIZATZEKO.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: saltoki berrietan inbertitzeko eta halakoak abian jartzeko laguntza. Laguntza ildo zehatzak ezarri dira.

1.8.5. ILDO ESTRATEGIKOA: BULTZADA ARABAKO PRODUKTUEN MERKATARITZARI

1.8.5.1. JARDUKETA: BERTAKO PRODUKTUEN MARKETING ETA MERKATU IKUSGARRITASUNEKO JARDUERAK

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Tokian tokiko merkataritza sustatzeko eta balioesteko kanpaina zehatza diseinatu eta abiarazi da. Kanpainak zenbait fase ditu: HAUTAKETA/PRESTAKUNTZA/GOOGLE MY BUSINESS/SINGULAR STORE/SAREKO LANA. Kanpaina 2017ko irailetik 2019ko otsailera arte garatuko da. Era berean, lurraldeko GIDA GASTRONOMIKOA ere prestatu da.

1.9. XEDEA: ARTISAUTZA SUSTATZEA

1.9.1. ILDO ESTRATEGIKOA: BABESA ARABAKO ESKULANGINTZARI

1.9.1.1. JARDUKETA: SUSTAPEN ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Artisautza sustatzeko ekintzetarako 30.000 euro erabiltzen dira, prestakuntza, feriak, diseinua, publizitatea eta abar finantzatzuz. Bestalde, urtero-urtero Artisautza Lehiaketako Sariak ematen dira; ekitaldi horretara artisauak bertaratzen dira haien pieza eta lanekin, artisauaren figura sustatzuz.

1.9.1.2. JARDUKETA: LAGUNTZAK ESKULANGINTZA SEKTOREAREN INBERTSIORAKO

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Sailak inbertsioaren aldeko laguntza deialdi bat argitaratzen du; sektorearen zenbait ekimen finantzatzeko. Zuzkidura 30.000 eurokoa da.



1.9.1.3. JARDUKETA: LAN EGITEKO MODUA ERAKUSTEKO LAGUNTZAK

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Herritarrei eta bisitariei artisauen tailerrak zabaltzeko proiektua jarri da abian. Eraitza onak izan ditu 2017an eta 2018ra luzatu da. Ekimen hau osatzeko, HISTORIA DUTEN SALTOKIAK ETA GREMIO ETA FAMILIA IBILBIDEAK balioetsiko dira eta dinamizazio kanpaina bat abiaraziko da auzoetako merkataritzari begira.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA

3. 2. ARDATZA: LOGISTIKA GARATZEA

LEHIAKORTASUNAREN ERAGILE GISA

DESKRIBAPENA:


Legegintzaldi-akordioak azpimarratu egiten du logistikaren garrantzia, ez beste sektore ekonomiko bat gehiago delako, baizik eta lurraldearen ekonomiaren oinarria delako, gure enpresen lehiakortasuna handitu eta ezarpen berriak erakarriko dituen elementua.

Arabak badu elementu bereizgarri bat: Europako garraiobide-ardatzen bidegurutzean dago, eta azpiegitura logistikoak eraikita daude jada. Horrenbestez, indartu egin behar da hori.


Horregatik, bigarren ardatz hau Araba lehen mailako nodo logistikoa eta Iberiar Penintsula eta Europako kontinentea Pirinioen alde atlantikotik elkartuko dituen lotunea bihurtuko duten proiektuak garatzera zuzenduta dago.

JARDUEREN LABURPENA:

	2018KO EKAINA	%	2015EKO UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	21		21	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	% 0	21	% 100
HASIERA AURREIKUSIA	21	% 100	0	% 0
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	0	% 0	0	% 0
GAUZATZEN (*)	21	% 100	0	% 0
AMAITUA	0	% 0	0	% 0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	21		0	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA



GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

2.1. XEDEA: GASTEIZ ETA ARABAKO NODO LOGISTIKOA GARATZEA IBERIAR PENINTSULA ETA KONTINENTEA LOTUKO DITUEN LOTUNE GISA

2.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: NODO LOGISTIKOARI BULTZADA BAT EMATEA EUSKADIKO 2020KO GARAPEN LOGISTIKORAKO ESTRATEGIAREN BAITAN.

2.1.1.1 JARDUKETA: PARTEKATUTAKO IKUSPEGI BAT SORTZEA ETA PARTE-HARTZAILEEN JARDUKETAK KOORDINATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Merkatuen globalizazioak gure gizarteetako ekoizpen- eta kontsumo-ereduen aldaketa ekarri du. Konektibitatea lehiakortasunaren sinonimo da, eta eraginkortasun logistiko maila edozein lurralderen mundu mailako garapenerako faktore kritikoetako bat da. Gero eta gehiago dira, beren tamaina edozein dela ere, nazioarteko merkatuetan lehiatzen duten enpresak, eta, beraz, beren prozesuak optimizatu eta kostuak eta epeak hobetuko dituzten konponbide logistikoak behar dituzte.

Hori errealitatearen egiaztapena eta behar baten eta lehiakortasunerako baldintza baten definizioa da. Behar horri erantzuterakoan, garrantzi handiko rol bat izateko aukera ematen du Euskadi Iberiar Penintsularen iparraldean eta Pirinioen mendebaldera kokatuta egoteak. Rol horrek mundu globalean lehen mailan egotera garamatza, Iberiar Penintsularen eta Europako kontinentearen arteko lotunea izatera.

Herrialdearen lehiakortasunaren aldeko apustua egiteko, Euskadiren gaitasunak Araban kontzentratzen dira, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek jasotzen dutenari jarraikiz.

Helburu hori lortzeko, galdetutako adituek Gasteiz inguruan dispositibo intermodal handi bat egin beharko litzatekeela diote, Euskadiko gainerako azpiegitura logistikoekin ondo baino hobeto konektatuta egongo dena, horrela plataforma logistiko garrantzitsu bat osatzeko.

Ez da ezerezetik hasi behar. A1 autobidean zehar (lehentasunezko ibilbidea da Europako garraiorako) eta Gasteizen zehar logistikara dedikatutako instalazioak daude. Guztira ia 9 milioi m² hartzen dituzte, eta, horrenbestez, funtsezko korridore bat osatzen dute, ez bakarrik Araba eta Euskadirentzat, baita Atlantikotik Europako erdigunearen eta hego-ekialdearen arteko komunikazioarentzat ere. Hori lortzeko, lehentasunezkoa da daukagun guztia balioestea, eraginkortasunez eta behar bezala koordinatuta lan eginez, eta, besteak beste, ekintza eta inbertsio berriak garatuz.



Apustu logistiko honetan Gasteizko ingurua Iberiar Penintsula eta Europako kontinentea Pirinioen alde atlantikotik elkartuko dituen lotune bihurtzeko beharrezkoak diren erakundeen arteko akordioak bilatzen ari gara, horrela Euskadiren lehiakortasuna handitzeko.

2.1.1.2 JARDUKETA: NODO LOGISTIKOA SUSTATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik ari gara nodo logistikoaren garapenean inplikaturako AFAko eta Eusko Jaurlaritzako sailekin batera honako hauen sustapen-, bultzada- eta koordinazio-lanak egiten: Gasteizko aireportua, Terminal intermodala eta Arasur, batez ere.

2.2. XEDEA: GASTEIZKO AIREPORTUA GARATZEA

2.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GASTEIZKO AIREPORTUARI BULTZADA BAT EMATEA EAEKO AIREPORTU EREDU INTEGRATUAREN BAITAN.

2.2.1.1 JARDUKETA: BIDAIARI-HEGALDI ERREGULARARRAK EGITEN DITUZTEN OPERADOREEN EZARPENARI LAGUNTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko ekainean VIA Promoción Aeropuerto de Vitoria sozietateak erabaki zuen aireportuaren sustapenerako sozietate hori osatzen duten hiru administrazioek hartutako konpromiso-kredituak urteko 1.250.000 eurokoak izango zirela lau urtez, 2017-2020 epealdian. AFAk eta Eusko Jaurlaritzak 500.000 euro jarriko dituzte eta Vitoria-Gasteizko Udalak 250.000.

Akordio horretatik, VIAk Gasteizko aireportua sustatzeko lehiaketa publikoko deialdi bat egin zien hegaldi erregularrak eskaintzen dituzten hegazkin-konpainiei. Azkenik, Ryanair-i esleitu zitzaion 2016ko urrian. Konpainia horren hegaldiak 2017ko martxoan hasi ziren Hego Tenerifera eta Bergamora, eta urte bereko urriaren amaieran Kolonia-Bonn-era eta Sevillara, astean birritan.

2017ko maiatzean AFAREN eta VIAren arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen horretan artikulatu zen AFAREN ekarpena: 500.000 euro urteko 2017-2020 epealdian.



2.2.1.2 JARDUKETA: CHARTER HEGALDIAK ESKAINTZEN DITUZTEN TOUOPERADOREEN GARAPENEAN LAGUNTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Operazio horiek VIAren lehen jarduera-lerrokoak dira, eta Gasteizko aireportuari galdua zuen bidaiarien aktibitatea itzultzea da helburua. Horrenbestez, horri gehitzeko helburuak izango dira eskaintzari dagokionez touroperadoreak berreskuratzea, eta, eskariari dagokionez, bidaiariak erakartzea eta Gasteizko aireportua erabiltzeko ohitura berriro ere hartzea, bere abantailez gozatuz: operatiba bikaina, sarbide eta ontziratze azkarra, parkinga dohainik. Laburbilduz, aireportu segurua, eraginkorra, eroso eta atsegina berreskuratzea.

Charter operazioen bitartez aireportua sustatzeko jarduketa horiek garatzeko, espediente-kontratazioak egiten ditu IVA sozietateak negoziatutako prozeduren bitartez.

2.2.1.3 JARDUKETA: HEGAZKIN-KARGAREN NODOAREN GARAPENEAN LAGUNTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Kargaren garapenari dagokionez, AFA SCSrekin (lehen VIAS) lankidetzan dihardu sozietate horrek egun dauden operadoreak lagundu eta beste operadore batzuk erakartzeko egiten dituen egitasmoetan. Lan horren fruitu gisa etorri da beste operadore bat aireportura: UPS. 2017ko ekainean hasi zuen Kolonia-Gasteiz-Sevilla-Gasteiz-Kolonia hegaldia.

Era berean, beste errealitate zoragarri bat da 2017ko irailean DHLren Europako hegomendebalderako Hub-aren hedakuntza egin zela. Inbertitutako 23 milioi eurori esker, DHLk bere generoko terminalik modernoena du Europako hegoaldean.

Egitasmo horiek guztiak eta FEDEX-TNTk egiten dituen operatibaren mantentze-lanak kontuan hartuta, aireko garraio express-ak egiten dituzten hiru konpainia handi ditu Gasteizek. Horrek Euskadiren lehiakortasunerako funtsezko egitura bihurtzen du; izan ere, euskal enpresen konektibitatea indartzen du: 24 orduetan Europarekin eta 48 orduetan mundu industrializatuko edozein tokirekin.

2017an Gasteizko aireportuak berriro ere hautsi zuen marka historikoa salgaien mugimenduari dagokionez: 60.484 Tm-etara iritsi zen. Aurreko urteko emaitzekin alderatuta, % 16ko igoera egon zen, hau da, 66.045 Tm gehiago zirkulazioan dauden salgaiak kontuan hartuta. Zifra horiek hobetzen ari dira gaur egun; izan ere, 2018ko lehen lauhilabetekoan 20.729 Tm-etara iritsi gara jada, iaz epealdi berean lortutakoak baino % 12,4 gehiago.

2.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: VIAP - VITORIA INDUSTRIAL AIR PARK PROIEKTUA GARATZEA.

2.2.2.1 JARDUKETA: AIREPORTUARI LURZORU INDUSTRIALA ETA LOGISTIKOA EMATEKO EGITASMOA MARTXAN JARTZEN LAGUNTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA Eusko Jaurlaritzarekin eta SPRILURekin ari da lankidetzan sozietate publiko horrek garatu behar duen VIAP proiektuaren izapidetzean aurreratu dadin eta Gasteizko aireportuan eta inguruan jarduera ekonomikoei lotutako eremu bat garatu dadin. Horrek aldi berean azpiegitura horrekiko gertutasunaren beharra duten beste proiektu batzuen ezarpena ahalbidetuko du.

Hegaraba azterlanaren ondorioek baieztatu egiten dituzte aireportuaren potentzialtasun industrialak, eta, horrenbestez, aireportuari eta inguruari potentzialtasun industrial horiek garatzeko lurzorua eman behar zaie.

Era berean eta potentzialtasun horiek handitzeko asmoz, beste aireportu batzuetan dagoen bezala, Gasteizen ere aduana-zerga gabeko eremu bat garatzeko proposamena gehitu zaio EAO-Estatuko Administrazio Orokorraren aurrekontuen negoziaketari.

2.2.2.2 JARDUKETA: SPRILUR-EKIN SINATUTAKO HITZARMENEAN EZARRITAKO JARDUKETAK EGIKARITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA Eusko Jaurlaritzarekin, SPRILUR eta URArekin ari da lankidetzan foru-erakundearen eskumeneko hitzarmenean jasotako jarduerak garatzeko, zehazki honako hauek: VIAPen errepide egituratzailearekiko konexioak eta A-3302 Eztarroa-Mendotza errepidearen egokitzapena. Lehenik eta behin egokitzapenean ari dira lanean, batez ere, Zaia ibai gaineko zubi berria egiteko proiektuaren izapidetzeak aurrera egin dezan, Gasteizko aireportutik igarotzen den eremuan egon litezkeen uholdeen kontrako defentsarako konponbideen parte baita.

2.2.2.3 JARDUKETA: JUNDIZ ETA SUBILLABIDEREN ARTEKO LOTURA-POLIGONOAREN GARAPENA BABESTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA Eusko Jaurlaritzarekin eta SPRILURekin ari da lanean VIAP proiektuarekin eta Terminal intermodalaren proiektuarekin sinergia handiak dituen proiektu honen izapidetzeak aurrera egin dezan.

2.2.2.4 JARDUKETA: EREMUAN EZARTZEKO JARDUERA BERRIAK ERAKARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik AFA aireportuaren eta bere industria-eremuaren potentzialtasunen sustapena egiten ari da. Gainera, lurraldea lurralde logistiko gisa sustatzeko ekimenak babesten ari da, besteak beste, SCSk egindakoa edo Merkataritza Ganberak VIAL- Vitoria Álava Logística hitzarmenaren bitartez egindakoa.

2.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: GASTEIZKO AIREPORTUAREN ERABATEKO OPERATIBITATEA.

2.2.3.1 JARDUKETA: SUSTAPEN MINISTERIOARI ETA AENARI ERREKLAMAZIO BAT AURKEZTEA, AIREPORTUAREN H24-A IREKI DADIN ETA AIREPORTUAREN ERABATEKO OPERATIBITATEA BERMATUKO DUTEN NEURRIAK HAR DAITEZEN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik AFAk AENari erreklamatu dio aireportuaren erabateko operatibitatea, H24a eta eskainitako zerbitzuen kalitatea berreskuratzea, horiek esplizituki jaso baitziren foru-gobernuaren akordioan Gasteizko aireportuaren potentzialtasunen garapenean aurrera egiteko asmoz. Era berean, AENari jakinarazi zaio beharrezkoa izango dela terminala modernizatzeko inbertsioak egitea bidaiari-hegaldi erregularrak berreskuratu direlako.

Aipatutako aspektu horiek EAOk gobernuarekin negoziatu beharreko aurrekontuetan gehitu dira. 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzean jarriko dira martxan jarduketa horiek guztiak.

2017ko irailean, AFAk AENari premiazko erantzuna behar zuten hainbat gaitan elkarlanean aritzeko hainbat egitasmo proposatu zizkion, besteak beste, kafetegia martxan jartzeari buruzkoak eta bidaiarien terminalaren irudia eguneratzeko beharri buruzkoak. Zehazki, honako hauek proposatu zituen: bere gain hartzea kafetegiaren ustiapena, bere gain hartzea INDESA enplegu zentro bereziaren bitartez eta terminalaren hainbat eremutan dauden irudien eguneratzea, eta lurraldearen eta aireportuaren azpiegitura sustatzeko erakusketa iraunkor bat ezartzea. Berriki, 2018ko maiatzaren 9an, AENak INDESari jakinarazi dio Gasteizko aireportuko sukaldaritza jardueraren maizter gisa hautatua izan dela kafetegia ustiatzeko garatu den lehiaketa publikoari jarraikiz. Uztailan espero da zerbitzuari hasiera ematea, behin egokitzapenerako inbertsioak bukatuta. Aipagarria da kafetegian dauden bi panelen eguneratzea Gasteiz eta Araba sustatzeko irudiekin.



Beste gai batzuei dagokienez, AENak onartzeko zain dago AFari lurzoruak lagatzeko lankidetzahitzarmena. Horri esker, aireportuko terminaleko irudiak eguneratu ahal izango dira, eta lurraldea sustatzeko erabili. Hitzarmen hori uztailan sinatzea espero da.

2.2.3.2 JARDUKETA: OSASUN ETA NEKAZARITZA MINISTERIOEI ETA AENARI MUGA IKUSKARITZA POSTUAREN ERABATEKO OPERATIBITATEA BERMATUKO DUTEN ZERBITZUAK ZABALTZEKO BEHARREZKO NEURRIAK HAR DAITEZEN ERREKLAMATZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik, AFAk MIPa zabaltzea erreklamatu dio forugobernuaren akordioan esplizituki jaso zelako. 2018ko maiatzan Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Gasteizko aireportuko MIPa zabaltzea dela animalia jatorriko elikagai galkorrenzat.

2.2.4. ILDO ESTRATEGIKOA: VIA - GASTEIZKO AIREPORTUA SUSTATZEKO SOZINETATEA

2.2.4.1 JARDUKETA: LANKIDETZA EUSKO JAURLARITZAREKIN ETA UDALAREKIN SOZINETATE HORREK EGITEN DITUEN SUSTAPEN-JARDUKETEN GARAPENA BABESTEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA Gasteizko aireportua sustatzeko jardueren erakundeen arteko lankidetzako burua da, bai Eusko Jaurlaritzaren eta Gasteizko Udalaren Ekonomiaren Garapenerako sailekin egiten den lankidetzarena, bai VIAren bazkide diren erakundeetako turismo-arduradunekin egiten denarena.

2.3. XEDEA: SALGAIEN TERMINAL INTERMODAL BAT EZARTZEA JUNDIZEN

2.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GASTEIZKO TERMINAL INTERMODALA ERAIKITZEARI BULTZADA BAT EMATEA.

2.3.1.1 JARDUKETA: EJ-GARRAIOAK SAILAREKIN LANKIDETZA, PROIEKTU HAU SUSTAPEN MINISTERIOAN ETA ADIF-EN SUSTATZEKO ETA HAREN GARAPENA LORTZEKO

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Eusko Jaurlaritzari babesa ematen ari zaio DB Internationalek proiektatutako Gasteizko salgaien terminal intermodalaren garapenean. Proiektu horren egikaritzea EA Orena da.

Gasteizko terminal horrek helburu bikoitza du: alde batetik, enpresen lehiakortasuna hobetzea merkatuetara duten sarbidea hobetuz, eta, bestetik, salgaien trafikoa errepidetik trenera pasatzea. Europako kontinentearen eta Iberiar Penintsularen arteko trafiko guztiari zerbitzua emateko diseinatuta dago (Pirinioen mendebaldetik).

Proiektu horren bokazioa da Europako hegoaldeko erreferente bihurtzea. Horretarako, punta-puntako diseinu bat izango luke eta eraginkortasun handia operazio-kosteetan. Horrela, lehiatzeko abantailak emateaz gain, deskribatutakoa bezalako azpiegitura batean ezartzeko interesa izan lezaketen lehen mailako operadoreak ere erakarri litzake.

2.3.1.2 JARDUKETA: AZPIEGITURA HORRETAN ETA DAGOZKION INGURUMENARI BURUZKO IZAPIDEETAN GEHITZEA ARABA ERDIALDEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN ALDAKETA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA eskumena duten organoek Araba erdialdeko lurraldearen zatiko planaren aldaketa izapidetzea babesten ari da, bai eta terminala eraikitzea ahalbidetuko duten gainerako jarduketak ere.

2.3.1.3 JARDUKETA: TERMINALA ERAIKITZEA AHALBIDETZEN DUEN AHT-AREN HEGOALDEKO SARBIDEA GEHITZEA GASTEIZERAKO SARBIDEETAN ETA EUSKAL Y-AN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Eusko Jaurlaritzari babesa ematen ari zaio AHTaren Gasteizerako sarbidearen garapenak DB Internationalek proiektatutako salgaien terminal intermodala eraikitzea ahalbidetu dezan. Proiektu horren egikaritzea AE Oren gobernuaren eskumenekoa da.

2.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: BURGOS ETA GASTEIZ LOTZEN DITUEN AHT-AREN LINEAREN EGIKARITZEA BABESTE.

2.3.2.1 JARDUKETA: AIPATUTAKO LINEA HORI SUSTAPEN MINISTERIOARI ERREKLAMATZEA TERMINALAREN HEGOALDEKO OPERABILITATEA BERMATZEKO

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: AFAk bere babesa eman dio Eusko Jaurlaritzari abiadura handiko linearen Burgos-Gasteiz tartearen erreklamazioan. Izan ere, tarte horrek euskal Y-a Iberiar Penintsulako gainerako eremuekin konektatuko du, eta asmo murriztuko da bidaien iraupena. Tarte hori bidaiarientzako garrantzitsua izateaz gain, terminal intermodalak bere potentzialtasun osoa garatzea ahalbidetu du salgaien korridore bat sortuz penintsularen erdialderantz eta mendebalderantz.

2.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: MADRILERANTZ ETA PENINTSULAREN MENDEBALDERANTZ DOAN SALGAIEN KORRIDORE BATEN SORRERA BABESTEA.

2.3.3.1 JARDUKETA: AIPATUTAKO KORRIDORE HORI SUSTAPEN MINISTERIOARI ERREKLAMATZEA TERMINALAREN HEGOALDEKO OPERATIBITATEA BERMATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Terminal intermodalaren potentzialtasun osoa garatzeko, beharrezkoa da penintsularen erdialderantz eta mendebalderantz doan salgaien korridore bat sortzea. Helburua Estatuan trenez garraiatzen diren salgaien bolumena era jarraituan handitzea da, egungo % 3tik Europa erdialdeko herrialdeetako % 15-20ra. Horretarako, ezinbestekoa da haien lehiakortasuna handitzea honako hauen bitartez: gutxienez 750 metro luze diren trenak erabiltzea, tren horiek kostu baxuz eta trenbideen zabalera ezberdinak kudeatzeko gai diren terminal intermodalak izatea eta ordutegiak beteko direla bermatuko duten salgaien korridoreak eskuragarri izatea, horrela garraioaren fidagarritasuna areagotzeko.

2.3.4. ILDO ESTRATEGIKOA: AZPIEGITURA HORI BILBOKO PORTURA HURBILTZEA.

2.3.4.1 JARDUKETA: BILBO-MIRANDA ETA GASTEIZ-MIRANDA LINEAK ELKARTZEARI BULTZADA BAT EMATEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gasteizko terminal intermodalaren zabalera iberiararren eta Bilboko portuaren arteko konexioa sustatzen ari da AFA Subilla eta Langraiz artean Bilbo-Miranda eta Gasteiz-Miranda lineen elkarketaren bitartez. Horri esker, alde batetik, 30 km gutxiago ibili beharko lirateke, ez litzatekeelako Miranda de Ebro inguratu beharko, eta, bestetik, euskal Y-ari trafiko mantsoa kenduko lioke, eta horrela bere gaitasuna handitu.

2.4. XEDEA: ARASUR-JUNDIZ-FORONDA ARDATZA SUSTATZEA

2.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARASURREKO TREN TERMINALA GARATZEA.

2.4.1.1 JARDUKETA: ARASURREKO TERMINALA ERAIKITZEKO FINANTZIAZIOA, ARASURREK, BILBOKO PORTUKO AGINTZARITZAK ETA EJ-GARRAIOAK SINATUTAKO HITZARMENAREN ARABERA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik AFAk sustapenerako jarduketen baitan gehitu du CTV. Era berean, babestu egin ditu sozietate horrek egindako merkataritza-jarduketak.

2.4.2 ILDO ESTRATEGIKOA: CTV-VITORIA-GASTEIZKO GARRAIO ZENTROA SUSTATZEA.

2.4.2.1 JARDUKETA: CTVI-AREN JARDUKETAK SUSTATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik AFAk sustapenerako jarduketen baitan gehitu du CTV. Era berean, babestu egin ditu sozietate horrek egindako merkataritza-jarduketak.

2.4.2.2 JARDUKETA: CTVI-AREN FINANTZAKETA, AGA-REN BITARTEZ.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik AFAk AGAren bitartez egikaritu ditu CTVren ezinbesteko finantza-orekak mantentzeko beharrezko jarduketak.

4. 3. ARDATZA: LIDERGOA GIZARTE ZERBITZUEN HORNIDURAN


DESKRIBAPENA:

Gizarte politika elkartasun instituzionalizatuaren adierazpena da, eta langabeziarekin, gaixotasunekin, ezintasunekin, zahartzearekin, babesgabeziarekin eta berdintasun ezarekin lotutako arrisku eta ahulezia maila desberdinei erantzuna emateko ekintza publikoak jasotzen ditu.


Araba, azken hamarkadetan, gizarte zerbitzuak emateko orduan duen lider izaeragatik gailendu da. Lider izaera hori, hala ere, galduz joan da azken urteotan. Ardatz honen zeregin nagusia, beraz, Arabako gizarte laguntzaren izaera modernoa, aitzindaria eta lider izaeran oinarritua berreskuratzea da.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015eko UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	50		50	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	%0	22	%44
HASIERA AURREIKUSIA	50	%100	28	%56
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	2	%4	1	%4
GAUZATZEN (*)	23	%46	27	%96
AMAITUA	25	%50	0	%0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	48		27	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA

GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

3.1. XEDEA. HIRUGARREN SEKTOREKO ELKARTEKIN LANKIDETZAN ARITZEA

3.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: LANKIDETZA PROGRAMA ERABILTZAILEKIN ETA ELKARTEKIN

3.1.1.1. JARDUKETA: LANKIDETZA HITZARMENAK TOKI ERAKUNDEEKIN, IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ELKARTEKIN ETA HIRUGARREN SEKTOREAREKIN LOTUTAKO ERAKUNDEEKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016: Puntu honetara iritsita, nabarmentzekoa da 2016an Gasteizko Udalarekin baliabideak antolatzeke izenpetutako marko akordio bat izenpetu izana, bai eta Guardiako Kuadrillarekin genero indarkeria koordinatzeko hitzarmena sinatu izana ere. Gainera, hitzarmen gehienetan esku-hartze sozialeko lehen hitzarmenak ezarritako baldintzak aplikatu dira; horrek berekin ekarri du GOFek aurrekontu ekarkin gehiago egin beharra. Hitzarmen horien emaitza gisa aipatu beharra dago GOFek Arabako AFAko (Alzheimer eta bestelako dementziak dituzten pertsonen senideen elkarte) eta ATECEko (garuneko gaitz-kaltea duten pertsonen senideen elkarte) lokalen obrak finantzatu dituela. 2017: Guztira 121 lankidetzak hitzarmen izapidetu dira eta guztiak indarrean daude. Ekitaldi honetan lankidetzak hitzarmenen luzapenen tramitazioa sinplifikatu da, eta azterketa bat ari da egiten, prezioak eta plazak ezartzeko eta, hala, zenbait zerbitzu eta prestazioren ordainketari begirako prezioa objektibo bihurtzeko eta homogeneizatzeko. Landa gunetako oinarritzko gizarte zerbitzuen lan zamei buruzko azterketa egin ondoren, udalekin adostu dira azterlan horren ondoriozko gehikuntzak; gauzak horrela, Arabako Foru Aldundiak finantzazio handiagoa ezarriko du, guztira finantzazio osoaren %80. 2018ko maiatza: Lan egiten ari da gaixotasun mentaleko eta ezgaitasuneko eremuko hitzarmenak prezio eta plaza bihurtzeko, bakoitzarentzat beharrezkoak diren langile ratioak zehaztuz.

3.1.1.2. JARDUKETA: GIZARTE ZERBITZUEN LURRALDE KONTSEILUAREN DEIALDIA EGITEA ETA SEKTORE KONTSEILUAK AKTIBATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: 2016ko otsailean Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua egin zen, kontseilu sektorialak aktibatzeke konpromisoa hartuz. Urrian eta azaroan gizarteratzearen, ezgaitasunaren, adinekoen, haurren eta gazteen kontseilu sektorialak egin dira. Abenduan, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua egin da. 2018ko maiatza: 2018ko otsailaren 22an Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren bilera berria egin zen, eta bigarren hiruhilekoan kontseilu sektorialetarako deialdiak egin ziren. Lurralde Kontseiluaren ondorioz, apirilaren 19an bizi eredu independentea aztertzeke lantaldearen lehendabiziko bilera egin zen.



3.2. XEDEA: MENDEKOTASUNAREN LEGEA GARATZEA

3.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: MENDEKOTASUNAREN ARRETARAKO HOBEKUNTZA PLANA

3.2.1.1. JARDUKETA: EZINTASUNA ETA MENDEKOTASUNA ORIENTATU ETA BALIOESTEKO ZENTROA INDARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016an Orientazio eta Balorazio Zentroaren pertsonala sendotu da kategoria profesional guztietan (sendagileak, gizarte langileak, baloratzailleak, psikologoak...). 2018ko maiatza: Orientazio eta Balorazio Zentroan administrari bat gehiago hasi da lanean lanaldi osoan, taxi zerbitzuaren kudeaketa osoari laguntzeko, mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonak lekualdatzeko bitarteko gisa, betiere hori guztia foru eskumena dela ezarri duen dekretua betez. Urtean zehar OBZren lan prozesuak berrikusiko dira, kudeaketaren efizientzia hobetzeko.

3.2.1.2. JARDUKETA: AUTONOMIA PERTSONALEKO ZENTROA ERALDATU ETA AUTONOMIA PERTSONALEKO ETA MENDEKOTASUNAREN PREBENTZIOKO FORU ZERBITZU BIHURTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018: Urtean zehar Autonomia Pertsonaleko Zentroaren gaur egungo artapen eredua berrikusiko da.

3.2.1.3. JARDUKETA: LAGUNTZA PRODUKTUAK ERABILTZEKO KUDEAKETA ETA TREBAKUNTZA PROGRAMA SORTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: INDESA S.L.k laguntza teknikoak mantentzeko eta konpontzeko banku bat sortu du, laguntza horien erabilera ahalbidetzeko. 2018ko maiatza: Batzar Nagusietako Gizarte Zerbitzuen Batzordeak mantentze banku berria bisitatu du. Une honetan ezgaitasun egoera onarturik duten pertsonen zuzendutako laguntzen deialdi berrirako oinarriak prestatzen ari dira eta laguntza teknikoan mantentze bankuan prestatutako laguntza teknikoak eskuragarri jarriko dira.

3.2.1.4. JARDUKETA: LEHEN URTEETAKO ARRETA ZERBITZUA 0-6 URTERA HEDATZEA.

Egoera: Amaitua



Deskribapena: 2016: Artapen goiztiarra arautzen duen dekretu autonomiko berria onartu ondoren, 2016ko azken hiruhilekoan 3 urtetik 6 urtera bitarteko adin txikikoak artatzen hasi zen. Gainera, Artapen Goiztiarreko Balorazio Taldea eratu zen; talde hori hezkuntzako, osasuneko eta gizarte zerbitzuetako profesionalek osatzen dute eta GOFEk koordinatzen du. AGBT hamabostean behin biltzen da. 2016an 285 adin txikiko artatu zituen. 2017: Artapen goiztiarra arautzen duen dekretu autonomikoak ezarritako artapen maila berriak betetzeko, zerbitzua kudeatzen duen hirugarren sektoreko APDEMA elkartearekin lankidetza hitzarmen berria onartu da. Hitzarmen berriak 549.553,03 euroko zenbatekoa du eta gehikuntza ia 250.000 eurokoa izan da, aurreko urtekoarekin alderatuz gero. Abenduan lankidetza hitzarmenaren aldarazpen bat onartu zen eta kopurua 53.919,94 euroan handitu zen. 2018ko maiatza: AGBTren eta Artapen Goiztiarreko Zerbitzuaren lan prozesuak aztertuko dira, arloan esku hartzen duten hiru sistemen arteko koordinazioa indartzeko.

Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen Artapen Goiztiarreko Zerbitzuak artatutako haur kopuruari dagokionez, %92 handitu da 2015etik. Orotara 450 neska-mutil artatu dira 2017an.

3.3. XEDEA: ADINEKOEN BIZI KALITATE AUTONOMOA ETA INDEPENDENTEA

3.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ETXEKO ARRETA UNIBERTSALA 80 URTETIK GORAKOENTZAT.

3.3.1.1. JARDUKETA: 80 URTETIK GORAKOEI ARRETA UNIBERTSALA ETXEAN EMATEKO LAGUNTZA PROGRAMA BATEN DIAGNOSTIKOA ETA LANKETA. LANKIDETZA UDALEKIN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017ko martxoaren 23an 80 urtetik gorako pertsonak artatzeko lehentasunei buruzko azterlana aurkeztu da; azterlan horren ondorioek berekin dakarte etxebizitzan geratzeko nahian arreta jartzen duten artapen politika ezarri beharra: LPPE (laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoa) bultzatuko dugu, bai eta FIZPE (famiaren ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa) eta eguneko zentroetako zenbait prestazio ere. 2018ko maiatza: Bestalde, 20.000 biztanletik beherako udalerriekin etxez etxeko laguntza zerbitzuaren berrantolaketa amaitzen ari da. Hobekuntza gisa artapen orduak gehituko dira, astean gehienez ere 16 ordu izatetik 20 ordura pasatuko dira.



3.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNTSUAREN PROGRAMA.

3.3.2.1. JARDUKETA: ZAHARTZE AKTIBOAREN PROGRAMAREN DIAGNOSTIKOA ETA LANKETA. LANKIDETZA UDAL, KUADRILLA ETA GIZARTE ERAGILEEKIN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016an aktiboki parte hartu da Eusko Jaurlaritzak sustatutako Gobernantza + 65 izeneko programan. 2017: 2017ko maiatzaren 2an Zahartzaroa izeneko jardunaldian esku hartu da; bertan geriatría eta gerontologiaren 250 profesional inguruk parte hartu dute “bizitzaz betetako zahartzaroari” buruzko gaiari helduta.

3.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO PLANA, KANPOKO ATSEDEN ZERBITZUEKIN.

3.3.3.1. JARDUKETA: ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO PLANAREN DIAGNOSTIKOA ETA LANKETA, GENERO DIMENTSIOARI ERREPARATUTA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko abuztuan atsedeen programa berria jarri zen martxan, haurren eta gazteen zainzaileei zuzenduta; egitasmo horren bidez, interesatutako hirugarren sektoreko elkarleen esku jarri zen aisialdi programa batean parte hartzeko aukera. 2018ko maiatza: GOFek “Zaindu Zaintzeko” programa kudeatzen du; haren helburua da ohiko zainzaileari prestakuntza eta laguntza eskaintzea, bai eta elkarri laguntzeko sarea bultzatzea ere. Bestalde, atsedenerako egoitza plazetarako zerbitzuari lotutako prestazioetarako 285.000 euro erabili dira eta eguneko zentroko asteburuetako 70 atsedeen plazak mantenduko dira. Gainera, ezgaitasuna duten gazteen familiei zuzendutako atsedeen zerbitzu berria jarriko da abian, Gazteriaren Foru Erakundearekin elkarlanean; horretarako, 2018ko aurrekontuetan 125. euroko partida bat zainpetu da. Gainera, abuztuan ezgaitasuna duten gazteentzako aisialdi programari eutsiko zaio; hori ere Gazteriaren Foru Erakundearekin elkarlanean bideratzen da eta 25.000 euroko zuzkidura du. Halaber, atsedeen programak finantzatzeko dira; hirugarren sektoreko erakundeek garatuko dituzte eta horietan egonaldi laburrak eskaintzen dira ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko etxebizitzetan eta egoitzetan. Generoaren dimentsioari dagokionez, Berdintasunaren aldeko IV. Planean zainketen lan formalak eta informalak egiten diren baldintzei buruzko azterlan bat egingo da, zeregin honen prekarizazioaren eta feminizazioaren ondorioetan arreta jarritz.



3.4. XEDEA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ) INDARTZEA

3.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN (ELZ) ORDUTEGIA ZABALTZEA.

3.4.1.1. JARDUKETA: ELZ ZABALTZEA ALDI BATERAKO LARRIALDIETARA ETA LARRIALDIEN ETA 2 ETA 3 GRADUKO MENDEKOTASUNETARA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2015: ELZ handitu da balorazioaren zain egin gabe, betiere traumatismo kraneoenzefaliko, iktus eta bestelako gorabehera kardiobaskularrek eragindako mendekotasunak dituzten pertsonen zuzenduta. 2017: Maiatzaren 17ko 36/2017 Mozioa onartu ondoren (bat-bateko arrazoi batengatik mendekotasuna etxean artatzeko programari dagokiona), aztertzen ari da bat-bateko arrazoiarengatik mendekotasuna etxean artatzeko programa eskuratzeko irizpideak aldatzea.

3.5. XEDEA: ADINEKOEN EGOITZAK HOBETZEA

3.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: EGOITZETAKO ARRETAREN EGUNGO BALDINTZAK HOBETZEA.

3.5.1.1. JARDUKETA: EGOITZETAKO EGUNGO BALDINTZAK AZTERTZEA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK EGITEA, SEKTOREKO ERAGILEEKIN ELKARLANEAN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: puntu honetan nabarmendu beharra dago 1. mailako mendekotasuna duten pertsonak artatzen hasi dira; horrek %40ko gehikuntza eragin du. Gainera, artapen maila berari eutsi zaio, nahiz eta eskaria nabarmen igo den (bi bider). 2017: 2017an gainerako foru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin parte hartu da martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzu sozialei buruzkoa, berrikusteko lanean. Orobat, lurraldeko egoitzekin harremanak izan dira haien egoera ezagutzeko eta gizarte arloan hobekuntza neurriak proposatzeko. Gizarte Zerbitzuetako Erregistro eta Ikuskapen Zerbitzuak jarraitzen du artapen zentroetan legezkotasuna beteko dela zaintzeko lanean. 2018: adinekoentzako egoitzak hobetzeko kalitate programen bidez, zentroetako arautegietan kalitate estandarrak ezartzeko lana sustatzen segitzen da, bereziki egoitza zentroetako, eguneko zentroetako eta etxebizitza komunitarioetako



barne arautegiak baliatuz. 2018ko maiatza: foru sareko egoitzen barne arautegiak amaitzen ari dira eta foru sarean sartutako adinekoen zentroen oinarritzko estatutua banatzeari ekin zaio.

3.5.2. ILDO ESTRATEGIKOA: TRATU DESEGOKIAK DETEKTATZEKO TRESNAK.

3.5.2.1. JARDUKETA: PROTOKOLOAK EZARTZEA EGOITZETAN TRATU DESEGOKIAK DETEKTATU ETA PREBENITZEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: Zentroko arduradunari, langileei edo erabiltzaileei edo bisitariei fisikoki eraso egitea edo tratu txarrak ematea oso arau hauste larri gisa arautu da Foru Gobernuaren Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2017 Foru Dekretuan (lurralde historiko honetako gizarte zerbitzuen foru sarean integratutako adinekoen zentroen oinarritzko estatutua onartzen duena); arautegi horrek indarrrik gabe utzi du otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretuak onartutako estatutua. Gainera, laguntza eskaini da adinekoentzako egoitza zentroen dekretu proiektua prestatzeko lanari begira, eta egitasmo horretan jarduketa protokolo bat jaso da tratu txarren edo gehiegikerien egoera dagoela susmatzen den edo atzematen den kasuetarako.

3.5.2.2. JARDUKETA: TRATU TXARRAK DETEKTATZEKO TRESNAK APLIKATZEA, EUSKO JAURLARITZAREKIN ELKARLANEAN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailarekin elkarlanean lanabes bat prestatu da 65 urtetik gorakoen arteko tratu txarren arriskua atzemateko; tresna horrek balio du esku hartzeko erabakiak har daitezen. Hala, izapideak arintzea ahalbidetzen du emaitzaren arabera eta salbuespenen kudeaketa proposatzen du emaitzaren arabera. Lanabes hau ezarri da gizarte eta osasun arloa artatzeko Euskal Kontseiluaren bidez. Helburua da pertsona hauei sufrimendu maila handiak sorrarazten dizkieten egoera larriak nabarmen hobetzea. 2017: GOFEn adinekoen arloetako profesionalei zuzentzen zaien prestakuntza eskainiko da, lehenik eta behin eguneko zentroak, gizarte arloan esku hartzeko zerbitzuak eta mendekotasunaren baloratzailleak kontuan hartuz; aldi berean, tresna hau erabiltzen hasiko da 80 urtetik gorako menpeko emakumezkoekin ere. 2018: tratu txarrak atzemateko lanabesaren aplikazioaren emaitzen ebaluazio eta jarraipena egiteko beharrezko mekanismoak ezarriko dira. 2018ko maiatza: gizarte eta osasun arloko koordinaziotik parte hartuko da Eusko Jaurlaritzak tratu txarrak atzemateko lanabesaren ezarpena hobetzeko bultzatutako koordinazio bileretan. 2018ko maiatzera arte, lanabesa eguneko zentroetako 123 erabiltzaileri pasatu zaie.

3.5.3. ILDO ESTRATEGIKOA: EGOITZETAKO PLAZA KOPURUA HANDITZEA.

3.5.3.1. JARDUKETA: PLAZA PSIKOGERIATRIKOEN KOPURUA HANDITZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: funtsezko arau gisa plazak sortzeko eta hitzartzeko bideari heldu zaio berriro ere, behin plazarik batere sortu edo hitzartu ez den zenbait urtetako epea igaro ondoren. 2017: Aramaion 2-4 plaza hitzartu dira eta Gasteizen 18 plazaren lizitazioa egiteko prozedurari ekin zaio, bertan egoitza baliabide horren eskaria handiagoa baita. 2018ko maiatza: Araiako eta hegoaldeko adinekoentzako egoitza zentroetan plazak hitzartzeko lizitazio agiriak prestatzen ari dira; izan ere, gizarte zerbitzuen mapan zehaztu da bi eremu horietan egoitza plazen kopuruak handitu behar direla. Era berean, ekimen sozialeko kooperatiba baterako hitzarmena lantzen ari da, Gasteizko Lakua auzoan menpekotasuna duten adineko pertsonentzako eta ezintasun maila handiko pertsonentzako 150 plaza izango dituen Arabarren izeneko egoitza konplexu berriaren sorrera bultzatzeko.

3.5.4. ILDO ESTRATEGIKOA: EGOITZA AZPIEGITURAK.

3.5.4.1. JARDUKETA: HOBEKUNTZA ETA AZPIEGITURA PLANA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016: puntu honetan aurrera eramandako erronkarik handienak honakoak izan dira:

- Amurrioko egoitzaren erreforma eta fisioterapia areto bat sortu izana.
- San Prudentzioko AAZiko bi solairuak berritzeko obra proiektua, 60 plaza gehiagoren eskaintza ekarriko duena. (Proiektu hau bertan behera geratu da Arabarren egoitza berriak ordezkatzeko delako).
- Zadorrako egoitzan lagunduen unitate bat psikogeriatriako unitate bihurtu izana.

2017: 1.- Txagorritxu: 6 gelatan leihoak aldatu dira arian-arian. Pintura. Hiru areto handitu dira eta modulu txikietako 3 bainugela gela individual bihurtu dira. Moduluak margotu dira eta sukaldeko korridorean babes panelak jarri dira. 2.- Ajuria: beheko solairuko bi areto handitzeko lanak. 4.- Samaniego: solairu bat psikogeriatria bihurtzeko azterlana. Gelak, jantokia eta bainugelak margotu dira. 5.- Agurain: kanpoaldeko fatxada berrikusi da. 7.- Espejoko etxebizitza komunitarioa: gasolioko biltegia garbitu, 8 gela margotu, fatxadako arrakalak konpondu eta kanpoaldeko lurrari baldosak jarri zaizkio.



2018ko maiatza: 2018ko aurrekontuan 174.480 euroko partida bat jaso da, Amurrio eta Ajuriako egoitzetan aire girotua jartzeko eta Txagorritxuko egoitzan telekomunikazioen sistema hobetzeko.

3.6. XEDEA: EGUNEKO ZENTROAK SUSTATZEA

3.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: EGUNEKO ZENTROEN ORDUTEGIA EGOKITZEA.

3.6.1.1. JARDUKETA: ORDUTEGIA BENETAKO ESKARIAREN ARABERA EGOKITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko maiatza: Urtean zehar EUDELekin batera landa eremuetako eguneko artapen zentroak berrantolatzeke lanari ekingo zaio, eta gaur egungo premiak aztertuko dira, artapen ordutegiei dagokienez.

3.6.2. ILDO ESTRATEGIKOA: EGUNEKO ZENTRO BERRIAK ARABAN.

3.6.2.1. JARDUKETA: EGUNEKO ZENTRO BERRIA ARRETA EMATEKO LANERAKO PRESTAKUNTZAKO IKASTEGIETAN DAUDEN EZINDU INTELEKTUALEEN BEHARREI.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: Aztertzen ari da nola birdefinitu zentro okupazionalak, baliabide horien erabiltzaileek dituzten ezaugarri eta profil berrietara egokitzeko asmoarekin. Zehatzago, zentro okupazional bat edo gehiago birdefinitzeko asmoa dago, eguneko zentro bilakatzeko. 2018ko maiatza: Zentro okupazionalen eredua birdefinitzeko lanari heltzen jarraituko da.

3.6.2.2. JARDUKETA: INBERTSIOA EZINDU FISIKO LARRIENTZAKO EGUNEKO ZENTRO BERRI BATEAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko maiatza: Aurreikusita dago 25 egoitza plaza sortzea ezgaitasun fisiko larria duten pertsonen zuzendutara.

3.7. XEDEA: LURRALDE BARRUKO OREKA GIZARTE ONGIZATEAN



3.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAKETA.

3.7.1.1. JARDUKETA: GIZARTE ZERBITZUAK BERRANTOLATZEA, ZERBITZU KARTAREN DEKRETUAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN MAPAREN ARABERA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016: 2016ko uztailaren 18an Arabako Lurralde Historikoko Zerbitzuen Mapa onartu da; horrela bada, udal eta toki eskumeneko baliabideak berrantolatu dira, indarreko dekretuaren arabera. 2016ko abenduan Gasteizko Udalarekin marko akordio bat izenpetu da, udal berrantolaketa hori ezarri eta eskuduna ez zen administrazioak ematen ziharduen zerbitzuak eskualdatzea erabakiz, betiere indarreko dekretuak xedatutakoaren arabera. 2017: 20.000 biztanletik beherako udalerri guztiek (50) baimena eman dute Arabako Foru Aldundiak ordura arte ematen ziharduen udal eskumeneko zerbitzuak ematen jarraitzeko, gehienez ere 24 hilabeteko epean zehar. EUDELein batera batzorde tekniko-juridikoa sortu da, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan eskumenen berrantolaketa adosteko. 2018: Udalek eta Arabako Foru Aldundiak eskumenak berrantolatzeko zereginari heldu diote ELZ kudeatzeko; gauzak horrela, nahi badute Arabako Foru Aldundiak kudeatzea, kudeaketa lagatzeko hitzarmen baten bidez eta kudeaketa arautegi baten bidez egitea proposatu da. 2018ko maiatza: EUDELen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko akordioa lortu da ELZ kudeatzeko eskumenen eskuordetzari estaldura emateko lanabes juridiko eta finantzarioen inguruan, betiere hori erabakitzen duten udalei dagokienez. Halaber, eskumena euren kabuz kudeatu nahi duten udalentsako finantza irizpideak zehaztu dira. Landa eremuko eguneko artapen zentroen eta etxebizitza komunitarioei gainerako azterlana egiten hasi da.

3.7.2. ILDO ESTRATEGIKOA: EGOITZA PLAZEN SAREA, EGUNEKO ZENTROAK ETA ELZ-REN GARATZEA ARABAKO LANDA INGURUNEAN.

3.7.2.1. JARDUKETA: EGOITZA, EGUNEKO ZENTRO ETA ELZ-REN NEURRIRATZE ETA KOKATZE PLANA LURRALDEAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016: 2016an (historikoki hala izan da) AFAk jarraitu du lurralde historikoko udal eskumeneko baliabide guztiak %80 inguruan finantzatzeko eta kudeatzeko, Gasteizkoak izan ezik. Eta halaxe segitu du, Diputatuen Kontseiluak 2016ko abenduan hala erabakita. 2017: ALHko 20.000 biztanletik beherako udal guztiek akordio hori berretsi dute osoko bilkuran. 2017an Aramaion 2-4 plazaren kontzertazioa esleitu da. Gasteizen 18 egoitza plaza hitzartzeko lizitazioari ekin zaio, Gasteiz baita eskaririk gehien jasotzen duen udalerria. 2018ko maiatza: Araian eta hegoaldean hitzartutako plazen lizitaziorako agiriak prestatzen ari dira; izan ere, gizarte zerbitzuen mapak toki horietan



egoitza planak gehitzeko premia ezartzen du. Era berean, Artziniegan landa eremuko Eguneko Artapen Zentro berria eraikitzeke 50.000 euro zainpetu dira aurrekontuan.

3.7.2.2. JARDUKETA: ARAIAKO KUADRILLAKO EGUNEKO ZENTRO BERRIAN INBERTSIOAK EGITEA EZGAITASUN INTELEKTUALA ETA LAGUNTZA PREMIA HANDIAK DITUZTEN PERTSONENTZAT.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko maiatza: hirugarren sektoreko erakunderen batekin lankidetzak hitzarmen bat sinatzeko zeregina betetzen ari da, gehienez 6 plaza izango dituen baliabide berria abian jarri ahal izateko.

3.7.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ETXEAN ONDO PROIEKTU PILOTUA HEDATZEA.

3.7.3.1. JARDUKETA: ETXEAN ONDO PROIEKTUA HAINBAT UDALERRITARA HEDATZEA. LANKIDETZA OINARRIZKO ZERBITZUEKIN ETA ARRETA SOZIOSANITARIOKOEKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: Etxean Ondo-ren diagnostikoaren prestaketa Arabako Errioxako Kuadrillara hedatzeko aukera aztertu zen eta Añanako Kuadrillan eredu horren garapena babestuko da. Hala ere, gizarte eta osasun eremuko egiturak indartzen jarraitzearen aldeko hautua egin da, Arabako Errioxako ESI abian jartzeko laguntza eskainiz. 2018ko maiatza: Gizarte eta osasun arloko koordinazioa sendotuko da gaur egungo egituren bidez. Proiektu honen ondorioak eta metodologia aplikatuko dira gizarte eta osasun arloko lehentasun estrategikoetan.

3.8. XEDEA: GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO BORROKA

3.8.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GIZARTE BAZTERKERIAKO EGOERAK DETEKTATZEKO TRESNAK.

3.8.1.1. JARDUKETA: PROIEKTU PILOTUA, GIZARTE DIAGNOSTIKORAKO ETA BAZTERKERIAREN BALORAZIORAKO TRESNAK EZARTZEKO. LANKIDETZA EUSKO JAURLARITZAREKIN.

Egoera: Amaitua



Deskribapena: 2016: 2016ko abenduan abian jarri da bazterkeria baloratzeko tresna. 2017: gizarte bazterkeriaren balorazioa arautzen duen arautegia izapidetzen ari da. 2018ko maiatza: otsailaren 13an ALHn gizarte bazterkeriaren onarpena erregulatzen duen 8/2018 Foru Dekretua onartu da. Halaber, bazterkeria baloratzeko zerbitzu espezializatua eraturik dago. Gizarte bazterkerian dauden pertsonak artatzeko foru sarearen barruan dauden pertsonen balorazioei ekin zaie.

3.8.1.2. JARDUKETA: BAZTERKERIA BALORATZEKO ETA DIAGNOSTIKATZEKO ZERBITZU BERRIA SORTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2018ko maiatza: bazterkeria baloratzeko eta diagnostikatzeko foru zerbitzu berria sortu da; bi gizarte langilek, psikologo batek eta koordinatzaile batek osatzen dute.

3.8.2. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO INDARKERIAZKO EGOERETAKO ARRETA.

3.8.2.1. JARDUKETA: ONGIBIDERATUZ PROIEKTUA. TRATU TXARREN BIKTIMEI HARRERA ETA LAGUNTZA INTEGRALA EMATEKO ZERBITZUA. HARRERA ZENTROEN SAREA. LANKIDETZA GASTEIZKO UDALAREKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: 2017ko azken hiruhilekoan genero indarkeriaren biktimentzat egonaldi ertain-luzeko egoitza zentro berriaren lizitazioa egin da (intentsitate ertaineko artapen maila espezializatua) eta hura diseinatzeko eta ekipatzeko lanari ekin zaio. Orobat, jardunbideari eta barne erregimenari buruzko arautegia prestatu eta onartu da. 2018ko maiatza: Gasteizen genero indarkeriaren biktimak izandako emakumeei zuzenduta, egonaldi ertaineko egoitza baliabide berria abian jartzeko lokal baten errentamendua onartu da, indarreko dekretua betez. Arabako Lautadako Kuadrillarekiko lankidetza hitzarmena onartu da landa gunera Hegoak foru zerbitzua hurbiltzeko, zehatzago, genero indarkeriaren biktimak direnontzako artapen psikosoziala.

3.9. XEDEA: ADIN TXIKIKOEI ETA FAMILIARI ZUZENDUTAKO ARRETA HOBETUA

3.9.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ADIN TXIKIKOEN ETA FAMILIAREN ARRETA KO PROGRAMA.

3.9.1.1. JARDUKETA: BALIABIDEAK HANDITZEA EDOZEIN KULTURA ETA JATORRITAKO ADIN TXIKIKOEN ARRETARAKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016: Babesgabetasun larrian dauden nerabeentzako eguneko zentro berria jarri da abian, legegintzaldiko bigarrena (dagoeneko hiru daude guztira). Gainera, arloko pertsonala handitu da, koordinatzaile berria eta administrazio orokorreko teknikaria kontratatuz. 2017: 2017ko maiatzean emantzipazio pisu berria jarri da martxan; guztira 15 adin txikiko artatu ahal dira bertan. 2010eko urtarrila: ministerioari jakinarazi zaio uztailetik aurrera izandako aparteko etorreren egoera, horiek artatzeko neurri egokiak ezar daitezzen. Gainera, lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarren gaur egungo artapen eredua berrikusiko da, ohiko babes sarean integratzea ahalbidetzeko. 2018ko maiatza: lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrak zuzenean artatzeko pertsonala sendotu da.

3.9.1.2. JARDUKETA: TUTORETZAPEKO ADINGABEEN BISITA UNITATEA LEKUZ ALDATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: Almudena Cid Eguneko Zentroaren eremua zaintzapeco adin txikikoen bisita unitatera egokitzeko obrak egin dira. 2018eko urtarrila: 2018ko lehen hiruhilekoan bisita unitatea zentro berrira lekualdatzeko lana egin da. 2018ko maiatza: Bisita unitate berria abian da jadanik.

3.9.2. ILDO ESTRATEGIKOA: FAMILIA HARRERA EGITEKO PROGRAMA INDARTZEA.

3.9.2.1. JARDUKETA: FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZATU EDOTA PROFESIONALIZATUA ABIAN JARTZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016: 2016an zehar lankidetzan jardun da harrera espezializatua arautzen duen arautegi autonomiko berria prestatzeko. Gainerako foru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin aztertu eta gai hau Autonomien arteko Haurren Batzordean jorratu ondoren, erabaki da harrera espezializatua ez garatzea, Gizarte Segurantzaren sistemak tratatzearen inguruan irizpide bateraturik ez dagoelako; gainera, zenbait aurrekari judizialen arabera, pertsona harreragileak Administrazioaren

konturako langiletzat hartuak izan dira. 2017: 2017ko azken hiruhilekoan familia harrerarako prestazio ekonomikoak arautuko dituen foru arautegia berrikusi da, 2018ko deialdiari begira, betiere harrera espezializatua barne. 2018eko urtarrila: Harrerarako laguntzak berrikusi dira eta haien kudeaketa arintzeko ahaleginak egingo dira. 2018ko maiatza: Familia harrerarako laguntzak arautzen dituen foru dekretua aldatu da, familia harrera bultzatzeko asmoz, eta horren tramitazioari ekingo zaio 2018ko bigarren seihilekoan.

3.10. XEDEA: GOFE-KO LANGILEEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA

3.10.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA GOFE-N

3.10.1.1. JARDUKETA: GOFE-REN GAUR EGUNGO LANPOSTU ZERRENDAAZTERTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: IKEIri gaur egungo lanpostu zerrenda aztertzeke azterlan bat prestatzeko adjudikazioa emateaz gain, GOFE barneko egitura eta lan prozesuak aztertzeke lana ere esleitu zaio, betiere kudeaketaren efizientzia eta efikazia hobetzeko egitura egokia zein izango litzatekeen ezarri nahian. Irailean txosten bat prestatzeari ekingo zaio. 2018: 2018ko urtarrilean GOFeko egiturari eta lan prozesuei buruzko azterlanaren txostena bukatu da. 2018ko maiatza: lanpostuen zerrendan hiru urtetik gorako iraupena duten eta egiturazkotzat jotzen diren programa kontratuak sartu dira.

3.10.1.2. JARDUKETA: DEIALDIAN SARTU BEHARREKO LANPOSTUAK ZEHAZTEA (2017KO DEIALDITIK ZAIN DAUDENAK). NEGOZIAZIOAK ETA INFORMAZIOA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: 2016ko uztailan GOFek erabaki zuen GOFeko Pertsonalaren Batzordearekin batera LEPak egitea 2017an eta 2018an. LEPren barnean honako kategoriak jasoko dira: 36 administrari plaza, egoitzako sukaldeko 15 laguntzaile plaza, 7 mediku plaza (geriatria, familia medikuntza edo barne medikuntza), administrazio orokorreko 5 goi teknikari, 5 pedagogo plaza, 4



fiseoterapeuta plaza, informatikako teknikari laguntzaileen 3 plaza, informatikako goi teknikarien 2 plaza, lan medikuen plaza 1 eta pertsonaleko teknikari ertainen plaza 1. 2017: guztira, 187 plaza izatea proposatzen da: 28 erizainenak eta gainerakoak, 159, erizain laguntzaileenak. 2018ko maiatza: 2016ko LEPren probak amaitu dira. 2018ko bigarren hiruhilekoan 2017ko LEPren oinarri orokor eta zehatzak argitaratu dira, erizainei eta erizaintzako laguntzaileei zuzendutakoak.

3.10.1.3. JARDUKETA: GOFE-REN ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAREN DEIALDIA EGITEA, 2017TIK ZAIN DAGOENA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: Maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren bidez onartu ziren GOFeren zerbitzupeko karrerako funtzionario gisa jarduteko hautaketa prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrak. 2017ko ekainaren 1eko foru aginduen bidez onartu dira GOFeren zerbitzupeko karrerako funtzionario gisa jarduteko hautaketa prozesuak arautu behar dituzten oinarri zehatzak eta gaitegiak. Irailean GOFeko 28 kategoria profesionalentzako lan poltsa subsidiarioak sortu ziren. 2018: 2016ko LEPren hurrengo probak egin dira. Hurrengo urtean GOFek azken urteotan plazarik gehien izango dituen beste LEP bat egingo du. Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen 2017ko Lan Eskaintza Publikoak 187 plaza izango ditu: horietatik 28 erizainenak izango dira eta gainerakoak, 157, erizain laguntzaileenak. 267 plaza eskainiko dira 2016ko eta 2017ko EPEen artean; gauzak horrela, %60 inguru jaitsiko da foru erakundeko bitartekoen kopurua. 2018ko maiatza: 2016ko LEPren probak amaitu dira. 2018ko bigarren hiruhilekoan 2017ko LEPren oinarri orokor eta zehatzak argitaratuko dira, erizainei eta erizaintzako laguntzaileei zuzendutakoak.

3.10.2. ILDO ESTRATEGIKOA: PROFESIONALEN BALDINTZAK HOBETZEA.

3.10.2.1. JARDUKETA: HITZARMEN BERRI BAT NEGOZIATZEA, GOFE-KO LAN BALDINTZAK ARAUTUKO DITUENA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: Negoziazio mahaian honako akordio hauek lortu dira: lanaldi murrizketei eta igande nahiz jaiegunetako ordu konpentsazioari buruzko ekainaren 29ko akordioa, adin txikikoen eta



familiaren eremuko guardiei buruzko uztailaren 26ko akordioa, GOFeko mugikortasunari buruzko irailaren 7ko akordioa, sukaldeko laguntzaileak lekualdatzeko lehiaketaren deialdiari buruzko irailaren 29ko akordioa eta KIMUko zentro okupazionalako arduraduna izendatzeko lanpostu zerrenda aldatzeko irailaren 29ko akordioa. 2018ko maiatza: Lekualdaketen lehiaketa bat deitu da, 201 posturi eragiten diona; horietariko gehienak adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako erizain laguntzaileak dira. Deialdi honen xede nagusia da GOFeko profesionalen borondatezko mugikortasuna erraztea eta kategoria horietan azken sei urteotan egindako lehen lehiaketa da.

3.10.2.2. JARDUKETA: ALDI BATERAKO ZERBITZUEN ARAUTEGIA.

Egoera: Hasteke

3.10.2.3. JARDUKETA: GOFE-REN EUSKARA PLANA BULTZATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: 2017ko azken hiruhilekoan abian jarri da Euskara Batzorde berria. Batzorde horrek GOFeren Euskara Plana sustatzeko neurriak aztertuko ditu. 2018ko maiatza: Euskara Batzorderako deialdia egin da, eta 2018rako dirulaguntzak onartu dira.

3.10.2.4. JARDUKETA: AZTERLANA ETA JARDUERAK GOFE-N ABSENTISMOA MURRIZTEKO.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: 2018ko maiatza: MUTUALIAk antolatutako jardunaldi tekniko batera bertaratu da; bertan SOLUTIA GHS partaidea izan da. Horren ondoren, apirilaren 19an Sotulia GHSko zuzendariarekin bilera bat izan da; pertsona hori absentismo arloko aditua da eta harekin batera GOFeko absentismo egoera aztertu da.



3.11. XEDEA: IRAUNKORTASUNA ETA KALITATEA, GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO ORDUAN

3.11.1. ILDO ESTRATEGIKOA: INGURUMEN JASANGARRITASUNA.

3.11.1.1. JARDUKETA: PLAN BAT EGITEA GOFE-REN ZENTROEK SORTZEN DITUZTEN HONDAKINAK KUDEATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: Arabako Lurralde Historikoko 2018-2030 Garapen Iraunkorrerako II Plan Estrategikoaren barruan, GOFeko zentroek sortutako hondakinak kudeatzeko plana berrikusten ari dira. 2018: Ingurumen Sailarekin lehenengo kontaktuak izan ondoren, GOFek sortutako hondakinak kudeatzeko gaur egungo egoera ezagutzeko azterlan bati ekingo zaio. 2018ko maiatza: Ingurumen Sailarekin koordinatuta, lurraldeko foru sareko egoitzetan konpostajea bultzatzeko aukera aztertzen ari da.

3.11.1.2. JARDUKETA: INGURUMEN KLAUSULAK TXERTATZEA GOFE-REN KONTRATAZIOAN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: klausula mota hauek gizarte zerbitzuen prestazioa xede duten kontratuetan sartzea zailagoa izan arren, egokitutako garraio zerbitzuaren lizitazioan adjudikazio irizpide gisa ezarri da efizientzia energetikoari eta ingurumenari lotutako jarduketa plana izatea, betiere instalazioen efizientzia energetikoa lortzera zuzendutakoa. Halaber, ingurumenari buruzko plana eskatu zen; haren barnean ezinbestean jasoko beharko ziren hondakin fisiko eta kimikoak tratatzeko neurriak eta ingurumena babesteko bestelako neurriak.

3.11.1.3. JARDUKETA: ENERGIA ERAGINKORTASUNEN PLANA, GIZARTE ZERBITZUEN SAILARI ATXIKITAKO FORU ERAIKINENA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko maiatza: Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako eraikinen energia eraginkortasuneko plana egiteko lanari helduko zaio, Ingurumen Sailarekin koordinatuta.

3.11.2. ILDO ESTRATEGIKOA: IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA.

3.11.2.1. JARDUKETA: GIZARTE KLAUSULAK TXERTATZEA GOFE-REN KONTRATAZIOAN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: Deitzen diren lizitazioetan gizarte klausulak sar daitezke zenbait zentzutan, esaterako kontratuaren xedean, adjudikazio irizpideetan eta gauzapearen baldintza berezietan. Exekuzio baldintza berezi gisa, izapidetutako lizitazio guztietan emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko giza klausulak jasotzen dira (prestazioa ematean, enpresa adjudikazioduna beharturik egongo da lan merkatuan emakumezko eta gizonezkoen aukera berdintasuna sustatzera zuzendutako neurriak aplikatzera, bai eta kontratuari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateratzeko neurriak aplikatzera ere, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumezko eta gizonezkoen benetako berdintasunari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorriz); era berean, ezgaitasunari buruzko klausulak ere jasotzen dira (50 langile edo gehiago dituen enpresa adjudikaziodunak ezinbestean aurkeztu beharko du ezgaitasuna duten pertsonen lanpostuak erreserbatzeko ehuneko 33ko edo handik gorako kuotari buruzko egiaztapena, edo modu osagarrian edo subsidiarioan egiaztatu beharko du arazoaren 29ko 1/2013 Legegintzazko Errege Dekretuaren arabera har daitezkeen neurriak betetzen direla, dekretu horren bidez onartzen baita ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina). Zerbitzu kontratuetan apirilaren 7ko 3/2016 Legeak ezarritakoak ere jasotzen dira (lege horrek zenbait gizarte klausula ezartzen ditu kontratazio publikoan).

2017: adjudikazio irizpide gisa, Gasteizen 18 egoitza plaza hitzartzeko lizitazioan sartutako gizarte klausulen gisakoak jaso dira: enplegua sustatzea: lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzeke konpromisoa, kontratua beteko duten langileei aplikatuko zaizkien kontziliazio neurri zehatzak eta erantzunkidetasuna sustatzekoak eta erabiltzaileak artatzeko jardueretan boluntarioek parte hartzea, baldin eta kontratuaren exekuzioarekin zuzeneko zerikusirik ez duten zereginik betetzen ez badute eta lanposturik ordeztan ez badute.

2018ko maiatza: atal honetan jasotako gizarte klausulen erabilera mantentzen da, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Lege berrira egokituta.

3.11.2.2. JARDUKETA: MATERIAL ETA ZERBITZUEN EROSKETA ZENTRALIZATUA ZABALTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2015: 2015eko azaroaren 27an, hornitzaileak homologatzeko kontratazio espedienteak onartu zen ekipamendu orokorrari begira eta betiere honako sorta hauetan espezializatua:

- 1. sorta – Ekipamendu kliniko eta geriatrikoa
- 2. sorta – Etxeko altzariak
- 3. sorta – Laguntza teknikoak edo laguntza gailuak



- 4. sorta – Bulegoko altzariak
- 5. sorta – Aulkiak
- 6. sorta – Biltegiko altzariak
- 7. sorta – Sukaldeko elektrotresnak eta altzariak
- 8. sorta – Sukalde industrialeko elektrotresnak eta altzariak
- 9. sorta – Ehunak

3.11.2.3. JARDUKETA: KATALOGO BAKAR BAT EGITEA ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2015: 2015eko azaroaren 27an, hornitzaileak homologatzeko kontratazio espedientea onartu zen, ekipamendu orokorrari eta espezializatuari zegokienez.

3.11.3. ILDO ESTRATEGIKOA: KALITATEA ETA BERRIKUNTZA GIZARTE ZERBITZUETAN.

3.11.3.1. JARDUKETA: GIZARTE ZERBITZUEN KALITATEAREN WEB ATARIA ABIARAZTEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: 2017ko urtarrilaren 12an GOFeko gizarte zerbitzuen kalitatearen eta jardunbide egokiaren ataria aurkeztu zen. Ataria irekia izango da herritar guztientzat, eta haren xedea da agerira ekartzea GOFeko profesionalek sustatzen dituzten kalitate ekimenak, eta ataria zentroentzako arreta hobetzeko laguntza praktiko gisa balia dadin. Atariak gomendioak jasotzen ditu, adinekoen, ezinduen, adin txikikoen, eritasun mentalekiko pertsonen eta baztertuen arretan baliatzekoak diren jardunbide egokietarako. 2017an materiala osatuz eta txertatuz joan da. 2018ko maiatza: web atariaren kalitateari eusteko beharrezko hobekuntzei helduko zaie.

3.11.3.2. JARDUKETA: GIZARTE BERRIKUNTZAKO JARDUNBIDE EGOKIAK DETEKTATZEA, GIZARTE ZERBITZUEN BEHATOKIAREN BITARTEZ

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jardunbide egokiei buruzko ekimen hau bultzatu da Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen arlo guztietan 2015 eta 2016an zehar, betiere zentzu horretan aurrera eramandako ekintzak guztiei jakinarazteko eta guztien artean partekatzeke, eta egindako zereginaren onarpen eta aplikazio gisa. 2017: GOFeko Administrazio Kontseiluak erabaki du jardunbide egoki gisa aintzatestea Ezgaitasunen Atalean eta Adin Txikikoak eta Familia Artatzeko Atalean proposatutako bi jarduketa (gorreri prelokutiboa duen pertsona baten artapen



koordinatua eta babesgabetasuneko arrisku larrian dauden adin txikikoentzako hezkuntza jarduketak eguneko zentroetan). 2018ko maiatza: Jardunbide Egokien II. Deialdiaren barruan, jardunbide egokiak aurkezteko epea amaitu da apirilaren 27an.

3.11.3.3. JARDUKETA: SAREKO PLATAFORMA, GIZARTE ERAGILEEKIN ELKARLANEAN JARDUNBIDE EGOKIEN TRUKEA EGITEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: 2016ko ekitaldiko bi jardunbide egokiak GOFeko profesionalei aurkeztu zaizkie, bai eta interesdunei ere, hedabideen bitartez. 2018ko maiatza: Jardunbide Egokien II. Deialdiaren barruan, jardunbide egokiak aurkezteko epea amaitu da apirilaren 27an.

3.12. XEDEA: ARABAN GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK BULTZATZEA:

3.12.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO PLAN OPERATIBO SOZIOSANITARIOA.

3.12.1.1. JARDUKETA: ARABAKO ZERBITZU SOZIOSANITARIOEN KARTA PRESTATZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jarduten da lurralde koordinatzaile soziosanitarioaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Zerbitzu Soziosanitarioen Zorroa prestatzeko lanean; horren barruan, Arabako baliabideak sartuko dira. 2017-2020ko Ildo Estrategiko Soziosanitarioen barruan, lehentasunezko helburu gisa jaso da baliabide soziosanitarioen zorroa adostea, prestatzea eta onartzea. 2018ko maiatza: lurralde koordinazio soziosanitarioan koordinazio autonomikorako bileretan parte hartzen jarraitzen da zerbitzu soziosanitarioen zorraren definizioan aurrera egiten jarraitzeko, betiere indarreko lehentasun estrategiko soziosanitarioek jasotzen duten bezala.

3.12.1.2. JARDUKETA: e-OSABIDE APLIKAZIO INFORMATIKOA EZARTZEA ADINEKOEN EGOITZETAN ETA ETXEBIDEAN

Egoera: Amaitua



Deskribapena: 2016: OSABIDEn ezarpena bultzatu da GOFek kudeatutako egoitzetan. 2017: 2017-2020ko Ildo Estrategiko Soziosanitarioen barruan, lehentasunezko helburu gisa jaso da historia soziosanitarioa bultzatzea, eta ekintza horien barruan sartzen da egoitzetan e-Osabide aplikazioaren ezarpena bukatzea. 2018ko maiatza: adineko egoitza guztiek eta foru sareak eta Etxebidek ezarririk dute e-OSABIDE aplikazio informatikoa, eta lanean jarraitzen da lurraldeko egoitza pribatuetan ere ezarri ahal izateko.

3.12.1.3. JARDUKETA: PARTE HARTZEA HISTORIA SOZIOSANITARIOAREN DEFINIZIOAN ETA ABIARAZTEAN

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: 2017-2020ko Ildo Estrategiko Soziosanitarioen barruan, lehentasunezko helburu gisa jaso da historia soziosanitarioa bultzatzea. Arabako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin jardun du lankidetzan, planifikazio agiri hori prestatzeko. 2018: Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardun da Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen informazio sistemen azterketan. 2018ko maiatza: lurralde koordinazio soziosanitarioa parte hartzen ari da Eusko Jaurlaritza garatzen ari den historia soziosanitarioaren edukiaren definizioan. Maiatzaren 10ean beste lan saio bat izan da Bilbon, orain arte egindakoa baliozkotzeko; bilera horretan GOFeko zenbait zuzendariordeztzak hartu dute parte.

3.13. XEDEA: PERTSONA EZINDUENTZAKO ENPLEGUA

3.13.1. ILDO ESTRATEGIKOA: INDESA 2010 SM FORU SOZIJETATE PUBLIKOA BERRANTOLATU ETA SENDOTZEA

3.13.1.1. JARDUKETA: INDESA-REN ANTOLAMENDU EGITURA SENDOTU ETA EGOKITZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016: INDESAk bere defizita murriztea lortu du eta fakturazioan eta ezgaitasuna duten pertsonen kontratazioan hobetu da.



2017: Indesa kudeatzen duen talde berregituratu da, INDESA 2010 S.L. enpresan eksklusiboki jardungo duen gerente zuzendaria lehenengoz kontratatuz. Horrek kontrol handiagoa eragin du eta zeharkako kudeaketa eraginkorra atal guztietan eta pertsonalean eta, ondorioz, koordinazioa hobetu da. 2017ko urria: Sindikatu guztiek 2016-2019ko hitzarmen kolektiboa izenpetu dute aho batez. 2017ko azaroa: Irudi korporatibo berria abiarazi da, eguneratua izan ez den 25 urte igaro ondoren. 2007ko abendua: INDESA 2010 S.L.-ren webgune propioaren aurkezpena: <https://indesa2010.eus>.

2018: Finantza emaitzen hobekuntza. 2015a 1,8 milioi euroko galerekin itxi zen, 2016a 1,3 milioi eurokoekin eta 2017a askoz txikiagoak izan diren galerekin (guztira 355.679 euroko galerak). 2018ari begira, zenbaki positiboak aurreikusten dira; hori dela eta, 40 urtean lehenengoz galerarik ez izatea aurreikusten da. Indesaren proiektuaren errentagarritasuna, beraz, errealitate bihurtu da epe laburrean eta erabateko saneamendua helburua da epe ertainean. Proiektua iraunkor bihurtzen duten hobekuntza ekonomikoko emaitza hauek historikoak dira, baldin eta kontuan hartzen bada sekula ez dela hainbeste pertsonalik izan enplegu zentro berezi honetan.

3.13.1.2. JARDUKETA: INDESA-REN JARDUERAREN DIBERTSIFIKAZIOA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017: Azaroan Indesaren eskaintzari bultzada berria eman zaio identitate korporatiboaren irudi berriaren bidez eta lehenengoz bere webgune propioa argitaratuz. Indesa proiektuaren bost arloei (hau da, lorezaintza-baratzezaintza, sukaldaritza, garbiketa, arropa garbategia eta tailerra) zerbitzuen arlo berria gehitu behar zaio. Horrek guztiak lagunduko du, zalantzarik gabe, jarduerak aurrera eramaten eta epe laburrean (aurten bertan) ezgaitasuna duten pertsona kopuru handiagoa kontratatzen. 2017ko iraila: toki kalitateko eta 0 Km-ko lehengaien erabileraren aldeko apustua. Batzar Nagusietan tokian tokiko kalitatezko produktu ekologikoak erabiltzearen inguruan erabakitakoaren ildotik, Indesak hitzarmen bat sinatu du Valle Salado izeneko fundazioarekin; horrek ahalbidetzen du Añanako tona bat gatz ingurua erabiltzea eguneko menuak prestatzean.

3.13.1.3. JARDUKETA: EKINTZA POSITIBOAK EZINDUEK ENPLEGUA ERDIESTEKO

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017: Indesa hazten ari da une honetan eta ia laurogei ezinduri lan aukerak ematen ari zaizkio. Berriki hitzarmen kolektiboa izenpetu da; era berean, lan aukerak hazi dira eta lan arlo berria sortu da. Horiek guztiak sintoma positiboak dira eta agerian jartzen dute izandako hobekuntza, bai eta ezinduek kalitatezko enplegua lortzen jarraitzeko etorkizun hurbila ere. 2017ko urria:



Indesaren berdintasunaren aldeko lehen plana abiarazi da. 2018: gaur egun lanean segitzen da Berdintasunerako Jarraipen Batzordearekin. Gainera, Indesako pertsonalaren urteko prestakuntza plana ezarri da. INDESAn enplegatutako pertsonak: 2015: 755, 2016:771, 2017: 801.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA

5. 4. ARDATZA: FORU ADMINISTRAZIO ETA OGASUN AURRERATUAK

DESKRIBAPENA:


Ardatz honek zerbitzu publikoen kalitate maila berreskuratzea du xede, Araba berriz ere liderra izan dadin zerbitzuok emateko orduan.

Era berean, baliabide ekonomikoak eraginkortasunez, zuhurtziaz eta zorroztasunez eskuratzeko eta kudeatzeko gai den ogasun bat sortu nahi da, zerbitzu publikoak berreskuratze, ekonomia berraktibatze eta lurralde oreka lortzeko lehentasunak betetze aldera.


Hasieran 43 jardun programaturik izan dira, baina 9 gehiago gehitu dira; beraz, guztira 52 jardun daude.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015EKO UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	52		43	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	1	%2	34	%79
HASIERA AURREIKUSIA	51	%98	9	%21
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	1	%2	3	%33
GAUZATZEN (*)	37	%73	6	%67
AMAITUA	13	%25	0	%0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	50		6	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA ETA
EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA



GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

4.1. XEDEA: ZERGA ARAUDI BERRIA GARATZEA

4.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ETXEBIZITZAREN ZERGA TRATAMENDUA BANATUTAKO EZKONTIDEARENTZAT.

4.1.1.1. JARDUKETA: ARAUGINTZA GARAPENA, PFEZ-AREN FORU ARAUA ALDATZEKO ETXEBIZITZARI ETA GAINBALIOARI DAGOKIENEZ. ARAUDI HARMONIZATUA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2015ean 15/2015 Foru Araua onartu zen; haren bidez, PFEZko gainbalioaren salbuespena adierazi zen hipotekaren exekuzioaren kasuan zergadunek ohiko etxebizitza ordainean eman behar dutenean.

2017an bi PFAD onartu dira: lehenengoa lur klausulei buruzkoa da eta haren xedea izan da PFEZren zerga oinarrian ez ezartzea ukitutako pertsonen banku erakundeekin lortutako akordioen ondorioz edo epai judizialen edo laudo arbitralen ondorioz berreskuratutako zenbatekoak. Zenbateko horien barruan berandutza interesak eta kalteordainak ere sartzen dira. Era berean, aurreko urteetan ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatik izandako kenkariaren doikuntza arautzen da.

Interes bereziko bigarren PFADk hiri lurzoruen balioaren gehikuntzaren gaineko zergari egiten dio men: ezartzen da ez dela zerga likidatuko, baldin eta erosketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko murrizketa edo galera badago.

4.1.2. ILDO ESTRATEGIKOA: LAN ONDOKO ZENBAIT EGOERAREN ZERGA TRATAMENDUA.

4.1.2.1. JARDUKETA: ARAUGINTZA GARAPENA, PFEZ-AREN FORU ARAUA ALDATZEKO LAN BIZITZAREN OSTEO EGOEREI DAGOKIENEZ. ARAUDI HARMONIZATUA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 15/2015 FAre 24. eta 25. xedapen gehigarriek hartzekodunen konkurtsoan zeuden kooperatibetako bazkideentzako hautazko araubidea ezarri zuten, bai eta mendeko eta lehentasunezko finantza partaidetzek ukitutako errentak zenbatzeko sistema berezia ere.



4.1.3. ILDO ESTRATEGIKOA: JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN FORU ARAUA ALDATZEA.

4.1.3.1. JARDUKETA: ARAUGINTZA GARATZEA, JEZ-AREN FORU ARAUA ALDATZEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016an JEZ aldatzea onartu zen, 3 urteko epean eta arian-arian zerga horrengatiko tributazioan miloi 1 eta 2 milioi euroren arteko fakturazioa zuten enpresaburuak eta profesionalak sartzeko. Abenduaren 23ko 18/20016 FA.

4.1.4. ILDO ESTRATEGIKOA: ZERGA ARAUDIA BERRIKUSTEA.

4.1.4.1. JARDUKETA: FORU ARAUEN EGOKITZAPENA, ESTATU MAILAKO ALDAKETEI DAGOKIENA, EKONOMIA ITUNAREN ARABERA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016an uztailaren 19ko PFAD onartu zen Europako arautegia egokitzeko, betiere nazioartean informazio finantzarioaren trukeak arautzeko asmoz eta talde multinazionalak nahitaez eman beharreko informazioa handitzeko. Abenduaren 23ko 19/2016 FAK ELGEren ondorioak jaso zituen lotutako erakundeen eta eragiketen informazioari eta dokumentazioari buruzko 13 BEPS ekintzaren gainean. 2018an Estatuak arlo horretan egingo dituen aldarazpenak egokituko ditugu.

4.1.4.2. JARDUKETA: ZATIKATZE ETA GERORATZEEN ARAUAK EGUNERATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko irailean arauzko proiektua prestatzeari ekin genion. 2018an behin betiko arautegia idatziko dugu.

4.1.4.3. JARDUKETA: 2014AN INDARREAN JARRI ZIREN PFEZ-AREN ETA SOZIJETATEEN ARAUAK BERRIKUSTEA, BEHIN 2016KO KANPAINA AMAITUTA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017ko apirilaren 25ean Batzar Nagusietako Ogasun Batzordean izan ginen guk hala eskatuta, Ogasun Zuzendaritzako teknikariek 2013an PFEZn, sozietateen zergan, ondare eskualdaketetan eta oinordetzetan eta dohaintzetan izandako erreformari buruz egindako azterlana zehatz-mehatz azal zezaten.

Agerraldiaren laburpena da zergen erreformak diru bilketa handitu duela eta 2013an proposatutako helburuak bete dituela.

PFEZren erreformari dagokionez, diru bilketa eta zergaren progresibotasuna handitu dira eta kenkari aplikagarriak murriztu dira.

- Sozietateen gaineko zergari dagokionez, azterlanak ondorioztatzen du diru bilketa handitu duten etekin enpresarialen gehikuntzaren efektua isolatuta, zerga berriak aurrekontuaren bilketa gaitasuna errepikatu duela, baldin eta kontuan hartzen bada 2014-2015eko epealdian aurreko ekitaldietako oinarri negatiboen eta kenkari aplikagarrien aprobetxamendu handiagoa dagoela, 2012-2013ko epeko aldi baterako murrizketak askatzearen ondorioz nahiz ordura arte kreditu fiskalak erabiltzeko zerga oinarririk sortu ez zuten operadoreen kontabilitate emaitza positiboen ondorioz. Arautegiaren aldaketak eragindako beste efektu garrantzitsua da kuotan aplikatu beharreko kenkariak murriztu dituela; horrek kuota handiagoak ekarriko ditu etorkizuneko ekitaldietan.

Agente ekonomikoek zama publikoei eusteko ahaleginak egin dituzte eta, gure ustetan, enpesei dagokienez, ez zaio kalterik egin gure enpresa sarearen lehiakortasunari.

Politikaren fiskalaren arloko zerga neurriek ahalbidetu behar dute gizarte politiken helburuak epe laburrean eta ertainean betetzeko behar adinako diru bilketa lortzea eta diru bilketa iraunkor eta nahikoa bermatu behar dute epe luzean; hori dela eta, hartutako neurriek kontuan hartu eta saihestu behar dituzte sare ekonomikoaren lehiakortasunaren galera, bai eta pertsona fisiko eta juridikoen edo haien ondare edo inbertsioen deslokalizazioa ere, eta, bestetik, erabakiek eta neurriek ekintzailtza eta garapen ekonomikoa sustatu behar dituzte.

2014tik indarrean dagoen araudiaren (PFEZrena eta Sozietateena) aldaketa Batzar Nagusietan 2018ko martxoan onartutako Foru Arau Proposamen baten bitartez egin da, aurrez aldaketa horiek alderdien artean eta hiru Foru Aldundien artean adostu zirelarik. Aldaketa hauek, batik bat, sozietateen zergari eragiten diete.



4.1.4.4. JARDUKETA: ZERGEN FORU ARAU OROKORRA EGOKITZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Nabarmentzekoa da Euskal Zuzenbide Zibilaren Lege berria zerga arautegira egokitzeko foru arauaren proiektua prestatu zela, Arabako Batzar Nagusietan tramitatzeko.

4.2. XEDEA: ZERGA BETEBEHARRAK BETETZEKO ERRAZTASUNAK JARTZEA

4.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ZERGAK ORDAINTEKO IZAPIDEAK ERRAZTEA.

4.2.1.1. JARDUKETA: AITORPENEN HARRERA ETA BIDALKETA TELEMATIKOA INDARTZEA ETA HAIEN KALITATEA HOBETZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016tik aurrera, PFEZren aitorpenak prestatzeko, interesdunak artatzeko postu gehiago jarri dira; beraz, herritarrei arreta egiteko lokala handitu da. Halaber, sakelako telefonoetarako sarbide berezia garatu da, zergaduna webgunean errazago sar dadin eta errazago egiazta dezan ea aitorpenaren zirriborroa bidali zaion, eta onar dezan, ados egonez gero.

2017ko PFEZaren kanpainari dagokionean, 177.000 aitorpen baino gehiago izatea aurreikusten dugu. 2017ko kanpainan, aurreikusten dugu, Rentafacil sistemaren bitartez onartuko diren aitorpen kopurua iazkoa baino askoz handiagoa izatea, eta beraz 2016ko kanpainako %80,2ko onarpen tasa baino handiagoa lortzea.

2018an OEZ eta EKDren aitorpenen bidalketa telematikoaren proiektua operatibo egongo da.

4.2.1.2. JARDUKETA: ITZULKETA EPEAK MANTENDU EDO MURRIZTEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Gaur egun 2 hilabetetan murriztu ditugu BEZaren itzulketak. 2017ko abenduan, itzulketetarako batez besteko epea 31,5 egunekoa da.

4.2.1.3. JARDUKETA: KONTSULTEN KANALA HOBETZEA, ZERGADUNAREN SEGURTASUN JURIDIKOA BERMATZEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016ko errenta kanpainaren hasieran, zerga kontsultetarako kanal berria jarri da abian webgunearen bidez; kanal berria informazio fiskaleko telefonoko pertsonalak kudeatzen du. Kontsulta erraza bada, berehalakoan erantzuten da eta nolabaiteko konplexutasuna badu, azkar erantzuten duten kudeaketa zerbitzuetara pasatzen da.

4.2.1.4. JARDUKETA: KOMUNIKAZIO KANALAK HOBETZEA ENPRESEKIN ETA ELKARGO PROFESIONALEKIN (BESTEAK BESTE NOTARIOEKIN).

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ANCERTEkin lanean jardun da (Notarioen Elkargoko Sozietate Informatikoa), ondare eskualdaketen gaineko zerga (OEZ) telematikoki aurkezteko eta notario indizeak jasotzeko.

Ekonomialarien Elkargoarekin hitzarmen bat sinatu da, besteak beste kolektibo honekiko komunikazioa hobetzeko asmoz.

4.2.1.5. JARDUKETA: ARABAKO UDALETAKO KATASTRO BALIOZTAPEN TXOSTENAK LEGEZKO EPEEN BARRUAN ONARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gasteizko balioztapen txostena onartu zen Foru Gobernuaren Kontseiluaren 2016-03-22ko erabaki bidez, eta gainerako txostenak lantzen ari dira legegintzaldi honetan onartu ahal izateko. Udaletako landa eta hiri lurzorua mugatzeko lanean aurrera egin da; hori aldez aurreko urratsa da katastroaren balioztapena berrikusten hasteko. Planifikaturik dugu txosten guztiak berrikusia izatea arautegiak ezarritako epeen barruan.

4.2.1.6. JARDUKETA: 2016AN GASTEIZKO UDALEKO KATASTRO-BALIOZTAPEN TXOSTENA ONARTZEA ETA 2017AN INDARREAN JARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Nabarmentzekoa da 2016an Gasteizko katastro balioztapenak aldatzeko txostena onartu izana; horrela, 2005etik ordura arte indarrean zegoena eta 2013an berrikusi behar izan zena aldatu zen. Horrenbestez, herritarrei merkatu balioaren arabera egokitutako balio berriak ezarri ahal izan zitzaizkien eta jaitsiera %35ekoa izan zen ordura arte indarrean zeudenen aldean. Era berean, 365.00 erregistro unitate eguneratu ziren; gure iritziz, hori guztia modu ordenatuan bideratu zen, herritarrak modu egoki eta pertsonalizatuan artatuz.

4.2.1.7. JARDUKETA: ARABA.EUS-EN BIDEZ IRISGARRI EGITEA LANDA ETA HIRI KATASTROAREN DIGITALIZAZIOA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Katastro balioztapenak aldatzeko lanaren ondorioz, Gasteizko Udalaren hiri katastroa digitalizatu da; gauzak horrela, katastro horrek eta 2015ean aldatutako landa katastroak herritarrei oso informazio baliotsua eskaintzen diete irisgarritasun handiagoarekin.

2017an hala eskatu duten udalekin hitzarmenak izenpetu dira, AFAk EIOZ eta JEZren ikuskapena egiteko eta informazioa trukatzeko.

4.2.1.8. JARDUKETA: ZERGADUNEN ERROLDA BATERATUA AMAITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi osoan Zergadunen Errolda Bateratua (ZEB) hobetzeko lanean jardungo da, horixe baita zergadunen informazio osoa oinarritzen den funtsezko elementua. ZEBn funtzionaltasun berriak planifikatu dira, hala nola errekerimenduen jaulkipena edo zergadunak "zehazteko" kontzeptu berrien ezarpena.

4.2.1.9. JARDUKETA: ZERGA BILKETAKO ZERBITZU BERRI BAT SORTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Azkenik, ildo estrategiko honetan zehaztu beharra dago legegintzaldi honetan Ogasun Zuzendaritzako Diru Bilketa Zerbitzua sortu dela; zerbitzuaren xedea honakoa da: zerga zorren kobrantza kudeatzea bai borondatezko epean bai epe exekutiboan. Iruzur fiskalaren detekzio eta erregularizazio jarduketak bezain garrantzitsuak da horien ondorioz egiten diren likidazioen kobrantza. Foru Ogasunaren prozeduraren amaieran zerga zorrak kobratu behar direnez, zentzuzkoa da Ogasuna kobrantza hori modu eraginkorrean egiteaz arduratzea. Zerbitzu honen funtzioak dira, besteak beste, diru bilketa exekutiboaren ikuspena, kopuru handien zordunak direnen eta zordunaren kaudimen eta likideziari buruzko txosten zehatzak behar dituztenen ordainketa borondatezko epean nahiz epe exekutiboan atzeratzeko eta zatikatzeko espedienteen azterketa eta jarraipena, kautelazko neurriak hartzea, erantzukizun subsidiarioa eta solidarioa zordun nagusia ez den bestelako pertsonen helaraztea eta hartzekodunen konkurtsoan dauden zordunen jarraipena.

4.3. XEDEA: ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BORROKA AREAGOTZEA

4.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO PLANA EGUNERATZEA ETA BERRIKUSTEA.

4.3.1.1. JARDUKETA: IRUZURRA BORROKATZEKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEAREN AKORDIOAK BETETZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko ekitaldian iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko neurriei buruko foru arau bat onartu zen, ZFAO, PFEZ eta sozietate zerga nabarmen aldatuz. Besteak beste honakoak aldatu ziren: Administrazioak aplikatu diren edo konpentsatzeko dauden oinarriak, kuotak edo kenkari konpentsatuak egiaztatzeko prozedurari ekiteko duen epea handitu zen 4 edo 5 urtetik 20 urtera, ikuskapen prozedura irauten duen epe orokorra ere handitu zen 12 hilabetetik 18 hilabetera, delitu fiskala egonez gero ahalbidetzen da Administrazioak likidazioa egitea eta zorra biltzea zigor prozesua amaiturik egon ez arren eta urratzeengatiko zigor berriak ezarri dira eta beste batzuk handitu dira. Horien artean nabarmentzekoa da fakturazioa kontrolatzeko euskarri gisa erabiltzen diren artxibo informatikoak eta programak ezabatu, suntsitu edo manipulatzearatiko zigorra, guztira aurreko ekitaldian subjektu arau hauslearen negozio kopuruaren ehuneko 20ko diru isun proportzionala dakarrena (gutxieneko kopurua 30.000 eurokoa izanik).

2018an batzordeak ekitaldi honi begira hartutako erabakiak egokitu eta beteko dira.

4.3.1.2. JARDUKETA: URTEKO IKUSKATZE PLANAK KOORDINATU ETA ARGITARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldian Araban iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko hiru plan onartu dira Arabak parte hartzen duen Batzordeak onartutako baterako planekin koordinatuta. Plan horietan foru aldundiek modu koordinatuan ezarritako irizpide orokorrak eta jardunak zehazten dira; nolanahi ere, planetan informazioa eskuratzeko ekintzak, prebentzio ekintzak eta erregularizazio eta kobrantza ekintzak jasoko dira.

Bigarrenik, aipatzekoa da informazioa trukatzeko hitzarmenak sinatu direla, zerga ondorioetarako. 2015eko uztailaren 28an Euskal Autonomia Erkidegoarekiko eta haren sozietate publikoekiko lankidetzak hitzarmenaren berrespena onartu zen eta 2016ko otsailaren 26an hitzarmen bat izenpetu zen Nafarroako Gobernuarekin zerga arloko informazioa trukatzeko.



2018an urteko ikuskapen planari ekingo zaio.

4.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ZERGA IKUSKAPENERAKO GIZA BALIABIDEAK GEHITZEA.

4.3.2.1. JARDUKETA: ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA IRUZURRA PREBENITU ETA BORROKATZEAREN ARLOETAN. 5 PLAZA GEHIAGO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Nabarmentzekoa da Ikuskapen Zerbitzuak plazak handitu direla eta baliabide informatikoetan inbertsioak egin direla, iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko. 2016ko aurrekontua betearazteko foru arauan onartu zen Ikuskapen Zerbitzuan 5 plaza gehiago ezartzea eta 2017koan teknikari informatikoen bi plaza gehiago eta ikuskatzaile laguntzailearen plaza bat gehiago. Teknikari informatikoen postuak Arabako Kalkulu Guneko pertsonalarekin estali dira, LEP berriaren deialdia izan arte. Ikuskatzaile laguntzailearen plazak estaliko dira bukatu berri den LEP gainditu duen pertsonalarekin. 2018ko otsail-martxoan deialdia gainditu duten ikuskatzaile laguntzaileak hasi dira lanean. 2017aren amaieran LEP berriaren deialdia iragarri zen 2018ari begira, hutsik dauden plazak betetzeko.

4.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: TRESNA INFORMATIKOAK EGOKITZEA ETA ESKURATZEA.

4.3.3.1. JARDUKETA: INBERTSIOAK FORU OGASUNA MODERNIZATZEKO PLANEAN AURREIKUSITA DAUDEN BITARTEKO FISIKOAK ESKURATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko programako inbertsio informatikoei dagokienez, 2017rako aurrekontua 2,2 milioi eurokoa da; 2016koa, berriz, 1,7 milioikoa izan zen. 2018an zergadunak hautatzeko lanabes berria kontratatuko da.

4.3.3.2. JARDUKETA: INFORMAZIOA JASO ETA KUDEATZEKO EGUN DAUDEN SISTEMAK BERRIKUSTEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: 2017an ESI proiektuaren 1. fasea bukatu da. 2018an ESIren 2. fasearen garapena planifikatu da.

4.3.4. ILDO ESTRATEGIKOA: GIZARTEARI KONTZIENTZIA HARRARAZTEA ZERGA IRUZURRAREN AURKA.

4.3.4.1. JARDUKETA: GIZARTE SENTSIBILIZAZIOKO KANPAINAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017-07-7an Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien arteko hitzarmena izenpetu da hezkuntza programa bat garatzeko eta, hala, ikastetxeetan ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko bat ezartzeko. Araban 15 ikastetxetan ezarriko da 2017-2018an. 2018an zehar hasiko da hezkuntza programa ezartzen.

4.3.4.2. JARDUKETA: FORU OGASUNAREKIN MILIOI 1 EUROTİK GORAKO ZORRA DUTENAK IDENTIFIKATZEKO ARAUA ONARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2015ean 22/2015 Foru Araua onartu zen; foru arau horren bidez baimena eman zen Foru Ogasunarekin milioi 1 eurotik gorako zorra duten zordunak argitara emateko. Zordunen zerrenden bi argitalpen izan dira. 2016-12-31ko egoerari dagokiona 2017-06-30 aurretik argitaratu zen.

2018-06-30a baino lehen, zordunen zerrenda argitaratuko da 2017-12-31ko datarekin.

4.4. XEDEA: EKARPENEN LEGE BERRIA

4.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: EKARPENEN LEGE BERRIAREN GARAPENA.

4.4.1.1 EKARPENEN LEGE BERRI BAT IDATZI ETA ONARTZEA, EGUNGO DESOREKAK KENTZEKO

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Ekarpunen arloan, Foru Aldundiak aktiboki parte hartzen du ekarpunen lege berria egiteaz arduratzen den lantaldean, eta horretarako proposamen bat aurkeztu du lurralde oreka errespetatuz eta foru ogasun bakoitzaren benetako bilketa gaitasunarekin koherentea izanez. Hala ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea indarrean sartzeak berekin ekarri du EAEko erakunde mailen eskumenei eta finantziazioari buruzko azterketa orokorra egin beharra. Azterketa honetan ere aktiboki parte hartu du Foru Aldundiak. Eusko Jaurlaritzaren zain egon beharra dago, egindako lanak aztertzeko beste deialdi bat egin dezan. Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, 2017ko urriaren 11ko bileran, aho batez onartu zuen 2018ko ekitaldian ekarpunen lege berria negoziatzea eta adostea. 2018ko ekainean orokorra amaiturik egongo da; gauzak horrela, Ekarpunen Lege berria proposatzeko alde aurreko urratsa beteko da.

4.5. XEDEA: URTEKO AURREKONTUAK PRESTATZEA

4.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARAUDIA ERRESPETATZEN DUTEN AURREKONTUAK EGITEA.

4.5.1.1. JARDUKETA: GASTUAREN ARAUA BETETZEA OINARRI DUTEN AURREKONTUAK EGITEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015 eta 2016ko aurrekontuen kontu orokorra eta likidazioa onartu dira. Hala, Arabako Foru Aldundiak eta bere erakundeei bete dituzte aurrekontu egonkortasunaren eta gastu araua betetzearen arloko helburuak, betiere 2/2012 Lege Organikoak, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunarenak, ezarritakoarekin bat etorriz. Arabako Foru Aldundiaren perimetroan integratutako erakundeen kontsolidazioak saldo positiboa izan du SECi erreparatuz gero 2015eko eta 2016ko ekitaldiko kontuen likidazioan.

2017ko abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartu dira, 2018ko aurrekontua prestatzeko. Arabako Batzar Nagusiek 2018ko ekitaldiko aurrekontuak onartu dituzte. 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak berresten du ekitaldi honetan gastu araua bete dela.

4.5.1.2. JARDUKETA: DEFIZITA BETETZEA OINARRI DUTEN AURREKONTUAK EGITEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan 2018ko aurrekontua prestatzeko jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartu dira. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.5.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ZOR ONARGARRIA DAKARTEN AURREKONTUAK EGITEA

4.5.2.1. JARDUKETA: LURRALDE HISTORIKOAREN ABERASTASUNAREKIN ZUZEN LOTUTAKO TAMAINA OINARRI DUTEN AURREKONTUAK EGITEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan 2018ko aurrekontua prestatzeko jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartu dira. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.5.2.2. JARDUKETA: AURREKONTUAK ZORRA BERREGITURATUTA EGITEA, POLITIKETARAKO BALIABIDEAK AHALBIDETZEKO MODUAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015ean aurrekontuko luzapen egoeran egon ondoren, Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen, partzuergoen, sozietate publikoen eta fundazio publikoen 2016rako aurrekontua onartu zuten. Lehenengo aldiz txertatu dira aurrekontuetan foru partzuergo publikoak eta foru fundazio publikoak; horrek nabarmen hobetzen du tradizionalki aurrekontu proiektuan foru sektore publikoari buruz jasotako informazio ekonomikoaren kalitatea eta, era berean, gardentasuna sustatzen du. 2017an aurrekontuak berriro ere onartu dira bigarren urtez jarraian; horrek gehiago egonkorra eskaintzen du eta, aldi berean, ahalbidetzen du Foru Aldundiak garatutako politikak sendotzea. Arabako Batzar Nagusiek 2018ko ekitaldirako aurrekontuak onartu dituzte.

4.5.3. ILDO ESTRATEGIKOA: POLITIKA PUBLIKOETARAKO BEHAR ADINAKO ZUZKIDURA DUTEN AURREKONTUAK EGITEA.

4.5.3.1. JARDUKETA: GIZARTE POLITIKETARAKO BEHAR BESTEKO DIRU HORNIDURA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan 2018ko aurrekontua prestatzeko jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartzen. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.5.3.2. JARDUKETA: EKONOMIA BERRESKURATZEKO BEHAR BESTEKO DIRU HORNIDURA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan 2018ko aurrekontua prestatzeko jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartzen dira. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.5.3.3. JARDUKETA: LURRALDE OREKARAKO BEHAR BESTEKO DIRU HORNIDURA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan 2018ko aurrekontua prestatzeko jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartzen dira. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.5.4. ILDO ESTRATEGIKOA: AURREKONTU INFORMAZIOA HOBETZEKO JARDUKETAK.

4.5.4.1. JARDUKETA: ARABAKO FORU ADMINISTRAZIOKO ENTITATEEN INFORMAZIOA DUTEN AURREKONTUAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016 eta 2017ko ekitaldietan aurrekontuek foru fundazio eta partzuergoen informazioa jaso dute. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.5.4.2. JARDUKETA: INBERTSIOEN LURRALDEKATZEA DUTEN AURREKONTUAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluan 2018ko aurrekontua prestatzeko jarraibide tekniko eta ekonomikoak onartzen dira. Aurrekontuen edukiak inbertsioen lurraldekatzea jasotzen du. Arabako Batzar Nagusiek 2017ko abenduan onartu dituzte 2018ko ekitaldirako aurrekontuak.

4.6. XEDEA: EKONOMIAREN ETA FINANTZAREN KUDEAKETA

4.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: FINANTZA KUDEAKETA.

4.6.1.1. JARDUKETA: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO LEGEZKO EPEAK BETETZEA ETA ALTXORTEGIA MODU ERAGINKORREAN KUDEATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Foru Aldundiak finantza kudeaketaren ikuspegitik jarrera proaktiboa du eta berebiziko arreta jartzen du merkatuen bilakaeran; gauzak horrela, maileguak ematen dituzten erakundeekin birnegoziatu ohi du zorraren finantza baldintza hobeak erdietsi nahian. Egia esan, 2015eko ekitaldiaren amaieratik aldebiko bost mailegu berri dira, zegokien finantza zama nabarmen murriztuz. Egindako birnegoziazioen emaitzak, maileguen iraupen osoa kontuan hartuz, finantza gastuaren ia 4 milioi euroko aurrezpena ekarri du.

Orobat, Arabat sozietate publikoaren pasiboaren berregituraketa orokorra egin da. Sozietateak kontrataturik zituen swap-ak kendu dira eta, hortaz, horrek zekartzan kanpo arriskuak desagerrarazi dira, bereziki kontrataturik zegoen inflazio swap-i dagokionez. Era berean, 2017ko mugaeguna zuen eraikuntza kreditua birfinantzatu da, amortizazioak tartekatutako kreditura moldatuz; gauzak horrela, Foru Aldundiak sozietateari egingo dizkion ekarkinek ez dituzte hiru milioi euroak gaindituko urtean, harik eta maileguak likidatu arte. Maileguetan aurreratutakoa 6 milioi euro baino gehiago izan da.

Azkenik, eta Fitch Rating-ek 2016rako egindako txostenarekin bat etorritz, AFAk "A" kalifikazioa duen epe luzerako zorpetze rating-a dauka bere autonomia finantzario eta fiskalagatik. Kalifikazio hori handiagoa izan zitekeen, baina Espainiako Erreinuaren BBB+ ratingak baldintzatzen du (ezin da bi mailatik gora gainditu estatuak duen kalifikazioa). Lortutako rating-ak Arabako Foru Aldundiaren eta hari lotutako erakunde finantza osasun bikaina berresten du. 2017an 2016ko rating-a berresten da. 2017ko ekitaldian zehar, hornitzaileei legez ordaintzeko epeak bete dira. 2018ko lehen

hiruhilekoan, Fitch Ratings-ek AFaren kalifikazioa hobetu du "A"-tik ikuspegi iraunkorra duen "A+"-era.

4.7. XEDEA: FORU ADMINISTRAZIOA MODERNIZATZEA

4.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: INFORMAZIO KORPORATIBOA.

4.7.1.1. JARDUKETA: AKSA BERRANTOLATZEA

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2015ean langileriaren erregularizazio eta antolakuntza prozesuari ekin zitzaion. 2016an soldaten eta kategoria profesionalen erregularizazioa amaitu zen. 2017an lan prozeduren azterketa hasi zen, bai eta programen eta zerbitzarien egoeraren azterketa eta programa informatikoen eguneraketa ere. Prozesuen diagnostikoa eta hobekuntzak. Azterketa horren arabera antolaketa berria proposatzen da eta AKSAn barne sustapen prozesu bati ekin zaio. Prozesu hori 2017ko abuztuaren amaieran bukatu da. Irailaren lehenengo hamabostaldian unitate fokal berriak eta haien arduradunak izendatu dira, eta proiektuburuen izendapenei ekin zaie. Jardun ildoak eta plan estrategikoa dira AFarentzako zeharkako programa informatikoak sendotzea eta programa horien edukietan hobekuntzak ezartzea. Espediente elektronikoa abian jarri behar da.

4.7.1.2. JARDUKETA: JARDUEREN LEHENTASUNAK EZARTZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016tik Gobernu Kontseiluak jardun du urteko plan informatikoak onartzen. Era berean, AFA/AKSaren 2017/2019 Plan Estrategikoa dago.

Hasieran aurreikusitako proiektuez gain, 2017an komunikazio sareen eta posta zerbitzuaren azpiegiturak modernizatzeko proiektu teknologikoei heldu behar izan zaie.

4.7.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ZERBITZU PUBLIKO ZENTRALIZATUAK.



4.7.2.1. JARDUKETA: ESPEDIENTEEN KUDEAKETA ZENTRALIZATUA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Espediente komertzialak izapidetzeko gailuak eskuratzeko esperientziatik abiatuta, TGune gailua garatzeko komenigarritasuna baloratu zen.

Azken 2 urteotan oinarrizko prozedura ezartzeko beharrezko moduluak garatu dira; zuzeneko emakidako laguntzen kudeaketa norgehiagokako araubidera pasatuz joan da eta hurrengo urteetan handituz joan beharko da bestelako atalak sartuz.

Jakinarazpenen atariaren aplikazioa amaitzen ari da. Horren barnean “Nire Jakinarazpenak” izeneko atala jasoko da; bertan AFaren eta haren erakunde autonomoen jakinarazpen guztiak jasoko dira, postaren kanalera desbideratuz beharturik ez dauden eta harpidetza hautatu ez duten administratuenak. Era berean, zigor prozeduraren mekanizazioari ekin zaio.

4.7.2.2. JARDUKETA: KONTRATAZIOAREN KUDEAKETA ZENTRALIZATUA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015ean Zerbitzu Orokorrek 1/2015 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren erosketa zentralaren osaerari eta jardunbideari buruzkoa, arau aldetik garatzeko zereginari ekin zioten. Araudiaz gainera, horniduren eta zerbitzuen marko akordioak izapidetzeko baldintza ekonomiko-administratiboen agiri ereduak prestatu ziren. Araudia eta agiri ereduak Foru Administrazioako Enplegu, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko diputatuaren foru agindu bidez onartu ziren.

Kontratazio Zentralaren ibilbidea 2016an hasi zen; horretarako, hari atxikitako erakunde guztiei bilera batera deitu zitzairen. Horren ondoren, bi lizitazio prestatzeko lanak aurrera eraman ziren zentralaren bidez; lizitaziook energia elektrikoaren eta gas natural bideratuaren hornigaiei zegozkien eta biak 2017an esleitu ziren.

Bestalde, 2015ean sailen arteko lantalde bat eratu zen, foru administrazioaren kontratazioa arrazionalizatzeko; hark hala proposatuta, Eusko Jaurlaritzarekin hitzartu da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforma erabiltzea. Gauzak horrela, 2017ko apiriletik kontratatzailearen profila erabiltzen ari da eta lizitazio elektronikoaren erabilera lantzen ari da (irekiera egintzak streaming bidez emateko ekipoak konfiguratu ondoren), bai eta kudeaketa sistema hori osatzen duten gainerako moduluak ere.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legea indarrean sartzean, kontratazio mahai guztiak lanabes hori erabiltzen hasi ziren.

4.7.2.3. JARDUKETA: DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ZENTRALIZATUA.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gaiaren arabeko lantaldeak eratu dira (laguntzak eta dirulaguntzak...) eta aldez aurreko ideia batzuk bertan behera utzi dira, hala nola AFAn laguntza guztien tramitazioa zerbitzu bakarrean zentralizatzeko asmoa.

TGune-n oinarrituta, dagoeneko abian da zuzeneko emakida duten dirulaguntza guztietarako aplikazio komuna.

Norgehiagoka araubidean ematen diren dirulaguntzetarako aplikazioa ere lantzen ari da, zehatzago Ekonomia Garapeneko Zuzendaritzak kudeatzen dituen dirulaguntzetarako aplikazioa (ondoren, unitate guztietara hedatu beharko litzateke).

4.8. XEDEA: ADMINISTRATUEN BEHARRIZAN BERRIETARA EGOKITUTAKO FUNTZIO PUBLIKOA

4.8.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GIZA BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA: LANEKO EGONKORTASUNA, PLANTILLA GAZTETZEA, BATERATZEA.

4.8.1.1. JARDUKETA: LPZ BERRIA, LANGILEEN KUDEAKETA ARRAZOIZKO, OBJEKTIBO, ARIN ETA MALGUA ERRAZTUKO DUENA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lanpostu zerrenda organizazioaren premia berrietara egokitzen da hiru hilik behin, hobekuntza arloak, planifikazio eta ezarpena aztertuz. 18/04/17ko Gobernu Kontseiluan onartu zen lanpostu zerrendaren azken aldarazpena.

4.8.1.2. JARDUKETA: LEP.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

2016KO LEP: 2016ko LEP egiteko aurreikusitako epe guztiak betetzen ari dira. A eta B kidegoetako 78 plaza deitu dira. Kronologia eta estatistika:

- Deialdia onartzeko akordioa: Abuztuaren 3ko 499/2016. Irailaren 27ko 616/2016 erabakian zuzendua.
- Oinarri orokorrak: 337/2016 Foru Agindua, azaroaren 18koa.
- Oinarri zehatzak: 2016ko azaroaren 28ko ALHAOn argitaratutako zenbait foru agindu.
- Eskerak aurkezteko epea: 2016/12/08tik 2016/12/27ra.
- Onartutakoen behin-behineko zerrenda: 14/2017 Foru Agindua, 2017ko urtarrilaren 17koa



- Onartutakoen behin betiko zerrenda: 110/2017 Foru Agindua, 2017ko otsailaren 24koa.

A1	Nº admitidas
Arquitecto/a	316
Derecho	486
Económicas-Empresa	445
Inspección Tributaria	242
Organización	287
Técnico/a Admón. General (TAG)	745
Ingeniero/a Caminos, Canales...	2
TOTAL	2523

A2	Nº admitidas
Arquitecto/a Técnico/a	192
Biblioteconomía y Documentación	2
Ingeniero/a Técnico/a Agrícola	157
Ingeniero/a Tco/a Forestal	48
Ingeniero/a Tco/a Topógrafo	112
TOTAL	511

- Lehenengo proba egiteko data (lehenengo ariketa): 2017ko martxoaren 25-26a.
- Bigarren proba egiteko data (lehenengo ariketa): 2017ko maiatzaren amaiera edo ekainaren hasiera.
- Lehenengo ariketaren behin-behineko emaitzak (LEHENGO ETA BIGARREN PROBA): ekainaren lehenengo astea.
- Lehenengo ariketaren behin betiko emaitzak (LEHENGO ETA BIGARREN PROBA): ekainaren azken astea.

Aprueban (DEFINITIVOS)	
TAG	73 (24,91%)
Econ-Empresariales	74 (36,63%)
Derecho	83 (30,62%)
Arquitecto/a	64 (44,44%)
Ing. Agrónomo/a	17 (56,66%)
Inspección Tribut.	32 (30,76%)
Organización	56 (39,71%)
Arquitecto técnico	26 (30,95%)
Ing. Tco. Agrícola	44 (52,38%)
Ing. Tco. Forestal	14 (50%)
Ing. Tco. Topógrafo	5 (8,77%)
Biblioteconomía	2 (100%)
Ing. Caminos, Can.	1 (50%)
TOTALES	491 (29,46%)

- Bigarren ariketa egiteko data: 2017ko uztaila. Bide, kanal eta portu ingeniariena izan ezik; hori 2017ko irailean egingo baita.



Presentados al 2º ejercicio	
TAG	65
Econ-Empresariales	70
Derecho	81
Arquitecto/a	63
Ing. Agrónomo/a	17
Inspección Tribut.	27
Organización	56
Arquitecto técnico	26
Ing. Tco. Agrícola	43
Ing. Tco. Forestal	14
Ing. Tco. Topógrafo	5
Biblioteconomía	2
Ing. Caminos, Can.	1
TOTALES	470

- Bigarren ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratzeko aurreikuspena: 2017ko iraila.
- Euskara azterketen aurreikuspena: iraileko bigarren hamabostaldia (IVAPen deialdi ofiziala Araban)
- 2016ko LEPren egoera 2018/01/24an:

	FASE	ESTADO	Previsión	OBSERVACIONES	Plazas a cubrir
TAG	Relación provisional aprobados	Presentación de reclamaciones hasta 1 de febrero	-	-	10 - 1 disc
Econ-Empresariales	Relación provisional aprobados	Presentación de reclamaciones hasta 31 de enero	-	-	9
Derecho	MERITOS	FIN		Pendiente prueba euskera	12
Arquitecto/a	Relación provisional aprobados	Presentación de reclamaciones hasta 29 de enero	-	-	4
Ing. Caminos	2º EJERC	-		-	1 P. Interna
Ing. Agrónomo/a	MERITOS	FIN	-	Pendiente alzada	3
Inspección Trib.	Relación definitiva aprobados	FIN	Previsión publicación 31 enero BOTHERA	Orden Foral seleccionados	6
Organización	MERITOS	FIN	Previsión publicación provisional aprobados viernes 26 de enero	Estimación parcial recurso alzada Pendiente prueba de euskera	4
Arquitecto técnico	Relación definitiva aprobados	FIN	Previsión publicación 31 enero BOTHERA	Orden Foral seleccionados	5
Ing. Tco. Agrícola	Relación provisional aprobados	FIN		Pendiente alzada	14 - 1 (disc) - 1
Ing. Tco. Forestal	Relación provisional aprobados	FIN			5
Ing. Tco. Topógrafo	Relación provisional aprobados	Presentación de reclamaciones hasta 6 de febrero		-	3
Biblioteconomía	Relación provisional aprobados	Presentación de reclamaciones hasta 31 de enero		-	2
TOTALES					75 (Se pierden 3)

- 2016ko LEPren egoera 2018/05/08an:



TAG	FASE	ESTADO	Previsión	OBSERVACIONES	Plazas a cubrir
	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 7/05/2018	Funcionari@s carrera: 7/11/2018	-	10 - 1 disc
Econ-Empresariales	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 23/04/2018	Funcionari@s carrera: 23/10/2018	-	9
Derecho	Relación definitiva seleccionados	Reconocimiento médico	Funcionari@s prácticas: 14/05/2018	-	12
Arquitecto/a	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 09/04/2018	Funcionari@s carrera: 09/10/2018	-	4
Ing. Caminos	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 7/05/2018	Funcionari@s carrera: 7/11/2018	-	1 P. Interna
Ing. Agrónomo/a	Relación provisional seleccionados	-	Inicio: junio 2018	-	3
Inspección Trib.	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 05/03/2018	Funcionari@s carrera: 05/09/2018	-	6
Organización	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 7/05/2018	Funcionari@s carrera: 7/11/2018	-	4
Arquitecto técnico	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 05/03/2018	Funcionari@s carrera: 05/09/2018	-	5
Ing. Tco. Agrícola	Relación provisional seleccionados	Previsión publicación definitiva: 09/05/2018	Inicio: junio 2018	-	14 - 1 (disc) - 1
Ing. Tco. Forestal	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 09/04/2018	Funcionari@s carrera: 09/10/2018	Recurso contencioso-administrativo	5
Ing. Tco. Topógrafo	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 7/05/2018	Funcionari@s carrera: 7/11/2018	-	3
Biblioteconomía	Funcionari@s en prácticas	Inicio: 19/03/2018	Funcionari@s carrera: 19/09/2018	-	2 P. Interna
TOTALES					75 (SE PIERDEN 3)

2017KO LEP: 2017ko urrian kudeatzea aurreikusita dago; probak 2018an edo 2019aren hasieran egingo dira.

4.8.1.3. JARDUKETA: PRESTAKUNTZA GOBERNANTZA BERRIAREN IRIZPIDEETAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Prestakuntza premien diagnostikoa egin zen, plan estrategikoan aurrera eraman beharreko ekintza gisa aurreikusia. Prestakuntza premien diagnostikoaren arabera, urteko prestakuntza plana prestatzen eta betetzen da.

AÑO 2015			
TIPO FORMACIÓN	Nº ACCIONES	Nº ASISTENTES	Nº HORAS
FORMACIÓN INTERNA	26	281	3483
FORMACIÓN EXTERNA	82	100	1008
AÑO 2016			
TIPO FORMACIÓN	Nº ACCIONES	Nº ASISTENTES	Nº HORAS
FORMACIÓN INTERNA	21	298	3902
FORMACIÓN EXTERNA	85	98	1316
AÑO 2017			
TIPO FORMACIÓN	Nº ACCIONES FORMATIVAS	Nº ASISTENTES	Nº HORAS
FORMACIÓN INTERNA	28	389	5.998
FORMACIÓN EXTERNA	86	150	1.189

4.8.1.4. JARDUKETA: TELELANEKO PROGRAMA PILOTUA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Proiektuan parte har dezaketen postuak aztertzen ari gara. Sekzio sindikalei bilera batera deitu zaie 2017/07/28rako, proiektua aurkezteko. Foru Agindua izapidetzen ari da. 2017/09/22 Foru Agindua izenpetu da; jarraian proiektuaren talde arduraduna eratu da, egitasmoa abian jartzeko. Kronograma bat ezarri dugu aurrera eraman beharreko jarduera guztiekin: formularioen prestaketa, parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak, parte-hartzaileen hautaketa eta prestakuntza, ekipoak eratzea eta abian jartzea, etab.

2018ko urtarrilaren 8an, proiektuan parte hartu duten pertsonak hasi dira lan jarduera egiten "teletanaren" modalitatean.

Ezarritako kronograma betez, plan pilotuaren jarraipena egin dugu burutzei, telelangileei eta langile horien kideei galdera sortak bidaliz, horren ondoren erakundean izandako ezarpen orokorra aztertzeko eta zehazteko, behin plan pilotua amaituta. Iraupena zabaldu dugu 2018ko urriaren 5era arte.

4.8.1.5. JARDUKETA: ENPLEGU BALDINTZEI BURUZKO AKORDIOA.

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe baina amaiturik dagoen jarduna

Deskribapena: Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorraren enplegu baldintzak arautzeko azken akordioa 2008ko urriaren 7an onartu zen. Harrezkero, eta arrazoi desberdinak direla bide (legedia aldatzea, hainbat epai, aldatzen ari diren gizarte errealitateen aurreko sentsibilizazioa, etab.), aipatutako baldintzak aldatu egin dira, zenbait testutan sakabanatuta daude eta, denboraren poderioz, lege araudiak horietako batzuk gainditu egin ditu.

Hala, agerian dago enplegu baldintzak biltzen eta eguneratzen dituen testu bakar bat behar dela, gauzak behar bezala antolatzeko eta Foru Aldundiaren zerbitzupeko pertsonal guztia jakinaren gainean egoteko. Hortaz, negoziazio prozesu luze eta trinko bati ekin behar zaio, AFaren eta alde sozialaren artean.

2015/09/21etik 2017/07/07ra arte negoziazio mahaiaren 42 bilera izan dira. Aurrera eraman beharreko gaiak negoziatzeko konpromisoa egonik (soldata igoera, zorraren onarpena eta urteko lanaldia), Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko funtzionarioen enplegu baldintzak onartzea eta argitaratzea proposatu da; horiek guztiak Foru Gobernuaren 2017/07/26ko Kontseiluan onartu dira, 36/2017 Foru Dekretuarekin bat etorritz.



4.8.1.6. JARDUKETA: PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Berdintasunerako AFAko Sailarteko Batzordeak, 2018ko apirilean AFAko langileentzako Berdintasun Formakuntza Plana onartu zuen, Berdintasun Zerbitzuarekin batera egina. AFAko lehendabiziko Berdintasun Formakuntza Plana da. Aurreneko saioak 2018ko ekainean eskaini dira.

4.8.1.7. JARDUKETA: LANERATZE BERRIEI HARRERA EGITEKO ESKU LIBURUA PRESTATZEA ETA EZARTZEA.

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe baina amaitua

Deskribapena: AFAn lanean hasiko diren funtzionario berriei harrera egiteko plana lantzen ari gara. Planaren helburua da Administrazio honetan lehenengoz lanean hasiko den langile publiko berria profesionalki integratzea, gaitasunak jabetzan hartutako lanpostuan bete beharreko zereginetara eta dagokion sailaren edo zerbitzuaren testuingurura egokituz. 2018ko urtarrilaren 19an ordezkaritza sozialari jakinarazi zaio eta 2018ko urtarrilaren 23an zuzendaritzetan aurkeztu da, Arabako Foru Aldundian ezarri ahal izateko.

4.8.1.8. JARDUKETA: ARABAKO FORU ALDUNDIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2013-2017KO PLANAREN EBALUAZIOA.

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe, baina gauzatzen ari den jarduna

Deskribapena: Arabako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2013-2017ko Planari dagokion jarduketa epea bukatuta (5. plangintzaldia), 2018ko urtarrilaren 12an hasi dira beharrezko ebaluazioa egiteko zereginak; ebaluazio horren emaitzetan oinarrituz, 2018-2022ko plana prestatuko da (6. plangintzaldia). Amaitutako planaren ebaluazioa Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 10eko 41/2013 Foru Dekretua onartutako egitasmoan bertan ezarritako helburuetan, ekintzetan eta adierazleetan oinarrituz egingo da, betiere 2014-2015eko plan operatiboaren tarteko ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuz. Aurreikusita dago ebaluazioa 2018ko maiatzaren lehenengo asterako bukatzea. 2018ko apirilaren 27an Funtzio Publikoaren Zuzendaritza honek gainerako zuzendaritzei igorri dizkie Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2013-2017ko Planaren Ebaluazioaren emaitzak.

4.8.1.9. JARDUKETA: ARABAKO FORU ALDUNDIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2018-2017KO PLANA PRESTATZEA.



Egoera: Hasieran aurreikusi gabe, oraindik ere hasi ez den jarduna

Deskribapena: Arabako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2018-2022ko Plana prestatzea aurreikusita dago (6. plangintzaldia), behin aurreko planaren ebaluazioa amaitu ondoren; hori guztia 2018ko maiatzetik aurrera egingo da eta ekitaldi barruan onartu beharko da, 86/1997 Dekretuak bere 19. artikuluan ezartzen duen bezala.

4.8.1.10. JARDUKETA: ARABAKO FORU ALDUNDIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2018-2017KO PLANA EZARTZEA.

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe, oraindik ere hasi ez den jarduna

4.8.1.11. JARDUKETA: AFA-REN SARBIDEEN KONTROLA HOBETZEA (Casa 14 eta Samaniego 14)

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe baina amaiturik dagoen jarduna

Deskribapena: Arabako Foru Aldundiaren egoitza administratiboen segurtasuna hobetzeko (kudeatutako informazioari eta dokumentazioari begira nahiz bertan zerbitzuak ematen dituzten pertsonen betira), 2017ko maiatzean eta ekainean Casa 14 eta Samaniego 14ko eraikinetara sartzeko protokoloak zehaztu eta ezarri dira.

4.8.1.12. JARDUKETA: LEKUALDATZE-LEHIAKETA OROKORRA.

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe, eta gauzatzen ari dena

Deskribapena: 2016ko LEP-aren ondoren, eta 2017ko LEP-aren aurretik, AFAko langile funtzionarioen lekualdatze-lehiaketa orokorra gauzatzen ari da.

4.8.1.13. JARDUKETA: LANEKO BIDE MUGIKORTASUN SEGURUAREN PLANA.

Egoera: Hasieran aurreikusi gabe, baina gauzatzen ari den jarduna

Deskribapena: 2017ko irailean hasi ginen Mugikortasun Plana prestatzen eta idazten. Urrian eta azaroan pertsonal guztiari galdera sorta bat igorri genion, lanpostura bertaratzeko datuak bildu nahian; horrela bada, istripuei buruzko datuak bildu genituen eta mugikortasunaren kudeatzailea ere izendatu genuen, azkenean plana Pertsonalaren Batzordean aurkeztuz. Abenduan zehar eta behin inkestan jasotako datuekin diagnostiko bat egin eta adierazleak eta helburuak ezarrita, Mugikortasun Plana aurkeztu genion Lan Segurtasun eta Osasuneko Batzordeari. Hortik aurrera, Segurtasun eta Osasun Batzordeak kontrol eta jarraipenerako plana ezarri du, urtean bi bilera eginez.



Mugikortasun Planean zehaztutako helburuen artetik honako hauek eraman ditugu aurrera: ikerketa eta azterketa prozesuaren ezarpena lan istripurik egonez gero, bide segurtasunari buruzko prestakuntza, telelanaren ezarpena, bide segurtasunaren arloan informazioa zabaltzea eta gaiari buruzko sentsibilizazioa.

6. 5. ARDATZA: LEHEN SEKTORE PROFESIONAL, BERRITZAILE ETA IRAUNKORRA


DESKRIBAPENA:

Lehen sektorearen sustapenak ahalegina egiten du nekazari eta abeltzainekin nekazaritza eta abeltzaintza sektore ekonomikoki iraunkorra eta gizartearekiko lankidetzan oinarritua garatzeko baldintzak sortzeko.


Bosgarren ardatz honek gure gizartearen oinarrietako bat den jarduera ekonomiko bat indartzen du: elikagai osasungarriak, nutritiboak eta naturalak ekoiztea, landa ingurunea eta haren paisaiak mantenduz, eta haren kultura eta tradizioaz gordez. Hori dela eta, gizarteari berariaz gogorarazi behar zaio sektore honek dituen merituek aitortu behar direla.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015eko UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	44		44	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	%0	38	%86
HASIERA AURREIKUSIA	44	%100	6	%14
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	3	%7	0	%0
GAUZATZEN (*)	34	%77	6	%100
AMAITUA	7	%16	0	%0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	41		6	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA



GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

5.1. XEDEA: ARABAKO ARDOAK SUSTATZEA

5.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO ERRIOXAKO ARDOEN BEREIZKUNTZA.

5.1.1.1. JARDUKETA: BEREZKO ESKUMENA LORTZEKO LANAK JATORRIZKO DEITURAREN ARLOAN. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Helburua da ardogintza kudeatzeko marko propioa garatzea, Errioxa izendatzeko gaur egungo ereduak aldatuz eta Arabako Errioxaren Jatorrizko Deitura sortzea ahalbidetuz marko partekatu baten pean. Ekintza hori aurrera eramaten da Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin.

5.1.1.2. JARDUKETA: TOPAKETAK EGITEA BEREZKO KUDEAKETA EREDU BAT LORTZEKO, ZEINAK ARABAKO ERRIOXAKO ARDOEN BEREIZKUNTZA AHALBIDETUKO BAITU.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016 eta 2017ko ekitaldietan sektoreari laguntzeko aurrera eramandako jardunen ondoren, jatorrizko deiturak ardoei identitate berriak ematen dizkieten neurriak onartu ditu (eremu, udalerrri eta finkari buruzkoak); horrek lagunduko du merkatuan Arabako ardoen bereizkuntza sustatzen.

5.1.2. ILDO ESTRATEGIKOA: BABESA ARABAKO UPELTEGIEN ETA ARDOGILEEN SEKTOREEI.

5.1.2.1. JARDUKETA: DIRU HORNIDURA HANDITZEA MAHASTIEN ASEGUERUETARAKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko ekitaldian aurrekontua 100.000 eurokoa zen, 2017an 125.000 eurokoa eta 2018an 175.000 euro zainpeturik daude aurrekontuan.

5.1.2.2. JARDUKETA: PRAKTIKA ONEN ETA CHISPIAL FINKA ESPERIMENTALAREN EMAITZEN ZABALKUNDEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Chispial finkan landatutako mahasti barietate desberdinak ikertzen, horiek esperimentatzen eta horiei buruzko zabalkunde lana egiten jarraitu da; halaber, mahasti, olibondo eta melokotoien landareen jarraipena ere egin da. Lursailean lankidetza publiko eta pribatuko kudeaketa eredua ezarri da, nekazaritza ekologikoaren jardun kulturalen pean.

5.1.2.3. JARDUKETA: MAHASTIEN ERREGISTROAREN KAPA GRAFIKOA EGITEA ETA LANDATZEKO BAIMENEN SISTEMA BERRIA KUDEATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Jarduketa hauek egin dira: baimenak emateko, kapa grafikoa egiteko eta aplikazio informatikoa egokitzeko sistema berriari buruzko zabalkunde hitzaldiak eta sistema berria jardunean jartzea.

5.1.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO ARDOEN ZABALKUNDEA ETA SUSTAPENA.

5.1.3.1. JARDUKETA: ARDOAREN ETA MAHASTIAREN KULTURA PAISAIA GIZATERIAREN ONDARE IZENDATZEA LORTZEKO LAN MAHAIA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an topaketak izan dira eta horietan Administrazioak, unibertsitateak eta adituek parte hartu dute, eskualdeko baliabideak eta potentzialtasunak identifikatzeko eta, hala, izendapen hori lortzeko. Xedea zera da: hautagaitzaren balioak justifikatzea, eskualdearekiko informazio estrategiak ezartzea eta Unescok ezarritako baldintzak betetzen dituzten lurralde mugakideekiko lankidetza estrategiak ere finkatzea. Jarduketek aurrera jarraitzen dute.

5.1.3.2. JARDUKETA: ARDOA ETA TXAKOLINA SUSTATZEKO TOPAKETAK ETA GERTAKARIAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ABRArekin (Arabako Errioxaren markaren posizionamendua sare sozialetan, sustapen ekitaldietan...) Arabako Txakolinaren Jatorrizko Deiturarekin, Wine City Gasteizko Elkartearekin (kopa komunikatzaileak, berrikuntzaren foroa, lehen ardo gaztearen aurkezpena...) eta Gasteiz On erakundearekin (Ardoaraba) lankidetzan jarraitu da, Arabako ardoak sustatzeko, aintzatesteko eta balioesteko. 2018an estrategia horri jarraituko zaio, Arabako upeldegiei 2017an Errioxako CRDOK onartutako ardo kategorizazio berriak dakarkien aukera sendotuz etiketatua bultzatzeko laguntza ildo baten bidez. Gainera, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidearekin eta Hornigaien Plazarekin



lankidetzan jardungo da, ardo zuriak sustatzeko eta preskribatzaile eta ostalariekin dastaketak bultzatzeko.

5.2. XEDEA: LEHEN SEKTOREAN ENPLEGUA IGOTZEA

5.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GAZTEAK ETA EMAKUMEAK NEKAZARITZA JARDUERAN SARTZEKO LAGUNTZA PLANA.

5.2.1.1. JARDUKETA: LANKIDETZA EUSKO JAURLARITZAREKIN GAZTENEK 2020 PROGRAMA EGITEKO (PRAKTIKAK, BITARTEKOTZA...).

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gaztenek 2020 Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako prozedura da, nekazaritzan lehenengoz jardun nahi duen gazteari laguntzeko. Programaren filosofia da gaztea arian-arian sartzea, instalazio prozesuan porroterako arriskuak minimizatzeko ahaleginak eginez. Prozedura horrek balio du 2014-2020 PDRn ezarritako laguntzak izapidetzeko, egiaztatzeko eta, hala badagokio, lortzeko, hala nola lehenengo instalaziorako laguntza eta nekazaritza ustategietan inbertitzeko laguntza. Azken bi ekitaldietan 60 gazte hasi dira sektore honetan eta 2018an espero da beste 20 gehiago sartzea.

5.2.1.2. JARDUKETA: HITZARMENAK TOKI ERAKUNDEEKIN NEKAZARITZA LURRAK MUGITZEKO GAZTE EKINTZAILEENTZAT

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Helburua da jarduera honetan hasi berri diren nekazari gazteen esku jartzea kontzeju edota udalen jabetzakoak diren landa lursailak. Horretarako, Kuadrilletan bilerak izan dira Arabako udaletako ordezkariekin eta ACOAekin (Arabako kontzeju ugari biltzen dituen elkartea). Era berean, UAGAekin nekazaritza lurra eskuratzeari buruzko azterlan bat prestatu da; horren xedea izan da oinarri bat eskaintzea hala nahi duten erakunde titularrek lurra eskain diezaieten sektorean jardun nahi duten gazteei. Bi azterlanak (ACOA, UAGA) amaiturik daude. 2018an proiektu honetan sakontzen jarraituko da.



5.2.1.3. JARDUKETA: EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUAN JASOTAKO NEURRIAK GAUZATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Sailaren laguntza planetan landa eremuko emakumezkoen onarpena, protagonismoa eta ikusgaitasuna bultzatzen dituzten neurriak ezarri dira, hala nola ustategien titularitate partekatuen sustapena. Etorkizunean helburua da emakumeek nekazaritza jardueran eta sektorearen antolakuntza egituretan izan beharreko partaidetza aktibo eta erabakigarrian sakontzea, haien zeregina eta lana ikusgai bihurtuz.

5.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN POLIGONOA.

5.2.2.1. JARDUKETA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN POLIGONO INDUSTRIAL BAT EZARTZEKO AZTERLANA, ERALDATUTAKO ETA BALIO ERANTSI HANDIKO PRODUKTUAK EKOIZTEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016 eta 2017ko ekitaldietan Lautadan eta Mendialdean nekazaritzako elikagaien transformazio zentroak instalatzeko eta garatzeko jardunak eraman dira aurrera; Añanan eta Aiaran ere gisa horretako proiektuak izan dira. Kasu batzuetan prozesu parte-hartzaileak egin dira, ekoizleen interesa eta eskaririk handiena duten transformazio jarduerak identifikatzeko. 2018. urtearen hasieran egoskariak garbitzeko eta ontziratzeko zentro bat eratu da Arabako Lautadan.

5.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: BASOGINTZAN ENPLEGUA SUSTATZEA.

5.2.3.1. JARDUKETA: BASOGINTZAN ENPLEGU SORRERA PIZTEKO JARDUERAK, TOKI ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN (MANTENTZE LANAK, BIOMASA...).

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Toki erakundeei basogintzaren arloan zuzendutako laguntza planean aldaketak izan dira, egurra mobilizatzeko, basogintzako zereginak errazteko, azpiegiturak egokitzeko, basoen osasunari eusteko eta zuraren erabilera baliabide berriztagarri gisa bultzatzeko. Basogur-ekin, udalekin eta administrazio batzarrekin lanean jarraituko da, mendi publikoa landa eremuan enplegua eta baliabideak sorraraziko dituen jarduera hobia izan dadin.



5.3. XEDEA: NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK HOBETZEA

5.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: UREZTATZEAK ZABALDU, HOBETU ETA MODERNIZATZEA.

5.3.1.1. JARDUKETA: ERAKUNDEEN ARTEAN EGINDAKO PLAN BAT PROPOSATZEA, UREZTATZEAK PLANIFIKATZEKO: ARABAKO HARANAK, RIO ROJO ZABALTZEA, NORYESTE, ETAB. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Haranetako Eskualdeko ureztatzea hobetzeko eta modernizatzeko proiektuari bultzada ematea, urtean 1.700.000 euro inguruko inbertsioa eginez. Armiñon, Moreda-Labrazia-Barriobusto eta Bilarren ere ureztatzeako proiektuak eta aurreproiektuak prestatzen ari dira eta Río Rojo-Berantevilla eta Bernedo-Obekuriko ureztatzeak hobetzeko proposamena aztertzen ari da. Beharrezko inbertsioei ekiteko, beharrezkoa da beste administrazio batzuekiko erakundeen arteko lankidetzaz; une honetan hori lantzen ari da.

5.3.1.2. JARDUKETA: UREZTATZAILE ERKIDEGOEN ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA HOBETZEA, BAI ETA HAIEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ERE.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Ureztatze lanetan jardun ohi duten zenbait komunitaterekiko lankidetzaz (Antezana de la Ribera, Tuyó, Oion, Bernedo, Kanpezu-Orbisó, Mañueta, Lapuebla de Labarca), aurrezpen eta efizientzia energetikoari buruzko azterketak egiteko. Komunitateen alde aurreko azterlanak amaitu dira; horiek baieztatu dute tarifa elektrikoaren mendekotasun handia dagoela. 2018an Orbisoko ureztatze komunitatearekin lan egingo da eremu ureztagarrian ponpaketaren kostua murriztuko duen instalazio fotovoltaikoa instalatzeko.

5.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: LANDA BIDEEN PLAN BEREZIA.

5.3.2.1. JARDUKETA: LANKIDETZA UDALEKIN ETA ADMINISTRAZIO BATZARREKIN BIDEAK MANTENDU, KONPONDU ETA BERRITZEKO

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Landa bideak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen dekretu berritzailea prestatu da ACOA, ACOVI eta EUDEL erakundeekin lankidetzaz; horrek ahalbidetu du zenbait urtetako planifikazio baten barnean lurraldeko bideen sarea hobetzeko zereginak betetzea, 2017an 350.000



euroko inbertsioa eginez. Planaren emaitza oso positiboa izan da ezarpenaren lehendabiziko urtean. ACOVI eta Gasteizko Udalarekiko hitzarmena berritu da 2018rako 200.000 euroko aurrekontuarekin eta 450.000 euroarekin zuzkitutako 12/2018 Foru Dekretua onartu da.

5.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: LURZATIAK BATERATZEKO JARDUERAK.

5.3.3.1. JARDUKETA: GAUBEAKO LURZATIAK BATERATZEKO OBREN 2. FASEA AMAITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lanen bigarren fasearen jarduketa orain dela zenbait urte hasi zen eta lanean jarraitzen da. Gauzak horrela, 2. sektorea bateratzeko proiektua amaitu da eta datorren urtean 1. eta 3. sektoreak ere amaituko dira. Beraz, landa eremuko finkak multzokatzeko kontzentrazioan aurrera egiten jarraitzen da, bai eta obra proiektuaren prestaketan eta tramitazio administratiboan ere.

5.3.3.2. JARDUKETA: BULTZADA EMATEA BATERATZE PRIBATU TXIKIAK ETA ZATITUTAKO LURZATIAK BERRIRO BATZEA SUSTATZEKO JARDUEREI.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Zirianoko bateratze pribatuko proiektua oso aurreraturik dago; hala, lursailen hasierako banaketa egin da eta ALHAOn beharrezko argitalpenak egitea falta da, orain arte egindakoari legezko baliozkotasuna eman ahal izateko.

5.3.4. ILDO ESTRATEGIKOA: IBAIERTZAK ETA IBILGUAK MANTENTZEA.

5.3.4.1. JARDUKETA: URA-REKIN JARDUERA PROTOKOLO BAT LANTZEA IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK MANTENTZEKO. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAko Ingurumen Sailak URArekin eta UAGArekin duen solaskidetzaren bidez, jarduketa protokolo bat prestatzeko zeregina bete da, sektoreak eta toki erakundeek aplikatzeko eta, hala, ibilguak eta ibaiertzetako landaretza egoera onean mantentzeko, betiere nekazaritza zereginak oztopatu gabe eta ibaien gaitasun hidraulikoari lagunduz.

5.4. XEDEA: LAGUNTZA NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA SEKTOREARI

5.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: NPB-AREN ZUZENETZ LAGUNTZAK.

5.4.1.1. JARDUKETA: NPB LAGUNTZEN KUDEAKETA INTEGRALA, BATERAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAREN BIDEZ. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015-2020ko NPB laguntzen programazio berritik aurrera, hiru foru aldundientzako eta erakunde ordaintzailearentzako baterako aplikazioa diseinatu da. Xedea da irizpideak bateratzea eta eskatzaileek adierazpenak egitea erraztea (adierazpen geoespaziala, abisuen sistema...). Era berean, 2018ko kanpainan FEADER laguntzak integratuko dira, SIGPAC erreferentziarekin adierazten direnak (nekazaritza eta ingurumenekoak eta premia duten zonaldeentzako laguntzak).

5.4.2. ILDO ESTRATEGIKOA: LGIP NEURRIAK.

5.4.2.1. JARDUKETA: LGIP LAGUNTZEN KUDEAKETA INTEGRALA, BATERAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAREN BIDEZ. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015-2020ko NPB laguntzen programazio berritik aurrera, hiru foru aldundientzako eta erakunde ordaintzailearentzako baterako aplikazioa diseinatu da. Xedea da irizpideak bateratzea eta eskatzaileek adierazpenak egitea erraztea (adierazpen geoespaziala, abisuen sistema...). Era berean, 2018ko kanpainan FEADER laguntzak integratuko dira, SIGPAC erreferentziarekin adierazten direnak (nekazaritza eta ingurumenekoak eta premia duten zonaldeentzako laguntzak).

5.4.2.2. JARDUKETA: 2015-2020 LGIP-EKO NEURRIEN DEKRETUAK LANTZEA (INBERTSIOAK, GAZTEAK SARTZEA, IZDS, NEKAZARITZA INGURUMENETZAK...).

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2015-2020ko Plan berriak abian jartzeko, Arabako nekazaritza politikaren ardatza diren laguntzei buruzko foru dekretu berriak prestatu eta garatu behar izan dira, laguntzok sektorearen egiturazko euskarria baitira. 2016 eta 2017an laguntza neurri berri horietan egin eta aurreikusitako jardunek 14.000.000 euro inguruko



inbertsioa ekarri dute Arabako nekazarien eta abeltzainen bizi eta lan baldintzen hobekuntzan. Hona hemen dekretu nabarmenenak:

- Nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak: sektorean sartu diren 60 gazte, 2.250.000 euroko laguntzak izango dituztenak.
- Nekazaritza ustategietan inbertitzeko laguntzak: 4.000.000 €.
- Muga naturalak eta beste muga berezi batzuk dituzten zonetako nekazaritza ustategietarako laguntzak: 2.200.000 €.
- Nekazaritza ingurumenerako eta nekazaritza ekologikorako laguntzak: 1.550.000 €
- Nekazaritzarako baliabide hidrikoak kudeatzeko laguntzak: 900.000 €
- Landa bideetarako laguntzak: 1.000.000 €.
- Basogintzarako laguntza plana: 2.250.000 €

2018an 10/2018 Foru Dekretua argitaratu da; guztira 1.378.274,08 euroko zuzkidura izan du nekazaritza inbertsioetarako. Gainera, muga naturalak dituzten zonetarako aurrekontu baliabideak handituko dira, udalerrri onuradunen kopurua handituz eta nekazaritza ingurumenerako, nekazaritza ekologikorako eta landa bideetarako laguntzak eskainiz.

5.4.2.3. JARDUKETA: FORU DEKRETU BAT LANTZEA TOKIKO PRODUKTUAK EKOITZI, LANDU ETA MERKATURATZEN DITUZTEN PERTSONEN ERROLDA ARAUTZEKO

Egoera: Hasteke

Deskribapena: 17/2008 Legeak, Nekazaritza eta Elikagai Politikari buruzkoak, ezarritako manuari jarraikiz, foru organo eskudunek nekazaritza produktuak eta elikagaiak tokian tokiko merkatu eta azoka tradizionaletan merkaturatzen dituzten ekoizleen eta egileen errolda prestatu behar da, haien jatorria edo lehengaiarena Euskadin badago. Arautegi hori Araba mailan garatzeko asmoz, beste lurralde batzuetan dagoen arautegia aztertzen hasi da.

5.4.3. ILDO ESTRATEGIKOA: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA BULTZATZEA.

5.4.3.1. JARDUKETA: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA GARATZEKO 2014-2018 FORU PLANA GAUZATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Xede horri begira 20.000 euro jaso ziren aurrekontuan 2016an eta 40.000 euro 2017an, betiere ohiko ekoizpen sistemetatik nekazaritza ekologikoetako ereduera igarotzea sustatzeko. Nekazaritza ekologikoko jardunetarako abiatzeko prozesuak bultzatzeko proposamenak



eta lan metodologia jasotzen dituzten txostenak prestatu dira. Halaber, Arabarako nekazaritza ekologikoko elkarrekin lankidetzan jarraitzen da, ekoizpen eredu hori sustatu nahian. 2018an trantsizio horiek eta nekazaritza ekologikoko jardun horiek gauzatzen segituko da.

5.4.3.2. JARDUKETA: JARDUERA PLANA ESKALMENDIKO FINKA ESPERIMENTALERAKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Elkarlur eta UAGArekin elkarlanean, Eskalmendiko finka esperimentala landaketa ekologikoko berrikuntza proiektuak garatzera bideratuko da.

5.4.4. ILDO ESTRATEGIKOA: NEKAZARITZA ASEGURUAK SUSTATZEA.

5.4.4.1. JARDUKETA: LAGUNTZAK NEKAZARI ETA ABELTZAINEN ASEGURU POLIZEN KOSTUAK TXIKITZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an abeltzaintza aseguruaren dirulaguntza ildoan abiarazi da 75.000 euroko aurrekontuarekin, abereen gaixotasunen ondoriozko arriskuak estaltzeko nekazaritza aseguruaren polizak finantza daitezen. 2018an lan ildo horri eutsi zaio aseguruaren politika bultzatzeko eta hedatzeko; guztira 235.000 euroko aurrekontua izan da ildo horren eta mahastien aseguruaren ildoaren artean. Argitara eman da 2018ko nekazaritza aseguruaren laguntzak deitzen dituen foru agindua; guztira 60.000 euroko zuzkidura izan du, 2017an ez baitziren agortu aurreikusitako 75.000 euroak.

5.4.4.2. JARDUKETA: KONTZIENTZIAZIO JARDUERAK, NEKAZARITZA USTIATEGIAK ASEGURATU BEHARRAREN GAINEAN

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an AFAk antolatutako bi jardunaldi izan dira abeltzaintza aseguruari buruzko informazioa eskaintzeko. Helburu berari begira, UAGAk antolatutako jardunaldi batean jardun zen lankidetzan. Mahastietarako aseguru polizak harpide daitezen, AFaren laguntza eskatzeko irekiera eta itxiera epeak argitaratu dira Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren webgunean. Mahastien aseguru polizak harpidetzeko nekazaritza aseguruaren epeak argitaratu dira zerbitzuaren webgunean. Arabako Errioxako Kuadrillak Guardian duen egoitzan izandako zabalkunde jardunaldia



2017ko azaroaren 15ean; bertan Agrosegurok eta AFak parte hartu zuten. Zerbitzuaren webgunean AFaren nahiz Agroseguroren aurkezpenak argitaratu dira, informazio zehatza emanez. 2018an lan ildo horri jarraitzen zaio.

5.4.5. ILDO ESTRATEGIKOA: LAGUNTZA ABELTZAINZA SEKTOREARI

5.4.5.1. JARDUKETA: ZERBITZUGINTZAKO ESPARRU BERRIA EZARTZEA ABERE KOOPERATIBAREKIN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017an abeltzaintzako sektorearen ordezkariekin negoziatu eta 54/2017 Foru Dekretua argitaratu da; dekretuan abeltzaintza arloko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira zenbait gai kudeatzeko: abeltzaintza arrazak hobetzeko programak, animalien osasuna, animalien ekoizpena, ustategiak elikadura segurtasunean eta kudeaketa ekonomikoan bideratzeko zerbitzua... Gauzak horrela, historikoki egindako lankidetzak hitzarmena bukatutzat eman da. Une honetan 2017ko laguntzak justifikatzeko fasea hasi da eta, ondoren, 2018ko ildorako deialdia egingo da.

5.4.5.2. JARDUKETA: USTIATEGIKO ALBAITARIAREN FIGURA SORTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Beste autonomia erkidego batzuetan existitzen den figura hori arautu eta abian jartzeko asmoa dago. Hala, 54/2017 Dekretua norabide horretan egindako lehen urratsa da.

5.4.5.3. JARDUKETA: ALDAKETAK AZTERTZEA HAUEN ARAUDIETAN: ABELTZAINZA USTIATEGIEN ERREGISTROA, TXAKUR ALDERRAIEN KUDEAKETA, ABERE GORPUEN KUDEAKETA, ANIMALIEN GAIXOTASUNETARAKO KALTE ORDAINAK

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Inplikaturako zerbitzu eta erakundeekin batera beharrezko aldaketak aztertzen ari dira abeltzaintzarekin zerikusia duten zenbait jardueraren arautegian eta kudeaketa ereduan, betiere gobernantza errazteko eta prozedurak nahiz herritarren zerbitzua sinplifikatzeko eta arintzeko. Gasteizko Udalarekin lanean jarraitzen da, kalean abandonatutako txakurrak biltzeko. 2018ko aurrekontuan 250.000 euroko partida bat jaso da, animalien babes zentroa hobetzeko, eta beste 100.000 euro animaliak biltzeko gastuetarako.



5.4.5.4. JARDUKETA: ANIMALIEN GARRAIORAKO IBILGAILUAK DESINFECTATZEKO ZENTROAK SUSTATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017an Araban erabilera pribatuko bi zentro onartu eta gaitu dira; era berean, interes orokorrekoa da 2018an zentro publiko nahiz pribatuak egiten jarraitzea, betiere animalien osasuna bermatze eta ziurtatze aldera.

5.4.5.5. JARDUKETA: NEKAZARIEN ETA ABELTZAINEN ARTEKO SINERGIEN AZTERLANA: BAZKA EROSKETA, HONDAKINEN APROBETXAMENDUA...

Egoera: Hasteke

Deskribapena: 2016an lankidetzan jardun zen artisau gaztandegien azpiproduktuak aprobetxatzea errazteko azterlan nahiz proiektuetan. 2018an landa eremuan mindak eta simaurrak aplikatzeko baldintzei buruzko lege aldaketa aztertuko da, Arabako sektorearen, ingurune fisikoaren eta kultura praktiken arabera egokitzeko; hala, beharrezkoa izanez gero, aplikazio zisternak erosteko edo modernizatzeko inbertsioak babestuko dira.

5.4.5.6. JARDUKETA: ELIKAGAIEN KATEA KONTROLATZEKO 2016-2020 PLAN BERRIA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016an Arabako Foru Aldundiaren lankidetzeta eta ekarkinak izanik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Elikagaien Katea Kontrolatzeko Plana onartu zen.

5.4.6 ILDO ESTRATEGIKOA: NEKAZARITZA SEKTOREARI LAGUNTZEA.

5.4.6.1. JARDUKETA: NEKAZARITZA INGURUMENEN NEURRIEN GARAPENA: ERREMOLATXA, PATATA, ARABAKO ERRIOXAKO LABOREAK... ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 15/2016 Foru Araua, azaroaren 30ekoa, aldarrikatu da; foru arau honek berresten du Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak izenpetutako lankidetzeta hitzarmena, laborantza estentsiboa nekazaritzako ekoizpen teknika jasangarrien pean dibertsifikatze aldera, nekazaritza eta ingurumen laguntza kudeatzeko. Nekazaritza eta ingurumen laguntza berria da, erremolatxa, patata,



lekale eta barazki laborantzak dibertsifikatzeko. Gutxi gorabehera 1.100.00 euro dira urtean, Arabako 225 ustiatagiri zuzenduta. 2017an ekoizpen sektoreetako ordezkariekin elkarlanean, ingurumen eta nekazaritza laguntzaren hobekuntza proposatu da, Batasunaren arautegiak ezarritako mugaraino. 2018rako 275.000 euroko laguntza gaitu da Arabako Errioxan mahasti zaharrak mantentzen laguntzeko eta, horrela, landare ondarearen eta kalitatezko mahastien iraupena sustatzeko.

5.4.6.2. JARDUKETA: HAZITARAKO PATATAREN OSASUNEAN LAGUNTZEKO NEURRIAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Uztailaren 6ko 231/2017 Foru Aginduaren bidez, hazitarako patata ekoizten duten zonetan birosiaren arriskuak apaltzeko laguntzen deialdia ebatzi zen, 2016-2017ko kanpainari begira. Guztira 8 espediente onartu dira, 14,93 ha-ri eragiten diotenak; dirulaguntza guztira 9.313,40 eurokoa izan da. Helburua da Araban enblematikoa den landaketa honi eustea, bereziki bestelako ekoizpen aukera urriak dituzten eskualdeetan. 118/2018 Foru Agindua argitaratu da, hazitarako patatan birosiarengatik galerak apaltzeko.

5.4.6.3. JARDUKETA: OLIBONDOA BERRESKURATZEARI BULTZADA (MAORA).

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an MAORArekin jardun da lankidetzan, olibondoen ekoizleak eta oiloaren egileak eta merkaturatzaileak ordezkatzeko dituen elkargo profesional berria eratzeko. Aldi berean, olioia sustatzeko, landaketa prestatzeko eta babesteko eta uzta antolatzeke zenbait jardueratan hartu da parte. 2018rako, elkargoa abian jarrita, proposatutako jarduerari babes ekonomikoa emango zaie eta laguntzen dekretu berria bultzatuko da, landaketa berriei bultzada emateko.

5.5. XEDEA: BASO KUDEAKETA IRAUNKORRA

5.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: BASOGINTZAKO JARDUERAK.

5.5.1.1. JARDUKETA: BASOGINTZAKO FORU KONTSEILUA ERATZEA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Egoera: Hasteke



Deskribapena: ekintza hau hasi ez bada ere, 2019an abian jartzea aurreikusten da.

5.5.1.2. JARDUKETA: NATURA 2000 SAREAN SARTUTA DAUDEN MENDI PUBLIKOETAKO BASOGINTZA PLANAK IDAZTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: LIFE Oreka Mendian Mugaz Gaindiko Europaren Proiektuan hartzen da parte gainerako foru aldundiekin, Akitaniako erakundeekin eta teknologia zentroekin. Proiektu horren helburua da Arabako mendietako larre habitatak zaintzea, 2021era arte. Aurrekontua, denen artean partekatua eta Europako laguntzarekin, 3.750.000 eurokoa da. 2018an lankidetzan jardun da honako proiektuak aurrera eramateko: batetik, Habios proiektua (Izkiko Parke Naturalean egin da eta ametzen eta haren bidez zenbait fauna espezieren artean dagoen erlazioa aztertzen da), eta, bestetik, Green egitasmoa (Habios-en ondorioak beste espazio natural batzuetara eramaten dira).

5.5.1.3. JARDUKETA: MENDI LARRIALDIETARAKO FORU PLANA EGITEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016ko ekainean Eusko Jaurlaritzaren Babes Zibileko Batzordeak ALHko Mendi Larrialdietarako Foru Plana onartu zuen.

5.5.1.4. JARDUKETA: MENDI PARTIKULARRAK KUDEATZEKO PROGRAMEN ARAUDI BERRIA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an ALHri zura egiaztatzeko aplikagarri zaizkion Baso Kudeaketa Iraunkorreko Planak arautzeko araudia prestatu da; 2018an bukatzea aurreikusirik dago.

5.5.1.5. JARDUKETA: BASO ERRESERBEN KATALOGOA INDARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ALHn babesteko moduko hainbat zuhaizti daude (Munain, Okariz, Igoroin, Labraza...), baina babesteaz gain, komenigarria da horiek guztiak Baso Erreserben Katalogoan jasotzea.



5.6. XEDEA: NEKAZARITZA LURRA BABESTEA

5.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: BALIO AGROLOGIKO HANDIKO LURRAK.

5.6.1.1. JARDUKETA: SEKTORE AFEKZIOA EBALUATZEKO PROTOKOLOA (SAEP) GARATZEA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Irailaren 16ko 166/2014 Dekretuak onartutako Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak beharrezko egiten du nekazaritza arloko organo eskudunaren txostena, baldin eta zenbait erabilera eta jarduera garatu nahi badira lurzoru urbanizaezinaren gainean. Txosten horretan ebaluatuko da aurreikusitako jarduketak nekazaritza lurzoruaren okupazioan eta nekazaritza jardueran izango duen eragina, bai eta landa azpiegiturak ere (nekazaritza eraikinak eta jarduerari atxikitako etxebizitzak barne). Zenbait bilera izan dira Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako foru aldundiekin, agindu baten bidez Nekazaritza Sektorearen Afekzioa Ebaluatzeko Protokoloa (SAEP) garatzeko.

5.7. XEDEA: GOBERNANTZA:

5.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ADMINISTRAZIOA SINPLETU ETA HOBETZEA.

5.7.1.1. JARDUKETA: WEBGUNEAK EGUNERATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Azken hilabeteotan Nekazaritza Sailaren webgunea eguneratzen jardun da, edukia arintzeko eta sinplifikatzeko eta erabiltzaileentzat erakargarriagoa izateko. Zentzu horretan, edukiak iraunkorki garatzen ari dira eta sailaren prozedura administratibo guztiak elektronikoki (baimena, erregistroak, dirulaguntzak...) garatzea ahalbidetzeko lan egiten ari da prozedura eta zerbitzuen gidaren bidez.



5.7.1.2. JARDUKETA: ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOEK EMATEN DITUZTEN ZERBITZUAK AZTERTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Kasurik gehienetan, Nekazaritza Sailak nekazariekin dituen lehen harremanak Eskualdeko Nekazaritza Bulegoen bidez izaten dira. Bulegootan lehen aholkuak ematen zaizkie eta sailaren laguntza gehienak izapidetzen dizkiete. Hala ere, bulegoetako kontsulta banaketa oso desberdina da; gauzak horrela, Gasteiz, Guardia eta Amurrioko ENBetan izaten dira kontsultarik gehien eta Espejo, Agurain, Kanpezu eta Murgiakoetan kontsultarik gutxien. Azterketa honen ondorioz, ENBetan dagoen pertsonala banatzeko ahaleginak egingo dira, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eman ahal izateko.

5.7.1.3. JARDUKETA: ADMINISTRAZIO PROZEDURAK AZTERTZEA ETA HOMOGENEIZATZEA

Egoera: Gauzatzen

Deskripzioa: 2017an bi lan ildo zabaldu dira:

- 1.- Webgune korporatiboa: Haren antolaketa nahiz edukiak birdefinitzen ari dira. Sarrera guztia berrikusi da, zaharkitutako informazio guztia eguneratzeko. Helburua da herritarrentzat intuitiboagoa izango den webgunea diseinatzea.
- 2.- Prozedura eta Zerbitzuen Gida, Diputatuen martxoaren 22ko Kontseiluaren 28/20016 Dekretuak zehaztutakoa. Foru Aldundiak herritarrei araba.eus-eko ZERBITZUAK 'azpihome'-n eskaintzen dizkien prozedura eta zerbitzu guztiak jaso nahi dira; horrela, bigarren fase batean horien tramitazioa ahalbidetuko da bide telematikoa bidez, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorriz; izan ere, lege horrek herri administrazioei eskatzen die web atarietan haren eskumenekoak diren prozeduren zerrendak eta prozedura horien oinarritzko alderdi guztiak argitaratzeko eta eguneraturik izateko.

7. 6. ARDATZA KULTURA, KIROLA, EUSKARA ETA GAZTERIA

DESKRIBAPENA:

Kultura berez da balioa, eta berezkoa dute Arabako herritarrek. Kultura ekimenak, beraz, tokian tokiko kulturaren mundua osatzen duten gizatalde eta pertsonen itxaropen eta eskaerei erantzuna emateko sustatu eta indartu behar dira, besteak beste. Hala, ardatz estrategiko honek herritarrekiko hurbiltasunean oinarritzen den kultura garapena bultzatuko du.


Euskara, hizkuntza eta gizarte harremanetarako tresna den aldetik, Arabako ondarearen aberastasun handienetakoa da. Euskararen jakintza, erabilera eta familia bidezko transmisioa behar-beharrezkoak ditugu gure lurraldean hitz egiten diren hizkuntzen arteko berdintasuna lortuko bada.

Kirolak gizarte, kultura eta hezkuntzaren ikuspegitik herritarren bizi kalitatea eta osasuna errazten laguntzen du, bereizkeriarik gabe.


Azkenik, gazteei erreparatu behar diegu bereziki, zeharkakotasunez, enplegu, berrikuntza eta ikaskuntzaren gaineko politikek gazteon eskari eta beharrianak kontuan har ditzaten. Hasiera batean, 42 jarduketa planifikatu dira, baina beste hiru gehitu dira eta, guztira, 45 jarduketa dauzka oraingo plangintzak.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015eko UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	45		42	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	%0	34	%81
HASIERA AURREIKUSIA	45	%100	8	%19
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	2	%4	0	%0
GAUZATZEN (*)	39	%87	8	%100
AMAITUA	4	%9	0	%0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	43		8	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA



GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

6.1. XEDEA: KULTURA, ARABAKO BALIO ESTRATEGIKOA

6.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA PRESTATZEA.

6.1.1.1. JARDUKETA: ARABAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA AZTERTU, ANALIZATU, GOGOETA EGIN ETA IDAZTEA, ERAKUNDEEN ARTEKO ETA KULTURA ERAGILEEKIKO ELKARLANA OINARRI HARTURIK.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren prestaketa BUKATU DA.

Arabako Kulturaren 2017-2020 aldiko Plan Estrategikoaren diagnostiko, azterketa, gogoeta eta idazketari lotutako jarduera guztiak 2016an gauzatu ziren; Hala, planaren lehen zirriborroa 2016ko abenduan jaso zen. Aipatutako zirriborroa 2017ko urtarrilean aurkeztu genien planean parte hartu zuten kultur eragile publiko eta pribatu guztiei, bai eta Batzar Nagusietako talde guztiei ere.

Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak plana aurkezteko izapidea Batzar Nagusietako Batzordean txertatzea erabaki zuen, plana izapidetu zedin.

AFaren Gobernu Kontseiluak plana onartu zuen 2017ko otsailean eta, geroago, Batzar Nagusietara helarazi zuen, Euskara, Kultura eta Kirol Batzordeak izapidetu zezan.

Batzar Nagusietako taldeek egindako zenbait mozio txertatu ziren planean eta ekainaren 9an aho batez onartu zen.

Plan Estrategikoa dakarren agiria ondoko ataletan banatuta dago:

- Eragileak eta Metodologia.
- Kulturak Araban duen egoerari buruzko azterketa eta diagnostikoa.
- Proposamen estrategikoa: Xede estrategikoa, Printzipio artezleak, Erronka nagusiak, Lehenetsunezko lan ildoak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eginkizuna eta harreman sarea.
- 34 ekintza, ondoko 6 programetan bilduta:
 1. Koordinazioko eta sareko programa.
 2. Prestakuntza eta Lanbide gaikuntzako programa.
 3. Finantza alorreko dibertsifikazioa sustatzeko programa.
 4. Kultura erakundeak sendotzeko eta gaurkutzeko programa.
 5. Sorkuntza eta jardunbide garaikideak sustatzeko programa.
 6. Ikusleak garatzeko eta jendea sentiberatzeko harreman programa.

6.1.1.2. JARDUKETA: ARABAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA AURKEZTU ETA HEDATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Batzar Nagusietako Euskara, Kultura eta Kirol Batzordean onartu zenetik, aipatutako plana aurkezteko egutegiaren plangintza egin da. Planaren hedapena egiteko plangintza egokitu zen, Batzar Nagusietako Batzordeak izapidetzeko behar izan zuen epea dela eta.

2017an, ekitaldi horretan aurreikusitako ekintzak eta programak abiatu ziren, hots, guztira egin beharreko ekintzen % 75.

Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak agiri horren argitalpen xumea aurkeztu zuen 2018ko urtarrilean; bertan, planari lotutako ekintzak, programak eta gainerako alderdiak jasotzen dira.

2018ko lehen sei hilekoan, honako ekintza hauek burutu dira:

- Planari lotutako ekintza guztiak jorratuko dituen Kulturaraba marka aurkeztu da.
- Koordinazio eta Jarraipen Mahaia arautzen duen foru dekretua onartu da.
- Koordinazio eta Jarraipen Mahaia eratu zen. Guztira, 25 mahaikidek osatzen dute mahaia.
- Kultura eragileentzako TRANS FOKO prestakuntza programa abian jarri da; bertan, 14 kultura eragilek parte hartzen dute.
- Artium museoaren bilduman orain dela gutxi gehitu diren grabatuen erakusketa ibiltaria egin da Agurainen eta Amurrion, eta tailer praktikoak antolatu dira herri horietan.
- Sailen arteko mahaiaren izapidetzea abiatu da.
- 2018ko ekitaldian gauzatu behar diren gainerako ekintzen plangintza egin da (planaren webgunea, komunikazio eta kudeaketa tresna gisa erabiltzeko; Artiumen eta Arte Ederretako Museoan garatzeko bekak; sormen lantegietarako laguntzak; arte berriaren erakusketa ibiltariaren ikuspegi berria; udal eta Kuadrilletako kultura teknikarientzako prestakuntza ibilbidearen proposamena...).

6.2. XEDEA: KULTURA SORMEN BEREKIA SUSTATZEA

6.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: 6.2.1.: KULTURA MINTEGIAK. KULTURA LANTEGIAK.

6.2.1.1. JARDUKETA: KULTURA MINTEGIAK EDO TOKIKO KULTURA AMATEURRA SUSTATZEKO GUNEAK AZTERTZEA ETA GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Ekintza hau 2017-2020 aldiko Arabako Kulturaren Plan Estrategikoan jasota dago, hain zuzen ere, ondoko ekintza programan: 6.5. Sormenari eta jarduera garaikideei laguntzeko programa, zehatzago esanda, ondoko atalean: 6.5.1. Sortzaileentzako languneei heltzeko programa. Mintegiak, kultura lantegiak eta sormen lantegiak.

2017an abiatu zen eta, une honetan, jarduteko ereduak prestatzen ari gara, ekimenarekin bat etor daitezkeen guneak dituzten tokiko erakundeekin lankidetzan, lurraldeko lehen ekimen pilotua 2018ko ekitaldian bertan abiatzeko.

2018ko lehen seihilekoan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin batera, lanean ari gara sormen lantegiei laguntzeko, Sorgune nahiz Bitartez moldeei dagokienez, gure lurraldean garatzen diren esperientzia sortzaile eta berritzaileak bultzatzeko; aurreikusitakoaren arabera, 6-8 ekimen bultzatuko dira 2018an.

6.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: 6.2.2.: KULTURA SORMENENKO ESPERIENTZIEN SAREA SORTZEA.

6.2.2.1. JARDUKETA: KUADRILLETAN GARATZEKO KULTURA PROIEKTU BERRIAK TRUKATZEKO ZIRKUITUAK ETA SAREAK AZTERTZEA ETA BALIOA AITORTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Ekintza hau 2017-2020 aldiko Arabako Kulturaren Plan Estrategikoan jasota dago, zehaztu diren 3 ekintza programetan jasotako ekintza batzuen bidez:

6.1. Koordinazioko eta sareko programa

6.4. Kultura erakundeak sendotzeko eta gaurkotzeko programa

6.6 Ikusleak garatzeko eta jendea sentiberatzeko harreman programa

Kultura Ekintzako Zerbitzuak bultzatu dituen Kuadrilla eta udaletako teknikariekiko koordinazio batzarrak baliatuz, prestakuntza ekintzak, programazioari lotutako ekintzak eta sormenari laguntzeko ekintzak lantzen ari gara, Kuadrilletan garatzen diren kultura proiektu berrien balioa aitortzeko xedez.

6.2.2.2. JARDUKETA: KUADRILLETAKO KULTURA TEKNIKARIEN LANEKO EGONKORTASUNA.

Egoera: Gauzatzen.

Deskribapena: Ekintza hau 2017-2020 aldiko Arabako Kulturaren Plan Estrategikoan jasota dago, zehaztu diren 4 ekintza programetan jasotako ekintza batzuen bidez:

6.1. Koordinazioko eta sareko programa

6.2 Prestakuntza eta Lanbide gaikuntzako programa



6.3 Finantza alorreko dibertsifikazioa sustatzeko programa

6.6 Ikusleak garatzeko eta jendea sentiberatzeko harreman programa

Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza aldatzearen ondorioz sortu den ikuspegi berritik abiatuta, udal eta Kuadrilletako teknikarientzako prestakuntza ibilbidea lantzen ari gara, teknikarien prestakuntza eta lan gaikuntza sendotzeko helburuz.

**6.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: 6.2.3.: KULTURA KIROL JARDUERA GARRANTZITSUAK
FINANTZATZEA.**

**6.2.3.1. JARDUKETA: DENBORAN IRAUNGO DUTEN EREDUZKO JARDUERA GARRANTZITSUEI BABESA
EMATEA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.**

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietako aurrekontuetan, *Araba, kultura eta kirolaren erreferentea* izeneko berariazko aurrekontu saila jasota dago, denboran iraungo duten ereduzko kultura eta kirol jardueri babesa emateko helburuz.

2018ko ekitaldian, aurrekontuko sail horren bidez honako jarduera eta ekitaldiak babestuko dira: Gasteizko Jazzaldia, Azkena Rock Festival, Araia-Asparrenako Umorezko Antzerki Jaialdia, Martín Fiz Maratoia, Gasteizko Challenge Triatlloia, Espainiako 2018ko Beteranoen Atletismo Txapelketa, Laudioko Nazioarteko Ziklokrosa, Herri Kiroletako 7 Herrialde, Ametzaga Zuiako Nazioarteko Ziklokrosa eta Nazioarteko Karate Txapelketa.

6.2.4. ILDO ESTRATEGIKOA: ARTE ETA LANBIDE ESKOLAREN BIDERAGARRITASUN PLANA.

**6.2.4.1. JARDUKETA: BIDERAGARRITASUN PLAN BAT GARATZEA ARTE ETA LANBIDE ESKOLAREN
EGOKITZAPEN INTEGRALA EGITEKO.**

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko uztaillean, Arte eta Lanbide Eskolako Patronatuak Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren Bideragarritasun Plana onartu zuen aho batez. Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko hainbat arlotako profesionalek prestatu zuten plana eta, bertan, honako atalak jaso ziren:

A. Testuingurua

B. Beharrianen azterketa, 4 esparrutan: Kudeaketa, Lege-araudia, Azpiegiturak eta Hezkuntza.

C. 39 jardute proposamen, aipatutako 4 esparruetan banatuta.

Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak 2016ko uztailaren 18an aurkeztu zuen plana Batzar Nagusietako Euskara, Kultura eta Kirol Batzordean.

2017an, berriz, Bideragarritasun Plana oinarri harturik, ikastetxearen plana jorratu dugu era parte hartzailean Eskolako langileen eta profesional esanguratsuen laguntzaz, eta plan horren lehen zirriborroa 2017ko laugarren hiruhilekoan jaso genuen. Azkenik, 2018ko lehen sei hilekoan, behin betiko plana landuko da eta abian jarriko da pixkanaka-pixkanaka 2018-2019 ikasturtean.

6.3. XEDEA: ARABAKO MUSEOEN POLITIKA BERRIZ ZEHAZTEA

6.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO MUSEOEN PLANA.

6.3.1.1 JARDUKETA: ARABAKO MUSEOEN PLANA AZTERTU, HAUSNARTU ETA IDAZTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Museoen Foru Sarearen 2018-2021 aldiko Ekintza Plana Aztartu, Hausnartu eta Idazteko zereginak atzeratu egin ziren, Kulturaren Plan Estrategikoari lotutako eginkizun guztiak denboran luzatu zirelako. Hala, aurreikusi den epe berria 2017ko maiatzetik abendura artekoa izan da.

2017ko maiatzean, Azterketa eta Hausnarketa egiteko zereginak gauzatzeko metodologia eta kanpoko aholkularitza zehaztu ziren; 2017ko irailean, berriz, aipatutako zereginak hasi ziren, egutegia zehaztu eta barruko lantalde eragilea identifikatu ondoren.

2017ko abenduan, planaren lehen zirriborroa prestatu zen eta, geroago, planaren kontraste-lanak egin ziren interes taldeekin (AFA barruko interes-taldeekin, beste erakunde publiko batzuetako interes-taldeekin, hornitzaileekin, erabiltzaileekin, elkarteekin, erreferentziazko museo erakundeekin...). 2018ko urtarrilean, lantalde eragileak kontrasteetan agertu den informazio guztia bildu eta aztartu zuen; geroago, otsailean, Museoen Foru Sarearen 2018-2021 aldiko Ekintza Plana deritzon azken dokumentua prestatu zen. Barruko izapidetzea hasi da Gobernu Kontseiluak ekintza plana onar dezan eta, aldi berean, antzemandako 5 erronkei atxikitako ekintzak garatuko dituzten hiru lantaldeak abian jarri dira.



6.3.1.2. JARDUKETA: ARABAKO MUSEOEN PLANA AURKEZTU ETA HEDATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko urtarrilean, Arabako Museoen Foru Sarearen Ekintza Plana hedatzeko beharrezkoak diren barruko lantaldeak eratu dira: hiru lantalde eta koordinazio lantaldea. 2018ko ekitaldian, lantalde horiek planifikatu behar dituzte planean jasota dauden 5 erronketan garatu behar diren ekintzak. Gobernu Kontseiluak plan onartu eta 2018ko plangintza zehaztu ondotik, interes taldeei aurkeztuko diete.

6.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO MUSEOEN BISITAK DOAN.

6.3.2.1. JARDUKETA: FORU TITULARTASUNA DUTEN ARABAKO MUSEOEN BISITAK DOAN JARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016ko maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeaz batera, museoetako sarreraren prezioa ezartzen zuen 2012ko dekretua indargabetu zuen foru dekretua indarrean hasi zen. Egun horretatik aurrera, foru sarea osatzen duten museo guztietara sartzea doakoa da.

6.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: NATURA ZIENTZIEN MUSEOA INDARTZEA.

6.3.3.1. JARDUKETA: LANTALDE BAT SORTZEA NATURA ZIENTZIEN MUSEOARENTZAT ERREFERENTZIAZKO EREDU BERRIA LANTZEKO. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015eko azken hiruhilekoan, erakundeen arteko lantaldea eratu zen Natur Zientzien Museoaren eredu berria lantzeko xedez. Bertan, Eusko Jaurlaritzako, Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartzen dute. Legealdia aldatutakoan, Eusko Jaurlaritzak baietsi zuen erakundeen arteko lantalde horretan parte hartuko zuela.



Hala, 2016ko azaroan, nazioarteko adituek parte hartu zuteneko goi mailako jardunaldiak egin ziren, arrakasta handiz egin ere, Euskadin eredugarria izan den Natur Zientzien Museoa lantzerakoan, irizpide aurreratuenak ezagutu eta gurera ekartzeko helburuz. 2017an, museoaren eredia lantzen ibili gara eta, horretarako, zenbait zereginen artean, bisita egin zen esparru honetan eredugarria den Toulouseko Zientzien Museoan.

2018ko lehen hiruhilekoan, Gasteizko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera adostu da Natur Zientzien Museoaren definizioa osatu behar duen ikuspegia; horrez gain, museoarekin lotuta dauden eragile eta elkarrekin kontrasteari ekin zaio (hala nola Alavesia, unibertsitateko irakasle eta abarrekin).

6.3.4. ILDO ESTRATEGIKOA: ARTIUM MUSEOAREN 2016-2020 PLAN ESTRATEGIKOA.

6.3.4.1. JARDUKETA: ARTIUM-EN MUSEO, HEZKUNTZA, GIZARTE ETA KUDEAKETA JARDUERARI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko urtarrilean eta otsailaren lehen hamabostaldian, beharrezko informazio guztia bildu zen, hausnarketa egiteko eta plan estrategikoa idazteko datu baliagarriak lortzearen. 2016ko martxoan, lan saioa egin zen lehenbizi langileekin eta azpikontraturiko enpresetako langileekin, hausnarketa estrategikoa bideratzeko; geroago, hausnarketa estrategikoa landu zen kanpoko eragileekin, eta 2016ko apirilean batzorde eragileari aurkeztu zizkieten hautatutako ideia gakoak. 2016ko apirilean, maiatzean eta ekainean, ardatzak, helburu estrategikoak eta jarduteko lerroak idatzi ziren. Patronatuaren osoko bilkurak 2016ko uztailaren 7an onartu zuen 2016-2020 aldiko PE.

Eta Euskara, Kultura eta Kirol diputatu andreak aurkeztu zuen Batzar Nagusietan 2016ko uztailaren 18an. Plan estrategikoa onartu ondoren, jarduteko 76 lerroei atxikitako 240 ekintza eta proiektu landu ziren. Azkenik, 2016ko abenduan amaitu zuten ekintzak idazten.

2017ko lehen hiruhilekoan, arrakasta izateko alderdi kritikoak (AAK) lantzen hasi ziren, eta horrelako 8 antzeman zituzten. 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, agente-taula integrala osatuko duten adierazleak lantzen aritu dira. Hala, 2017ko azken hiruhilekoan, 2018-2020 aldiko Plan Estrategikoan jasota dauden 76 jarduketei atxikitako ekintzak zehaztu dira. Ekintza bakoitzean, arduraduna, ekintza garatzeko prozedura, ekintzaren garapena eta betetze maila neurtzen duen adierazlea eta, azkenik, dena delako ekintza plan estrategikoaren barruan kokatzen duen kronograma ageri dira, 2017tik 2020ra arte. Plan estrategikoak ez du ekintza bakar bat ere bukatzea aurreikusten planaren lehen urtean, hau da, 2016an. Plan estrategikoaren 2017ko ekitaldiko betetze mailari buruzko txostena 2018ko lehen seihilekoan egingo da. Beste alde batetik, agente taula



integrala osa dezaketen adierazle batzuk identifikatu dira. Aginte taula integrala behin betiko osatuko duten adierazleak hautatzea falta da oraindik.

6.3.5. ILDO ESTRATEGIKOA: AMARIKA ARETOAREN ESPEZIALIZAZIOA.

6.3.5.1. JARDUKETA: AMARIKA ARETOA ESPEZIALIZATZEKO ETA ARGAZKI ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN ZENTRO BIHURTZEKO PLANA. ERAKUSKETAK, JARDUERA BERRIAK, MINTEGIAK ETA ABAR SENDOTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Amarika aretoaren azken urteotako bilakaera aztertutik, lurraldean erreferentziazkoa izango den erakusketa areto bihurtzeko erabakia hartu da, argazkien eta ikus-entzunezkoen arloan.

2017ko plangintza onartu eta gero, 2018 eta 2019ko ekitaldietako programazioa atontzeko funtsezko irizpideak ezarri ziren.

Nabarmendu beharra dago aretoak Arabako Argazkilaritza Elkartearen lankidetzara iraunkorra baliatzen duela VIPHOTO azoka antolatzeke, bai eta Gasteizko Udalarekin 2017an abian jarritako lankidetzara, "Tetrapack" izeneko erakusketa antolatzeke.

Gainera, Arte eta Lanbideen Eskolako Irudi Saileko ikasleentzako berariazko bisita gidatuen antolaketa finkatu da, erakusketa guztietan.

2018ko erakusketen plangintza bukatu da eta, horretan, nabarmendu behar dugu Arte eta Lanbide Eskolarekiko lankidetzara, bai eta José Uruñuela Goi Mailako Dantza Eskolarekikoa, erakusketei lotutako prestakuntza-jarduerak antolatzeke helburuz.

6.4. XEDEA: KULTURA, ARABAKO BALIO ESTRATEGIKOA

6.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO KULTURA ONDAREA, HIGIEZINA NAHIZ HIGIGARRIA, BALIOAN JARTZEA.

6.4.1.1. JARDUKETA: ARABAKO ONDARE HIGIEZINAREN GAINEKO INBERTSIOAK.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015ean, Martiodako dorrean, arriskuak saihestu eta barrualdea garbitu zen. Indusketa arkeologikoa ere gauzatu zen, baina ez zuen emaitzarik ondu. 2016an, berriz, lurraldeko historia eta arkitekturako ondarean inbertsioak egiteko sailak berreskuratu ziren aurrekoan, guztira, 870.500 eurokoak. Horri esker, ondoko jarduketa hauek burutu ziren ekitaldi horretan:

- Martiodako dorrea berreskuratzeko lehen fasea.
- Igoingo errota, Musitun: Garbiketa lanak eta premiazko finkatzea.
- Soto errota, Navarreten: garbiketa lanak eta premiazko finkatzea.
- Korresko gaztelua: premiazko finkatze lanak.
- La Sebe presa, Gaubean: zaharberritze lanak.
- Zabalateko gaztelua: premiazko finkatze lanak.
- Tobillasko eliza: arriskuan zeuden elementuak konpontzea.
- Lahozko eliza: haizeak kaltetutako estalkia konpontzea.
- Toloñoko santutegia: sarbideak prestatzea, ingurumena lehengoratzeko lanak eta finkatze lanak.
- Gazeoko eliza: perimetroko drainatze lanak.
- Galarretako eliza: horma zaharberritzeko lanak.
- Ondare higiezinan inbertitzeko, Gotzaindegiarekiko hitzarmena berreskuratu da eta, guztira, 300.000 euroko lanak egin dira (% 50ean).
- Elementu txikiak zaindu eta zaharberritzeko laguntzen deialdia esleitu da.

2017an, aurreko ekitaldiko aurrekontu ahalmenari eutsi genion eta honako obra hauek gauzatu ziren:

- Martiodako dorrea berreskuratzeko bigarren fasea.
- Igoingo errota balioan jartzea.
- Korresko gaztelua: bigarren fasea, finkatzea.
- Toloñoko santutegia: bigarren fasea, finkatzea.
- Kexaako monumentu multzoaren azterketa hidrologikoa eta geoteknikoa.
- Lazarragako jauregia egokitzea.
- Ardoaren eta Mahastien Kultura Paisaiako zabaltza eta terrazei buruzko azterketak eta nekazaritzako nahiz industriako ondareari buruzkoak.
- Ondare higiezinan inbertitzeko, Gotzaindegiarekiko hitzarmena dela eta, guztira, 300.000 euroko lanak egin dira (% 50ean).
- Elementu txikiak zaindu eta zaharberritzeko laguntzen deialdian erabiltzeko saila 53.000 euro handitu da, eta baselizak ere aintzat hartu dira programan.

2018an, ondoko aurreikuspena egin da:

- Martiodako dorrea: dorrea berreskuratzeko hirugarren fasea: elementuak ordeztzea eta historia nahiz arteari buruzko azterketak egitea.
- Soto errota, Navarreten: balioan jartzea.



- Zabalateko gaztelua: goialdea finkatzeko bigarren fasea, arkeologiako jarduketa kontuan hartuta.
- Forondako markesaren gaztelua: erantsitako eraikineko estalkiak zaharberritzea.
- Arabako Lurralde Historikoko haitzuloak geolokalizatzea.
- Industria ondarea: taulak egokitzea zerbitzuaren agiri funtsen arabera.
- Kexaako monumentu multzoa egokitzea (Zuzendaritzaren eskaera).
- Ondare higiezinan inbertitzeko, Gotzaindegiarekiko hitzarmena dela eta, guztira, 300.000 euroko lanak egingo dira (% 50ean).
- Elementu txikiak eta baselizak zaindu eta zaharberritzeko laguntzen deialdian erabiltzeko zenbatekoa 49.995 euro handitu da.

6.4.1.2. JARDUKETA: ARABAKO ONDARE HIGIGARRIA ZAINTEA ETA ZAHARBERRITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietako aurrekontuetan jaso den “Aldundiaren ondarea hobetzea” izeneko kontu sailaren barruan, 300 jarduketa baino gehiago gauzatu dira arte ondarea berreskuratzeko, foru sarea osatzen duten museoek nahiz Artium museoaren lan berekietan eta AFarenak diren higiezinak ondasun berekietan. 2016ko eta 2017ko ekitaldietan, Ondare higiezinan inbertitzeko, Gotzaindegiarekiko hitzarmena berreskuratu zen eta, guztira, 80.000 euroko lanak gauzatu ziren (% 50ean).

2016ko ekitalditik aurrera, toki erakundeetako ondasun higigarriak zaharberritzeko laguntzen deialdia ere egiten da.

2017an, 30 urte bete ziren Zaharberritze Zerbitzua abian jarri zenetik. Urteurren hori ospatzeko, urte osoan zehar, zerbitzuak egindako lana zabaltzeko hitzaldiak antolatu dira, bai eta helburu bera betetzeko erakusketa bat BiBat museoan.

2018ko ekitaldiko zaharberritze eta zaintzaren plangintza urtarrian onartu zen. Gainera, aurreikuspenak bete dira urteko lehen bost hilabeteetan, Beste alde batetik, 2018an, estatuan zaharberritzeari buruz egingo den biltzar bat antolatzen lagunduko dugu beste erakunde batzuekin elkarlanean.

6.4.2. ILDO ESTRATEGIKOA: AÑANAKO GATZ HARANAREN JARDUKETA PLANA.

6.4.2.1. JARDUKETA: GATZAGA BERRESKURATU, MANTENTZE LANA EGIN ETA EKOIZPENARI EUSTEKO LANAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Spa gaziaren eraikuntza 2015ean amaitu zen. 100 EU berreskuratzeko zereginak, aldiz, 2016ko irailean amaitu ziren. Errege kaleko biltegiak eraikitzeke proiektua Errepideen Sailaren eskariz aldatu zen. Une honetan, proiektu berri idazten ari dira. 2017ko urrian hasi zen. Santa Ana EU berreskuratzeko lana 2016an amaitu zen. Micaela Portilla Eskola EU berreskuratzeko proiektua hiru fasetan banatu zen: lehenengo fasea 2016ko irailean bukatu zen, bigarren fasea 2017ko irailean bukatu zen eta hirugarren fasea 2018ko uztailan hasiko da. 2016ko urrian, Haraneko 1:500 kartografiaren eguneratzea amaitu zen. Berreskuratzeko lanak, mantentze lanak eta SIG sistema eguneratzeko lanak etengabeak dira.

2018ko urtarrilean, ingurumeneko ibilbidearen 2. eta 3. faseak amaitu ziren. 2018ko apirilean, aldiz, ingurumeneko ibilbidearen 2. eta 3. Faseak inauguratu ziren. Ingurumeneko ibilbidearen 1.1. fasea lizitatu eta esleitu da horri lotutako lanak 2018ko maiatzean hasi ziren. Gune botanikoa gauzatzeko lana 2018ko apirilean amaitu zen. 086 eta 087 EUak gauzatzeko lanak amaitu dira, gune botanikoa eta ingurumeneko ibilbidearen 2. eta 3. Faseak lotzeko xedez. 2018ko uztailan, Micaela Portilla Eskolarekiko lankidetzaren 3. Fasea hasiko da. Muera ibaiaren gaineko hormigoizko zubia desmuntatu da eta egurrezko egitura batez ordeztu da.

6.4.2.2. JARDUKETA: GATZA PROZESATU, ONTZIRATU ETA SALTZEKO LANAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gatzaren egoera, bideragarritasuna eta merkataritza planari buruzko txostena eskuratzeko lanak 2016ko ekainean bukatu ziren. 2016ko abenduan, gatz minerala gordetzeko biltegiaren kokaleku berriari eta gatz ontziratzeko, biltegitratzeko eta banatzeko lanen hobekuntzari buruzko azterketa amaitu zen. 2017ko ekainean, Gatzaren esparruaren egitura berria abian jarri zen. 2017ko ekainetik aurrera, Subillabide dago jardunean, hau da, gatz biltegitratzeko eta banatzeko gune berria. 2017ko abuztuan, gatz ehotzeko sistema instalatu zen eta, handik aurrera, Añanako gatz fina ere ekoizten dugu. Gatz Harana lineako gatz fina merkaturatzen hasi gara, baina Torcon baino ezin da erosi. 2018ko maiatzetik aurrera, ekoizpena kudeatzeko Kanban Kaizen sistema ezarri zen ontziratzeko eragiketetan. 2018ko martxoan, ontziratzeko eragiketak Tuestako industrialdera eramateko aurrelana egin zen. 2018ko udan, lerro beltzeko Martin Berasategi gatz fina merkaturatuko da, eta linealetan eta HORECAN jarriko da salgai.

6.4.2.3. JARDUKETA: KULTURA, TURISMO ETA SUSTAPEN JARDUERAK.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: 2015eko azken hiruhilekotik aurrera, programazioa eta feed-back delakoa etengabe berrikusten dira eta bisita gidatuak ere etengabe egokitzen dira. Bisita egokituaren eskaintza handitu da, itsuen bisitei dagokienez. 2017ko otsailean, Gatz Haranetik barrenako bisita birtuala euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzeko lanak amaitu ziren. Uzta hasierako jaia egin zen 2016ko eta 2017ko maiatzetan. Gatzaren azoka egin zen 2016ko eta 2017ko uztailan, eta gatz biltegiatzeko jaia egin zen 2015, 2016 eta 2017ko irailean. 2016ko irailean, mendiko maratokia antolatu zen; 2017ko maiatzetan, berriz, Gasteizko mendi elkarrekin araututako 42 kilometroko proba antolatu zen. 2018ko otsailean, RV bideoa grabatu zen 4k-n, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Aurreko bideoak aldi batera emateko softwarea garatu da eta 2018ko ekainean amaituko da. Uztaren hasiera amaituko da BCCrekin 2018ko ekainean. 2018ko Gatzaren azoka eta gatz biltegiatzeko jaia antolatzen eta finantzatzen lagundu genuen. 2018ko Poesia Eguna antolatzen parte hartu genuen, Lanzaroteke Salinas del Janubio herriarekin senidetzeko. Beste bisita mota diseinatu da 2018ko ekainean eskaintzeko: Ingurumen bisita. Gatz Harana ikertzeko I. Workshop-a antolatu da 2018ko maiatzetan, unibertsitate eta ikerguneekin batera. 2018ko irailean, aldiz, Gatzaren Antropologiaren II. Nazioarteko Biltzarra antolatuko da.

6.4.2.4. JARDUKETA: PLANAK ETA ARAUAK IDAZTEN ESKU HARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Añanako diapiroaren biotopo babestua kudeatzeko plana dela eta aurkeztu diren alegazio guztiak onartu dira. Añana Gatzagako HAPOn barruan, hainbat jarduketa proposatu zaizkio Bide Azpiegituren Sailari A-2622 errepidean gauza ditzan, Gesaltza Añanatik igarotzean. Añanako Gatz Haranaren Plan Zuzentzailea eguneratu da, SIPAM proiektuaren esparruan eskatzen den formatura egokitzeko. SIPAM espedientearen lehen bertsioa 2017ko uztailan amaitu zen. 2017ko azaroan, aldiz, azken bertsioa eman zen eta Gatz Haranaren hautagaitza defendatu zen. Azkenik, FAOk aitortu zuen saria 2017ko azaroan.

Añanako gatz ekoizteko sistema aurkeztu zen FAOn aurrean, 2018ko apirilean. Bide Azpiegituren Sailarekin batera, Gesaltza Añana igarotzean, A-2622 errepideko zirkulazioa, eta oinezkoen zirkulazioa bidetik nahiz herritik hobetzeko planari berriro ekin genion, 2017an proposamena eginda, eta oraindik ere zehazteke dagoen proiektua aurkeztu dugu foru sailarekin batera 2018an.

6.4.3. ILDO ESTRATEGIKOA: SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOAREN JARDUKETA PLANA.

6.4.3.1. JARDUKETA: SENDOTZE ETA ZAHARBERRITZE OBRETARAKO INBERTSIOAK, PLAN ZUZENTZAILEAREN ARABERA.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Transeptuaren iparraldeko horma pikoa finkatu zen 2015eko urritik 2016ko maiatzera. Alboko nabeetako estalkia zaharberritu zen, 2015eko irailetik 2016ko abendura. Fabrikak eta harlandua finkatu ziren girolako kaperaren gaineko erlaitzetan, 2016ko irailetik 2018ko otsailera.

Aurreikuspenak:

- Girolako estalkiak: estalkiko egitura eta isurkiak, irisgarritasuna eta argiztapena 2017ko azaroan lizitatu zen, baina lehiaketa hutsik geratu zen eta berriro ere aterako da lizitaziora laster.
- Aiztogile kaleko 103. zenbakiaren zaharberritzea, 2018an.
- Aiztogile kaleko 93. zenbakiaren zaharberritzea (aterpetxea handitzea) eta Aiztogile kaleko 99. zenbakiaren zaharberritzea, 2018an eta 2019an.
- Erdiko nabeko estalkia eta transeptua. Irisgarritasuna eta argiztapena, 2019an eta 2020an.
- Bisitarien zentroaren egokitzapena (2018ko urtariletik martxora).

6.4.3.2. JARDUKETA: SANTA MARIA KATEDRALEKO KRIPTAK MUSEO BIHURTZEKO INBERTSIOAK

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Kriptak museo bihurtzea, 2015eko urritik 2015eko abendura. Kripten argiztapena, 2016ko apiriletik uztaileira.

6.4.3.3. JARDUKETA: SANTA MARIA KATEDRALA KULTURA ETA TURISMO INTERESEKO LEKU GISA ERABILTZEKO BIDERAGARRITASUN PLANA DISEINATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Katedral barruko bisita gidatuak (urtean, 360 egunean zabalik dago), tailerrak eta udalekuak. Kultura jarduerak katedralaren barruan (arte guztietarako modua: musika, olerkia eta literatura, hitzaldiak, antzerkia, arkitektura eta zaharberritzea...). Gazte eta erromesentzako aterpetxea (urteko 365 egunetan zabalik).

2017an garatu diren neurri berriek bisita gidatuak aberasten eta balio handia ematen diete bisita gidatuei: Polikromiak inauguratu dira (Argiaren arkupea) haurrentzat, familia turismoa sustatzeko, eta italiara txertatu da audiogidetan (baziren ingelesez, frantsesez eta alemanez) atzeritik gero eta gehiago datozen bisitariei erantzuteko. Ildo berean, frantsesa eta alemana txertatu dira bisiten sarrerari buruzko bideoan; era berean, azpitoluak txertatu dira entzumen arazoak dituzten bisitariarentzat.



Webgune berria eta ibilaldi birtualak, seinale berriak hegoaldeko horma pikoaren ganga nola altxatu zen azaltzeko ikus-entzunezkoa (katedrala itxi behar izan zen alde horretan gertatutako jauziaren ondorioz) aurkeztu dira. Horiek guztiak museoko elementu bilakatu dira. Gainera, 2018an, katedralaren barruan ematen diren kontzertu kopurua handitu nahi da eta, halaber, Santa Maria plazara eta harresira eraman nahi dira noizean behin.

6.4.4. ILDO ESTRATEGIKOA: KATEDRALA BIRGAITZEKO EREDUA BESTE ONDARE ELEMENTU BATZUETARA HEDATZEA.

6.4.4.1. JARDUKETA: KATEDRALAREN KULTURA BIRGAIKUNTZAKO EREDUA LURRALDEKO BESTE ONDARE ELEMENTU BATZUETARA HEDATZEKO AZTERLANAK EGITEA.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: 2018tik aurrera garatzeko ekintzan.

6.4.5. ILDO ESTRATEGIKOA: IRUÑA-VELEIAKO 2010-2020 ALDIKO PLAN ZUZENTZAILEA.

6.4.5.1. JARDUKETA: IRUÑA-VELEIAKO AZTARNATEGIKO ELEMENTUAK BERRESKURATZEKO, ZIENTZIA, PAISAIA ETA ZAINTZAREN IKUSPEGITIK

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2010-2020 Plan Zuzentzaileari jarraiki eta aurrekontuko baliabideak aintzat hartuta, inbertsioak egin dira Iruña-Veleiako aztarnategiko elementuak berreskuratzeko zientzia, paisaia eta zaintzaren ikuspegitik. Hala, 2015eko uztailetik 2018ko apirilera honako jarduketa hauek nabarmendu behar ditugu:

- Harresiko hegoaldeko kuboaren zaharberritzea.
- Kanpainetan berreskuratutako materialen zaharberritzea.
- *Malecum* delakoa edo azoka hainbat fasetan zaharberritzea eta berreskuratzea.
- Esku hartze arkeologikoa Astorga-Bordele bidean, *Oppidum* delakoaren sarreran.
- Esku hartze arkeologikoa *Macelum* delakoaren mendebaldean.



- Eskuratutako materialen askotariko azterketak egiten hasi gara.
- Egindako esku hartzeen oroitza zientifikoa lantzen hasi gara.
- Langraiz Okako Udala 2010-2020 Plan Zuzentzailearen Zuzendaritza Batzordean sartzea.
- Harresiko hegoaldeko atea zaharberritzeko lan berriak egiten hasi gara, Eusko Jaurlaritzak 2017ko abenduan egindako ekarpenari esker. Lan horiek 2018ko uztaile arte iraungo dute:
 - Esku hartzeen aurreko garbiketa.
 - Esku hartze arkeologikoa hasita dago.
 - Zaintzeko esku hartzea esleitzeko aldian dago.
- 2018ko uztailetik urrira *Macelum* delakoaren patio nagusian eta mendebaldean egin beharreko esku hartzeak onartu dira.

6.4.5.2. JARDUKETA: AURKIKUNTZA BERRIEK EKARTZEN DUTEN JAKINTZA GIZARTERATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Aztarnategian bertan dauden informazio panelak zein zabalkundeko hiruorrikoak eguneratzea. Aztarnategiko bisita gidatuak bultzatzea.

6.4.6. ILDO ESTRATEGIKOA: ERROMATARREN AURREKO MONUMENTUAK BABESTEKO ARRETA PLANA.

6.4.6.1. JARDUKETA: MONUMENTU MEGALITIKO, TRIKUHHARRI ETA IRUINARRIEN BABES INTEGRALERAKO BERARIAZKO PROGRAMA BAT GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015ean, gure lurraldean katalogatuta dauden 16 trikuharriak zaharberritu, finkatu, seinaleztatu eta balioa emateko zereginak amaitzeko plangintza onartu zen. Plangintza hori 2016-2019 aldian garatzekoa da et, bertan, 2017an aurkitutako Lakondoako trikuharria ere jaso da, horren indusketa eta azterketa datozen ekitaldietan egingo delako.

- 2017an amaitutako jarduketak: Montecillo, San Martín, Los Llanos, Sorginaren Txabola, La Huesera, El Sotillo, La Yaza, La Lastra, La Mina, Sorginetxe eta Aizkomendi.
- Lakondoa aurkitu eta indusketa lana egin da: indusketa 2017an egin zen, eta hurrengo ekitaldietan ere aurreikusi dira esku hartzeak.



- 2018an hastea aurreikusita dago ondokoetan: San Sebastian Iparra, San Sebastian, Gorpide Iparra eta Gorpide Hegoa (Kuartango).
- 2018an aurreikusitako jarduketak trikuharrietan: Lakondoa eta El Encinal. Halaber, 2018an, Arkaiako aztarnategi erromatarra aztertzen jarraitzeko aurreikuspena dago.
- Aldi berean, esku hartzeak egiten ari gara Entziako mendilerroko iruinarrietan; horretarako hitzarmena sinatu dugu Gondra Barandiaran Fundazioarekin eta, horri esker, 70.000,00 euroko balioa daukan proiektu bati ekingo diogu 2018ko maiatzetik ekainera, 7 iruinarri eta hainbat tumuluren gainean.

6.4.7. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO ONDAREAREN IBILBIDEA SORTZEA.

6.4.7.1. JARDUKETA: KULTURA PROGRAMAZIOAK DISEINATZEA, MUSEOEN SAREKO JARDUERAK, LURRALDEKO GAINERAKO ERAKUSTARETOETAKOAK, SANTA MARIA KATEDRALEKOAK, AÑANAKO GATZ HARANEKOAK, IRUÑA-VELEIAKO AZTARNATEGIKOAK, GAINERAKO AZTARNATEGIETAKOAK ETA, ORO HAR, ONDARE EREMU GUZTIETAKO JARDUERAK OINARRITZAT HARTURIK

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Museoen plana amaitzearekin lotutako ekintza. 2017ko abenduan, sailen arteko lantaldea eratzeko lehen urratsak egin dira AFAn bertan.

2018ko ekainetik 2019ko ekainera aurreikusi ekintza planean, zenbait ekintza proposatu dira esparru horretan dagoeneko abian ari diren ekitaldiak jasotzeko, ondarearen inguruko funtsezko lerroak zehazten joateko.

6.5. XEDEA: KIROLA BABESTEA

6.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ESKOLA KIROLA INDARTZEA.

6.5.1.1. JARDUKETA: ESKOLA KIROLAREN BARRUKO KIROL JARDUERARI BURUZKO HAUSNARKETA EGITEA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko urtarrilean, gure lurraldean den eskola kirolaren ereduari buruzko hausnarketa egin genuen. Horretarako, 15 lagunek osatutako lantaldea eratu genuen, federazio, ikastetxe, kirol elkarte, tokiko erakunde eta AFAko Kirol Zerbitzutik etorritako ordezkariak.

Metodologia parte-hartzailea erabili genuen eta, une batzuetan, kontrastea egin zen lehen aipatutako esparruetako ordezkari gehiagoren eskutik. 2016ko ekainean, hausnarketaren ondorioak aurkeztu ziren Arabako Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluan. Eusko Jaurlaritzarekin eta beste foru aldundiekin batera lan egin dugu, erakunde bakoitzak egindako gogoetatik sortutako aurrerapenak ezagutu eta erkatzeko. 2018ko lehen hiruhilekoan, Goi Mailako Kirol Teknikaria deritzon lanpostu aldatu berria bete bezain laster, Arabako kirol komunitatearentzako aurkezpen ofiziala prestatzen ari gara. Agiria jardunaldi baten bidez aurkeztuko da eta, gainera, amaierako dokumentuan, datozen 3-4 urteotan proposatzen den aurrerabidearen giltzarrietan sakontzen da. Aurrekoaz gain, esan beharra dago egindako hausnarketan atera diren ondorio batzuk dagoeneko txertatzen ari direla 2018-2019ko Eskola Kirolaren araudian.

6.5.2. ILDO ESTRATEGIKOA: BERTAKO KIROLA SUSTATZEA.

6.5.2.1 JARDUKETA: ERAKUNDE ARTEKO GARAPENA ETA HAUSNARKETA BERTAKO KIROLEKO KIROL JARDUERARAKO PLANEN GAINEAN. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko nahiz 2017ko aurrekontuetan, "Kirol federazioak – Bertako kirola" izeneko kontu saila handitu da, guztira % 83, 2015eko aurrekontuan jasota zegoen zenbatekoarekin alderatzen badugu. 2016ko hauteskundeak amaitu ondoren, hausnarketa prozesuak antolatu dira proiektu berriak garatzeko, gure lurraldeko bertako kirola biltzen duten hiru federazioei dagokienez (Herri Kirolak, Euskal Pilota eta Boloak). Hausnarketa 2017ko bigarren seihilekoan hasi eta amaitu zen. AFaren eta aipatutako hiru federazioen arteko lankidetzaren 2018-2019ko plangintza 2018ko lehen hiruhilekoan prestatu zen, hausnarketan zehaztutako proiektuetan oinarri harturik.

6.5.3. ILDO ESTRATEGIKOA: KIROL PRESTATZAILEEN ESPEZIALIZAZIOA.

6.5.3.1. JARDUKETA: LANKIDETZA HITZARMENAK KIROL KLUBEKIN, FEDERAZIOEKIN ETA IKASTETXEEKIN, ENTRENATZAILEAK ETA PRESTATZAILEAK PRESTATZEKO.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Batez ere, Eskola Kirolaren esparruan aritzen diren begirale eta prestatzaileei dagokienez, titulartasun publikoko ikastetxeen egoeraren diagnostikoa egiteko helburuz, Denon Eskolarekin elkarlanean jardun genuen 2016an bi jarduketa gauzatzeko: Alde batetik, ikastetxeetako benetako egoeraren azterketa egiteko eskatu genien eta, beste alde batetik, Denon Eskolak ikastetxeei eskaintzen dien laguntza, aholkularitza eta kontratazio zerbitzua zati batez finantzatzen lagundu dugu. 2017an, kontratazio gida prestatu genuen ikastetxeen esku jartzeko. Gida hori 2018an banatzeko asmoa daukagu. Beste alde batetik, KIROLENE Kirolaren Euskal Etxearekiko lankidetzari eutsi diogu, hain zuzen ere, entrenatzaile, begirale eta abarrentzako prestakuntza jardueren eskaintzari dagokienez.

2018ko ekitaldian, 20.000,00 euroko berariazko partida erabiliko da entrenatzaileak prestatzeko ondoko kirolekin: Saskibaloia, Atletismoa eta Tiro olinpikoa, Arabako Kirol Federazioen Elkartearekin sinatutako lankidetzak hitzarmen bati esker.

6.5.4. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN KIROL JARDUERA SUSTATZEA.

6.5.4.1. JARDUKETA: HITZARMENAK ETA ELKARLANEKO JARDUERAK KIROL KLUBEKIN, FEDERAZIOEKIN ETA ELKARTEKIN, EMAKUMEEK ANTOLATZEN DITUZTEN EDO PARTE HARTZEN DUTEN JARDUERAK BABESTEO

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko aurrekontuan, emakumeen kirol jarduera sustatzeko sail berria sortu zen, 24.000 euroz hornitutakoa. 2017ko ekitaldian, berriz, 40.000 euroko partida erabili zen eta 2018ko ekitaldian 60.000,00 euroko zenbatekoa erabiliko da. Azkena lehiaketa bidezko laguntza gisa esleitu da.

Aurrekontuan, sail berria sortu zen 2016ko ekitaldian, eta sail horri eutsi genion 2017ko aurrekontuan. Sail horretako jasotako zenbatekoaren helburua da berdintasun planak garatzen eta hedatzen laguntzea Arabako federazio eta kirol klubetan. Gaurdaino, bederatzi erakunde (5 federazio eta 4 kirol klub) ari dira programa garatzen, eta datozen ekitaldietan programa pixkanaka-pixkanaka garatzeko asmoa dute. Aurrekoek gain, 2016ko ekitalditik aurrera, programa berria garatzen ari gara Eskola Kirolean parte hartzen duten erakundeentzat (ikastetxeak eta kirol klubak), esparru horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten ekintzak abian jartzeko xedez.

Lehenetsuneko babesletza jarduerak zehazten dituen foru dekretua eta jarduera horiek bete behar dituzten baldintzak eguneratu dira, lehenetsuneko jardueraren aitorpena jaso dezaten, bai kirol klubetako emakumeen taldeek egiten dituzten kirol jarduerari dagokienez, bai lehiaketari dagokienez.



2018ko ekitaldian, emakumeen kirol jarduera sustatzeko partida 20.000,00 eurotik 60.000,00 euroraino handitu da. Emakumeen kirolaren arloan erreferentziazkoak diren Arabako kirol klubetik bileretan eztabaidatu eta gero, goian aipatutako zenbatekoaren zati bat emakumeen kirol jarduera ikusarazten erabili da (20.000,00 €); hortaz, 40.000,00 euroko zenbatekoa gorde da lehiaketa bidezko deialdian esleitzeko. Dena dela, esan beharra dago deialdian ere irizpideak berrikusi direla, arestian aipatutako bileretan atera diren ondorioak aintzat hartuta.

6.5.5. ILDO ESTRATEGIKOA: KIROLARABA FUNDAZIOA SENDOTZEA. ERRENDIMENDUKO KIROLA

6.5.5.1. JARDUKETA: FUNDAZIOAREN EGITURAZ, BALIABIDE EKONOMIKOEN HORNIDURAZ ETA KUDEAKETA PROZEDUREZ HAUSNARTZEA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko ekitaldian, fundazioaren izena aldatu eta KIROLARABA deitzea onartu zuen fundazioaren patronatuak, xedearekin eta lurralde eremuarekin hobeto identifikatzeko. Bestalde, ekitaldi horretan bertan, kirol erakunde eta kirolarientzako laguntzen sistema osoa berrantolatu zen eta laguntza guztiak lehiaketa bidezko deialdi publikoen bidez esleitzen hasi ginen, laguntza izendunak baztertuta, gardentasuna eta aukera berdintasuna lehenesteko xedez. 2017ko ekitaldian ere printzipio horiei jarraiki jardun genuen. Patronatuko kide berriak sartzeko lanean ari gara eta, helburu horrekin bat, zenbait bilera egin ditugu.

2017an, kirolari, klub, federazio eta enpresentzako ekitaldi batzuk antolatu ziren, bi helburu betetzeko: alde batetik, fundazioaren helburuak eta fundazioak eskain ditzakeen onurak azaltzea eta, beste alde batetik, KIROLARABA marka berria sendotzea errendimenduko kirol ez-profesionalari laguntzeko erreferente gisa.

2018an, ekitaldien plangintza egiten jarraitzen dugu, fundazioa bera eta Arabako lurralde historikoko errendimendu handiko kirolari eta kirol klub ez-profesionalak balioan jartzeko.



6.5.6. ILDO ESTRATEGIKOA: LEGUTIOKO ARRAUN EREMUA AKTIBATZEA.

6.5.6.1. JARDUKETA: ERAKUNDE ARTEKO PLAN LANTZEA LEGUTIOKO ARRAUN EREMUA EGOKITU ETA AKTIBATZEKO. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015eko azken hiruhilekotik hona, zenbait bilera egin dira Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzarekin, Euskadiko Arraun Federazioarekin, Arabako Piraguismo Federazioarekin eta Legution diren bi arraun elkarteekin egungo egoera aztertu eta irtenbideak bilatzeko, azkenik, Legutioko arraun eremua aktibatzeke helburuz.

2016an, Euskadiko Arraun Federazioarekin elkarlanean, AFAk bi edukiontzi jarri zituen arraun elkarteekin esku, kirol jarduera horretan aritzeko beharrezkoa den material guztia haietan gordetzeko. Eusko Jaurlaritzak "Albano eremua" zedarriztatu du arraun eremuan eta, horri esker, lehiaketa gehiago egin ahal izango dira aulki mugikorrean nahiz aulki finkoan.

2018ko ekitaldian, 2018-2019 aldiko plangintza zehaztuko da, federazioekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean.

6.6. XEDEA: EUSKARA SUSTATZEA

6.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN 2014-2017KO PLAN ESTRATEGIKOA HEDATU ETA EBALUATZEA.

6.6.1.1. JARDUKETA: EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK SUSTATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren 2016ko, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontuetan, Euskara Sustatzeko programaren atalean, "Euskarazko hedabideak sustatzeko laguntzak" jasotzen dituzte. Lehia edo norgehiagoka bidezko deialdiak dira eta, hiru ekitaldietan, hiru komunikabidek parte hartu dute. Hiru deialdietan, laguntzaren zenbatekoa oso-osorik agertu da. Gure asmoa da deialdi horri eustea datozen ekitaldietan.



6.6.1.2. JARDUKETA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROIEKTU ETA PROGRAMEN DEIALDIETARAKO LAGUNTZAK HANDITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Euskararen erabilera sustatzeko proiektu eta programen deialdietarako laguntzak handitzeko ekimena, hasteko eta behin, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan islatu da, hain zuzen ere, Euskara Sustatzeko programaren zuzkiduran, 275.000,00 euroko gehikuntza izan baitu. Horren ondorioz, ondoko programa edo deialdi berriak sortu dira:

- Euskarazko komunikabideak sustatzeko laguntzak.
- Euskalduntzeko laguntzak ikasleentzat.
- Euskaltegien ikasgela desplazatuentzako laguntzak.
- Euskara enpresetan sustatzeko programa.
- Kuadrilla eta Trebiñurekiko hitzarmenak.
- Euskara teknikarien lankidetzak jarduerak.
- Birika programa.

2018ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen eta lurralde osoan hedadura daukan EUSKARALDIA programa lehentasunezkoztat jo da.

6.6.1.3. JARDUKETA: EUSKARA ERABILTZEKO EREMUA SUSTATU GIZARTE MAILA DESBERDINETAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko ekitaldian sortu zen eta 2017ko ekitaldiko aurrekontuan ere jaso den "Birika programari" atxikitako partidaren bitartez, Euskarako Foru Zerbitzuak euskara erabiltzeko eremuen sorrera sustatzen da gizarte maila desberdinetan eta Arabako hainbat tokitan, hala ekitaldiak antolatzen tokiko elkarte edo erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean, nola ekitaldi horien antolakuntza eta garapena oso-osorik zerbitzuaren bizkar hartuta.

- 2016: Jalgi, Laboa gertutik, Begibistan, Zineleku, Gazte sortzaileak...
- 2017: Ikimilikiliklik, Korrika, Begibistan, Zineleku, Gazte sortzaileak, Bertso Bizigazte, Euskalerrria Kantuz, Euskalerrriko Bertsolari Txapelketa.
- 2018: Begibistan, Zineleku, Gazte sortzaileak, Bertso Bizigazte, Euskalerrria Kantuz, Botaba 2.0, Euskaraldiari lotutako jarduera ugari.



6.6.1.4. JARDUKETA: EUSKARAREN ERABILERA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN.

Egoera: Gauzatzen

- Deskribapena: 2015eko azken hiruhilekoan, "Arabako Euskara Lanean" izeneko lantaldea eratu zen, Arabako enpresa bilbea osatzen duten eragile sozioekonomiko esanguratsuen partaidetzarekin. 2016ko aurrekontuan, aurrenekoz jaso zen "Euskararen erabilera enpresetan sustatzeko programa" izeneko partida. 2017ko aurrekontuan ere jaso zen partida hori eta hurrengo ekitaldietan ere jasotzeko asmoa dago. Euskarako Foru Zerbitzua buru dela, "Bai Euskarari" elkartearekin lankidetzan, lantalde batzuk eratu dira programatutako ekintzak aurrera eramateko: 2016: Taldea aurkeztea, lantaldeak eratzea, webgunea prestatzea, Lanpres gida prestatzea (Lanbide Heziketako ikastetxeetan banatzeko), Lazarraga sariak antolatzea (bi urterik behin...).
- 2017: Lanenpres gida prestatzea (LHko ikasleak praktikaldian hartzen duten enpresetan banatzeko), administrazioko kontratuen baldintza agiriak aztertzea, "Arabako bai" kanpaina, euskararen erabilera eta presentzia ostalaritzan eta merkataritzan sustatzeko, euskara sustatzeko mikroplanak bultzatzea enpresetan...
- 2018an, kudeaketa eredua aldatu da teknikari bat gehiago dagoelako zerbitzuan, horren ondorioz, "Arabako Euskara Lanean" lantaldea osatzen duten eragileekiko elkarlan zuzenagoa egin baitezake.

6.6.1.5. JARDUKETA: KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN LAN EGONKORTASUNA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Kuadrillei eta Trebiñuri laguntza ematen diegu euskara teknikariak kontrata ditzaten; hala, 2016ko ekitalditik aurrera, "Kuadrilletako euskara teknikariekiko lankidetzan" izeneko partidaren barruko izapidetzea aurrekontua onartu aurretik bideratzen da, aipatutako teknikarien iraunkortasuna urte osoan bermatzeko. 2017an, azterketa bat egin zen Kuadrillekin eta Trebiñurekin elkarlanen, euskara teknikarien zereginak eta eginkizunak begiratu, jardunbide egokien berri izan eta kasuan-kasuan izan daitezkeen hobekuntza arloak antzemateko, 2018ko ekitaldian, baterako jarduketa plana lantzeko. Euskarako Foru Zerbitzuak buru duen eta, 2016ko ekitalditik aurrera, berriazko zuzkidura daukan "Arabako Euskara Zerbitzuak" deritzon lantaldearen bidez, batera garatzeko edo eskualde bakoitzean garatzeko programak eta jarduketak koordinatzen dira eta, gainera, guztion beharrezko erantzuteko irtenbideak lantzen dira (prestatutzak, programa berriak, jarduteko irizpide gaurkotuak...). 2018ko urtariletik, "Kuadrilletako euskara teknikariekiko lankidetzan" izeneko partida toki erakundeak finantzatzeko funtsaren pentzura igaro da eta, beraz, ez



du sail honek kudeatzen. Nolanahi ere, Euskarako Foru Zerbitzuak "Arabako Euskara Zerbitzuak" deritzon lantaldearen zereginak koordinatzen eta zuzentzen eta, ildo horretan, 2018ko plangintza urtarrilean zehaztu zen.

6.6.1.6. JARDUKETA: EUSKARAZKO AISIA, KIROL ETA KULTURA JARDUEREN PLANAK DISEINATU ETA GAUZATZEA GAZTEENTZAT.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Gazteriaren Foru Erakundearekin elkarlanean hasi gara gazteei eskaintzen zaizkien euskarazko aisialdi, kirol eta kultura jardueren planak diseinatu eta gauzatzeko:

- 2015:
 - Gazte Sortzaileak izeneko programa diseinatu zen. Programa hori 2016ko ekitalditik garatu da urtero-urtero Gasteizko Udalarekin lankidetzan.
- 2016:
 - Mintzagune programa egokitu zen, euskararen erabilera eta sozializazioa lehenesteko.
 - Zineleku programa diseinatu eta abian jarri genuen. Lehen edizioa 2016an egin zen, Zarautzen (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan) eta bigarrena (2017) eta hirugarrena (2018) Gasteizen (Gasteizko Udalarekin elkarlanean).
- 2017:
 - Bertso Bizigazte programa diseinatu eta abian jarri zen, Arabako Bertsolari Elkartarekin lankidetzan.
 - Gainera, saileko Euskara eta Kirol zerbitzuekin elkarlanean, Arabako Kirol Federazioen Elkartaren laguntzaz, 2017an, kirol federazio, kirol elkarte, kirolari, gurasoen elkarte, unibertsitateko irakasle eta beste eragile batzuentzako topaldia antolatu genuen euskararen erabilera Arabako kirol jardueran aztertze eta hobekuntzak zein programak proposatzeko. Horiek guztiak 2018-2021 aldiko Euskararen Plan Estrategikoan garatuko dira.
 - Beste alde batetik, 2017ko ekitaldian, lankidetzan hasi gara Eusko Ikaskuntzarekin. Hala, 2017ko ekitaldian, "Euskara eta Gazteak" izeneko jardunaldia antolatu zen horren haritik, eta jardunaldi horretako parte hartzearen ondorioz, lehentasunezko bi lan ildo atera dira. Eta lehentasunezko bi lan ildo horiek garatzeko, 2 beka esleituko dira eta balizko jarduketak 2018an landuko dira. Lanen emaitza 2018ko ekitaldian aurkeztuko da, elkarlanean antolatuko den jardunaldi batean.
- 2018:
 - Aurreko urteetan hasitako programei eusteaz gain, Gazteriaren Foru Erakundearekin, Labayru ikastegiarekin eta Euskadi Gaztearekin lankidetzan jardungo dugu, Botaba 2.0

6.6.1.7. JARDUKETA: EUSKARAREN 2014-2017KO PLAN ESTRATEGIKOA EBALUATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2014-2017 aldiko Plan Estrategikoaren behin betiko ebaluazioa 2017ko azken hiruhilekoan egin zen, eta hurrengo plan estrategikoaren (2018-2021) diseinuaren hasierarekin batera gertatu da. 2016. urteko hasieratik, Euskarako Foru Zerbitzuak lan metodologia berri ezarri du, indarrean dagoen plan estrategikoan jasotako ardatzekin bat datorrena, plan horren amaierako ebaluazioa prestatzen joateko helburuz. Hala, 2017ko otsailean egin zen Euskararen Aholku Batzordean, ardatz bakoitzaren ordura arteko betetze mailaren berri eman zen eta jarduketa esanguratsuenen nondik norakoak azaldu ziren. Ebaluazioa egiteko, aholkularitza enpresa baten laguntza baliatu da eta metodologia parte hartzailea erabili da, bai Euskara Batzordearekin, bai profesionalekin eta arloko arduradunekin. Ebaluazioari buruzko behin betiko txostena 2018ko otsailean aurkeztu zen.

6.6.2. ILDO ESTRATEGIKOA: 2018-2021 ALDIKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA PRESTATZEA.

6.6.2.1. JARDUKETA: 2018-2021 ALDIKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA AZTERTZEA, EGOERAZ HAUSNARTZEA ETA IDAZTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko irailean, 2018-2021 aldiko Euskararen Plan Estrategikoa aztertzeke, egoeraz hausnartzeko eta idazteko eginkizunei ekiteko metodologia eta kanpoko aholkularitza zehazten hasi ziren. Zeregin horiek bat etorri ziren orduan indarrean zegoen ebaluazioarekin. Hiru gogoeta gune osagarri antzeman dira, eraginkortasun handiagoa bilatzeko eta parte hartze handiagoa ahalbidetzeko: Talde Eragilea, Lan Mahaia eta Kontraste Foroa.

Plangintza 2018ko ekainera arte luzatuko da.



6.6.2.2. JARDUKETA: 2018-2021 ALDIKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA AURKEZTU ETA HEDATZEA.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Jarduketa horri ekingo diogu plan estrategikoa prestatu ondotik. Aurreikuspenen arabera, plan estrategikoa 2018ko uztailan aurkeztu eta hedatuko da.

6.7. XEDEA: ARRETA BEREZIA GAZTEENGAN.

6.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEAREN (GAZTERIA) EKINTZA PLANA.

6.7.1.1. JARDUKETA: EGOERA AZTERTZEA, EGOERAZ HAUSNARTZEA ETA GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEAREN (GAZTERIA) EKINTZA PLANA IDAZTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: GFEAk 2017-2020 aldiko Ekintza Planaren lehen zirriborroa dauka. Plan hori 2016ko irailetik 2017ko maiatzera bitartean prestatu zen. 2017ko maiatzetik 2018ko urtarrilean, aldiz, planaren kontrastea egin da prozesu parte hartzaile baten bidez, interes taldeen laguntzaz (GFEko langileak, elkarteak, erakundeak, hornitzaileak, erabiltzaileak, hezkuntzako eragileak...) horien guztien iritziak jaso eta, 2018ko otsailan, amaierako dokumentua idazteko.

Ekintza Plan horrek hainbat esparru jasotzen ditu, hala nola plangintza, pertsonen kudeaketa, erabiltzaileak, zerbitzuen eskaintza eta GFEn marka hedatzea.

Planaren hedapena 2018ko maiatzean hasi da, ekintzak eta programak abian jarrita.

6.7.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO GAZTEEN PARTE HARTZE KONTSEILUA.

6.7.2.1. JARDUKETA: GAZTEEN PARTE HARTZE KONTSEILUA SORTZEA, KONTSULTA ORGANO GISA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Gazteek parte hartzeko lurralde kontseilua eratzeko ekintza 2016ko uztailean hasi zen, GFEn Ekintza Planari zegokion hausnarketa amaitu ondoren, planak berak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen baitu ekintza hori. Plana zehazteko, Euskadiko Gazteen Kontseiluaren laguntza baliatu da. Kontseiluaren inguruko proposamena 2017ko abenduan egin zen eta, bertan, eraketa, xedea eta lan egiteko metodologia eta dinamikak jaso ziren. Urtarrilean, barruko izapidetzea bideratu da Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Kontseilua 2018ko ekainean hasiko da jardunean.

**6.7.3. ILDO ESTRATEGIKOA: GAZTEEN INFORMAZIORAKO LURRALDE ZENTROA
BIRDEFINITZEA.**

6.7.3.1. JARDUKETA: LANERAKO METODOLOGIA ETA SISTEMATIKA BERRIAK AZTERTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Azterketa 2017ko abenduan hasi zen eta lehen txostena 2018ko maiatzean eman da.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA


8. 7. ARDATZA: AURRERA EGITEA LURRALDE OREKARANTZ

DESKRIBAPENA:


Lurraldeko oreka lortzeko beharrezkoa da antzeko kalitatezko bizitza- eta ongizate-mailak lortzea Arabako pertsona guztientzat, beren bizilekua edozein dela ere. Horretarako, ezinbestekoa da toki-erakundearen finantzaketan, kooperazioan, lankidetzan eta aholkularitzan zentratutako jarduketak multzo bat ezartzea. Zalantzarik gabe esan daiteke lan hori egitea ezinezkoa dela gure lurraldeko administrazio txikiekin harreman bizia eta jarraitua izan gabe.

JARDUEREN LABURPENA:

	2018KO EKAINA	%	2015EKO UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	23		23	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	% 0	14	% 61
HASIERA AURREIKUSIA	23	% 100	9	% 39
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	0	% 0	3	% 33
GAUZATZEN (*)	12	% 52	6	% 67
AMAITUA	11	% 48	0	% 0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	23		6	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA



GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

7.1. XEDEA. TREBIÑU ARABAN TXERTATZEA:

7.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: TREBIÑU ARABAN TXERTATZEA.

7.1.1.1 JARDUKETA: TXERTAKETA-PROZESUA BURUTZEKO BEHARREZKOAK DIREN JARDUKETAK ZEHAZTEKO LAN-MAHAIA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik azpimarratu da La Puebla eta Trebiñuko udalei zuzendutako laguntzak eta diru-laguntzak garatu beharra. Era berean, 2017ko aurrekontuen arauan jaso ziren Argantzongo ikastolari emandako partidak. Partida horien irismenaren kontrola ahaldun nagusiordeak, La Pueblako alkateak eta Trebiñuko alkatesak osatutako jarraipen-batzordeak egin du aldian behingo bileren bitartez.

Azpimarragarria da Burgosko Diputazioarekin Trebiñuko herritarrei zerbitzuak emateko esparru-akordio bat sinatzeko izandako negoziaketa; alde batetik, negoziaketak izan dituen dimentsioengatik eta zailtasunengatik eta, bestetik, egin behar izan den esfortzuagatik. Negoziatutako akordioaren xedea pertsonak dira, eta baita enklabe horretako udalerrien eta herritarren asmo zilegiei uko egin gabe, auzotarren bizi-kalitatea hobetzea ere. Negoziaketa hori Trebiñuko Konderriko eta Argantzongo udalen adostasunarekin egin da. Horrez gain, Biltzar Nagusiek ere onartu zuten zerbitzu-prestazioetarako 13 jarduketa-eremu biltzen dituen testu batean. Beranduago, behin prozesua bukatuta (2016ko uztaila-2017ko martxoa), zehazki, apirilean (2017-4-3), Arabako ahaldun nagusiak eta Burgosko Diputazioko lehendakariak esparru-akordio hori sinatu zuten.

Sail honek foru administrazioaren jarduketa guztiak koordinatzeko ardura hartu zuen Burgosko Diputazioarekin sinatutako akordio sektorialak islatzeko.

Akordio horiek 2018ko martxoaren 27an gobernu-kontseiluak onartu zituen zazpi hitzarmen sektorialetan islatu ziren. Dagokion foru-sailak egikarituko du horietako bakoitza. Honako jarduketa-eremu hauei dagozkien, zehazki: gizarte-zerbitzuak, euskara, berdintasuna, suhiltzaileak, gazteria eta ondarearen zaharberritzea (bi).

Alkatesaren proposamenari jarraikiz, ahaldun nagusiordea 2018ko apirilaren 20an bildu zen Trebiñuko Konderriko udalaren integrazio-batzordearekin Burgosko diputazioarekin hartutako akordioak azaltzeko.

Foru Aldundiaren eta Burgosko Diputazioaren eskumenek eremu eta irismen ezberdinak dauzkate. Hala ere, helburua enklabe bi udalerritako herritarren behar guztiei erantzutea denez, Gaztela eta Leongo Juntari erakundeek partekatzen dituzten eskumenei buruzko txosten bat helarazi zaio, eta



bilera bat eskatu da. Bilera finkatzeko dago, eta baita Eusko Jaurlaritza inplikatzeko ere, puntu komun potentzialak eta elkarrekin burututako jarduketak posibleak zehazteko.

7.2. XEDEA. TOKI-ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO PROGRAMAK HOBETZEA:

7.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: TEFFF-AREN BITARTEZ EMANDAKO INBERTSIOETARAKO DIRU-LAGUNTZEN IRIZPIDEAK BERRIKUSI ETA HOBETZEA.

7.2.1.1 JARDUKETA: EHUNEKO MINIMO BAT MANTENTZEA TOKI-ERAKUNDE BAKOITZEAN EGITEN DEN PARTE-HARTZEAN BALIABIDEEN GUZTIRAKOAN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: TEFFF itundutako zergen diru-bilketatik datorren finantzaketa-sistema ez finalista bat da, libreki erabili daitekeena eta baldintzarik ez duena. 2018ko ekitaldian 209.274.250,00 euroko balioarekin onartu da, eta Kuadrilla, udal eta kontzejuntzako esleipenak ezarri ditu. Honela laburbil daitezke:

Udalak	202.402.869,89
Kuadrillak	2.883.118,16
Kontzejuak	3.988.261,95

Biltzar Nagusietako talde politikoen adostasunarekin, TEFFFa aldatu egin da; zehazki, % 52,8ra igo da eskuragarri dauden baliabideen ehunekoa. Horrez gain, horri Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren % 3,7ko igoera eta Obra Txikien eta Bidezidorren % 0,5eko igoera gehitu behar zaio. Horrenbestez, Arabako toki-erakunde finantzaketa zuzen ez-baldintzatua % 57ra igo da, sail honen beste programa batzuetatik eta Foru Aldundiak Arabako toki-erakundeei emandako beste programa batzuetatik emandako aurrekontuko partidak, diru-laguntzak eta laguntzak kontuan hartu gabe. Aipatutako akordio horren baitan Kuadrillen finantzaketaren banaketa ere aldatu zen: 7 teknikariri finantzaketa baldintzatua ezarri zitzaion. Euskara, Ingurumena, Berdintasuna eta Herritarren parte-hartzea. Honako hau Kuadrillen premiazko behar bat da, behin eta berriro eskatu dutena. Zehazki, Kuadrillaren eskumeneko eremuetako udal eta kontzejuetan teknikariak kontratatzeari aurrekontuetan egonkortasuna ematea zen helburua, eta, horrenbestez, enplegu-egonkortasuna ere bermatzea.

7.2.1.2 JARDUKETA: BANAKETA-INDIZE ETA -IRIZPIDEAK EGUNERATZEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Biltzar Nagusietan TEFFF batzorde bat sortu da. Sail hau komisio horrekin ari da lanean finantzaketaren ardura duen sailaren teknikak emanez.

Komisioak behin betiko ondorioak onartzeko zain gaude, horrek foru gobernutik TEFFF-a aldatzeko proposamena egiteko, akordio nahikoa lortzen baldin bada.

7.2.1.3 JARDUKETA: TEFFF-AREN FORU-ARAU EGUNERATU BERRIA ONARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 7.2.1.1 jarduketan garatutakoarekin bat dator.

7.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: TEFFF-AREN BITARTEZ EMANDAKO INBERTSIOETARAKO DIRU-LAGUNTZEN IRIZPIDEAK BERRIKUSI ETA HOBETZEA.

7.2.2.1 JARDUKETA: TEFFF-AREN TOKI-ERAKUNDE BAKOITZARI EMANDAKO ESLEIPENEN BIDERAGARRITASUN-AZTERKETA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: TEFFFari dagokionez, foru-gobernuak ahaldun nagusiordeak Biltzar Nagusien aurrean hartutako konpromisoa bete du ATAFLKn eta Biltzar Nagusien osoko bilkuran: banan-banan eman ditu TEFFFaren saldoak. Eskaera historikoa zen, biltzarkide-talde eta toki-erakunde askok luzaroan egin dutena.

Konpromiso hori 2016ko abenduan onartutako 2017ko Aurrekontu Burutzapenerako Foru Arauan gauzatu zen; beraz, banan-bananako datuak emateko formula hori TEFFFaren 2016ko behin betiko likidazioan aplikatu zen, 2017ko martxoan.

Egun TEFFFean dagoen saldo bakarra Vitoria-Gasteizko udalari dagokio; izan ere, funts hori erregulatzen duen arauak ezarritakoari jarraikiz finantzatzen du.

7.3. XEDEA. KOOPERAZIO EKONOMIKOA TOKI-ERAKUNDEEKIN:

7.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA FINKATZEA.

7.3.1.1 JARDUKETA: BALIABIDE EKONOMIKOAK FINKATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Azpiegitura eta ekipamenduen obrak garatzeko eta sustatzeko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren finantzaketa finalistari dagokionez, azpimarratu beharra dago finantzaketa hori ezinbestekoa dela Arabako toki-erakundeentzat, bereziki biztanleria txikiena dutenentzat. Izan ere, jaso lezaketen finantzaketa ez-baldintzatuarekin bakarrik ezingo liokete ekin aurrekontu handiak behar dituzten oinarritzko azpiegitura eta ekipamenduen obrei.

16-17 epealdirako programaren deialdia 2015eko maiatzean egin zen, eta 2016ko otsailean ebatzi. Nahiz eta programa hori 16-17 urteetarako izan, hainbat obra (hamaika, zehazki) esleitzeko daude beste erakunde publiko batzuek eman beharreko baimenetan atzerapenak egon direlako. Horrenbestez, beharrezko aldaketak egin dira aurrekontuetan. Lehentasunezko helburua programaren posible den zatirik handiena egikaritzea da, eta diru-laguntza jaso duten obrak egikaritu gabe gelditzea saihestea. 2016-2017 planean toki-erakundeek bost obra baino ez dituzte ukatu edo atzera bota.

Sailaren xedeak betez, Obra eta Zerbitzuen Planaren Foru Arauaren proiektu berria aurkeztu zen, eta biltzarkide-taldeek aho batez onartu zuen 2017ko apirilean. Arau horretatik 2018-19 ekitaldiko Foru Planaren Oinarrien deialdia argitaratu zen.

2018ko maiatzean 2018-19 epealdirako deialdiaren ebazpena onartu da. Hala ere, hasieran 32,41 milioi euro onartu baziren ere, kopuru horrek 36 milioiak gainditu ditu azkenean. Horri esker, saileko zerbitzu teknikoei egokiak iruditu zaizkien eskari guztiak finantzatu ahal izan dira. Aurkeztutako 246 eskarietatik, 139 esleitu dira; beraz, Arabako 44 udalerritako 128 toki-erakundek beren proiektuetarako diru-laguntzak jasoko dituzte.

Aipatu beharreko beste aspektu bat honako hau da: foru planak lurralde osoan du eragina, bai lurraldeko kohesioa eta oreka sustatzen dituelako, bai lurraldeko jarduera ekonomikoetan eragin positibo zuzena duelako; izan ere, obren enpresa onuradunen % 70 gure lurralde historikoan garatzen dute beren jarduera ekonomikoa.

7.3.1.2 JARDUKETA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA: EREIN PROGRAMA

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Hasieratik hartu zen kontuan Eusko Jaurlaritzak ekonomikoki laguntzen dituela foru planeako obrak. Horrexegatik hain zuzen egin dira bilerak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika saileko sailburuorde eta zuzendariekin EREIN eta LEADER laguntzak koordinatzeko.

Informazio-truke jarraitua dago saileko erakunde-ordezkariekin. Era berean, erakunde bietako zerbitziburuen arteko komunikazio-bide bat ezarri da.



**7.3.1.3 JARDUKETA: TOKIKO ZERBITZU ETA AZPIEGITUREN KATALOGO DIGITAL BAT SORTZEA (CISAL).
GIS KORPORATIBOAREN SISTEMAN TXERTATZEA.**

Egoera: Gauzatzen. (Amaiera-datarik gabeko jarduketa da; izan ere, jarduketa iraunkorra da).

Deskribapena: Lurralde Orekaren Zuzendaritza Foru Planaren eta Inbertsioen zerbitzuaren menpeko GISK geruzei buruzko datuak sartzen ari da. Diruz lagundutako azpiegitura-obra bakoitzaren dokumentazio grafiko guztia eta «obra bukaerako» planoak eguneratzen ari da denbora guztian foru-planeko teknikari bat. AFAko Ingurumen eta Urbanismo saileko Urbanismo zerbitzuak koordinatzen ditu GISKean sartutako datu horiek. Horrela, Foru Aldundiaren zerbitzu guztiek dute informazio hori eskuragarri, eta harekin operatu dezakete.

**7.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: FINANTZATUTAKO OBREI EMANDAKO KREDITUEN BALDINTZAK
HOBETZEA.**

**7.3.2.1 JARDUKETA: KREDITUAK ABANTAILAZKO BALDINTZETAN EMATEKO FINANTZA-
ERAKUNDEEKIN SINATUTAKO HITZARMENAK BIRFORMULATZEA FORU ALDUNDIAREN
FINANTZAKETA-LERROAREN BAITAN.**

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Tokiko erakundeek finantza-erakundeekin sinatutako hitzarmenak hobetu dira, erakunde horien pasiboaren finantzaketa hobetuz. Zehazki, finantza- eta aurrekontu-kontrolpean dauden erakundeekin burutu da jarduketa hau. Negoziazioak zuzenean izan dira Kutxabank eta Laboral Kutxa banku-erakundeekin.

7.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: OBRA TXIKI ETA BIDEZIDORREN PLANAK INDARTZEA.

**7.3.3.1 JARDUKETA: BI PROGRAMA HORIETARA ZUZENDUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN
HAZKUNDE NABARMENA.**

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017an Obra txiki eta bidezidorren programetara zuzendutako diru-kopurua 3.768.884 eurokoa izan zen.

2017ko abuztuaren 3an onartu zen 2018rako deialdia, aurreko ekitaldietako baldintza eta diru-kopuru berarekin. 176 toki-erakunderi esleitu zaie laguntza, hau da, foru-arauak eta deialdi horren



aginduak ezarritakoa betetzen duten toki-erakunde guztiei. Guztirako zenbatekoa 2.917.679 eurokoa izan da.

Aurrekontuetan jasotako obra txikiak burutzeko finantzaketaz gain, ez-ohiko 1.100.000 bat euro gehiago daude eskuragarri, hori baita oraingo gobernuak programa honetan parte hartzen duten toki-erakundeekiko duen konpromisoa.

2018rako Bidezidorren programa ere ebatzi da: guztira toki-erakundeek 74 proiektu finantzatu dira. Kasu honetan ere, deialdiaren baldintza administratibo guztiak betetzen zituzten guztiek jaso dute laguntza. Esleitutako zenbatekoa, guztira, 832.934 izan eurokoa da.

7.4. XEDEA. TOKI-ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA:

7.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO TOKI-ADMINISTRAZIOA MODERNIZATZEA. IKT ETA SAREKO INTERKONEXIO GEHIAGO ERABILTZEA.

7.4.1.1 JARDUKETA: SAILEN ARTEKO BATZORDE TEKNIKO BAT SORTZEA TOKIKO EGOITZA ELEKTRONIKOETARAKO (IZAPIDETZEAK...) SARE INTERKONEKTATU BAT IZATEKO AUKERA AZTERTZEKO

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldi honen hasieratik sortu zen saileko funtzionarioek, AKGko arduradunek eta lurralde historikoko idazkari kontu-hartzaileek osatutako lan-batzorde bat toki-erakundeetan sistema informatiko bat ezartzeko merkatuak eskaintzen dituen aukera ezberdinak aztertzeke. Helburua da toki-erakundeek araubide administratiboak inposatzen dizkigun erronkei aurre egin ahal izatea da, bereziki lege hauetan jasotakoei: Segurtasun eta Elkarreraginetarako Eskema Nazionalari buruzko 1/2007 Legea, Administrazio-prozedurari buruzko 39/2015 Legea eta Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea.

Lan horrek emaitzak eman ditu: lizitazio-deialdi ireki bat egin da erakunde anitzeko aplikazio korporatibo sorta bat egiteko. Horrela, gerturatu egingo zaizkie toki-erakundeak herritarrei, eta errazagoa izango da toki-erakundeetarako sarbidea sistema elektronikoei esker.

2016ko uztailan egin zen lizitazioa. Luzatu egin zen behin betiko ebazpena lizitatzailen arteko helegite gurutzatuen ondorioz. 2017ko abuztuan sinatu zen esleipen-kontratua. Arabako Kalkulu Gunea (AKG) irailean hasi zen ezarpenerako beharrezkoak ziren hardware eta softwareak instalatzen. Abenduan hasi zen 11 erakunde piloturen ezarpena. Sistema urrirako prest izatea espero da.

Beranduago, azaroan eta abenduan zehar, egingo da aplikazioen eta egoitza elektronikoen konfigurazioa eta prestakuntza.

Sistema hori elkareragingarria da, eta segurtasun eskema nazionalak ezarritakoaren arabera ziurtatuta dago. Industria Ministerioari egiaztatuko zaizkio erakunde guztien sarrera- eta irteera-erregistroak. Era berean, erabili egingo dira Eusko Jaurlaritzaren eta EAOaren sarbide orokorreko baliabide elkareragingarriak. (Estatuko Administrazio Orokorra). Besteak beste, honako hauek erabiliko dira: Foru Aldundiaren Faktura Elektronikorako sarbidea, kontratatzailearen profila, karpeta elektronikoko pertsonala eta Eusko Jaurlaritzaren jakinarazpenak. Izenperen (Giltza) bitartez egindako sarbide elektronikoen baliozkotze eta egiaztatzea. Era berean, Euskadiko kontratazio-plataformara egokituko da euskal administrazioak horretarako baimena ematen duenean.

7.4.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABA KONEKTATUA PROGRAMA MARTXAN JARTZEA. ARABAKO LANDA-EREMUARI ESTALDURA UNIBERTSALA EMATEA.

7.4.2.1 JARDUKETA: TOKI-ERAKUNDEENTZAKO AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOETARAKO LAGUNTZAK DISEINATZEKO PLANA: ANTENAK, KONEXIOAK, WIFI SISTEMAK, INTERNETERAKO SARBIDEA ETA ABIADURA, ETAB.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Informazioaren gizarterako irismenean arazoak planteatzen ditu Arabako geografia zabalak eta hiri-nukleo handien gabeziak.

Ekonomia Garapenaren eta Lurraldearen Oreka Sailak AKG eta AGAko langileak biltzen dituen lantalde bat sortu du. Talde horrek aktiboki hartzen du parte Euskadin Banda Zabala ezartzeko erakunde arteko foroan. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek osatzen dute foro hori.

Taldearen lana industria-poligonoetan sarrerako sarbidea edukitzea ahalbidetzen duen politika bat diseinatzean zentratu zen. Hala ere, gaur egun Arabako nukleo guztietarako zabalkuntzan dihardu lanean.

Horretarako, gunek zuri gisa markaturik ez zeuden estaldurarik gabeko gunek guztiak identifikatu ziren. Horri esker, Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizarterako estatu idazkaritzak Arabako 190 nukleo baino gehiagoren estatusa aldatu zuen: egun estaldurarik gabe, eta estaldura izateko aurreikuspenik gabeko estatusa dute orain. Aldaketa horrek banda zabala hedatzeko operadoreek emandako laguntza publikoak jasotzeko aukera eman zien gunek horiei.

Udalerririk edo 250 biztanle baino gehiagoko nukleoak PEBA Euskadi izeneko gobernuaren deialdian sartu ahal izan ziren Eusko Jaurlaritzarekin burututako negoziatioengatik.

Arabako gainerako nukleoei dagokienez, foru-gobernuak honako hau proposatu zien Biltzar Orokorrei: OZFParen 2018/19ko deialdian, gehienez ere % 15eko gastua erreserbatzea telefonia sustatzeko inbertsioetarako eta Arabako lurraldean datuen sarerako sarbidea izateko. Proposamena aho batez onartu zuten Arabako kamera osatzen duten talde guztiek.

Aurrekontuaren diru-izendapen horren babesarekin, telefonia-operadoreei diru-laguntzak emateko lizitazioa ebatzi zen: Telefónica eta Movistar ABEEari esleitu zitzaion, eta 2.429.929,80 €-ko balioa izan zuen. Gobernu-kontseiluaren akordioaren bitartez eman zitzaion diru-laguntza martxoaren 13an.

Sareen ezartze-maila kontrolatu ahal izateko, onartu egin da AFAk finantzaturako azpiegiturak lurraldean behar bezala hedatzen direla bermatzeko kontrol-behatoki bat sortzea. Zerbitzu hori kanpo-enpresa bati esleitzeko fasean dago.

2018ko ekainean, Arabako hainbat gune geografikotan ari da hedatzen banda zabala.

7.5. XEDEA. LANDA-EREMUKO AZPIEGITURAK HOBETZEA:

7.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO LANAK SOZIETATEA BIRMOLDATZEA.

7.5.1.1 JARDUKETA: ARABAKO LANAK SOZIETATEAREN FUNTZIONAMENDUA, EGITURA ETA HELBURU SOZIALAK BERRIKUSTEKO AZTERKETA EGITEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Alde batetik, sozietateen ikuspuntutik Arabako Lanak sozietateak daukan egoerak, eta, bestetik, Lehiaren Euskal Kontseiluaren Ebazpenak, ezinezko bihurtu dute sozietatearen helburu soziala burutzea. Horrexegatik hain zuzen proposatu zuen diputatuen kontseiluak Arabako Lanak sozietatea desegitea eta bertako langileak Foru aldundiaren sektore publikoan birkokatzea 2016ko maiatzean.

Prozesu horri 2015eko udazkenean eman zitzaion hasiera, eta 2016ko udazkenean bukatu zen. Prozesu hori langileen eta sindikatuen oniritziarekin burutu da, eta langile horien zerbitzuak hartu dituzten hainbat erakunde publikorekin koordinatuz. Sozietatea likidazio-prozesuan dago.

Egun, Arabako toki-erakundeek zeuzkaten akzio guztiak eskuratuak izan dira. Horrenbestez, enpresa hori AFarena da % 100ean.



Likidazio-prozesuaren baitan, ordaintzeke dauden zor eta diru-sarrerak berrikusten ari dira momentu honetan. Era berean, obretako kalteengatiko bermeak gauzatzen ari dira, eta hala badagokio, berme horiengatiko dirua itzultzen ari da,.

7.5.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO ONDARE ERAIKIA ZAHARBERRITZEA.

7.5.2.1 JARDUKETA: HIRIGUNE HISTORIKOAK BIRGAITZEKO LAGUNTZA ZUZENAK.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Ekitaldi hauetan Arabarri sozietate publikoaren desegitea gauzatzen ari da; horrenbestez, ez dago helburu hori duen laguntzarik. Mota horretako laguntzak 2019ko ekitaldirako errekuaratzeko aukera aztertzen ari da.

7.5.2.2 JARDUKETA: PROIEKTUAK ANALIZATZEKO SAIL ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LAN-MAHAIA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Laguntzak bertan behera geratu dira Arabarri sozietate publikoaren desegiteagatik

7.6. XEDEA. TOKI-ERAKUNDEEN AHOALKULARITZA ETA KUDEAKETA INDARTZEA:

7.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: AHOALKULARITZA JURIDIKO, EKONOMIKO ETA TEKNIKOA BERMATZEA BALIABIDE PROPIOEKIN.

7.6.1.1 JARDUKETA: KANPO-ZERBITZUAK EMATEKO BARNE-UNITATEAK INDARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Aholkularitza-zerbitzua berrantolatzeari esker, Arabako toki-erakundeek planteatutako aferak izapidetzeko beharrezkoa den denbora murriztu da. Gainera, aholkularitza-zerbitzua berrantolatzeak zerbitzu juridikoko funtzionario-kopurua handitzea ere ahalbidetu du. Hala ere, azkenaldian ikusi da toki-erakundeek gero eta eskari gehiago aurkezten dituztela aholkularitza



ekonomikoa eta aurrekontuen kontrolerako aholkularitza jasotzeko. Zerbitzua zuzenean ematen zaie udalei udalerrien likidazioa eta kontu orokorra idazterakoan. Era berean, oraindik ere zorpetzea baimentzeko txostenak izapidetzen dira, eta horretarako beharrezko denbora murrizteko saiakerak daude. Laburbilduz, unitate administratibo horren efikazia eta efizientzia handitzen saiatu da.

Aipagarria da, esaterako, Laguardia, Harana eta Nabaridasko udalak bideragarritasun ekonomiko eta finantzarirako planetik ateratzeko egin behar izan zen izapidetzea.

Momentu honetan bideragarritasun-plan bat indarrean duten udalak Agurain eta Gaubeakoak dira.

Helburua da jarduketa-eremu honetan baliabide propioen jarduketa-irizpidea mantentzea, baldin eta lanen metaketagatik edo konplexutasun juridiko edo teknikoagatik kanpo-zerbitzuak kontratatu behar ez badira.

7.6.1.2 JARDUKETA: TOKI-ERAKUNDEEI KANPO AHOHKULARITZA-ZERBITZUAK EMATEKO LAGUNTZAK BIRFORMULATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Zerbitzua kanpora aterako da zerbitzutik zuzeneko arreta ematea ezinezkoa denean lanaren edukia edo kopuruagatik.

Egun, Arabako Kuadrilletako langileen kontratazio-egoera aztertzeko analisi-zerbitzua atera da kanpora, eta baita Kuadrillei buruzko foru-arauaren inguruko proiektu bat egiteko txostena ere.

Sektore Publikoko Legeen konplexutasuna dela eta, sailak kontzeju eta udalentsako aholkularitza-zerbitzu bat lizitatzea gomendatu da, horrela 18-19 Foru Planeko obretarako kontratazioak lege horri jarraikiz izapidetzeko. Indarrean dagoen legeriak inposatzen dizkigun aspektu juridikoak eta administrazio elektronikoaren aspektuetara zuzenduko da zehazki aholkularitza hori.

Besteak beste, honako hauen inguruko aholkularitza izango da: egiaztatze elektronikoa, kontratatzailearen profilean alta ematea eta Euskadiko lizitazio-plataforma. Dokumentu administratiboak idaztea, dokumentazioa kudeatzea, eta lizitazioan, esleipenean eta kontratazioan laguntzea. Foru Planaren zerbitzuei gastu-dokumentazioa aurkeztea.



7.6.2. ILDO ESTRATEGIKOA: IDAZKARI KONTU-HARTZAILE LANPOSTUAK BEREHALA BETETZEA.

7.6.2.1 JARDUKETA: HUTSIK GERATZEN DIREN LANPOSTUAK BETETZEKO EGITURA ETA METODOLOGIA BAT EZARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Izapidetzearen lehen fasean dago jarduketa hau. Horretarako, gaikuntza nazionala duten bi teknikari lanpostu sortu dira Lurraldeko Oreka zuzendaritzan. Beren lana izango da lurraldeko udalerrietako idazkari kontu-hartzaileen funtzioak hartzea ordezkapen puntual eta behin-behineko ordezkapenak baldin badaude.

7.6.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ARAUDIA GARATZEA

7.6.3.1 JARDUKETA: DEIALDIEI, ZENTSURA-MOZIOEI, DIPUTAZIOAREN BABES EKONOMIKOARI ETA ABARRI BURUZKO KONTZEJUEN EGUNERATUTAKO FORU ARAU BERRIA ONARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Kontzeju-elkarteei aurkeztu zaie arauaren zirriborroa (AKE eta GKE). AKEako zuzendaritza-batzordean izan diren aldaketa batzuk direla bide, 2018ko martxoan jarri da berriro martxan elkartearekiko harremana aldian behingo bilerekin. Aipatutako bi elkarte horiek proposamen bateratu bat egiten ari dira aurkeztutako aurre-proiektuaren aspektuei buruz. Zuzendaritzak eta elkarteek irailaren hasierara arteko epea eman dute adostutako arau-proiektu formako alternatiba bat aurkezteko.

7.7. XEDEA. LARRIALDIAK ETA SUTEAK PREBENITU ETA ITZALTZEA:

7.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: SUHILTZAILEEN PARKE ZENTRALARI BABESA EMATEA.

7.7.1.1 JARDUKETA: VITORIA-GASTEIZKO UDALAREKIN BESTE LANKIDETZA-HITZARMEN BAT SINATZEA

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Miranda eta Logroño-ko udalekin sinatutako hitzarmenak berriro dira, bai eta Errioxako Erkidegoarekin sinatutakoa ere. Egokitzeke eta berritzeke daude Gasteizekin, Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin sinatutako hitzarmenak.

Vitoria-Gasteizko udalarekin hitzarmen berri bat sinatu zen 2017ko urrian.

Parke zentralaren irekierarekin batera, prozedurak eta jarduketa-mapa aldatu dira SOS DEIAK eta Gasteizko Suhiltzaile Zerbitzuarekin batera.

7.7.1.2 JARDUKETA: APSISFP- ARABAKO PREBENTZIO, SU ITZALTZE ETA SALBAMENDURAKO FORU PLANA 2011 GARATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Legegintzaldiaren hasieratik bereziki landu da Arabako Prebentzio eta Su Itzaltze Foru Planaren hobekuntza. Zerbitzuari efikazia, efizientzia, funtzionalitatea eta SISEUetako langileentzako segurtasuna falta zitzaion.

Gainera, hasiera-hasieratik landu da zerbitzu hori emateko erakunde autonomo baten sorrera. Horretarako, prozesu parte-hartzaile bati eman zitzaion hasiera, horrela eragina jasaten duten sektore guztietako iritzia entzuteko: langileak, sindikatuak, toki-erakundeak...

Baterako esfortzuari eta jasotako ekarpenei esker, foru-arau proiektu bat aurkeztu zitzaion Biltzar Nagusiei bere izapidetzerako. Helburua suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamendurako erakunde autonomo bat sortzea da. 2016ko uztailan onartu zen Biltzar Nagusietan Arabako Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren sorrera.

Lurraldearen Oreka Zuzendaritzan badago Araban Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Foru Planaren aurre-proiektu bat, teknikoki baloratzen ari direna.

Edozein kasutan ere, plan horren onarpena eta ezarpena ALHLParen idazketa berriaren onarpenari lotuta dago. Arabako Lurralde Historikoko Larrialdi Plana.

7.7.2. ILDO ESTRATEGIKOA: PSISZ ZERBITZUAREN KUDEAKETA HOBETZEA - ARABAKO PREBENTZIO, SU ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZERBITZUA.

7.7.2.1 JARDUKETA: PSISZ - PREBENTZIO, SU ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZERBITZUA ERAKUNDE AUTONOMOA MARTXAN JARTZEKO PLANA.

Egoera: Amaitua



Deskribapena: Duela bi urte honako hau zen Arabako errealitatea: suhiltzaileen 4 parke zeuden, 12 orduz zabalik zeudenak, plantillaren egonkortasunik gabeak eta neurri handi batean Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Aiarako PSISZ zerbitzu-partzuergoarekin sinatutako hitzarmen baten menpe zeudenak.

Aldatuz joan da errealitate hori, eta 2016ko uztailean Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoa sortzea mugarri bat izan zen foru-gobernu honek segurtasunarekin duen konpromisoari dagokionez. Kudeaketa integratuko eredu bat duen erakunde bat da; bertan zerbitzu publikoa eta herritarrekiko arreta gailentzen dira, eta baliabideen efikazia- eta efizientzia-irizpideak dira erakundea gidatzen duten irizpideak.

2017ko urtarrilaren 1ean Gaubeako 24 orduko parkea ireki zen. Geroago, Espejokoa ireki zen 2017ko ekainean, eta, azkenik, Agurain eta Kanpezukoak aurreko uztailaren 1ean.

2016an zehar, zerbitzua emateko Iruña Okan dagoen parke zentrala lizitatu zen. 2017ko lehen hilabeteetan hasi zen eraikuntza-prozesua. Parke zentralaren izena «Fernando Martínez de Ilarduya» da, gizon horrek zerbitzu hori martxan jartzeko egindako lana eta esfortzua aitortzeko. Parke hori ezinbestekoa da erakundearen zerbitzu operatiboaren eskeman, eta 2018ko apirilaren 14an inauguratu zen.

Dena den, parkeak irekitzeak eta zerbitzua hedatzeak langile-kopurua handitzea ere dakar berarekin. Horrenbestez, 2016ko EPEa eta 2016ko lanpostuen zerrenda onartu ziren. Horrez gain, 2017ko lanpostuen zerrenda eta EPEa ere onartu, eta erakunde autonomoko 94 suhiltzaile-lanpostu eta beste lanpostu batzuk betetzeko deialdia egin zen.

Era berean, erakundearen 2018ko EPEa onartu zen martxoan: 18 suhiltzaile eta talde-buru lanpostuetarako deia egin zen. Gauzak horrela, lanpostu horiek betetzen direnean erakunde autonomoaren sorrerako arauan ezarritako lanpostu-kopuru osoa beteko da.

Egun, Espejoko SISEUak birgaitzeko proiektuari amaiera ematen hasi zaio, jada lizitatuta eta esleitura dagoelako.

Bestalde, Aiarako PSISZren eraikinaren birgaitzea desblokeatzeko akordio-hasiera lortu da Eusko Jaurlaritzarekin.

Gainera, inbertsio-esfortzua egin da gurpildun materialetan: 32 metroko eskala bat, «lehen irteera» bat eta basorako 4 ibilgailu erosi dira.

Azpimarratzeko modukoa da zuzendaritza lanean dabilela erakundeak prebentzioaren eta langileen segurtasunaren alorretan lan egin dezan. Zehazki, suhiltzailearen eguneroko bizitzan gerta daitezkeen egoeren aurreko protokoloak idatzita eta aplikatua daude jada.



7.7.2.2 JARDUKETA: ALHLP - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO LARRIALDI PLANAREN ARAUDIA ALDATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lurraldearen Orekarako zuzendaritzan aurre-proiektu bat dago jada, eta teknikoki ebaluatzen ari dira.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA

9. 8. ARDATZA: IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA


DESKRIBAPENA:

Ingurumen jardueraren ardatzaren bidez, garapen politika jasangarriak zabaltzeko nahi dira, hiru baldintza oinarri hartuta: hazkundera, ingurunea ez baita interpretatu behar inbertsio eta hazkunderentzako balazta gisa, lehiakortasuneko faktore gisa baizik; erantzukizuna, Arabak Euskal Autonomia Erkidego osoaren birika naturala izateko erantzukizuna baitauka; eta engaiaimendua, egungo beharrianak etorkizuneko belaunaldien baliabideak arriskuan jarri gabe ase ahal izatearen zentzuan.


Hasiera batean onartutako planari egindako aldaketak direla eta, beste lau jarduketak txertatu dira, 8.1.2.1 jarduketa beste lautan banatu delako, hain zuzen ere, honako hauetan: 8.1.2.1, 8.1.2.2, 8.1.2.3, 8.1.2.3 eta 8.1.2.5.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015eko UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	25		21	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	%0	16	%80
HASIERA AURREIKUSIA	25	%100	5	%20
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	1	%4	0	%0
GAUZATZEN (*)	13	%52	5	%100
AMAITUA	11	%44	0	%0
EGIKARITZEA, GUZTIRA	24		5	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA ETA
EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA

++

GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

8.1. XEDEA: URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA.

8.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: UREN LURRALDE KUDEAKETARAKO EREDU OREKATU BAT AZTERTZEA.

8.1.1.1 JARDUKETA. ARABAKO HORNIDURA ETA SANEAMENDUKO PLAN ZUZENTZAILEA AZTERTU, ANALIZATU ETA IDAZTEA. ETORKIZUNeko AZPIEGITUREN, KUDEAKETA EREDUAREN ETA GOBERNANTZA EREMUA ZEHAZTEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena:

a) Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailea prestatu da, Arabako biztanleentzako hornidura bermatzeko helburuz, kantitateari nahi kalitateari dagokienez. Halaber, ingurumena babesten lagundu nahi du, emari ekologikoak errespetatuz eta urak ibilguetara itzuli aurretik tratatuko direla bermatuz; izan ere, hartara, isurien eragin kaltegarriak txikiagotzen lagunduko du. Horrez gain, jomuga du ura eta azpiegitura hidraulikoak eraginkorrago egitea eta optimizatzea ere. Hori guztia egingo da zerbitzuen kostuak lurralde orekari eragin gabe; hala, egungo egoeraren azterketa egingo da gure lurraldeak datozen hamar urteotan azpiegitura hidraulikoetan izango dituen beharrianak diseinatzeko.

b) Plan Estrategiko Sektoriala: Informazio publikoaren aldian jasotako alegazioak aztertu dira eta, agiria moldatuta, Gobernuaren Kontseiluak onartu zuen 2018ko maiatzaren 3an.

8.1.1.2. JARDUKETA: ARABA ERDIALDEAN URAREN KUDEAKETA OPTIMIZATZEKO ERAKUNDE BAT SORTZEKO AZTERKETA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lurraldean erabiltzen den uraren kudeaketa ereduaren diagnostikoa egin da, Plan Zuzentzailearen esparruan. Diagnostiko horretatik ondorioztatu da Arabako Lurralde Historikoko edateko uraren hornidura eta saneamenduko zerbitzua era publikoan emateko eskakizun teknikoak eta legeak ez direla hein handi batean betetzen eta, beraz, legeko eskakizunetara egokitzeko hobekuntza-tarte zabal-zabala dago. Horretarako, egun dauden aukerak eta Arabako lurraldearen ezaugarri bereziak aztertutik, uraren zikloa behar bezala kudeatzeko, egokitzen jotzen da ahalik eta erakunde kudeatzaile gutxien egon dadila lurralde osoan. Beraz, tamaina handiagoko eredu baten alde egingo dugu, egun aritzen diren erakundeak bilduta. Eredu berriak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu beharko du, administrazio bikoizketak kendu beharko ditu eta abenduaren



27ko 27/2013 Legeak egun ezartzen duen aurrekontu egonkortasun eta finantza jasangarritasuna bete beharko ditu. Erakunde horietan sartzea edo horiei atxikitzea guztiz borondatezkoa izango da, baina Arabako Foru Aldundiak legezko alderdiak, ingurumen alderdiak eta alderdi ekonomikoak hobetzeko eginkizunaren ardura hartu eta koordinazioa bideratu beharko du, erakunde eskumendunek betekizun guztiak bete ditzaten uraren zikloa kudeatzeko zerbitzuak ematerakoan ALHn. 2017ko maiatzetik aurrera, lanean dihardugu aipaturiko erakundea garatzen eta bultzatzen, Arabako uraren kudeaketa optimizatzeko helburuz eta, hala, aholkularitza teknikoa kontratatu da. Arabako Lurralde Historikoko uraren zikloari lotutako zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde eskumendunak koordinatu, antolatu, kudeatu eta horiei laguntzeko erakunde bakarraren diseinua, plangintza eta garapena jasotzen dituen proposamena daukagu, zuzeneko kudeaketa publikoa eta zerbitzuaren ziozko tarifa homogeneoa eskaintzeko xedez. Ereduaren proposamena ALH osoan aurkezten hasi gara eta ereduari buruzko ekarpenak jasotzeko metodologia lantzen ari gara.

8.1.2. ILDO ESTRATEGIKOA: INBERTSIO LEHENTASUNAK EZARTZEKO PLANA.

8.1.2.1. JARDUKETA: OBRA HIDRAULIKOETAKO INBERTSIO LEHENTASUNAK EZARTZEKO PLANA: 1. GOI NERBIOIKO SANEAMENDUA ETA ARAZKETA.

Egoera: Amaitua. Hasierako jarduketa berriro programatu da eta 5 jarduketatan banatu da (8.1.2.1, 8.1.2.2, 8.1.2.3, 8.1.2.4 eta 8.1.2.5).

Deskribapena: Goi Nerbioiari dagokionez, Ministerioari eskatu diogu saneamenduko lanak has ditzan, horren lehentasunezkoa den proiektu hori gehiago atzeratu ez dadin, eta horretarako behar diren urrats guztiak egin ditugu:

- Aiarako Udalarekin elkarlanean aritu gara eragindako lursailak zehaztu eta katalogatzeko, eta Aianox enpresaren balizko hazkundearen ondoriozko azalera beharrezaneiei erantzuteko.
- Ministerioaren behin-behineko proiektuan antzeman ziren arazo nagusietako bat ebatzi genuen, hau da, obrek eta lur mugimenduek sorrarazitako hondakin geldoak biltzeko lekuaren gabezia. Horretarako, aldundi honek Bitorikako harrobia betetzeko eta lehengoratzeko proiektua idatzi du.
- Horrez gain, CAKU parte hartu du herrietan sartzeko saneamenduko lotura obren eta proiektuak idazten eta gauzatzen, eta eragindako udalerrri eta kontzejuetako isuriei buruzko zerga-ordenantzak onartzen.
- Araztegiak gauzatzen ere parte hartu du, Espainiako Gobernuaren 2017ko aurrekontuak onartzeko hitzarmenari loturik.

Ministerioak proiektu guztiak onartu ditu eta jendaurrean iragarri du obrak hasteko lizitazioa, 2018ko udan.



**8.1.2.2. JARDUKETA: OBRA HIDRAULIKOETAKO INBERTSIO LEHENTASUNAK EZARTZEKO PLANA:
2.EKIALDEKO LAUTADAKO SANEAMENDUA.**

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Ekialdeko Lautadan, Agurain eta Dulantziko araztegiak gainezka dabilta emari eta karga kutsagarrirei dagokienez. Alde batetik, araztegiak oso zaharrak direlako eta, bestetik, industria batzuetatik heltzen diren kutsagarriak ezin bereizi dituztelako.

Sareak bereizteko gaitasunik eza eta azpiegiturak oso zaharkituta daudelako, araztegiak gehiegizko emaria heltzen denez, ezin dute emaria kudeatu eta tratatu eta, horren eraginez, prozesuen eraginkortasuna nabarmen apaltzen da. Ekipoak zahar-zaharrak direnez, konpontzeko eta piezak ordeztzeko zailtasun handiak daude.

Arazo horri heltzeko, aldundiak bi arlotan lan egin du:

- Aguraingo araztegi berriaren eraikuntza bultzatu du, hain zuzen ere, Aguraingo saneamendua eta arazketa hobetzeko proiektua idazteko lana kontratatuta. Horren barruan, araztegi berriaren oinarritzko proiektua jasotzen da eta, gainera, hitzarmen esparrua sinatu dugu URA agentziarekin araztegia finantzatzeko, 2020ra arte.
- Gainera, ohiko konponketa lanak eta mantentze lanak egin ditugu, udalaren titulartasuneko azpiegiturretan inbertsioak egin ditugu eta biztanleguneetan ere bai, egoera arintzeko. Horren harira:

a) Dulantzin, inbertsioak egin ditugu aireztapen sistema zaharra ordeztzeko, araztegi berrietan ez baita erabiltzen. Hala, turbina kendu eta haize egileak jarri dira, prozesu biologikoan potentzia txikiagoa erabiltzen dutelako eta, gainera, eraginkorrak dira mikroburbuilak erabiltzen dituztelako. Hala, prozesu biologikoa errazagoa da, turbinak berak sortzen duen irabiaketa desagertzen delako eta, gainera, aparra murrizten delako isurkian. Bi haize eragileen eta difusoreen kostua 23.603,83 eurokoa eta 28.560,63 eurokoa izan zen. Gainera, 2016 eta 2017an, euri urak eta hondakin urak bereizteko lanak egin dira Dulantziko ipar-mendebaldean, 432.254,97 euroren truke eta, gainera, kontrol eraikineko teilatua eta erretenak egokitu dira. Foru aldundi honek, araztegiaren titularra izan ez arren, SMS mezuak telefono mugikorrera bidaltzen dituen alarma sistema batez hornitzeko beharrezana antzeman du, funtzionamenduaren gaineko akatsen berri izan eta, hala, gertatzen diren akatsak ahalik eta denbora tarterik laburrenean konpontzeko. Proposatutako ekipoek Datalogger funtzioa dute eta, etorkizunean, datu historikoak erregistratzeko erabil daitezke edo aginte postuan dagoen SCADA batekin komunikatzeko balia daitezke, era telematikoa kudeatuta. Arazketa kontrolatzeko eta argindarraren kontsumoa txikiagotzeko, errektore biologikoan dagoen disolbatutako oxigenoaren kontzentrazioa neurtzeko ekipoa instalatuko da eta, balio horren arabera, haize eragilea martxan hasiko da. Era berean, lohi biologikoaren dekantazioa erratzeko, koagulatzailea (aluminio edo burdin gatz) dosifikatzeko sistema instalatuko da errektorean.



b) Agurainen, sareak bereizteko lana egin da eta, ildo horretan, hiriguneko hondakin urak eta euri urak biltzeko hodiak aztertutik, ikusi da euri uren sarea hondakin uren sarean sartzen zela hainbat lekutan. Horregatik, ur garbier sarrera hondakin uren sarean ekiditeko, 2016ko urrian, 60.158,71 euroko obrak egin ziren. Beste alde batetik, Aguraingo araztegiak joan den urtera arte zeuzkan bahetzeko eta olio kentzeko sistemak ez ziren nahikoak tratatu beharreko uraren ezaugarriak eta emaria aintzat hartuta eta, horregatik, gehiegizko gantzak eta solidoak metatzen ziren erreaktore biologikoan. Hori dela eta, 2016ko urrian, prozesu biologikoan tratatu beharreko ura sartu baino lehenagoko tratamendua hobetu behar izan zen eta, helburu horrekin bat, “Aguraingo araztegiko aurretratamenduaren sistema hobetzeko proiektuak” prestatu zen. Obren zenbatekoa 58.492,04 eurokoa izan zen. 2016an, araztegiko eskudelak pintatu ziren eta, instalaziora sartzen ziren uren kalitatea hobeto kontrolatzeko (batez ere, industriako isurien kalitatea hobeto kontrolatzeko), pH eta konduktibitatea etengabe neurtzeko sistema instalatu zen, araztegiara sartzen den uraren parametro horiek erregistratzeko helburuz. Esku hartze horren zenbatekoa 4.600,57 eurokoa izan zen. Foru aldundi honek SMS mezuak telefono mugikorrera bidaltzen dituen alarma sistema batez hornitzeko beharrezan antzeman du, funtzionamenduaren gaineko akatsen berri izan eta, hala, gertatzen diren akatsak ahalik eta denbora tarterik laburrenean konpontzeko. c) Gainera, Araiako araztegia dela eta, ur lodiko bi ponpa, birzirkulazioko ponpak eta irabiagailu anoxikoa aldatu dira, horiek guztiak zaharkituta zeudelako eta behar bezala ez zebiltzalako. Aurrekoak aldatzeagatik zenbatekoa 24.000 eurokoa izan zen eta, gainera, instalazio osoaren sistema informatikoa berriro konfiguratu da, ur lerroak era automatikoa funtziona dezan. Aurrekoez gain, polielektrolitoa prestatzeko sistema automatikoa ezarriko da, lohiak deshidratatzeko. Hala, araztegiaren ustiapenak automatizazio handiago izango du.

8.1.2.3. JARDUKETA: OBRA HIDRAULIKOETAKO INBERTSIO LEHENTASUNAK EZARTZEKO PLANA: 3. GOPEGI ETA ONDATEGIKO SANEAMENDUA ETA ARAZKETA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Gopegi-Ondategiko araztegiaren proiektua amaitu da eta “Gopegi-Ondategiko (Araba) saneamendu sarea eta arazketa sistemak hobetzeko eraikuntza proiektua”, onartuta dago, Foru Gobernuaren Kontseiluaren uztailaren 18ko 437/2017 Erabakia dela bide. Lanak prozedura irekiz lizitatu dira, 765.912,06 euroko (BEZ gabe) edo 926.753,59 euroko (BEZ barne) zenbatekoaren truke, eta gauzatzeko epea lau (4) hilabetekoa da. Beste alde batetik, lursailak eskuratzeko desjabetzeak amaitu dira eta, alegazioei erantzun eta desjabetzea amaitu ondoren, obrak esleitu ziren 2018ko martxoaren 6an.

8.1.2.4. JARDUKETA: OBRA HIDRAULIKOETAKO INBERTSIO LEHENTASUNAK EZARTZEKO PLANA: 4. HORNIDURA AIARAKO KUADRILLAN.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Eusko Jaurlaritzarekin sinatu den 2008-2012ko hitzarmen esparruan jaso diren obren barruan, Arabako Foru Aldundiak Amurrioko hornidura hobetzeko konpromisoa hartu zuen; atal horretan, hornidura eta bilketa sareak berritzeko eta hobetzeko jarduketak batzuk ageri ziren. Bestek beste, ondoko jarduketak gauzatu dira:

1. Lejarzoko biltegia. 2013an, Kantauriko Urkidetzaren Ur Partzuergoak “Aiarako Kuadrillako ur hornidurako sistemak erregulatzeko azterketa” sustatu zuen. Azterketa horretan bertan, Lejarzoko biltegiaren ahalmena handitzea jaso zen hobekuntza jarduketak gisa. Amurrio hornitzeko sistema erregulatzeko ahalmena, gaur egun, Lejarzo eta Aspuruako biltegietan funtsatzen da, baina gauza jakina da sistema ez dela gauza hornidura bermatzeko matxurarik gertatzen bada, konponketarik edo garbiketarik egin behar bada, edo suterik gertatzen bada. Hala, arazoari irtenbidea emateko, 3.250 m³-ko biltegi berria eraiki da oraingo biltegiaren alboan, egungo sistema osatu eta indartzeko. AFak FINANTZATU ETA GAUZATU DU eta obraren kostua, guztira, 410.742 eurokoa izan da.

2. Ura Altube ibaitik San Bartolomeko edateko uren araztegitainoko ponpaketa berritzeko proiektua. Proposatutako inbertsioa 900.000 eurokoa da. AFak finantzatu eta CAKUK gauzatuko du. Obraren helburua da ura Bestialdieko araztegitik San Bartolomeko araztegitaino eramatea, hornidura larrialdiko egoeretan bermatzeko xedez.

3. ARTOMANAKO hornidura Urduñako edateko uren araztegitik. Artomana lehen fasea amaitu da eta 480.867 euro inbertitu dira. Amurrioko udalerriko Arrastaria haranean dauden Aloria, Artomana eta Delikako biztanleguneak iturburuetatik elikatzen dira, baina iturburu horietako emaria nabarmen jaisten da agorraldian eta dira nahikoak herri horietako beharizanei erantzuteko. Azaldutako obrak Artomana egoera konponduko du. 4. Emaria Amurriotik Izoriako araztegitaino eramateko hodia. Obra horiek helburua dute ura Amurrioko bilketetatik, Askarganetik, Izoriako araztegitaino eramatea, eta araztutako ura Larrinbe, Aspuru eta Iperragako biltegietaraino eramatea. 2017ko irailaren 19an behin betiko onartu zen proposamena eta 2018ko maiatzaren 15ean behin behiko onartu da obren kontratazioa.

8.1.2.5. JARDUKETA: OBRA HIDRAULIKOETAKO INBERTSIO LEHENTASUNAK EZARTZEKO PLANA: 5. HORNIDURA AÑANAKO KUADRILLAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Añanako Kuadrillako biztanlegune batzuek ur hornidurako arazoak dituzte sarritan, bertako sareen egoera txaragatik edo baliabide bermatzen duten azpiegituren faltagatik. Ildo horretan, Arabako Foru Aldundia lanean dabil biltegi berriak eraikitzeke, hala nola Berantevillako biltegia eraikitzeke.

Halaber, Sobrongo hornidura sistemaren hoditeria berritzen dihardu. 564.011 euro inbertituta, azaldutako obrak lehen urratsa dira Lantarongo udalerriak historian zehar pairatu duen ur horniduraren arazoa konpontzeko. Zehatz esateko, Sobron, Bergonda, Larrazubi eta Fontetxako



herritarrek ur hornidurako arazo larriak daukate, eta tanga-kamioietara jo behar izaten dute maiz. Izan ere, egungo hoditeria 60ko hamarkadakoa da, eta leku askotan ihesak ditu hamabost kilometroko luzeran. Hoditeria estrategikoa da etorkizunera begira, duen balioa dela eta –kokalekuak eta edukierak ematen diote balio hori–, baliabide agorrezina eta Zadorrako sistemaren osagarria emango diolako lurraldeari. Une honetan, bigarren tarte desjabetzen ari gara eta trazatuaren proiektua gauzatzen ari da Bergondatik Larrazubi eta Fontetxaraino eta biltegi berriraino.

8.1.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA: PARTE HARTZE AKTIBOA URA-N ETA PARTZUERGOETAN.

8.1.3.1 JARDUKETA: ESPARRU HITZARMENA AFAREN ETA URAREN ARTEAN, AZPIEGITURETAN INBERTSIOAK EGITEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017ko uztaillean, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak esparru hitzarmena sinatu zuten, aurreko akordioetan jasota zeuden Arabako Lurralde Historikoko azpiegitura hidraulikoak finantzatu eta gauzatzeko. Hitzarmenak eguneratu egiten ditu bi erakundeen konpromisoak azpiegitura hidraulikoak eraikitzeke lurraldean, plangintza hidraulikoaren aginduekin eta aurrekontu erabilgarritasunarekin bat etorritz. 2017-2027 esparru hitzarmenean jasotako ekintzak egiteko aurrekontua 74 milioi eurokoa da. Zenbateko horretatik, Uraren Euskal Agentziak 50 milioi jarriko ditu eta Arabako Foru Aldundiak, berriz, 24 milioi.

8.2. XEDEA: HONDAKINEN KUDEAKETA INTEGRALA.

8.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: HONDAKINEN LURRALDE KUDEAKETARAKO EREDU OREKATUA AZTERTZEA.

8.2.1.1. JARDUKETA: PLAN INTEGRAL BERRIA IDAZTEA, LURRALDEKO BEHARRAK AZTERTUZ, ORAINGO ZERBITZUEN AZTERKETA EKONOMIKOAK EGINEZ ETA KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA EREDU BERRIAK DEFINITUZ.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Egun indarrean dagoen Arabako Lurralde Historikoko hondakinen plana aurki amaituko da eta Arabako Foru Aldundiak, bere eskumenak egiletsiz, Hiri Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plan berria prestatzen hasi da 2017-2030 aldian garatzeko, Europan, estatuan eta autonomia erkidegoan ezarrita dagoen legezko esparrua aintzat hartuta. 2030 helburu hartuta, agiriak Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko araudian eta plangintzan hiri hondakin solidoen arloan jasota dauden eskakizun teknikoak, ingurumen arlokoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta alderdi interesgarri guztiak aintzat hartuko ditu, Arabako hondakinen kudeaketari buruzko etorkizuneko ildoak lantzeko. Era berean, plan berriak Arabako Lurralde Historikoko berezko ezaugarri eta berezitasunak, lurralde antolaketa eta udalerrri eta Kuadrillen eskumenak aintzat hartuko dituen hondakinen kudeaketarako gobernantza eredua ere proposatu beharko du. Hori guztia egingo da prozesu parte hartzaile baten bidez, egindako proposamenen bateratze lanean oinarrituta. Planak hiru jardute programa jasotzen ditu:

- Gobernantza eta neurri estrategikoak
- Azpiegitura
- Prebentzioa hobetzeko eta lehentasunezko lan ildoak kudeatzeko neurri osagarriak

8.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRI HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA, HAIEN KUDEAKETA ETA APROBETXAMENDUA OPTIMIZATUZ.

8.2.2.1. JARDUKETA: BOSGARREN EDUKIONTZIA HEDATZEKO AZTERLANA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Arabako Foru Aldundiak azterlan bat egin du lurraldeko Kuadrilla guztietan (Gasteizen izan ezik), hondakin organikoen bereizketa eta kudeaketa sustatzeko, besteak beste, konpostatzea bultzatuz edo edukiontzi marroia ezarriz. Proposamena Kuadrilla eta udalekin batera egindako prozesu parte hartzaile baten ondorioa da; prozesu horretan, aukera guztiak aztertu eta erakunde bakoitzarentzat egokienak direnak hautatu dira. Azterlanaren helburua hau da: etxeko hondakin organikoen kudeaketa jasagarria lortzea, etxebizitzak baitira hondakin organikoen sortzaile nagusiak, baina sortzaile handiak ere ahaztu gabe, hau da, janari dendak, ikastetxeak eta jatetxeak. Zehatz-mehatz esanda, arestian aipaturiko azterlanean oinarrituta, bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia hautatu da jendea bizi den etxebizitzan % 48an eta konpostajea % 47an, azkenak nork bere kabuz edo taldeka egiteko. Azkenean, % 4,5ek biltza pneumatikoa erabiliko du. Gainera, aldundiak dirulaguntzen lerroa egokitu du zati organikoa biltzeko sistema ezartzen hasteko inbertsioei ekiteko. Zenbatespenen arabera, milioi bat euroko inbertsioa egin beharko da sistema ezartzeko eta, 2017an, 125.000 euroko dirulaguntzen lerroa erabili zen, 2018an bezala.



8.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: EKONOMIA ZIRKULARRAREN KONTZEPTUA GARATZEN LAGUNTZEA.

8.2.3.1. JARDUKETA: EROSKETA PUBLIKO BERDEARI BURUZKO IRIZPIDEAK TXERTATZEA AFAREN KONTRATAZIOKO BALDINTZA AGIRIETAN.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2017ko irailetik aurrera, kontratazioko baldintza agirietan, hain zuzen ere, ezaugarri teknikoen taularen U atalean, aipatutako politikak ahalbidetzen dituzten ingurumen klausulak txertatu dira, hain zuzen ere, honako hauek:

“Eskaintzan txertaturiko ingurumen kudeaketako neurriak (100 puntutik, 5 puntuko balioespena dute). Atal horretan, proiektuan ezarritakoaz kanpoko doako neurriak balioetsiko dira, ondoko alderdi hauei guztiei dagokienez:

- Obren ingurumen eragina txikiagotzea
- Obretan, material edo produktu birziklatuak erabiltzea
- Materialak berrerabiltzea edo birziklatzea
- Hondakinen sorrera, energiaren kontsumoa eta uraren kontsumoa murriztea”.

Oharren atalean, honako hauek sartu behar dira: “Ingurumenaren babesa”

“Kontratak beharrezko neurriak hartu beharko ditu ingurumena eta gizakien bizia babesteko, besteren ondasunak babesteko eta kontratu honen xede diren jarduerak sorraz dezaketen kutsadura saihesteko. Horren ondorioz, kontratak bere gain hartuko ditu kontratazio honi loturik egiten diren jarduerak sorrazitako ingurumen kudeaketako gastuak, osasun arlokoak, segurtasun arlokoak eta laneko osasun eta segurtasunekoak eta bestelakoak”.

8.3. XEDEA: NATURA ONDAREA BABESTU, ZAINDU ETA SUSTATZEA.

8.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO NATURA ONDAREA BABESTU ETA ZAINTEA.

8.3.1.1. JARDUKETA: NATURA 2000 SAREKO EREMUAK KUDEATZEKO NEURRIAK AMAITU ETA ONARTZEA (15 EREMU GERATZEN DIRA).

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Natura 2000 sarearen barruko 13 eremu kudeatzeko neurri eta artezpideei buruzko dekretuak onartu dira:

- 5 KBE eta HBBE, Salburua, Arabako hegoaldeko mendilerroak (Kantabria mendilerroa, Arkamo-Gibijo-Arrastaria-Salbada mendilerroa, Izki eta Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa.



- 8 KBE, Entzia, Zadorrako urtegiak, Arabako lautadako harizti bakanak, Gasteizko mendiak, Aldaiako mendiak, Guardiako aintzirak, Arreoko aintzira eta Gorbeia.

Valderejo, Gorbeia eta Izkiko parte naturalei dagokienez, abagunea baliatu da Erabilera eta Kudeaketa Plan Artezleak (EKPA) izapidetze prozedura bakarrean berrikusteko eta, horrela, kudeaketa agiri bakarra prestatu da (parkearentzat eta Natura 2000 sareko eremuarentzat balio duena).

8.3.1.2 JARDUKETA: LANEKO PLANGINTZA 15 KBEen KUDEAKETA PLANETAN HARTU BEHAR DIREN NEURRIAK GAUZATZEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2018ko lehen seihilekoan, Araban Natura 2000 sarea osatzen duen eremu guztien agiri GUZTIAK onartu dira, zuzentarauetan ezarritako betebeharrak bete dira eta aurreko legealdian bazter utzitako gai bati azkena eman diogu.

2017ko maiatzetik aurrera, NATURA 2000 SAREA kudeatzeko agirietan jasotzen diren neurriak gauzatzen jarraitu dugu eta aintzatetsitako eremu guztien neurriak antolatzeke sistema landu dugu, kudeaketa neurrien plangintza, gauzapena eta jarraipena behar bezala egiteko.

8.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: NATURAGUNEEN GOBERNANTZA ETA KUDEAKETARAKO EREDUA DISEINATZEA.

8.3.2.1 JARDUKETA: "NATURA SAREA" BATZORDEA SORTZEA DAGOENEKO ONARTUTA DAUDEN KBE, HBBE, HEZEGUNE ETA BIOTOPOEN KUDEAKETA PLANAK GAUZATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Alderdi interesdunen arteko lantaldea sortzea aurreikusi da, natura ondarea babesteko eremuen gobernantza eta kudeaketaren eredua zehazteko helburuz.

8.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO NATURGUNEAK BALIOAN JARTZEA.

8.3.3.1. JARDUKETA: ESKAINTZA EGITURATUA KOORDINATZEA GESALTZA AÑANAKO BIOTOPO BERRIAREN AITORPENAREN, GATZ HARANAREN, VALDEREJOREN ETA SOBRONEN ARTEAN.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Jarduketa honen helburua da Valderejo-Sobron eta Gatz Haranaren arteko turismo eskaintza jasangarria eta egituratua lantzeko baliabideak sortzea. Horretarako, ondokoak egin dira:

- Erakundeak eta administrazioak koordinatzea Sobrongo Uraren Museoa berriro zabaltzeko. Hala, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Añanako Kuadrillak, Lantarongo Udalak eta Vital Fundazioak hitzarmena sinatu dute museoaren mantentze lanari datozen 4 urteotan eusteko.
- Zenbait obra finantzatu dira aipaturiko hiru eremuak balioan jartzeko, besteak beste:
 - Santa Engraziako barrendegi botanikoa, Gatz Haranaren barruan, habitat horietako berezko landaredia babesteko eta birpopulazioetan erabili ahal izateko. Gainera, baliabide hori ingurumen hezkuntzako eskaintzan erabiliko da, erabilera publikoa emanda eta balioan jarrita.
 - Saien behatoki berria egin dugu Valderejon.
 - Muera ibaia lehengoratzeko azterketan/proiektuan parte hartu dugu.
 - Arreoko aintzira eta inguruak leheneratu ditugu; lursailak eskuratu ditugu aintziraren inguruan, horiek leheneratu ditugu eta Lacus izeneko herri zaharrean dauden aztarna arkeologikoak berrosatu, balioan jarri ditugu eta aparkalekua eraiki dugu.
- Parke naturaletatik egiten diren ingurumen hezkuntzako programetan, biotopora, uraren museora eta Sobronera joateko irteerak eskaini ditugu.
- Ministerioarekin batera bultzatu eta lan egin dugu Araba eta Burgos Sobron parean lotzen dituen zubi berria eraikitzeko eta GR-99ko lotura berreskuratzeko, azken uholdeetan galdu baitzen.

8.3.4. ILDO ESTRATEGIKOA: EKOSISTEMEN ARTEKO LOTURA SUSTATZEA.

8.3.4.1. JARDUKETA: ARABAKO LOTURA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PLANA.

Egoera: Hasteke

8.4. XEDEA: LURRALDEKO ETA TOKIKO IRAUNKORTASUNA.

8.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO GARAPEN IRAUNKORRAREN POLITIKAK KOORDINATZEA.

8.4.1.1. JARDUKETA: 2020ko LANDA GARAPEN IRAUNKORREKO PLANA EGUNERATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Garapen Iraunkorreko II. Plana onartu da eta lehen Ekintza Plana prestatu da, Kuadrilla eta tokiko erakundeekin elkarlanean. Lan honi esker, aurreko plana eguneratu da eta iraunkortasuna sustatzeko irizpide berriak txertatu dira. Hala, aurrera egin dugu garapen iraunkorraren arloan, Europako eta munduko erronka eta konpromisoekin bat egin dugulako, bereziki, Hiri eta Eskualde Jasangarrien Euskal Adierazpenarekin Nazio Batuen garapenerako erakunde nagusiaren garapen iraunkorreko helburuekin.

8.4.1.2 JARDUKETA: LURRALDEAREN IRAUNKORTASUN ADIERAZLEAK DEFINITU, KALKULATU ETA MANTENTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Sistema jakin bat zehaztu eta ezarri baino lehen, egun erabiltzen diren iraunkortasun adierazleen ereduak aztertzen hasi gara.

8.4.1.3. JARDUKETA: ALHko JASANGARRITASUN POLITIKEN KUDEAKETA EREDU HOMOGENEO ETA OREKATUA BULTZATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lurraldeko jasangarritasun mahaia sortzeko proposamena mahairatu da Kuadrilla eta udalen ekintza planei bultzada emateko eta Arabako Garapen Iraunkorreko Planaren jarraipena egiteko.

8.5. XEDEA: KLIMA ALDAKETA-ONDORIOAK APALTZEA.

8.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA IRAUNKORTASUNA UDALERRIETAN.

8.5.1.1. JARDUKETA: EEE/EJ-REKIKO HITZARMENA UDALERRIETAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIO ERAGINKORRAK LAGUNTZEKO, ENERGIAREN ETA ARGIZTAPENAREN IKUSPEGITIK.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Araban, Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko 2010-2020ko Estrategiaren barruan (MUGARRI PLANA), 1,5 milioitik gorako ekintzak garatu dira energia berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeko, Arabako Lurralde Historikoan, energiaren inguruko kultura berria bultzatuz. Kultura berri horrek energia berriztagarrien garapen iraunkorra sustatzen du natura eta paisaia balioen babesarekin bat etorrira eta teknologia berriztagarri berrietan oinarritzen den Arabako industria energetikoa bultzatzen du. Orain arte egindako jarduketak bat datoz ondoko programekin: “Araba Berriztagarria”, “Araba Eraginkorra”, “Araba Konprometitua” eta “CO2-ko Isurbideak Bultzatzea”.

Beste ekintza batzuen artean, bi deialdi eta horiei lotutako laguntzen oinarri arautzaileak onartu dira, eraginkortasun energetikoa bultzatzen duten ekintzei laguntzeko eta biomasaren erabilera energetikoa sustatzeko.

8.6. XEDEA: KLIMA ALDAKETA-ONDORIOAK APALTZEA.

8.6.1. ILDO ESTRATEGIKOA: LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA.

8.6.1.1. JARDUKETA: NEKAZARITZAKO PRODUKZIO INTEGRATUA ETA EKOLOGIKOA SUSTATZEA. NEKAZARITZA SAILAREKIKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Jarduketa hau 2018an egingo da.

8.7. XEDEA: LURRALDEA ANTOLATZEA.

8.7.1. ILDO ESTRATEGIKOA: LURRALDE GARAPEN OREKATU ETA JASANGARRIA, POLITIKA HAUEK EGINEZ: LURRALDE JASANGARRITASUNA ETA ALDAKETA KLIMATIKORA EGOKITZEA, NATURA KONTSERBATZEA, HIRI BERRIZTAPENA, ZONA ANDEATUAK BERRESKURATZEA ETA ABAR.

8.7.1.1. JARDUKETA: ARABAKO ERRIOXAKO LPPa ALDATZEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Arabako Foru Aldundiak egindako Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partzialaren betetze mailaren azterketa eta diagnostikoa aurkeztu da, eta erakundeek (Aldundia eta udalak) ondorioztatu dute premia handia dagoela lurralde plan hori berrikusteko datozen urteetan. Arabako Errioxako LPP berrikusteko prozedura hori, erakundeen arteko lankidetzaren printzipioari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak elkarlanean egin beharko lukete. Ildo horretan, gure iritziz, Arabako Lurralde Historikoko eremu funtzionalen LPPak prestatzeko esperientzia baliatu beharko litzateke. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzarekin elkarlanean ari gara planaren berrikuspenaren finantzaketari aurre egingo liokeen hitzarmena lantzen.

8.7.1.2. JARDUKETA: ARABA ERDIALDEKO LPPa ALDATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Egiteke zegoen aldaketa amaitu da, ingurumen adierazpena onartuta. Aldaketak Jundizko intermodala jasotzen du eta, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzarekin batera, barruko lantaldea sortzea adostu da diagnostikoa lantzeko, LPPren berrikuspena egiteko eta erakunde bien arteko finantzaketa arautzen duen hitzarmena proposatzeko.

8.7.1.3. JARDUKETA: BIZIKLETA BIDEEN ETA IBILBIDE BERDEEN LPSa EGITEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen agiria foru agindu bidez onartu da eta lurraldeko administrazio publiko interesdunei helarazi zaie, oharrak, iradokizunak, ordezeko aukerak eta proposamenak egin ditzaten. Hala berean, planak dakartzan helburuak eta proposamenak bertatik bertara ezagutzeko aukera eman diegu Arabako toki erakunde guztiei. Iradokizunak jasota, LPSren hasierako onarpenari buruzko proposamena idazten ari gara egun.

Aldi berean, Arabako ibilbide berdeak balioan jartzen ibili gara lanean eta Euskadi eta Nafarroako ibilbideko bi gune beltz konpondu ditugu, Antoñanako adar berria eta Olaranbeko zubia eraikita. Gatz Harana-Arreoko aintzira bidexka berdea egokitu da, hots, Ignazioaren bidearen saihesbidea Bilarretik eta Kanpezutik igarotzean. Nerbioiko Parke Linealaren adar berria eraikitzen ari gara, *Refor*-eraino. Zadorrako ibilbide berdearen lehen tarteak eraiki da, eta komunikazio kanpaina bat prestatu da Araban dauden ibilbide berdeak ezagutzera emateko, forfait bat zigilatuta.



8.7.2. ILDO ESTRATEGIKOA: UDALERRIEI LAGUNTZA EMATEA, 213/2012 DEKRETUA, EAE-KO KUTSADURA AKUSTIKOARENA, APLIKATZEKO:

8.7.2.1. JARDUKETA: KUTSADURA AKUSTIKOA MURRIZTEKO JARRIBIDE TEKNIKO BAT IDATZI ETA ONARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetze fasean zeukaten Arabako 22 udalerriren zonakatze akustikoa egin da eta lan hori baliatu da legeria akustikoa Arabako udalen hirigintza plangintzan aintzat hartzen duen gidaliburua prestatzeko, 213/2012 Dekretuak dioena betetzeko. Gidan, legearen ondorioak eta udaletan izan ditzakeen eraginak jasotzen dira.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-2019 LEGEGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA

10.9. ARDATZA: MUGIKORTASUNA ETA AZPIEGITURAK

DESKRIBAPENA:


Sailak bide azpiegituren eta mugikortasunaren inguruko foru eskumenak kudeatzen ditu.

Bide azpiegituren inguruko eskumena egikaritzeko, errepideen zaintza, mantentze lana, ustiapena eta eraikuntza egiten ditugu, bai eta plangintza ere, bidaiari eta merkantzien zirkulazioa erazkoa izan dadin. Ekintza horiek guztiek bide segurtasuna hobetzen dute, eta lurralde orekari buruzko lehentasunak garatzen, suspertze ekonomikoa bultzatzen eta erakarpen logistikoa sortzen laguntzen dute.


Garraioaren inguruko eskumena dela eta, sailaren helburu nagusia da garraio kolektiboa hobetzeko zerbitzu publiko ona eskaintzea, gizarte eta lurralde kohesioa lantzeko giltzarria delako.

JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015eko UZTAILA	%
JARDUNETAK, GUZTIRA	40		40	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	%0	30	%75
HASIERA AURREIKUSIA	40	%100	10	%25
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	3	%8	2	%20
GAUZATEN	30	%75	8	%80
AMAITUA	7	%18	0	%0
EGUIKARITZEA, GUZTIRA	37		8	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA
■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA
■ GAUZATZEN
■ AMAITUA

GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

9.1. XEDEA: BIDE AZPIEGITURAK

9.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO ERREPIDEEN PLAN INTEGRALA (AEPI) BERRIKUSI ETA EGUNERATZEA:

9.1.1.1. JARDUKETA: ERREPIDEEN PLAN INTEGRALAREN ALDAKETA AZTERTU, ANALIZATU ETA EBALUATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018ko ekainean, hasierako onarpena eman nahi zaio AEPI delakoari eta dagokion administrazio izapidetzea hasi nahi dugu (onarpena, txostenak, jendaurreko informazioaren izapidetzea, behin betiko onarpena).

9.1.1.2. JARDUKETA: INBERTSIO PUBLIKOEI EUSTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Inbertsio publikoa berriro aktibatu da:

1. Izarrako nahiz Artziniegako zeharbideak amaitu dira.
2. Lapuebla de Labarcako Riscoko obrak amaitu dira eta herrira sartzeko errepidea ez ixtea lortu dugu, jausien eraginez.
3. Langraiz Okako herrira sartzeko obrak amaitu dira.
4. Melleles eta Manzanos herriak lotzen dituen errepidea amaitu da.
5. Assa eta Bilar lotzen dituen errepide hobetzeko lanak egiten jarraitzen dugu. Maiatzean amaituko dira obrak.
6. Lurraldean egin behar diren hiru obra nagusietatik bi egiten ari dira:
 - a. N-124 galtzadaren bikoizketa eta Berantevillako saihesbidea. Obrak orain dela urtebete hasi ziren. Horien aurrekontua 19 milioi eurokoa da eta gauzatzeko epea 27 hilabetekoa. Proiektu horri esker lurraldean zeuden bi gune arazotsu (Berantevillako bidegurutzea eta AP-68ko sarbidea) kendu dira. Obra horri esker, Arabako Errioxarako lotura ere hobetu da. Era berean, Miranda de Ebro eta Lacorzanillako industrialdearen arteko lotura egiteko obrak esleitu dira.
 - b. N-240 (Legutio). Obrak maiatzaren 8an esleitu ziren. Ekainean, berriz, hasiko dira.
 - c. Egiteke dagoen hirugarren jarduketari buruz, Saratxori buruz, alegia, esan dezakegu bide segurtasunari buruzko eta eremua zaintzari buruzko azterketa egin dela, dagoeneko amaituta dauden prebentziozko neurriak eta neurri aringarriak egiteko. Era berean, arestian aipaturiko bi obrekin gertatu bezala, erakundearen eta gizartearen adostasun handiena lortzeko lanean ari gara. Horretarako aholkularitza tekniko kontratatu zen eremu horretako industrialdeetarako loturen

bideragarritasun tekniko ebaluatzeko aholkularitza tekniko kontratatu genuen. Obrak urteko azken lauhilekoan lizitatuko dira.

9.1.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ERREPIDEAK KONTROLATZEKO GUNEA.

9.1.2.1. JARDUKETA: INBERTSIOAK ARABAKO ERREPIDEAK KONTROLATZEKO GUNE BERRIA ERAIKITZEKO.

Egoera: Amaitua

Deskribapena:

- a. Errepideak Kontrolatzeko Zentro berria eraikitze lanak amaitu dira.
- b. Langileak 2017ko abuztuan joan ziren instalazio berrietara.
- c. Irudiak denbora errealean eskaintzen dituen videowall delakoa instalatu dugu.
- d. Zentro berriaren eraikuntzak ondokoak ekarri ditu:
 - Bertan lan egiten duten langileen lan baldintzak nabarmen hobetzea.
 - Herritarrentzako arreta nabarmen hobetzea.
 - Foru errepideen sarea kontrolatzeko sistemak eguneratzea.
 - Neguko Bidezaintza Planari laguntzea.

9.1.2.2. JARDUKETA: LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN: DATUAK TRUKATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute. Eusko Jaurlaritzak amaitu du Errepideak Kontrolatzeko Zentro berrira zuntz optikoa eramateko kanalizazioa.

9.1.3. ILDO ESTRATEGIKOA: ERREPIDEEN FORU SAREA MANTENDU ETA ZAINZEA.

9.1.3.1. JARDUKETA: ERREPIDEEN FORU SAREAREN MANTENTZE ETA ZAINZEA BEHARRAK AZTERTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Foru Errepideen Sarea mantendu eta zaintzeko kontratua berritu dugu eta horren aurrekontua milioi bat euro handitu dugu urtean.



9.1.3.2. JARDUKETA: INBERTSIOAK LAN HAUETAN: HIRI ZEHARBIDEAK EGOKITZEA, OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANAREKIN ELKARLANEAN; HARTXINTXARRA BOTATZEA; AGLOMERATUAREN HORNIKUNTZA ETA AZALEKO TRATAMENDUAK NAHIZ LARRIALDIKO OBRAK KALTEENGATIK.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Izarrako nahiz Artziniegako zeharbideak egiteko lanak amaitu dira. 2018-2019ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren deialdi berriaren ebazpena oraindik ez da argitaratu. Sarea mantendu eta zaintzeko urteko lanak egin dira, lehentasunezko esku hartzeen azterketa eta plangintza egin ondoren.

9.1.3.3. JARDUKETA: NEGUKO BIDEZAINZTA PLANA. ZILOEN MAPA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Lehendik badago lurraldeko ziloak jasotzen dituen mapa bat. Ez da oraindik erabaki mapa gehiago behar den.

9.1.3.4. JARDUKETA: LURRALDEKO INDUSTRIALDEETAKO SARBIDEAK HOBETZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Biomendi enpresarako sarbidea (Bernedo) hobetzeko proiektua kontratatu da. Asparrenako industrialderako sarbidea hobetzeko lanean ari gara.

9.1.4. ILDO ESTRATEGIKOA: BIDE SEGURTASUNA HOBETZEA.

9.1.4.1. JARDUKETA: INBENTARIOA AMAITZEA ETA BIDE SEGURTASUNeko NEURRIAK ABIAN JARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Bide segurtasuna hobetzeko lanak egiten jarraitzen dugu lurraldeko herri batzuetan eta istripu ugari gertatu direneko tokietan. Besteak beste, ondokoak nabarmendu behar ditugu: Zurbanorako sarbidea, Azazetako seinaleztapenaren hobekuntza, egokitzen eta seinaleztapen lanak Guardian, Eskuernagan... Une honetan, 2017-2018 aldiko bide segurtasuneko neurri aringarriak eta prebentziozko neurriak kontratazio fasean daude.



9.1.4.2. JARDUKETA: ISTRIPU UGARIKO BIDE ZATIEN URTEKO AZTERLANAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Urteko traktua kontratatu da.

9.1.4.3. JARDUKETA: ISTRIPU ZINEGETIKOEN PREBENTZIOA. JARDUERA PROTOKOLOA NEKAZARITZA SAILAREKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

a) barruko jardunbideko protokoloa prestatu da Ingurumen eta Nekazaritza sailekin batera.

b) A-1 autobidean gertatzen diren faunako igarotzeak aztertzeko lana kontratatu da. Lehen jarduketak erabakitzeke daude, baina aurreikusita dauden obra batzuetan, hala nola N-240 errepidean, faunaren igarobideak diseinatuta daude.

9.1.5. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO ERREPIDEEN FORU ARAUA EGUNERATZEA.

9.1.5.1. JARDUKETA: FORU ARAUA EUROPAKO ETA ESTATUKO ARAUDIRA EGOKITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Idazteko fasean dago, Errepideen Plan Integralaren izapidetzea hasi eta gero.

9.1.6. ILDO ESTRATEGIKOA: ZARATAREN AURKAKO EKINTZA PLANA. KUTSADURA AKUSTIKOAREN PREBENTZIOA.

9.1.6.1. JARDUKETA: ERREPIDEEN FORU SAREKO ZARATAREN AURKAKO PLANA AMAITZEA ETA BERTAN JASOTAKO NEURRIAK ABIAN JARTZEA.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: Zarataren aurkako Ekintza Plana (2016-2020 amaitu da). Une honetan, Zuian pantailak instalatzeko proiektua amaitzen ari da. Era berean, ekintza planaren lehen ekintza gisa, Altubeko autobiarren alboan dagoen etxea, Murgian, hosgabetzen amaitu dugu.

9.1.7. ILDO ESTRATEGIKOA: BIZIKLETA BIDEEN ETA IBILBIDE BERDEEN ARLOKO ARABAKO LURRALDE PLANA.

9.1.7.1. JARDUKETA: BIZIKLETA BIDEEN ETA IBILBIDE BERDEEN ARLOKO ARABAKO LURRALDE PLANA AMAITZEA. JARDUKETAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen agiria foru agindu bidez onartu da eta lurraldeko administrazio publiko interesdunei helarazi zaie, oharrak, iradokizunak, ordezeko aukerak eta proposamenak egin ditzaten. Hala berean, planak dakartzan helburuak eta proposamenak bertatik bertara ezagutzeko aukera eman diegu Arabako toki erakunde guztiei. Iradokizunak jasota, LPSren hasierako onarpenari buruzko proposamena idatzi da.

9.1.8. ILDO ESTRATEGIKOA: SEINALEAK EGOKITZEA FORU IZENDEGIAREN ARABERA.

9.1.8.1. JARDUKETA: INBENTARIOA ETA SEINALE EGUNERATUEKIN ORDEZTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Seinaleak etengabe ordeztzen dira errepideak mantentzeko eta zaintzeko kontratuen bidez.

9.2. XEDEA: MUGIKORTASUNA:

9.2.1. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO HERRI ARTEKO GARRAIO ZERBITZUAK HOBETZEA.

9.2.1.1. JARDUKETA: ARABAKO HERRI ARTEKO GARRAIOAREN PLAN INTEGRALAREN EGUNERATZEA AZTERTU, ANALIZATU ETA EBALUATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Etengabeko azterketa eta ebaluazioa.



9.2.1.2. JARDUKETA: LURRALDEKO UDALERRIENTZAKO KOMUNIKAZIO KANPAINAK, LINEA, GELTOKI ETA ZERBITZU BERRIEI BURUZ.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

- a) Herri arteko foru garraibideari buruzko telefono mugikorrentzako aplikazioaren abian jartzea amaitu da.
- b) Alavabus webgunearen hobekuntza amaitu da.
- c) Eskualdeko garraioaren lizitazioa laster egingo dela eta, komunikazio kanpaina egingo da eskualdeko garraio berria ezagutarazteko.

9.2.1.3. JARDUKETA: EMAKIDA IRAUNGI EDO LASTER AMAITZEKOAK DIRENAK BERRITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

- a. Araba Erdialdeko linea 2015eko urriaren 26an hasi zen jardunean. Horren aurretik, Errioxako eta Aiarako lineak hasi ziren eta, horrela, aldundiak diruz laguntzen duen herri arteko garraioaren sarea amaitu da. Gaur arte, erabiltzaileen kopurua nabarmen handitu da linea horietan eta goranzko joera erakusten dute (batez beste, % 20ko hazkundea). Gainera, BAT txartela ordaintzeko tresnatzat erabiltzeko ezarpenak emaitza bikainak izan ditu, ordaintzeko tresnarik erabiliena delako (eskudiruzko ordainketaren aldean) Aiarako linean; beste bietan ere, maiztasun handiz erabiltzen da.
- b. 2017ko maiatzaren 8an, Bilbo-Logroño linea hasi zen jardunean. Arriskuz eta menturaz hasi den lehen linea horretan, BAT txartela erabiliz ordaindu daiteke eta, gainera, aurretiaz eskura daitezke bidaia txartelak.
- c. Miranda-Gasteiz-Durango korridorea ere lizitatu da. Une honetan, plikak zabaltzeko fasean dago.
- d. 2019an, Bilbo-Iruñea linea lizitatuko da eta, horrela, herri arteko foru garraioari lotutako linea guzti-guztiak berrituko dira.
- e. Autobide bidezko Gasteiz-Bilbo linearen aurreproiektua egiteko lana kontratatu da, bai eta Murgiatik igarotzen den Gasteiz-Bilbo linearena ere. Kontratazio horren barruan, Gasteiz-Foronda-Loiu linearen azterketa eta aurreproiektua txertatu dira.

9.2.1.4. JARDUKETA: ADJUDIKATUTAKO EMAKIDEN AZTERKETA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Egindakoen artean, ondokoak nabarmendu behar ditugu:

- Tokiko erakundeek eta erabiltzaileen ekarpenei esker, Arabako Errioxako, Aiarako eta Araba Erdialdeko linea batzuen maiztasunak eta ordutegiak hobetu dira.
- Gasteiz-Durango linearen izaera aldatu da eta arrisku eta menturazko linea izatetik diruz lagundutako linea izatera igaro da, hala, linearen kalitatea hobetu da eta oinarritzat erabili da Miranda de Ebro-Gasteiz-Durango korridorearen emakida berriaren proiektua lantzeko.

«• Aholkularitza teknikoak kontratatu da Miranda de Ebro-Gasteiz-Durango korridorearen proiektuari buruzko alegazioei erantzuteko eta baldintza agirien idazketan laguntzeko. Korridore horren emakida aurten lizitatuko da. • Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu da aurten amaitzen den Bilbo-Iruñea linearen lizitazioaren aurreikuspena (hori egin behar da, gutxienez, lizitazioa atera baino urtenbete lehenago).

9.2.1.5. JARDUKETA: GARRAIOAREN ALTZARI OSAGARRIAK MODERNIZATZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Garraioaren altzari osagarrien (markesinak, zutabeak...) inbentarioa egin da. Inbentarioan jasotako datu guztiak aztertzen ari gara.

9.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ESKUALDEKO GARRAIOAREN EREDU BERRIA.

9.2.2.1. JARDUKETA: ESKUALDEKO GARRAIOAREN EREDU BERRIA DEFINITU ETA EZARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Bartzelonako Hiri Ekologiako Agentzia kontratatu genuen eskualdeko garraio berriaren eredua amaitzeko; izan ere, garraio eredua hori definitzea falta zen Arabako Errioxan eta Trebiñun. Lan hori amaituta dago. Eredua zehaztuta dago eta horren berri gizarteratzen hasi gara. Horretarako, bilerak izan ditugu zerbitzuaren oraingo emaleekin, Kuadrilla eta udaletako ordezkariekin, Trebiñuko bi udaletako ordezkariekin eta Arabako Kontzejuen Elkarteko ordezkariekin. Aurten lizitatu eta hasiko da jardunean.

9.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: LURRALDEKO GARRAIOBIDE DESBERDINAK INTEGRATZEA.

9.2.3.1. JARDUKETA: MIRANDA-ALTSASU TRENBIDEA. ARABATRAN AZTERLANA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 1/2016 Foru Araua, urtarrilaren 20koa, garatze aldera, N-1 trenbide korridoreari buruzko beraraziko azterlana kontratatu da Gasteizko Udalarekin batera. Aipatutako azterlana amaituta dago.

9.2.3.2. JARDUKETA: GASTEIZKO TRANBIA HEDATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 1/2016 Foru Araua, urtarrilaren 20koa, garatze aldera, 2018ko ekitaldian, aurrekontuko saila handitu da tranbia Adurtza eta San Kristobal auzoetara eta unibertsitateetara hedatzeko.

9.2.3.3. JARDUKETA: GASTEIZEN BRT-A EZARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 1/2016 Foru Araua, urtarrilaren 20koa, garatze aldera. Hitzarmen egokia onartu da, foru arau baten bitartez.

9.2.4. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO MUGIKORTASUNAREN AGINTARITZA SENDOTZEA.

9.2.4.1. JARDUKETA: ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAK ARABAKO MUGIKORTASUNAREN AGINTARITZA SORTZEKO, KOORDINAZIO ETA PLANGINTZA ORGANO GISA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena:

a) Bilerak egin ditugu Eusko Jaurlaritza eta Gasteizko Udalarekin, Arabako Mugikortasunaren Agintaritza sortzeko helburuz.



b) Hiru erakundeek hitzarmena prestatu dute eta hiru erakundeetako organo egokietan onartu da hitzarmena. Agintaritza 2018ko maiatzean eratu da.

c) Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak onartu dute foru aldundi hau BAT txartelari atxikitzea.

9.2.5. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO GARRAIOBIDEEN TARIFA INTEGRAZIOA.

9.2.5.1. JARDUKETA: BIDAIA ORDAINTZEKO EZARPEN TEKNOLOGIKOA HEDATZEA. BAT TXARTELA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Neurri berriak hartu dira BAT txartela beste lurralde historietako beste garraiobide batzuetan erabili ahal izateko.

9.2.5.2. JARDUKETA: ELKARRERAGINGARRITASUNAREN GARAPENA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFarentzako eredu baten lehen fasea amaitu da, foru garraio erregularra erabiltzeko bidaia txartelak erreserbatu eta aurretiaz erosi ahal izateko.

9.2.5.3. JARDUKETA: DIRULAGUNTZAK GARRAIOBIDEZ ALDATZEAGATIK, HERRI ARTEKO AUTOBUSEN ETA GASTEIZKO TRANBIAREN ETA HIRI AUTOBUSEN ARTEAN.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Honako proposamen hau diseinatu eta gauzatu egingo da foru linea guztien emakida berritutakoan.

9.2.5.4. JARDUKETA: HOBARI BERRIAK GARATZEA.

Egoera: Hasteke

Deskribapena: Jarduketa honen diseinua eta proposamena egingo dira garraio publikoko foru linea guztiak berritutakoan.



9.2.6. ILDO ESTRATEGIKOA: TAXI BATZORDEA.

9.2.6.1. JARDUKETA: TAXI BATZORDEA BULTZATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

- a) Aurreko legealdian geldirik egon den Arabako taxien batzordeari berriro ekin diogu.
- b) Bi ohiko bilera egin dira (batzorde horren araudiak ezarritakoari jarraiki, ohiko bilera bat egin behar da urtean) eta ezohiko bat kide guztiek arloko gai interesgarriez eztabaidatzeko.

9.2.7. ILDO ESTRATEGIKOA: GARRAIOAREN ARBITRAJE BATZORDEA.

9.2.7.1. JARDUKETA: GARRAIOAREN ARBITRAJE BATZORDEAREN JARDUERA INDARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

- a) Garraioaren arbitraje batzordea aldiro batzen da.
- b) Batzordea erregulatzen duen araudia aldatu da, eguneratzeko helburuz.

9.2.8. ILDO ESTRATEGIKOA: HOBARIAK AP-1 ETA AP-68 AUTOBIDEEN OHIKO ERABILTZAILEENTZAT. BIDESARI SOZIALA.

9.2.8.1. JARDUKETA: AP-1 ETA AP-68-KO BIDESARI SOZIALEI EUSTEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Eredua berria diseinatzen ari gara AP-68 eta AP-1 autobideen ohiko erabiltzaileei ematen zaizkien laguntzak aldatzeko.

9.2.9. ILDO ESTRATEGIKOA: IBILGAILU ASTUNAK. IBILGAILU ASTUNEN HITZARMENA AP-68 AUTOBIDEA ERABILTZEKO.

9.2.9.1. JARDUKETA: IBILGAILU ASTUNENTZAKO HOBARIEI EUSTEA, AP-68 AUTOBIDEA ERABILTZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Helburu hori betetzeko partidei eutsi zaie aurrekontuan.

9.3. XEDEA: HERRITARREN ARRETA HOBETZEA ETA SAILAREN WEBGUNE BERRIA.

9.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: JARDUERA PROTOKOLOA HERRITARREN ARRETAN.

9.3.1.1. JARDUKETA: ERANTZUNEN ETA ERANTZUTEKO DENBORA-BITARTEKOEN DEFINIZIOA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Foru araura nola egokitu aztertzen ari gara (1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena).

9.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: SAILAREN WEBGUNE BERRIA DEFINITZEA.

9.3.2.1. JARDUKETA: EDUKI BERRIAK SAILAREN WEBGUNEAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Aldaketak egiten ari gara aldundiko webgunearen barruko sailaren atalean, edukiak hobetu eta erabiltzen errazagoak izateko erabiltzaileentzat.

9.3.2.2. JARDUKETA: HERRITARREN POSTONTZIA SORTZEA.

Egoera: Hasteke



Deskribapena: Foru araura nola egokitu aztertzen ari gara (1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena).

9.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: SARE SOZIALEN ERABILERA EZARTZEA.

9.3.3.1. JARDUKETA: TWITTER KONTUA IREKITZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena:

a) Bide Azpiegituren Zerbitzuaren Twitter kontua ireki zen.b) Geroago, Twitter kontu hori itxi zen, aldundiak kontu orokorra ireki zuelako.

9.4. XEDEA: ARABAKO BIDEAK.

9.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: AP-1 AUTOBIDEAREN ERABILERA HANDITZEA.

9.4.1.1. JARDUKETA: AZPIEGITURA MANTENDU ETA HOBETZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena:

a) Beste bi gatz zilo eta erdibitzaile mugikorra eraiki dira Isuskitzako tunelaren inguruan, larrialdietan erabiltzeko.

b) Etxabarri-Ibiña ordainlekurako loturaren zoladura berritu da. Oraingo kontratua amaitu denez, kontratatua likidatu egingo da eta, beraz, egoera onean utzi behar da autobidea emakidadun berriarentzat.

9.4.2. ILDO ESTRATEGIKOA: SOZietateAREN FINANTZA NAHIKOTASUNA BERMATZEA.

9.4.2.1. JARDUKETA: AP-1 AUTOBIDEA MANTENDU ETA USTIATZEKO KONTRATUA BERRITZEA.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Aholkularitza kontratatu da oraingo emakidadunarekiko kontratua likidatzeko eta kontratatzeke baldintza agiri berriak prestatzeko.

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin batera, eraikitzeke mailegua berriro negoziatu da eta, aldi berean, sasoia zenean egindako zorpetze eragiketak bermatzen zituzten swap direlakoak kendu dira. Eragiketa horri esker, sozietateak aurrekontu eta finantza egonkortasuna izango du datozen urteetan eta, horrela, finantza kostua eta zorraren konpromisoak arinduko dira aurrekontuan.

9.4.2.2. JARDUKETA: AURREIKUSITAKO ZERBITZUGUNEAREN ERAIKUNTZA BULTZATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Une honetan, AP-1 autobideko Arabako tartean aurreikusita zegoen zerbitzugunea eraiki eta ustiatzeko eskaintza lehiaketan ateratzeko bideragarritasuna aztertzen ari gara, azpiegitura mantendu eta ustiatzeko kontratu berria abian jarri eta gero.

11. 10. ARDATZA: GOBERNANTZA, BERDINTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK


DESKRIBAPENA:

Foru Aldundia eredugarri izan behar da, bai bikaintasuneko kudeaketa publikoan, bai bere jardueren gaineko gardentasun osoan. Era berean, une oro erantzun behar die Arabako herritarrek proposatzen dituzten hobekuntzei eta azalpenei. Horren harira, Arabako gizartearen garapena aukera berdintasunean oinarrituta soilik eraiki daiteke, eta, oso bereziki, gizon eta emakumeen berdintasunean oinarrituta, bizitzako eremu guztiak kontuan hartuta. Berdintasuna giza eskubideak eta pertsonen duintasuna defendatuz eraikitzen da, beren jatorria eta izaera edozein izanda ere, bizimodu normala, betea eta duina gara dezaten.

Ardatz honek jatorrian 48 jardunketa zituen eta egun 46 ditu. Izan ere, 10.4.2. ELKARTASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN POLITIKA ZEHARLERRO BIHURTZEA AFA OSOAN izeneko ildo estrategikoko bi jardunketa (10.4.2.4 eta 10.4.2.5), beste batean txertatu dira, 10.4.2.1 jardunketan, zehazki.


JARDUKETEN LABURPENA:

	2018ko EKAINA	%	2015eko UZTAILA	%
JARDUKETAK, GUZTIRA	46		48	
HASIERA AURREIKUSI GABEA	0	0%	32	%67
HASIERA AURREIKUSIA	46	100%	16	%33
AURREIKUSIA ETA EZ HASIA	4	9%	0	%0
GAUZATZEN	37	80%	16	%100
AMAITUA	5	11%	0	%0
EGUIKARITZEA, GUZTIRA	42		16	



■ HASIERA
AURREIKUSI
GABEA

■ HASIERA
AURREIKUSIA



■ AURREIKUSIA
ETA EZ HASIA

■ GAUZATZEN

■ AMAITUA

GAUZAPENARI BURUZKO TXOSTENA:

10.1. XEDEA: GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA GOBERNU ONA SUSTATZEA.

10.1.1. ILDO ESTRATEGIKOA: KARGU PUBLIKODUNEN PRAKTIKA ONAK SUSTATZEA

10.1.1.1. JARDUKETA: AFAko KARGU PUBLIKODUNEN GOBERNU ONERAKO KODE ETIKOA IDATZI ETA ONARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: Gobernu Kontseiluaren 2015eko irailaren 3ko Erabakia dela bide, Gobernu Onerako Kode Etikoa onartu zen. 2015eko urriaren 21ean, aldiz, Etika Publikoko Batzordea eratzea onartu zen. Bost pertsonak osatzen dute batzordea. Sortu zenetik gaur egun arte, Etika Publikoko Batzordeak ez du AFAko kargudunen jarduerarik gaitzesteko ebazpenik kaleratu. Batzordeak 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietako oroitza-txostenak egin ditu.

10.1.1.2. JARDUKETA: KARGU PUBLIKODUNAREN ARAU BERRIA IDATZI ETA ONARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2018ko apirilaren 24an, Foru Gobernuak Kargu Publikodunaren foru arauaren proiektua onartu zuen. Onartu ondoren, Batzar Nagusiek izapidetu beharko dute.

10.1.1.3. JARDUKETA: ARABAKO SEKTORE PUBLIKOAREN ARAU EGUNERATUA ONARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an onartu behar izan zen, baina ezin izan da hori egin zerbitzuaren lan karga dela eta. Honako jarduketa hau berriro programatu da eta, une honetako aurreikuspenen arabera, Arabako Sektore Publikoaren foru arauaren proiektua 2018an onartuko du Gobernu Kontseiluak.



10.1.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO FORU ALDUNDIAREN GARDENTASUN POLITIKAK ARAUTZEA.

10.1.2.1. JARDUKETA: GARDENTASUNAREN, HERRITARREN PARTE HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN FORU ARAUA IDATZI ETA ONARTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016ko urriaren 18an, AFAko Foru Gobernuaren Kontseiluak Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Foru Arauaren proiektua onartu zuen. 2016ko azaroaren 28an, diputatu nagusiak agerraldia egin zuen bere eskariz Batzar Nagusietako Lehendakaritza Batzordean, foru arauaren proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Batzar Nagusien Osoko Bilkurak otsailaren 8an onartu zuen araua. Handik aurrera, AFA gogoz ari da lanean araua ezartzeko helburuz. Horren ardura hartzeko, arlo honetako unitate bat izendatu da, Ahaldun Nagusiaren Kabineteko Zuzendaritzari atxikitako bi teknikarik osatutakoa. Bi teknikari horiek, gardentasun eta herritarren parte hartzearen arloan sail bakoitzean izendatu diren unitateekin elkarlanean, foru araua pixkanaka ezartzeko eta Gobernu Irekiaren ataria garatzeko lanean ari dira. Foru araua garatzeko xedez, 2018ko ekitaldian, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Onari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko esparru estrategia prestatuko da. Aldi berean, herritarrek parte hartzeko berariazko ekimen gisa, AFAk “AGORA-Araba da erronka” izeneko ekimena jarri zuen martxan 2016ko urtarrilean. Ekimen horren bidez, ALHko hainbat eragile ekonomiko, sozial eta kulturelek Arabako garapenari lotutako etorkizuneko erronka nagusiak antzeman zituzten.

10.1.2.2. JARDUKETA: GOBERNU IREKIAREN ATARI BERRIA SORTZEA ETA EGUNERATUTA EDUKITZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2018ko martxoaren 13an, ARABA IREKIA, AFAREN Gobernu Irekiaren ataria, abian hasi zen, 1/2017 Foru Arauak, Gardentasun, Herritarren Parte Hartze eta Gobernu Onari buruzkoak, ezartzen duen bezala. Atari hori atal eta eduki berriz hornituko da 2018 eta 2019an.

10.1.2.3. JARDUKETA: GARDENTASUNA EBALUATZEN DUTEN ERAKUNDEEK KANPOKO EBALUAZIOETAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEKO JARDUERAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015eko urrian eta azaroan, Nazioarteko Gardentasun erakundeak foru aldundien webguneen gardentasuna aztertu zuen. Egun, hurrengo ebaluazioa noiz egingo duten zain gaude. Bien bitartean, AFA adierazleak eguneratzen eta handitzen ari da, kanpoko ebaluazioei erantzuteko eta 1/2017 arauak ezarritakoa betetzeko helburuz.



Bestetik, 2018ko martxoaz geroztik, erakunde arteko proiektu batean parte-hartzen ari da AFA. Proiektu hori OGP aliantzara atxikitzean datza. Honen ondorioz, euskal Gobernu Ireki eredu bateratu eta ekintza plan bat ezarri behar dira.

10.2. XEDEA: BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEA.

10.1.2. ILDO ESTRATEGIKOA: BULTZADA GIZA ESKUBIDEEN ETA MEMORIA HISTORIKOAREN ALDEKO JARDUEREI.

10.2.1.1. JARDUKETA: DIRULAGUNTZA LERRO BERRIA GIZA ESKUBIDEEN ETA MEMORIA HISTORIKOAREN ARLOAN, IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ELKARTEENTZAT, ETA LAGUNTZA PROIEKTU BEREZIENTZAT.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016an, dirulaguntzen lerro berria sortu zen, giza eskubideak sustatzen dituzten proiektuak eta oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak bultzatzeko. 2016ko ekitaldian, deialdia 100.000 eurokoa izan zen. 10 proiektu aurkeztu ziren eta horietatik 8 lagundu ziren. 2017an, deialdia 70.000 eurokoa izan zen. 10 proiektu aurkeztu ziren eta horietatik 6 lagundu ziren. 2018ko deialdia berrikusi egingo da eta hobekuntzak egingo dira, aurreko bi deialdiek izan duten arrakasta txikia ikusita. Beste alde batetik, 2018an 70 urte beteko dira giza eskubideen aldarrikapen unibertsala egin zenetik. Mugarri hori kontuan hartuko da dirulaguntzen deialdia berrikusten denean. Beste alde batetik, 2016ko irailean, AFAk omenaldia eta oroitzapen ekitaldia egin zuen Teodoro Olarteren erailketaren 80. urteurrena dela eta. Urtean-urtean, data hori ezarri da frankismoak Araban errepresaliatutako guztiak gogoratzeko.

2017ko apirilean, beste gertaera baten 80. urteurrena izan zela eta, *Azazetan eraildako 16 lagunentzako* omenaldia egin zen Azazetan bertan. AFAk, Batzar Nagusiek eta Gasteizko Udalak antolatu zuten ekitaldia, eta Iñigo Urkullu lehendakaria bertan izan zen.

2018ko maiatzaren 5ean, Luis Álava Sauturen fusilamenduaren 75. urteurrena dela eta (1943ko maiatzaren 6an erail zuten Madrilén), Álava sarea osatu zuten pertsonak guztiak, batez ere, emakumeak, omendu eta aintzatesteko ekitaldia egin zen. Plaka bat jarri zen Gasteizko Sendako pasealekuan, eta ekitaldian lehendakariak, ahaldun nagusiak, Gasteizko alkateak eta beste agintari batzuek parte hartu zuten. Álava sareari buruzko erakusketa egin da eta sare horri buruzko dokumentala eskaini da.

2017an, UPV/EHUko Historia Garaikideko Sailarekin elkarlanean, oroimen historikoa berreskuratzeko proiektua egin zen. Proiektu horren ildotik, frankismoaren garaian Araban errepresaliatu zituzten pertsonen buruzko txostena prestatu zen. Horretarako, ekainetik urrira, Frankismoaren Biktimei Arreta egiteko Bulegoa jarri zen Arabako herritarren esku. Bulego horren helburu nagusia ondokoa izan da:



errepresaliatuen edo haien senideen lekukotasunak eta dokumentuak biltzea. Lan horretan funtsaturik, oroimen historikoa berreskuratzeko jarduketa berriak antolatu ahaliko dira Araban, Gasteizko Udalarekin edo Gogora institutuarekin lankidetzan. 2017an, diruz lagundu dira bi film luze (Gasteiz, martxoaren 3a - 30.000 € eta Agirre lehendakaria - 30.000 €). Bi lan horien xedea da gure herriko historia eta pertsona esanguratsuak berreskuratzea, bai eta demokrazia, askatasuna eta giza eskubideak goraipatzea. Bi film horientzako laguntza emanda, AFAk ere lagundu nahi du aipatutako balioak Arabako gizartean berreskuratzen eta hedatzen.

2017an, Arabako Foru Aldundia, Batzar Nagusien laguntzaz, ahalegindu da martxoaren 3ko biktimetako justizia aldarrikatzen eta, horren haritik, kereila aurkeztu du Gasteizko epaitegietan. Kereila ez zen onartu eta Konstituzio Auzitegiraino errekurritu zen; hala ere, auzitegi horrek ere ez zuen kereila onartu. AFAk laguntza eta aholkularitza eskaini dizkie Martxoaren 3ko elkarteari eta zuzeneko biktimei, horiek Giza Eskubideen Europako Auzitegira jo dezaten.

2017ko ekainean, AFAk ondare historikoa berreskuratzeko erakundeen arteko hitzarmen batean parte hartu zuen: "Burdinazko Gerrikoa eta Bilboko Defentsak". Ondare historiko horren aztarnak Laudion eta Okondon ere aurki ditzakegu, eta Gerra Zibilari buruzko oroimena berreskuratzeko ekarpen handia da, batetik, Euskal Herriak garai hartako (1936) demokraziari erakutsitako errespetuagatik eta, bestetik, matxinatutako indar frankisten aurkako erresistentziagatik. AFaren parte hartzea honakoan datza: aipaturiko ondarea osatzen duten eta Araban dauden elementuak zaintzeko jarduketak gauzatzea.

10.2.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ARABAKO GIZARTEAREN BAKE ETA BIZIKIDETZA HEZKUNTZA SUSTATZEA.

10.2.2.1. JARDUKETA: EUSKO JAURLARITZAREKIN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZAN ARITZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietan (bai eta 2018koan ere) AFAk lagundu eta parte hartu du Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta (martxoaren 11), Oroimenaren Eguna dela eta (azaroaren 10a) eta Giza Eskubideen Eguna dela eta (abenduaren 10a) antolatu diren ekitaldietan. 2018an, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 70. Urteurrena beteko dela eta, erakundeen arteko lankidetzaz bultzatutako kanpaina egin da, "Eskerrak Giza Eskubideei - Gracias a los Derechos Humanos" izeneko. Ekimen horren bidez, erakunde bakoitzak arloko jarduerak antolatuko ditu. Ildo horretan, AFAk Gazteriaren Foru Erakundeak antolatzen duen Zineleku baliatuko du giza eskubideen gaia lantzeko.



10.2.3. ILDO ESTRATEGIKOA: AITORTZA INDARKERIAREN BIKTIMEI.

10.2.3.1 JARDUKETA: FORU ALDUNDIAREN PARTE HARTZEA MEMORIAREN INSTITUTUAN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFA GOGORA Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaritza batzordeko kidea da. Batzordekide gisa GOGORAK EAEn antolatzen dituen proiektuak bultzatzen ditu, eta zuzenean parte hartzen du Araban gauzatzen diren proiektuetan. Esaterako, Burdinazko Gerrikoa eta Bilboko Defentsak berreskuratzeko ekimenean Araban (Laudion eta Okondon), erakundeen arteko hitzarmena sinatu duela; bestetik, Gasteizko Memoria Plaza proiektuan parte hartu zuen 2016an.

10.3. XEDEA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEA.

10.3.1. ILDO ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZA ETA GENERO MAINSTREAMING-A.

10.3.1.1. JARDUKETA: AFAn GENERO IKUSPEGIA ZEHARLERRO BIHURTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Berdintasunaren IV. Foru Plana 2016ko abenduan onartu zen. Geroago, 2018an, Foru Gobernuaren Kontseiluaren erabakia dela bide, berdintasunaren arloko AFAn barruko egitura berriak onartu ziren. Sailen arteko batzordea eratu zen bi mailatan (maila politikoan eta maila eragilean). Batzorde horrek bultzatu eta gauzatuko du generoaren ikuspegiaren txertaketa AFA osoan. 2018ko apirilean, batzordeak lehen bilera egin zuen, aipaturiko bi mailatan egin ere. AFAn genero ikuspegia zeharlerro bihurtzeko barruko jarduketa batzuk egin dira dagoeneko (genero ikuspegiaren txertaketa 2017ko aurrekontuetan; genero eraginaren ebaluazioak; datuak sexuaren arabera lortzeko jarraibidea; AFAko langileentzako Berdintasunari buruzko lehen prestakuntza planaren onarpena).

10.3.1.2. JARDUKETA: ALHko KUADRILLA ETA UDALETAN BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko urrian, Kuadrillei emandako dirulaguntzen bidez, AFA Kuadrilletako berdintasun teknikarien lana sustatzen hasi zen Kuadrilletan. 2018ko urtariletik aurrera, finantzaketa hori TEFF baliatuz egiten da eta, horri esker, berdintasun atalak egonkortu eta finkatu dira gure lurraldean. Berdintasun teknikariak Kuadrilletan lanean hasia jauzi kualitatibo garrantzitsua da Kuadrillek edo udalek eurek tokiko berdintasun politikei ekin edo garatu ditzaten. AFAk berdintasun teknikariei laguntzen eta aholkularitza eskaintzen die, Berdinbidean zerbitzua dela medio; hala, hileko koordinazio bilerak egiten dira AFAko Berdintasun Zerbitzuko teknikarien eta Kuadrilletako teknikarien artean. Berdintasunaren IV. Foru Planak jasotzen duen eran, Arabako Berdintasun Teknikarien Sarea eratzen ari da eta Berdintasun arloko Lurraldeko Esku Hartze Eredua zehazten ari da. Beste alde batetik, AFAk urterik urte handitu ditu udal eta Kuadrillentzako dirulaguntzen lerroak, zeinek bere eremuan berdintasuna sustatzeko ekintzak egin ditzan, Laia Eskolarekiko koordinazioan. Gainera, 2017an, oinarritzko prestakuntza eskaini diegu Kuadrilla eta udaletako teknikari eta politikariei, berdintasunaren aldeko politika publikoek duten garrantziaz jabetzeko oinarritzko ezaupideak eskura ditzaten.

10.3.1.3. JARDUKETA: BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANA LANDU, ABIAN JARRI ETA HAREN JARRAIPENA EGITEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko abenduan, Foru Gobernuaren Kontseiluaren erabakiz, Arabako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Foru Plana onartu zen, 2016-2020 aldian garatzeko. Urtebeteko prozesu parte hartzailearen emaitzaz landu zen plana eta, bertan, elkarleen, adituen, teknikarien, politikarien eta abarren ekarpenak jaso dira. Planak 4 ardatz eta 80 ekintza dakartza, 5 urtetan garatzeko. Plana gauzatzen ari da eta planak berak jasotzen duen etengabeko jarraipena egiteko prozesua ere abian hasi da.

10.3.1.4. JARDUKETA: LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA INDARTZEA BERDINTASUN GAJETAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk berdintasun arloan lan egiten duten eta/edo beste arlo batzuetatik berdintasunaren aldeko ekintzak sustatzen dituzten elkarreentzako laguntzak handitu ditu.

Dirulaguntzak areagotzeaz gain, elkarreentzako koordinazioa indartu da Berdintasunaren Foru Kontseilua berriro aktibatu eta definitzeko, baita eta eskualdeko partaidetza kontseiluak/guneak aktibatze ere. Azkenik, LAIA Eskolaren proiektua eraiki eta finkatu nahi da.



10.3.2. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOEN ALDAKETA.

10.3.2.1. JARDUKETA: ARABAKO AHALDUNTZE ESKOLA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016ko irailean, AFAk LAIA ESKOLA (Arabako Ahalduntze eta Berdintasun Eskola) jarri zuen abian. Lehen urtean Lautadako Kuadrillan baino ez zituen jarduerak eskaini, lehen esperientzia gisa. 2017ko irailean, Araba osora zabaldu zuen eskaintza. Gure lurraldean berdintasun arloan garatzen diren politika eta jarduera guztien proiektu biltzailea da Laia, Arabako beste erakunde eta elkarte batzuekiko koordinazioan. Izan ere, proiektua AFAk bultzatu duen arren, Kuadrillek, udalek, elkarteek eta norbanakoek ere parte hartzen dute.

2018ko irailean Laia Eskola Trebiñun ere abiatuko da.

10.3.2.2. JARDUKETA: ENPRESA ETA SINDIKATUEKIKO LANKIDETZA, EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO.

Egoera: Hasteke

10.3.2.3. JARDUKETA: SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, kanpainak, sentsibilizazio ekintzak eta aitorpen ekimenak egin dira (2016an, Ahalduntzea; 2017an, Emakume iheslariak; 2018an, gizartea eraldatzen duten emakume ikusezinak). Azaroaren 25aren kariaz ere sentsibilizazio kanpainak egin dira (2015, 2016 eta 2017an).

10.3.2.4. JARDUKETA: LGTB. SENTSIBILIZAZIOA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018an, kanpaina bat egingo da uztailaren 28a (LGTBI Harrotasun Eguna) dela eta.

10.3.3. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO INDARKERIAREN AURKAKO BORROKA.

10.3.3.1. JARDUKETA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO GENERO INDARKERIAREN DIAGNOSTIKOA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.



Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016 eta 2017ko ekitaldietan, indarkeria matxistari buruzko diagnostikoak prestatu dira Arabako sei Kuadrilletan (Gasteizko Kuadrillan izan ezik). Sortzen elkarreak egin zuen diagnostikoa AFaren eskariz, eta diagnostikoa 2017ko azaroan aurkeztu eta jendaurreratu zen.

2018ko udazkenean, Trebiñun egingo da diagnostikoa, AFAk eta Burgosko Diputazioak sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren esparruan.

10.3.3.2. JARDUKETA: ALHko UDALERRIETARAKO SENTSIBILIZAZIO ETA PREBENTZIO PROGRAMA EGITEA.

Egoera: Hasteke

10.3.3.3. JARDUKETA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETARAKO PROTOKOLOAK EGITEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017an amaitu ziren Kuadrilletako indarkeria matxistari buruzko diagnostikoen ondorioz, 2018an, Emakunderekin elkarlanean, AFAk Kuadrillei laguntzen die indarkeriazko kasuetan tokiko erantzuna emateko protokoloak diseinatzen eta prestatzen.

10.3.3.4. JARDUKETA: SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA (AZAROAREN 25a) DELA ETA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Urtero-urtero, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna (azaroaren 25a) dela eta, AFAk erakunde adierazpena onartu du eta jendaurreko deia egin du indarkeria matxistaren aurkako ekitaldietan parte hartzeko. 2017an, ekintza horien guztien osagarri, sensibilizazio eta komunikazio kanpaina bat antolatu da, lelo hau erabilita: “Indarkeria matxistak geruza asko ditu; erauzi errotik”. 2018an ere kanpaina bat egingo da.

10.3.3.5. JARDUKETA: GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIOA GAZTEEN ARTEAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk bereziki prebenitu nahi du indarkeria matxista gazteen artean, “Hitz-kolpez” deritzon berariazko programa estrategiko baten bitartez. Programa hori 2015ean hasi zen eta geroko edizio guztietan (2016an eta 2017an) sendotu egin da. 2018an, laugarren edizioa egingo da.

10.3.4. ILDO ESTRATEGIKOA: GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIZUNKIDEA

10.3.4.1. JARDUKETA: GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIZUNKIDEN PROGRAMA EGITEA.

Egoera: Hasteke

10.3.4.2. JARDUKETA: ENPRESA ETA SINDIKATUEKIKO LANKIDETZA, ERANTZUKIDETASUN ARLOAN.

Egoera: Hasteke

10.4. XEDEA: GARAPENERAKO LANKIDETZA POLITIKAK BERRESKURATZEA.

10.4.1. ILDO ESTRATEGIKOA: 2030 AGENDA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA.

10.4.1.1. JARDUKETA: ALDUNDIAREN ELKARTASUN ETA LANKIDETZA POLITIKARAKO ESPARRUA LANTZEA.

Egoera: Amaitua

Deskribapena: 2016ko urrian, ALHko GGKE direlakoekin batera egindako prozesu parte hartzaile baten ondotik, Foru Gobernuaren Kontseiluaren erabakiz, "Eskutik – Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Garapenerako Politiken Esparru Agiria, 2016-2019 aldikoa" onartu zen. Agiri horretan, AFaren jardute lerro nagusiak ageri dira eta handik hona garatzen ari dira.

10.4.1.2. JARDUKETA: 2030 AGENDA ARABAKO ERAKUNDEETAN SARTU DADIN SUSTATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016an, AFAk, Unesco Etxearen laguntzaz, plan estrategikoen eta sektorialen azterketa egin zuen, 2030 Agenda eta Garan Jasangarriko Helburuen inguruan. Lehen azterketa 2017ko irailean egin zen. Horren ondotik, Foru Gobernuaren Kontseiluak AFaren 2030 Agendarekiko atxikimendua onartu zuen eta jendaurreko ekitaldi batean adierazi zuen. Gainera, informazio erakusketa antolatu zuen Gasteizko Udalarekin batera. 2018an, Agendarekiko lerrokatze edo koherentziari dagokionez, AFA bere politika eta programak sakon aztertzen hasi da. Beste alde batetik, AFA lanean ari da aliantza



bat eratzeko ALHko beste erakunde eta eragile batzuekin 2030 Agendaren alde, eta Arabako eragileak agendarekin bat egi dezaten ahalegintzen ari da.

10.4.1.3. JARDUKETA: 2030 AGENDA ARABAKO GIZARTE OSORA HEDATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFaren 2030 Agendarekiko atxikimendu publikoa, atxikimendu horretara beste erakunde batzuk gehitzeko plana eta Arabako aliantza eratzea oso neurri garrantzitsuak dira agenda gizarte osora heda dadin.

10.4.1.4. JARDUKETA: KLIMA ALDAKETAREN GAINEKO ESPARRU HITZARMENA AFaren ELKARTASUN ETA LANKIDETZA POLITIKAN TXERTATZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ESKUTIK esparru agiriak Itunaren akordioak jasotzen ditu, AFAk aintzat har ditzan bere lankidetza politiketan.

10.4.1.5. JARDUKETA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATUZ JARRAITZEA ELKARTASUN ETA LANKIDETZA POLITIKAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk generoaren ikuspegia txertaturik dauka eta bete beharreko eskakizuna da lankidetza proiektuei laguntzeko deialdietan. Dena dela, ikuspegia GGKEei txertatzen laguntzeko, ebaluazioa egin eta GGKEekin partekatu zituen emaitzak.

10.4.2. ILDO ESTRATEGIKOA: ELKARTASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN POLITIKA ZEHARLERRO BIHURTZEA AFA OSOAN.

10.4.2.1. JARDUKETA: GIZA ESKUBIDEEN, LANKIDETZAREN ETA ELKARTASUNAREN IKUSPEGIA TXERTATZEA AFaren POLITIKA PUBLIKOETAN.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: AFAko beste sail batzuekin harremanetan hasi gara eta proiektu txikiak partekatzen hasi gara giza eskubideen eta lankidetzaren ikuspegia txertatzeko sail horien politiketan (SEFekiko lankidetzaren, GGKEen Koordinakundearentzako laguntza, Enplegu Sailak diruz lagundutako prestakuntza ikastaroak eskainita; Nekazaritza Sailaren laguntza, AFAk Brasilen finantzaturako lankidetzaren proiektu baten bidez; giza eskubideen ikuspegiaren txertaketa Zineleku ekimenaren 2018ko edizioan), Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena dela eta).

10.4.2.2. JARDUKETA: 5/2015 FORU ARAUAREN APLIKAZIOARI BULTZADA EMATEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: Justizia auzitegiek 5/2015 Foru Araua indargabetu zuten; hala eta guztiz ere, kontratazioan gizarte klausulak txertatzen jarraitzen dugu.

10.4.2.3. JARDUKETA: SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA ELKARTASUN ETA LANKIDETZA POLITIKETAN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ESKUTIK esparru agiriak jasotzen duen eran, politiken koherentzia eta AFAko beste sail batzuekiko koordinazioa lankidetzaren arloko jarduketa garbia dugu. Urratsak egin dira lankidetzaren horri eusteko beste arlo batzuekin, hala nola Berdintasun, Nekazaritza, Enplegu eta Kulturarekin.

10.4.3. ILDO ESTRATEGIKOA: BULTZADA HEZKUNTZARI, ELKARTASUNARI ETA SENTSIBILIZAZIOARI ALHko GIZARTEA ERALDATZEKO.

10.4.3.1. JARDUKETA: ALHko GGKEek SUSTATURIKO SENTSIBILIZAZIOARAKO DIRULAGUNTZAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk sentsibilizazio proiektuentzako dirulaguntzen deialdien funtsak handitu ditu eta, orain, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza deitzen dira, AFAk (H)Abian Euskal Estrategiarekin bat egin ondoren. Gainerako tresnak bezala, deialdi hori GGKEekin batera berrikusten ari gara, (H)Abian Estrategiaren helburuak hobeto betetzeko asmoz.



10.4.3.2. JARDUKETA: LANKIDETZA TOKIKO ERAKUNDEEKIN, HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ESKUTIK esparru agiriak jasotzen duen eran, AFAk beste eragile batzuk sartu nahi ditu lankidetzan, besteak beste, tokiko erakundeak (batez ere, udalak eta Kuadrillak). 2018an, lankidetzak politikak lurralde osora hedatzeko xedez, "Eskutik Mundura" izeneko ekimena jarriko da abian. Hala, esperientzia pilotu bat garatuko da garapen proiektu bati batera ekiteko udalerri batean, hain zuzen ere, Amurrión, hainbat eragileren eskutik eta interesak nahiz kezak bildurik tokiko eremuan.

Beste alde batetik, AFAk 2030 Agendarekiko atxikimendua hedatu nahi du udalen eskutik.

10.4.3.3. JARDUKETA: AFAK BERA EGINDAKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK BESTE ENTITATE BATZUEKIN ELKARLANEAN SUSTATUTAKOAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2018an, erakundeen arteko kanpaina bat sustatu da beste euskal erakunde handiekin batera (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, Gasteizko Udala, Bilboko Udala, Donostiako Udala eta Eudel), Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. Urteurrena balioan jartzeko.

Era berean, 2018-2019an, elkarlaneko kanpaina bat egingo dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta foru aldundiek, garapenerako lankidetzak balioan jartzeko.

10.4.3.4. JARDUKETA: ZUZENEKO LAGUNTZA ELKARTEEI, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN PROIEKTUAK GARATZEKO.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk lurralde historikoko elkarteak laguntzen ditu, besteak beste, Afanis, RASDen Lagunen Elkartea, Chernobil - Sagrada Familia Elkartea eta GGKEen Koordinakundea. Beste alde batetik, hasierako fasean, AFAk zuzenean lagunduko du "Eskutik Mundura" ekimenaren ondorioz ateratzen den proiektua.

10.4.4. ILDO ESTRATEGIKOA: GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK ETA KRISI HUMANITARIOEI NAHIZ LARRIALDIEI ERANTZUTEKO PROIEKTUAK BABESTEAK.

10.4.4.1. JARDUKETA: DIRULAGUNTZAK ELKARTASUN ETA GARAPEN PROIEKTUENTZAT.

Egoera: Gauzatzen



Deskribapena: 2016ko abenduan, GGKEekin batera landutako "Eskutik Mundura" ekimenaren barruan, GGKEekin batera adostu zen lankidetzarako proiektuen urteko deialdia urte anitzeko deialdi bihurtzea. Hala, 2017an, deialdia urte anitzekoa izan zen (2017, 2018, 2019) eta, horri esker, GGKEek proiektu iraunkorrakoak, hedadura handiagokoak eta eraldatzaileagoak aurkez ditzakete.

10.4.4.2. JARDUKETA: ZUZENKO LANKIDETZA BULTZATZEKO LANKIDETZA HITZARMENAK.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk zuzenean laguntzen die lankidetzako proiektuei, lekuan bertan ari diren antolakundeekiko hitzarmenak eginez. AFAk 2018an ere lagunduko die horrelako antolakundeei.

10.4.5. ILDO ESTRATEGIKOA: AFAREN PRESENTZIA BULTZATZEA ELKARRIZKETA ETA KOORDINAZIO ESPARRUETAN.

10.4.5.1. JARDUKETA: AFAREN PARTE HARTZEA EUSKAL FUNTSEAN. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk parte hartze handiagoa hartu du Euskal Funtsean, batetik, zuzendaritzako kide gisa 2015eko udazkenetik eta, bestetik, ematen dituen funtsak areagotuta. Gainera, AFAREN iritziz, Euskal Funtse eragile laguntzaile estrategikoa da lankidetzako politikak lurraldera hedatzerakoan eta lankidetzara beste udal batzuk batzerakoan. Horregatik, Euskal Funtse "Eskutik Mundura" ekimenean parte hartzen ari da, hausnarketa taldearen barruan.

10.4.5.2. JARDUKETA: AFAREN PARTE HARTZEA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILUAN ETA ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEAN. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk gogoz parte hartzen du erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko foroetan eta halakoetan sortzen diren baterako proiektuak sustatzen ditu, hala nola Lankidetzako Publikoaren Ataria edo euskal erakundeek Erdialdeko Amerikan bultzatzen ari diren lankidetzako proiektua, ur eta saneamenduaren ingurukoa.

10.4.5.3. JARDUKETA: KOMUNIKATZEKO BIDE EGONKORRA SORTZEA ALHKO GGKEEKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: ESKUTIK esparru agiria onartu ondotik, 2016ko azaroan, "Eskutik Mundura 2017-2019" izeneko elkarrizketa eta partaidetza gunea jarri zen abian. GGKEek gune horretan parte hartzen dute. Elkarrizketa, trukea, gogoeta eta gardentasuna sustatzeko gunea da. AFaren eta GGKEen berezko topagune horren osagarri, bada gogoetarako beste bat (bertan, Gasteizko Udalak, Euskal Funtsak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak parte hartzen dute) eta eztabaida eta gogoeta lantzeko beste bat (azken horretan, GGKEek ere parte hartzen dute).

10.4.5.4. JARDUKETA: LANKIDETZA GASTEIZKO UDALAREKIN ETA ALHko TOKI ERAKUNDEEKIN. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFaren eta ALHko beste erakunde batzuen arteko lankidetzaren aurreko ataletan esandako topaguneetan gauzatzen da (Eskutik Mundura eta Eskualdetik Mundura). Gainera, koordinazioa landuko da 2030 Agenda ALHn garatzeko.

10.4.6. ILDO ESTRATEGIKOA: POLITIKAK ETA PROGRAMAK EBALUATZEKO PROZESUAK SUSTATZEA.

10.4.6.1. JARDUKETA: ELKARTASUN ETA LANKIDETZA PROGRAMAK ETA POLITIKAK EBALUATZEKO TRESNAK ABIAN JARTZEA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2016an, genero ikuspegiaren txertaketari buruzko ebaluazioa egin zen GGKEek AFaren deialdietan aurkezten dituzten proiektuetan.

2017an, AFAk "Eskutik Mundura" partaidetza gunearen ebaluazioa egin zuen.



10.5. XEDEA: KULTURARTEKOTASUNA.

10.5.1. ILDO ESTRATEGIKOA: TOPAGUNEAK SUSTATZEA KULTURA ETA JATORRI DESBERDINETAKO PERTSONEN ARTEAN.

10.5.1.1. JARDUKETA: HAUSNARKETA ETA ELKARRIZKETA GUNEAK AKTIBATU ETA HORIETAN LAGUN EGITEA ETORKINEI LAGUNTZEKO ELKARTEKIN ETA HIRUGARREN SEKTOREKOEKIN.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: 2017ko ekainean, AFAk Kulturartekotasunaren Foru Kontseilua deitu zuen immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan lan egiten duten lurraldeko elkarte eta erakundeek kezke jakiteko xedez. Bilera horretan, Kontseiluaren eginkizunei eta erabilgarritasunari buruzko gogoeta egin zen. AFaren iritziz, Kontseilua beste era batean proposatu eta berriro definitu behar da, eta hori egingo du 2018an, ALHko immigrazioari buruzko diagnostiko baten lanketari loturik. Diagnostikoa 2018an eta 2019an egingo da eta kulturartekotasunari buruzko planaren ataria izango da.

10.5.2. ILDO ESTRATEGIKOA: SENTSIBILIZAZIOA BULTZATZEA XENOFOTIAKONTRA ETA KULTUREN ARTEKO ELKARBIZITZAREN ALDE.

10.5.2.1. JARDUKETA: BULTZADA EMATEA AFaren BERAREN SENTSIBILIZAZIO ESTRATEGIARI, ARRAZA AURREIRITZIEN ETA ESTEREOTIPOEN KONTRA. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk 2016ko maiatzean bat egin zuen Euskadiko Zurrumurruek aurkako sarearekin. Handik aurrera, zurrumurruek aurkako estrategia hasi zuen Araban, CEAR-Araba antolakundearen eskutik. Estrategia hori 2016 eta 2017an gauzatu da eta 2018an ere gauzatuko da. Ondoko udalerrietan garatuko da: Laudio, Amurrio, Artziniega, Arraia-Maeztu, Kanpezu, Agurain, Zaldondo, Asparrena, Alegria-Dulantzi, Bastida eta Oion.

10.5.3. ILDO ESTRATEGIKOA: PARTE HARTZE AKTIBOA ERAKUNDEEN ARTEKO FOROETAN.



10.5.3.1. JARDUKETA: ALDUNDIAREN PARTE HARTZEA BERRESKURATU ETA HOBETZEA ELKARTRUKE ETA KOORDINAZIO EGITURETAN. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.

Egoera: Gauzatzen

Deskribapena: AFAk Euskadiko zurrumurruen aurkako sarean parte hartzen du, beste erakunde eta gizarte erakunde batzuekin batera. Eusko Jaurlaritza buru duen Immigrazio foroan ere parte hartzen du eta, era berean, Eusko Jaurlaritza buru duen erakundeen arteko koordinazio eta gizarte mahaian parte hartzen du, iheslarien krisiari erantzuteko xedez.